JENDE
DESEGOKIA
GAIZKA ZABARTE

GAIZKA ZABARTE

# Jende desegokia

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2015 Gaizka Zabarte
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2015eko apirila
Edizio hau: 2015eko apirila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

*Odile Moresi*

# Gonbita

Desegokituen Elkarteak gonbita egin zion Peter Zuazori «DESegokitu» izeneko jardunaldietan parte hartzeko. Jakinarazi ziotenez jardunaldi pluridiziplinarrak izango ziren, zeinetan ikuspuntu orotatik landuko baitzen izenak iradokitzen zuen gaia. Emailez iritsi zitzaion gonbita. Gonbit arraroa.

Goizero gosaldu ostean irekitzen zuen posta. Ia beti gosaldu ondoren ze, baziren egunak goizak bereak emanda altxatzen zena ohetik. Beste batzuetan, ordea, goiza hastear zela jaikitzen zen. Ez zegoen jakiterik: izan zitekeen berandu oheratu eta ordu gutxiren buruan erabat esna egotea eta altxatzea. Eta izan zitekeen goiz oheratu eta eguerdira arte lo seko egotea edo erdi esna, inolaz ere ez behintzat ohea uzteko moduan. Alkohol ingestak ez zuen zerikusirik bere loaren luze-laburrean (gera bedi esanda), faktore ezezagunen menpe baitzegoen. Zientzia medikuak frogatua.

Goiz esnatu zen egun hartan. Zazpiak ziren ezker oina alfonbran pausatu zuenean. Ohean jesarrita egon

zen unetxo batez, kokotsa bularrean, sabela belaunetarantz aspaldi abiatutako bidean nola tematzen zen begira. Etxea egurasteko leihoak zabaldu ostean, irratia piztu zuen eta komunean sartu zen aski automatizatutako urratsei jarraituz. Sasoi batean albiste bat baino gutxiago irauten zuen txizaldiak, orain bizpahiru berri entzuten zituen parrastada egin bitartean. Gosaria ere mantso. Ordenagailua piztu eta dutxan sartu zen. Behin dutxatik irtenda, beti antzeko pausoak jarraitu arren, jada ez zen automata bat. Bizarra egin gabe jesarri zen ordenagailuaren aurrean. Mezu bakarra zuen postontzian, honela zioena:

Kaixo, Peter.

Desegokituen Elkartearen izenean, urte amaierarako antolatu ditugun «DESegokitu» jardunaldietan hizlari moduan parte har dezazun gonbita egiteko ohorea egokitu zait. Ohorea eta plazera.

Hizlari bakoitzari honako hau eskatzen diogu: desegokitasuna era pluridiziplinarrean jorratzea eta uztailaren amaierarako aurrerapen bat bidaltzea Elkarte honetara. Hizlarien aurrerapenak ikusi ondoren, mahai-inguru bakoitzeko partai-

deak finkatuko ditugu. Gure xedea hitzalditik solasera igarotzea da, eztabaidaraino ahal bada.

Zure parte hartzea biziki estimatuko genuke.

Laster arte,

Desegokituen Elkarteko Lehendakaria

Gonbidapen bat jasotzea, gehienetan, poztekoa da eta poztu egin zen gure gizona. Gonbidapena hitzaldi bat emateko bada, gehienetan poztekoa da, norbaitek zerbait esateko duzula uste duenaren seinale delako. Gonbidatu zaituztenak ez ezagutzeak edo, bederen, hasiera batean ez jakitea nor izan daitekeen, badu kitzikagarritik, zergatik gonbidatu zaituzten ez jakiteak duen bezala. Elkarteko lehendakariaren mezuan diziplinak aipatzen ziren. Iragan ziren haren burmuinetik dozenatik gora, baina ez zuen aurkitu aditua edo sasiaditua izan zitekeen bakar bat. Horrenbestez, agian desegokitutzat zutelako egingo zioten gonbita. Hauek guztiak zerabiltzan buruan Zuazok, Googlen *desegokituen elkartea* idatzi zuenean. Bilatzaileak ez zuen ezer aurkitu.

Ordenagailua utzi eta leiho ondora joan zen, kalera begira jartzeak pentsatzen lagun ziezaiokeelakoan. Kanpotik sartzen zen freskurak ongi egin zion. Itxi

egin zituen leihoak. Jar zaitezke, kristala tarteko, kaleari so eta kaleko mugimenduak, edo mugimendu ezak, kaleak azken batean, uxa ditzake buruan dabilzkizun kontuak oro, hustu dezake burmuina atsedenean kulunkan utziz. Edo, gerta daiteke baita ere, zeure baitan barneratzen laguntzea, burmuinean dabilzkizun kontu horietan murgiltzea, pentsamenduak urkultzea. Zuazok ez zuen bere memorian Desegokituen Elkartearen arrastorik aurkitu. Aurkitu zuena bi edo hiru hilabete lehenagoko gertaera bat izan zen. Tipo haren bisita. Goizeko bederatzietan sinadura eske etorri zitzaion hura. Arraroa.

Ezelako erantzunik eman baino lehen, elkarteaz zerbait jakin nahi zuen: nortzuk ziren edo, beharbada nor zen. Jardunaldietan nortzuek hartuko zuten parte, norekin partekatuko zuen mahaia hizlari jarduteari baietza emanez gero, non egingo ziren jardunaldiak. Mahaira itzuli zen eta, jakin arren zaila izango zuela ezer garbirik ateratzea, *desegokitu* jarri zuen Googlen. Bilatzailearen lau orrialde begiratu ostean, bertan behera utzi zuen bide horretatik ezer argitzeko ahalegina.

Ezin zuen antzeman zergatik aukeratu zuten jardunaldi horietan parte hartzeko. Ondo jakin ez arren

zer den, are gutxiago elkartekoentzat Zuazo izan daiteke desegokitua. Bai, jendartean egokitzeko zailtasunei egiten badie erreferentzia hitzak. Beste kontu bat da Desegokituen Elkarteak horren berri izatea: Zuazo, desegokitutzat, desegokitzat agian, izatea. Ez du bere burua plaza gizontzat. Duela hogeita hamar urte poesia liburu bat plazaratu zuen, ahazteko modukoa bere aburuz, inoiz ez lukeena bere curriculumean jarriko. Berrogeita bat ale saldu ziren eta hedapen mugatu horrek lasaitasuna ematen dio. Hamar urte geroago ipuin liburu bat argitaratu zioten, ohiturari jarraituz ipuinetako baten izenburua zeramana. Ipuin hau *Ttu-Ttuá* aldizkarian argitaratu zen hilabete batzuk lehenago eta, eremu txiki batean baino ez bada, zer esana sortu zuen, baita zalaparta bertan agertzen ziren pertsona batzuen artean ere. Honekin gusturago zegoen, argitara ematerakoan izan zituen helburuetatik bat behintzat osoki bete baitzuen. Kritikak ez zion egur gehiegi eman. Sekula ez zuen bi liburuon harira hitzaldirik eman, esan nahi baita, horien uhinak ez zirela urruti iritsi eta hasi orduko itzali zirela, arroz ale batek itsasoan eragin ditzakeenak nola.

Postaria zen lanbidez Zuazo, gutunak banatzen ematen zuen ia goiz osoa kalez kale, atariz atari. Ho-

rrela izan zen ezusteko batek bere jarduna eten zuen arte. Ezustekoa autobus bat izan zen. Egun ahaztezin hura motoa hartzen zuen lehenengoa zen. Lankide baten gaixoaldi bat zela-eta, nagusiak banaketa eremua zabaldu zion, ondo zabaldu ere, azken muturreko txaletetaraino bidali baitzuen.

– Eremu hori ez dagokit niri –ihardetsi zion nagusiari agindua entzun orduko.

– Gomezek baja hartu du eta norbaitek joan behar du –erantzun zion nagusiak.

– Badaude ni baino gazteagoak.

– Zuk esperientzia handiagoa duzu, gazteenek maiz sartzen dute hanka.

– Gazteagoak ez ezik, lanean ni baino geroago hasitakoak dira gehienak.

– Begira, Zuazo –ekin zion nagusiak nekatzen hasi denaren aurpegia eta doinua jarriz–, ez daukat denbora gehiago galtzeko, har ezazu moto bat eta zoaz.

– Ez naiz sekula motoan ibili.

– Beti dago lehenbiziko aldi bat.

Aski frogatua geratu zitzaion Zuazori aurretik uste sendoa zena, alegia, nagusia putakume galanta zela eta begitan hartuta zuela.

Garajean, hala deitu badaiteke bulego ondoan zegoen trastez, sailkaezinak asko, betetako biltegi moduko hari, hiru moto zeuden, bat ere ez, itxurari erreparatuz gero, konfiantza emateko modukoa. Bat besteak baino arinagoa zen, Vespino bat, eta horixe aukeratu zuen Zuazok, bizikletatik hurbilago begitandu zitzaiolako. Azken batean, mutikotan ikasia zuen bizikletan ibiltzen. Beste kontu bat zen zer gogoratuko zuen hartatik hamarkada batzuk igaro ostean. Gerora, beranduegi, jakingo zuen erabaki okerra izan zela Vespinoa aukeratzea. Sartu zuen, nola edo hala, gutunen zakua motoak jesarlekuaren atzean zeukan kutxan. Behin motoan jesarrita baieztatu zuen norbere kokalekua aldatuz gero sentsazioak ere alda daitezkeela, hala orekari dagozkionak nola atearen tamainarekikoak. Oinak lurrean erabaki zuen biltegitik irtetea, motorra eskulekuetatik ondo bermatuta zeramala. Kalean erraza iruditu zitzaion hanka artean zeraman makina gobernatzea, lehenengo berrehun metrotan bederen. Horren ostekorik ez du gogoratzen.

– Non nago? –galdera inozoa ze, begiak ireki bezain laster eta ahoa zabaldu baino lehen, konturatu zen ospitalean zegoela.

– Ospitalean –erantzun zion ahots ezezagun batek.

– Zer gertatu da? –galdera ez hain inozoa ze horretaz bai ez zuela arrastorik ere Zuazok.

– Autobus batek aurrean eraman zintuen atzo goizean –argitu zion ahots erizaina izan behar zuenak.

– Putakumea! –hitzok ebaki orduko konturatu zen bere solaskideak autobus gidariaz ari zela pentsatuko zuela, autobusaz beraz agian, baina Zuazok bulegoko nagusia zeukan gogoan. Balizko gaizki ulertua konpondu nahian, jarraitu zuen–: Ez diot autobusarengatik.

Medikua zirudien emakumezko bat sartu zen gelan.

– Oraintxe esnatu da –esan zion ahots ezezagunak.

– Zer moduz, jauna? –galdetu zion sendagileak.

– Eduki ditut egun hobeak –filmetako esaldia erabili zuen Zuazok.

– Horretaz ez dut zalantzarik. Zer gogoratzen duzu?

– Motorrean irten nintzela posta banatzera, hori da gogoratzen dudan azkena.

– Hortik aurrerakoa azalduko dizut.

– Eskertuko nizuke.

– Lehenbizi zure egoeraren berri eman behar dizut. Buruan kolpe handi samarra hartu zenuen behea jota atzo goizean, eskubiko lobulu parietalean eragin duena. Ikusiko dugu zenbateraino, baina litekeena da ezkerreko besoan eta zangoan arazoak izatea. Horrez gain, eskubiko lepauztaia apurtuta daukazu eta zenbait urradura besoan eta belaunetan. Konorterik gabe ekarri zintuzten, gero sedazioak eduki zaitu orain arte lo.

Begoña Garciak, hala irakurri zuen Zuazok sendagilearen mantalean, egoeraren berri eman ahala, soin-adarrak mugitzen saiatu zen Zuazo eta, Garcia doktorearen hitzekin bat etorriz, kostata mugitu zitzaizkion ezker besoa eta zangoa, baina mugitu egin ziren behintzat.

Arratsaldean bi ertzain joan zitzaizkion. Kontatu zien bezperako bere lan jarduna istripua gertatu arte. Hainbat aldiz errepikatu behar izan zien, hitz batzuk ia-ia silabeatuz, txostenerako jasotzen ari zenaren idazketa abiadurara egokitzeko. Hortik aurrera gertatutakoaren berri eman zion polizia bikotean nagusiarena egiten zuenak.

– Posta bulegotik berrehun eta berrogei metrora hogeita zortzigarren lineako autobusak jo zintuen

atzetik. Zure abiadura orduko hogei kilometrokoa zen eta autobusarena hirurogeita bi. Autobus gidariak positibo eman zuen analisi toxikologikoan.

Zuazok arreta osoz entzun zuen istripu txostenaren errezitazioa. Isilik geratu zen ertzainak amaitu zuenean, isilik eta harrituta, izan ere, bere motor-gidari abilezia aintzakotzat hartuta, ez zukeen aldez aurretik pentsatuko istripuaren beste partaidea izan zitekeenik erruduna. Isiluneak aurrera egiten zuela ikusirik, ertzainek alde egin zuten, nagusiak agur esan ostean, gazteagoa atzean zihoakiola libretan idatzitakoa irakurtzen.

Hogeita hamasei egun egin zituen Zuazok ospitalean. Gurpildun aulki batean atera zuen zaindari batek etxera eramango zuen anbulantziaraino. Bi makulu utzi zizkion Osakidetzak maileguan. Itzuli zituenetik, handik pare bat hilabetera edo, makila bat darabil eskubiko eskuan ezkerreko zangoaren ahuldadea orekatzeko; ezkerreko besoaren, eta eskuaren eta atzamarren, makaltasuna laguntzeko ez dago gailu ortopedikorik.

Elbarritasun agiria eman ziotenean, non ehuneko hirurogeiko minusbaliotasuna aitortzen zitzaion, posta bulegora itzuli zen lankideak agurtzera. Harrigarria

suerta daitekeen arren bisita hura, berari ez baitzitzaion bakar bat ere bisitan joan ez ospitalera ez etxera, bazuen Zuazok xede argi bat. Guztiek erakutsi zioten elkartasuna eta onena opa izan zioten bizitza berriari aurre egiteko. Denei eskertu zizkien animo hitz haiek, bereziki nagusiari.

– Langile eredugarria izan zara beti, Zuazo. Hemen gaituzu edozertarako, hemen nauzu.

– Eskerrik asko, Barrenetxea, eskerrik asko –erantzun zion nagusiari, bulego osoak entzuteko moduan.

Nagusiak, agurtzerakoan, besarkada beroa eman zion eta une hunkigarri haren gailurrean zeudela, honela esan zion Zuazok, goxo-goxo, ezpainak belarrian jarrita:

– Berandu baino lehen ordainduko didazu, interes eta guzti, putakume ostia horrek. Zaindu une oro bizkarra eta aurretik etorriko zaizu erasoa, zaindu aurrea eta atzetik. Badakit non bizi zaren eta badut zure ondasun guztien berri, familia barne. Zureak egin du.

Besarkada estu eta bero hartatik banatzen ari zirela, eskuak nagusiaren sorbaldetan oraindik eta honen aurpegia zurbilduz zihoala, gehitu zuen:

– Eskerrik asko berriro ere, Barrenetxea. Egongo gara.

Egin beharrekoa ondo egiteak ematen duen satisfazioarekin irten zen bulegotik. Urtero joaten zen osasun ikuskaritzara bere elbarritasuna zertan zen ikustera, alegia, ea hobera egin zuen eta lanera itzultzeko gauza zen ala okerrerako joera zuen. Ikuskaritzak portzentaia jartzen zion Zuazoren minusbaliotasunari, baina, zorionez, ez zuten lanerako gaitzat jo.

Bere jarduera publikoa argitaratu zizkioten bi liburu haietara mugatzen zenez, apalategira hurbildu zen euren bila, haietan Desegokituen Elkarteak egindako gonbitaren arrazoiren bat aurki zezakeelakoan. Besaulkian jesarri zen, bi liburuak altzoan. Poesia liburuaren azala psikodelikoa zen erabat, koloreen nahaspila kraskatzailea, marra mehe eta okerrak, zipriztinak, eztandak; lasaitasuna izan ezik beste edozer transmititzen zuen. *Uzkitik isuritakoak* zioen izenburuak. Aspaldi desagertutako argitaletxe batek, Libertitzenek, publikatu zuen, Zuazoren poema liburua argitaratu eta lasterrera desagertua. Inork ezingo du frogatu liburua argitaratzearen eta argitaletxearen desagerpenaren arteko lotura. Ezta kontrakoa ere. Nahi ez zuen arren, ondo gogoratzen zituen poema haiek, batzuk goitik behera errezitatzeko moduan. Zabaldu

zuen, bada, liburua, ausaz, eta bere olerki negargarrienetako batekin egin zuen topo:

asfalto arrosan natza
eguzkiari euri azidoa dario
pauso motelez dator basurdea
usaintzen dit hankartea lerdea dariola
urrezko letaginak iltzatu dizkit eskrotoan
barre egin dugu biok algaraka espaloian
izan dezazula egun ona esan dit
ezpainetan musu emanez

– Redios! –entzun zuen bere ahotik–. Beharbada honen berri dute Desegokituen Elkarte horretakoek.

Libertitzen argitaletxekoez akordatu zen, bertako alma mater izan zen Juan Ramon Gaztegiz bereziki. Adiskide izan ziren sasoi batean, aspaldiko sasoiak edonola ere, gerora denborak bere lana egin zuen eta bakoitza bere bidetik eraman. Argitaletxea desegin ostean ere bere inguruan ibilitako batzuk elkartzen ziren, bi urterik behin edo, afaltzeko, beti Jon Miranderen heriotzaren urteurrenean, abenduaren 28an, beti Gaztegik deituta. Hamabost urte inguru izango zen azkenekoz elkartu zirenetik, aurrekoetan ez bezala izen

handiko sukaldari baten jatetxean konbokatu zituen editore ohiak. Afalkide kopurua ere jaisten joan zen urtetik urtera eta azkeneko hartan lau lagun baino ez ziren bildu. Kopuruaren beherako joera etengabeak izango zuen zerikusirik bilkura haien agonian, eta agoniak mahaikideen urritzean. Baita biltokiak eta gau hartako giro gozakaitzak berak ere, baina kontua da jatetxe hartan egindakoa izan zela azkena. Ordurako Gaztegi Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailean zebilen lanean. Lan hori zertan zetzan inor gutxi izango zen gauza zehazteko. Lehen bezala, hontaz eta hartaz barre egiteko joera izanagatik, erabat galdua zuen bere buruaz trufa egiteko ahalmena. Are gehiago, gainontzekoekiko sarkasmoa haren egungo egoera justifikatzeko tresna hutsa iruditu zitzaien Zuazori eta Lizasori, ziniko zekena deitu zioten behin solasa liskar bidean abiatuta. Epelde, diskordia hartako laugarrena, ez zen, ohikoa zuen bezala, Gaztegirekin lerrokatu. Ez beste inorekin.

Dei ziezaiokeen, bada, editore ohiari galdetzeko ea desegokituen berririk bazekien, baina, azken enkontru hartakoak gogoratuta, baztertu egin zuen. Gainera, norbait desegokituengandik urrun ibiltzekotan hura Gaztegi zela pentsatu zuen, ez desegokituez

ezer zekielako, egokituetan egokituena iruditzen zitzaiolako baizik.

Birritan pentsatu gabe, beharbada oroimen haietan erabat murgilduta zebilelako, beharbada Gaztegirekin alderatuz bederen desegokitu samar iruditu zitzaiolako, nahiz eta izango ziren pare bat urte ez zuela ikusten, Lizasori deitu zion.

– Ostia! Bizi gaituk, Peter? –entzun zuen telefonoaren beste aldetik.

– Ez. Avernotik deitzen dizut, aspertuta nengoen eta. Zu zer moduz zabiltza?

– Osasunez hobeto nahian eta diruz ezin okerrago.

– Ez nator diru eske, zaude lasai. Ez duzu baina zerbait ahaztu? Osasuna, dirua eta...

– Asmatu duzu, beste hori, erabat ahaztuta, alegia, ondo, horretantxe ondo.

– Aizu, kontutxo batez galdetzeko deitzen dizut. Zuk ba al duzu Desegokituen Elkartearen berri?

– Zer elkarte? –argi zegoen arrotza egiten zitzaiola izen hura.

– Desegokituen Elkartea.

– Lehenengoz entzuten dut. Interesgarria dirudi edonola ere. Proselitismoan ari zara ala?

– Bai zera! Kontua da gonbidapen bat jaso dudala elkarte horretatik eta ez daukat ideiarik ere nortzuk izan daitezkeen. Zuk eman al diozu inori nire helbide elektronikoa?

– Ez. Gonbidapen bat, orduan...

– Bai, jardunaldi batzuetan hitzaldi bat emateko.

– Ez da izango! Gero eta interesgarriagoa iruditzen zait. Nik uste dut honek guztiak merezi duela trago bat hartzea. Gera gaitezke nahi duzunean.

– Ados, baina aurretik egin ezazu ahaleginen bat Desegokituen Elkarteaz zerbait jakiteko. Eskertuko nizuke.

– Neure esku. Deituko dizut.

Lizasorekin izandako elkarrizketak pozik utzi zuen Zuazo, elkarrizketaren adiskidetasun tonuak hain zuzen. Azken batean, ez ziren inoiz adiskide handiak izan, esan nahi baita ez zirela tête á têteko adiskideak izan. Gaztegiren bitartez ezagutu zuten elkar eta, euren artean halako sintonia bat antzeman zitekeen arren, ordura arte ez ziren sekula geratu trago bat hartzeko.

Ordenagailura itzuli eta bere kontuan arakatzen hasi zen, ea jasotako eta bidalitako mezuen artean elkarteari bere helbidea eman ziezaiokeen norbait aur-

kitzen zuen. Baina arazo bat zegoen bide hori jorratzeko: mezu gehienak ezabatu egiten zituela. Kontaktuetan, bestalde, hamahiru baino ez zituen. Gutxi izan arren, ez zen lan erraza nori galdetu erabakitzea, batetik han agertzen zirenak ezin zirelako adiskidetzat hartu eta, bestetik, ez zuelako posta-truke handirik, ezta bestelako harremanik, zerrendakoekin. Zuazok ez zuen adiskiderik. Honetaz jabetzeak larritu egiten zuen sasoi batean, bakardadearen kontzientziak estutu egiten zion barrena. Inoiz antsietateraino eraman zuen. Beste sasoi batean gertatzen zitzaion hori, orain onartua ez ezik hobetsitzat dauka bakardadea. Hala zirudien behintzat orain dela gutxira arte.

Markitos tabernan jarri zion hitzordua Lizasok. Kokapenaz argibideak eman behar izan zizkion, Zuazok ez baitzuen ezagutzen. Nahiko animatua iruditu zitzaion bertara sartu zenean. Lizaso mostradorean aurkitu zuen tabernariarekin solasean. Besarkada batez eman zion ongi etorria.

– Honako hau Peter Zuazo da. Taberna-zulo honetako nagusia: Agustin Abaroa –egin zituen aurkezpenak Lizasok.

– Urte askotarako. Irakurri nuen zure ipuin liburua, gustura –konplitu zuen tabernariak.

– Eskerrik asko. Atsegina dirudi zure tabernak.

– Utz ezazue koipea. Atera itzazu gintonic bi –moztu zuen Lizasok eta, Zuazori zuzenduz, jarraitu zuen–: Dei batzuk egin ditut, baina ez dut ezer atera ditxosozko elkarte horri buruz. Hemen, agian, jakin dezakegu zerbait, hona etortzen den jendilajea ez delako, ez, oso egokia.

Abaroak, baina, ez zekien ezer elkarteaz. Hala eta guztiz ere, lagundu nahi zuelako edo, besterik gabe, afera kitzikagarria begitandu zitzaiolako, bere lagun bat aipatu zien, Aitor Kondia delako bat, sarritan etortzen zitzaiona tabernara eta horrelako kontuez, «horrelako kontuez» misterio aire batez ahoskatu zuen, zerbait jakin zezakeena. Azalpen hauek amaitu orduko telefonoz deitu zion Kondiari eta honek baieztatu zion iluntzean agertuko zela tabernan.

– Eta noiz da, bada, iluntzea? –galdetu zion Lizasok tabernariari.

– Ordubete barru –erantzun zion Abaroak erlojuari begiratu ostean–. Afari-meriendatxo bat presta dezakegu. Jakingo duzue patata tortilla bat egiten, ezta? Sukaldean daukazue behar duzuen guztia.

Bakoitza bere gintonica eskuan, sukaldera sartu ziren Zuazo eta Lizaso. Patatak zuritzen hastearekin

batera tabernaria joan zitzaien beste gintonic banarekin. Lehenengo patata zuritzen ari zela ebaki bat egin zuen ezkerreko atzamar lodian Lizasok. Gintonicari egotzi zion istripua, baina, ikusita nola zerabilen aiztoa eta nola eusten zuen patata, Zuazoren ustez gehiago zen esperientzia ezaren ondorio. Bistakoa zen beste batek prestatutako otorduak egiten zituela. Sendatze lanak amaitu zituenerako patata eta tipula txatalak zartaginean ziren oliotan eta arrautzak irabiatuta zituen Zuazok.

Dena prest zeukatela, bigarren gintonica amaituta, Abaroa sartu zen sukaldean eta atzean gizonezko garai bat, alkandora estu bat soinean eta patillak ia kokotseraino. Aurkezpenak egin zituen tabernariak.

– Irakurri nuen zure ipuin liburua –esan zion Kondiak Zuazori bostekoa ematean. Eta Lizasori zuzenduz–: Inoiz ikusi dugu elkar hemen, uste dut.

Zuazo poztu egin zen Abaroak esan zionean irakurria zuela bere ipuin liburua. Orduan erreparatu ez bazuen ere, bi ezezaguni bere liburu bat irakurri zutela entzuten zien lehenengo aldia zen. Egun berean gainera. Poza handiagoa izan zen Lizasori horrelakorik ez ziolako aitortu. Azken batean Lizaso idazle nahiko ezaguna zen, bazituen bost nobela argitaratuta, beste

hainbeste poesia liburu, narrazio laburren bilduma bat eta, Zuazoren irudikoz, sobera handiustea zen aforismo liburu bat. Bera ez bezala, jardunean zegoen idazlea zen, gaurkotasuna zuena, gaurkotasunean zebilena. Ez zen idazle mediatikoa, baina egunkarietan ere idazten zituen noizean behin kolaborazioren batzuk, literatur gaiekin loturikoak gehienetan.

Kondiarengandik Desegokituen Elkarteaz inolako arrastorik jaso ez izanagatik ere, gau atsegina izan zen Zuazorentzat Markitosenean igarotakoa. Arabar Errioxako ardo gazteak lagundu zion tortillari eta, kafeak hartu ostean, gintonicak itzuli ziren oparo. Larrutu zuten bat baino gehiago, tartean Gaztegi, eraman zuten solasa kontu ustez sakonetara, tartean literatura eta politika, goraipatu zituzten, mozkorraldi arruntetan usu gertatzen den moduan, adiskidetasuna eta askatasuna, Kondia eta Abaroa hurbildu ziren, baina hurbildu baino ez, ika-mika irristakorren batera, gonbidatuekiko begiruneagatik ozta-ozta saihestu zutena, Kondiak behin baino gehiagotan agertu zuen Zuazoren poesia ezagutzeko gogoa eta behin ere ez zuen aipatu Lizasoren idazlanik. Eta, nola ez, zerbait dagoela jakinda zer den jakin gabe izan daitekeenaz jarduteak eman ohi duen kitzikapenaz, hipotesi burutsuak zein

burugabeak egin zituzten Desegokituen Elkartearen gainean. Kondiaren hipotesiaren arabera, psikiatriko baten izan zezakeen abiapuntua elkarteak, han bat egindako lagunez osatua. Oraindik erotasuna jenialtasunarekin lotzen duzu, antipsikiatriaren garaietan geratu zinen, esan zion Abaroak. Honen ustez, esnob kuadrilla bat izango zen, asperdura borrokatzeko, badmintonean jokatu beharrean, topaketa batzuk antolatzen zituena. Autolaguntza talde bat, menturaz, iradoki zuen Lizasok. Bateragarria zena Kondiaren hipotesiarekin, honen jenialtasun aura desegiten zuen arren. Azkenean, hipotesi bat baino gehiago susmo bilakatuta, Peter Zuazok agindu zien jakin bezain pronto emango ziela elkartearen berri. Ez zuen agindutakoa beteko.

Zuazok taxi bat hartu zuen etxera itzultzeko eta eguerdia pasatuta esnatu zen, ajeturik eta pozik, aspaldian ez bezala. Pozarekin nahastuta, dosi txikian bazen ere, desasosegu printza bat zebilkion barrenean. Biziki ondo igaro zuen gaua lagunartean, urteetan egin gabeko ariketa.

Ohetik jaiki orduko, bezperako peskizen antzua gogoan, gonbitari erantzutea erabaki zuen, Desegoki-

tuen Elkarteko lehendakariari letra batzuk etzatea emailez.

> Lehendakari txit agurgarria.
>
> Ohore bat da niretzat zuzentzen duzun elkarteak antolatu dituen jardunaldietan parte hartzeko gonbita jasotzea, aitortu behar dudan arren ez dudala ezagutzen. Horrenbestez, ezer baino lehen, zu(r)ekin harremanetan jarri nahi nuke, ahal balitz alegiazko mundu honetatik kanpo.
>
> Adeitasunez,
>
> Peter Zuazo

Luze egon zen dutxan. Ur beroa lehenengo, gero eta beroago, erre arte ia-ia, epelerantz soseguz, hotza, hotzena, azalaren azalera osoa gorritu arte. Berrituta irten zen. Gero eta denbora gehiago eskatzen zioten zaharberritze lanak bukatuta, ordenagailua itzaltzeko asmoz hurbildu zen idazmahaira. Desegokituen Elkarteko lehendakariaren erantzuna zuen. Itxura guztien arabera ordenagailuaren aurrean harrapatu zuen Zuazoren mezuak eta berehala erantzun zion. Lakoniko.

Jaun agurgarri hori.

Purgatorioan elkar gaitezke. Afaloste guztietan izaten naiz bertan. Nahi duzunean etorri.

Desegokituen Elkarteko lehendakaria.

P.S. Purgatorioa Mahatserriko hilerriaren aurrean dago.

# Herrenka

Zuazok ezagutzen zuen Mahatserria, noiz edo noiz ibilia zen han, hilerria ere koka zezakeen, ondoan baitzegoen metroko igogailua, baina ez zekien ezer Purgatorioaz. Gogoratzen zuenagatik, bekatu arinak garbitu gabe hildakoen arimek egonalditxo bat egin behar izaten zuten purgatorioan, purgatzen noski, zerura iritsi aurretik.

Afari arin bat egin eta metroa hartu zuen. Bidaian Desegokituen Elkarteko lehendakaria irudikatzen saiatu zen. Geltoki bakoitzeko hiruzpalau irudi osatu zituen, fintasunetik groteskorako bidea eginez, baita alderantzizkoa ere. Nasan igogailua bikote gazte batekin hartu zuen, oso egokitua zirudiena, bai bere osotasunean zein osagai bakoitza. Zuazo ez zen klaustrofobikoa, ezta kaliginefoboa ere, misantropoa bai agian. Beharbada haien solas txatxuak eragin zion atzerakada, hitzak ebakitzeko zituzten manerak agian, kontua da igogailutik irtetea denbora luzea urpean ibili ostean burua azaleratzea bezalakoa iruditu zitzaiola. Arnasa sakon hartzeko behar ikaragarria. Hartu zuen,

bada, arnasa eta hilerriko harresia ikusi zuen. Kalearen beste aldean behar zuen Purgatorioak. Eta halaxe zen. Zegoen tokitik bertatik ikus zezakeen espaloian zeuden lau mahaietan jendea zegoela jesarrita, giroa fresko samarra zen arren. Ordurako ilunduta izanagatik, toldoa zabalik zeukan, kanpoko bezeroak babesteko beharbada. Bai toldoan zein ateburuan «Purgatorioa» irakur zitekeen. Harantz abiatu baino lehen, bere makilan bermatuta, mahaietan zegoen jendeari begiratu zion lehendakaria izan zitekeena antzeman nahian. Urrutiegi zegoen, ordea, jende haren fisonomiak zerbait adieraz ziezaion. Hartu zuen Purgatoriorako bidea eta, hurbildu ahala, argiago egin zitzaion jendearen jitea, baina ez zuen haietako inor hautagaitzat jotzeko beste zantzorik jaso. Txorakeria bat zela pentsatu zuen, txorakeria bat begiratu batean desegokituen lehendakaria antzeman ahal izatea, azken batean edonor izan zitekeen, esate baterako bera izan zitekeen halako elkarteko lehendakari edo, gutxienez, kide. Eta ondo zekien bera oharkabean pasatzen zela jende artean, ez soilik emakumeentzat, zeinentzat aspalditik zen ikusezin, edonorentzat baizik. Mahaien ondora iritsitakoan geldialdi txiki bat egin zuen. Ez zen segituan tabernara sartu, norbaitekin geldituta balego

bezala jokatu zuen, baten-baten bila bailebilen. Ikusirik han inor ez zitzaiola hurbiltzen, inork ez ziola hurbiltzeko keinurik egiten, barrura sartu zen.

Anbar kolorez argiztatuta zegoen, mahai ugari ezkerreko aldean, hormaren ia luzera osoa hartzen zuten lau leiho handiren ondoan, mostradore luzearen paralelo, batzuk borobilak, inguruan ukitu klasikodun zurezko aulkiak bizkar biribilduekin. Aurrera begiratuz gero, ezkerrekoa baino luzeagoa zen laukizuzen bat, hainbat sofa eta besaulki, piano bat. Bluesa jendearen solasa babestuz eta erraztuz. Ez zuen xehetasun gehiagotan erreparatu. Ez zen hara joan bertako diseinuaz eta dekorazioaz txosten bat egiteko.

Mostradorerantz zihoala alde batera eta bestera begiratu zuen Zuazok ea mahairen batetik norbaitek keinuren bat egiten zion. Ez zen hala gertatu. Kafea eskatu zion zerbitzatzen ziharduen gizonari, bere adinkide izan zitekeena. Irriño bat eginez biratu zen tabernaria kafe makinarantz eta, une hartan, bera izan zitekeela desegokituen presidenta pentsatu zuen Zuazok. Nola ez zitzaion aurretik bururatu, esate baterako metroan hipotesiak egiten ari zela, tabernaria bera zatekeela elkarte misteriotsu hartako buru. *Afaloste guztietan izaten naiz bertan,* zioen lehendakaria-

ren mezuak. Nor egoten da gaur egun afaloste guztietan tabernan, taberna berean? Irriño berarekin itzuli zitzaion kafearekin eta, segundo batzuetan, Zuazo begira geratu zitzaion, zerbaiten esperoan. Tabernaria ere berari begira, bezeroak beste zerbait eskatuko ziolakoan edo zer edo zer esatera zihoakiolakoan, bekainak jasoz eta irriñoa eszeptiko bilakatuta mostradoreko beste muturrera joan zen arte. Barregarri geratu izanaren sentsazioarekin joan zen Zuazo libre zegoen mahai batera kikara esku batean eta makila bestean. Kalera ematen zuen aterantz begira jesarri zen.

Paretetan Joseba Eskubiren hainbat margolan zeuden zintzilikatuta, Dardara bildumakoak gehienak. Ate ondoan Purgatorioan bertan egindako edo egiteko ziren hainbat ekitaldiren iragarkiak: tronpetajole baten emanaldia, kontrakantautore batena, mimo batena... Zuazok berretsi baino ezin izan zuen egin bere urteetako isolamendua, ez baitzuen leku haren inongo berririk eta, bistakoa zenez, han bazen mugimendurik. Isolamendu hitza gogor samarra iruditu zitzaion hasiera batean, baina egokiena zen, bakardadea baino egokiagoa, puntu komun ugari dituzten arren, ez baitira gauza bera, izan zaitezkeelako bakartia, bizi zaitezkeelako bakardadean, isolatu gabe; azken ba-

tean, bakartia edo bakarzalea izanda ere ezagut zezakeelako Purgatorioa.

– Gabon, Peter.

Iragarki haiei begira ez zen konturatu emakume bat gerturatu zitzaiola mahaira.

– Gabon. Presidenta, pentsatzen dut.

– Bai. Odile naiz –eskuan zeukan makila mahaian bermatu eta jesarri egin zen.

Zuazok ez zekien makilaz zer pentsatu. Ez zuenez berarengana etortzen ikusi ez zekien herrena arintzeko izango zen edo beste erabileraren bat izan zezakeen. Makila makila zenez bermatzeko balio zuen, jakina, baina bere aberastasun kromatikoa eta diseinua ikusita edozer izan zitekeen. Agian, pentsatu zuen, isolamendua eta jada berea zuen ingurua behatzeko gaitasun eskasa medio, ez zekien emakumeak makilak erabiltzen hasiak zirela apaindura-osagarri bezala.

– Odile... –amaitu gabe utzi zuen Zuazok.

– Odile Mores.

– Peter Zuazo.

– Hori badakit.

– Jakina. Zer hartu nahi duzu?

– Ezer ez. Hor kanpoan egon naiz kafea hartzen.

– Ni sartu naizenean hor zeunden?

– Bai.

Orduan, ikusi nauzu sartzen? galdetzera zihoan. Galga sakatu zuen, ordea, eta isilik geratu zen, txatxua begitandu baitzitzaion galdera. Beste autokontrol ariketa bat egitea ere agindu zion bere buruari Zuazok, izan ere azkeneko hitza ebaki orduko konturatu zen begiak emakumearen begietan iltzatuak zituela, imanak bailiran anbar eta hurraren arteko begi haiek.

– Beraz, Desegokituen Elkartea –ekin zion Zuazok–. Ba, ez nuen elkarte horren berri.

– Inork gutxik ezagutzen du. Bazkideetatik kanpo inork ere ez, beharbada.

– Eta orain klandestinitatetik irtetea erabaki duzue.

– Horrela ere esan daiteke.

Zuazok bereak eta bi egin behar zituen begiek presidentaren begietatik aldentzeko. Baina, nora zuzendu? Ezpainak. Ederrak zituen, gauari zegokion gorriz margotuak. Hala ere, ez da zentzuzkoa ezpainei begira *geratzea*, begiradaren hartzaileak, kasurik onenean, pentsa dezakeena da margoa lekuz kanpo joan zaiola edo hostopil, zerbait esateagatik, zatiren bat geratu zaiola itsatsita. Hortik kanpo, begira dagoenaren osasun mentalarekiko zalantzei ematen zaie

bidea. Bularraldeari ere begiratu ahal zaio, baina honek ere ez du hartzailearengan sentsazio onik eragingo solaskidearekiko.

– Eskertzen dizut gonbidapena –esan zion Zuazok–. Dena den jardunaldiek eta zuen estatutuek onartzen badute, elkarteari buruz zerbait jakin nahiko nuke.

– Begira, Peter. Peter deituko dizut, ezta?

– Jakina –pitin bat harrituta Zuazo.

– Ba, begira, Peter. Desegokiaz eta desegokituaz hausnarketa kolektibo bat egitea da gure asmoa.

– Ongi –esan zuen Zuazok ezer ulertu gabe. Baina zer edo zer ulertu nahian, jarraitu zuen–: Baina, zer demontre da desegokitua? Eta desegokia? –abiadura hartuta–. Zer da zuen elkartea?

Odile Moresek ezpain artetik bafadatxo bat igorriz hasperen luze bat egin zuen. Aire epela sentitu zuen Zuazok bere ahoan eta aire hori irensteko gogoa.

– Goazen kanpora zigarro bat erretzera –proposatu zion Odile Moresek.

Biak batera jaiki ziren, biek batera hartu zuten bakoitzak bere makila. Zuazok bidea eman nahi izan zion bere aurretik joan zedin, baina Odile Moresek aurrera egiteko agindu zion makilarekin. Edonola ere,

berehala jakin zuen Zuazok herrenka zebilela emakumea, berea baino maingutasun leunagoa, berea baldarretik bezain hurbil zegoen Odile Moresen aldaka kulunkatze hura dantzatik. Hitz batean: dotoreagoa. Dotorea edonoren begietara, dotorea eta zerbait gehiago kulunkatzea betertzez behatzen zuen Zuazorentzat. Espaloian paratutako mahaietako batean jesarri ziren.

Zigarreta-kutxatila bat atera zuen emakumeak eta Zuazori jarri zion aurrean. Zigarro meheak ziren, tabakorrian bilduak, ez paperean. Bat hartu zuen. Odile Moresek ere hartu zuen berea eta bolizkoa zirudien ahoko batean sartu zuen astiro-astiro. Audrey Hepburn etorri zitzaion burura Zuazori. Egia esan behar bada, Odile Moresek ez zuen Hepburnen antz handirik. Ilea labur zeraman, beltz bai, baina labur oso. Kolorea ere halakoa izango zuen gaztetan, halatsu, baina gaur egungoa tindatua behar zuen, ez hori begiz antzeman zitekeelako, adinagatik ondorioztatu zitekeelako baizik. Ez zen hura bezain argala, ezta beharrik ere Zuazoren gustuei jaramon eginez gero. Haragia egoki banatua zuen bere azalera osoan. Beltzez jantzita zegoen eta, hori bai, beltza jakin egin behar da eramaten. Bazekien. Soineko beltza eta jaka ere

bai, hau zertxobait argiagoa, leunagoa. Zuazok ere ez zuen George Pepparden antzik.

– Desegoki eta desegokitu kontzeptuei buruz luze mintza daiteke –hasi zen Odile Mores–. Horrexegatik jardunaldiak. Guk ez daukagu ez bata ez bestea definituta. Horrenbestez, elkartean batzen garenok ez dugu kanon bera betetzen, ezta kanon bat ere beharbada...

– Ongi. Baina esadazu zer den zuretzat desegokia edo desegokitua, galdu samar nabil-eta.

– Galdu samar orduan... desegokituta? –irri malizios bat ezpainetan–. Istoriotxo bat kontatuko dizut, elkarrizketa bat, elkarrizketa baten pasarte bat. Ziurrenik izango duzu haren berri. Beno, kontua da Holly eta Paul honen apartamentuan daudela eta esaten dio neskak apartamentuari buruz: «Nola jasan dezakezu hau? Izugarrikerien ganbera bat dirudi». «Edozertara ohitzen zara», erantzuten dio Paulek, bere buruarekin pittin bat haserre, ze harro zegoen bere apartamentuaz. «Ni ez. Ez naiz sekula ezertara ohituko. Ohitzen diren guztiak hilda daudela dirudi », ihardetsi zion Hollyk.

Zuazok ahaztuta zeukan arren, Odile Moresen kontakizuna entzuten hasi orduko, Holly entzun zue-

nean batez ere, Paul izenak ez baitzion ezer esaten, kokatu zuen bere burua. Elkarrizketa ere ez zuen gogoratzen, bai, ordea, *Gosaria Tiffany´sen* nobela. Eta filma. Urruti ziren enkontru haren hasierako autokontrol ariketak. Minutu batzuk lehenago, Odile Mores zigarroa bolizkoa zatekeen ahokoan sartzen ikusi zuenean, irudi hark *Gosaria Tiffany´sen* filmeko Audrey Hepburn ekarri ziola burura eta handik lasterrera, trantsiziorik gabe, Odile Mores istorio hartako elkarrizketa bat kontatzen ari zitzaiola konturatzean, Zuazoren burmuinean zerbait berria gertatu zen, partikulen arteko talka mota ezezagun bat.

– Nik, Peter, ez daukat katurik.

– Zu ere ez zara sekula ezertara ohituko?

– Ezin jakin zer gertatuko den, baina bizitzaren erdia dagoeneko igarota, gisa horretan joan da. Eta zu?

– Ez dakit –egia zen: ez zekien–. Zaila egiten zait pentsatzea ez naizela ezertara ohitu, nahiz eta ez dakidan zertara ohitu naizen. Esate baterako, makila honekin ibiltzera ohitu naiz...

– Mesedez, Zuazo. Hori lentillak eramatera ohitu zarela esatea beste da.

– Zu ohitu al zara?

– Zertara?

– Makilarekin ibiltzera.

– Ez.

Zuazok Odile Moresen makilari begiratu zion. Makila eta zigarroei jartzeko ahoko hura pertsona berberak erabili behar zituela begitandu zitzaion. Bietan zen morea, more leun bat, nagusi, printza berdeei eta beltzei gailentzen zitzaiena. Ikusita zelan zebilen, metro eskas batzuk baino izan ez ziren arren bere atzean egindakoak aldakak kulunkatzen, ez zion sinetsi ez zela makila erabiltzera ohitu.

– Zer dela-eta bururatu zaizue ni jardunaldi horietara gonbidatzea?

– Kide baten proposamena izan zen –erantzun zion, lakoniko, Odile Moresek.

– Hori jakintzat eman dut galdera egin aurretik.

– Kide horrek zure bi liburuak atera zituen. Poema bat irakurri zigun lehenengotik eta ipuin bat bestetik. Horiek izan ziren zu postulatzeko erabili zituen arrazoiak. Aho batez onartu genuen.

Une batez galdetzekotan izan zen zein poema eta zein ipuin irakurri zizkien kide horrek. Bere *Uzkitik isuritakoak* aktualitatera itzultzeak, hori inoiz aktualitatean izan zela suposatzea gehiegikeria zela jakinda,

ez zion lasaitasunik ematen. Kritikak gupida gabe astindu zuen bere sasoian: zerrikeria, enfant terrible izateko handinahi patetikoa, hitzak errenkada irregularretan lerrokatzea poesia egitea uste duten horietakoa... Kritika periferikoak, baina kritikak; ez gaur egun izen hori daramaten iruzkinak. Poema haiekin zuen konpondu ezinaren jatorria ez zegoen kritikak emandako egurrean, kritika haiekin, askorekin bederen, bat zetorrelako baizik. Ipuin liburuarekin, *Postariaren mendekua*, harreman hobea zuen. Denborak aurrera egin ahala idatzitakoez iritzia aldatzen joanagatik ere, oraingoz ez zen bere ipuinez lotsatzen. Gustura galdetuko zion Odile Moresi zeintzuk irakurri zituen kide horrek, baita zenbat ahok egin zuten bat bere hautagaitza onartzeko. Alabaina hortik abiatuz gero nabarmena zen galtzeko arriskua. Zuazok, azken batean, topaketen eta elkartearen inguruko informazioa eskuratu nahi zuen. Ez bere buruaz hitz egitea.

– Zergatik ez didazu kontatzen zerbait topaketen inguruan kopa bat hartzen dugun bitartean?

– Ados, Zuazo. Nik porto bat hartuko dut.

– Nik gintonica.

Ia gauerdia zen, elkarri bi musu eman ondoren, bakoitzak bere bidea hartu zuenean. Pentsatzekoa

den moduan, etxetik irten zenean baino dezente gehiago zekien Zuazok «DESegokitu» jardunaldien eta Desegokituen Elkartearen gainean. Hala ere nahastu samar sentitzen zuen barrena. Izan zitekeen jardunaldietan parte hartzeari baietza eman zion uneagatik edo, beharbada, Odile Mores Peter deitzen hasi zitzaiolako eta, bereganatu ezin zituen arrazoiengatik, Zuazo deitzen amaitu zuelako.

Metroan jende gutxi zebilen. Nolanahi ere ez zien jaramonik egin bagoian zihoazen bidaiari bakanei, Odile Moresekin izandako enkontruak arreta osoa bereganatzen baitzuen. Zehazki, baietza eman zuen unea berregiten ari zen bere baitan.

– Nor gehiago gonbidatu duzue, bada? –galdetu zion gintonicaren kopa eskuan.

– Oraindik ez dago itxita kontu hori. Pedro Lemebel, Patxi Aretxabaleta, Elena Orbe, Sophie Clement…

– Nortzuek eman dute baietza? –galdetu zion zuzen Zuazok, gerorako utzita gonbidatu horiek nortzuk ziren galdetzea. Eta *zer* ziren.

– Esan dizut oraindik ez dagoela itxita parte hartzaileena.

Dena dago irekita, pentsatu zuen Zuazok, dena zintzilik. Egoera hark ez zion ziurtasunik ematen, izan

ere, Odile Moresek aipatutako izenak salbu, ez zekien ezer. Eta izen horiek, bada, horixe ziren, izenak. Inork ez zuela, une hartara arte bederen, baietzik eman. Hori ondorioztatu zuen Zuazok. Pentsatzekoa zen berak bezala jaso zutela gonbita, emailez. Baita ere, berak bezala, Desegokituen Elkartekoekin harremanetan jartzen ahaleginduko zirela jardunaldien nondik norakoez jakiteko. Hala ere egon zitekeen bakarren bat besterik gabe baietza emango ziena. Baita emaila zuzen zakarrontzira bota zuenen bat ere. Odile Moresek aipatutako izen gehienek ez zioten deus esaten. Alabaina, horietaz ezer ez galdetzea deliberatu zuen, presidenta andereari egokitzen zitzaiolako azalpenak ematea bera erreguka ibili gabe. Hori uste zuen behintzat. Beraz, isilik jarraitzea erabaki zuen, ironiaraino iritsi gabe ere maliziosa bezainbat galdekatzailea zirudikeen begirada bat osatzen saiatuz.

– Ez dakit ezagutzen dituzun. Pedro Lemebel...

– Badut horren berri –moztu zion Zuazok.

– Elena Orbe psikiatra da. Harresiaren bi aldeetan ibilia –jarraitu zuen Odile Moresek–. Patxi Aretxabaleta, nola esan, mugimenduetan ibilitakoa, pertsona bitxia, gutxi esaten duen arren, asko duena esateko.

Zuazok ez zekien zer pentsa. Gonbidatu zerrendaren soslaien errepasoa puntu hartara iritsi orduko ia erabakia zuen ezetza ematea gonbitari. Hobeto pentsatu behar zuela eta alde egin edo zuzenean ezetz erantzun, estimatzen zuela, baina ez zuela gorputza halako burrundaretarako. Odile Moresek beste zigarro bat sartu zuen ahokoan eta ezpainak busti zituen mihiarekin. Intentziorik gabeko keinua. Intentziorik gabeko keinuek, ordea, intentziodunek baino ondorio sakonagoak izan ditzakete. Zuazo berriro zegoen autokontrol premian, ez baitzekien begiak non pausatu. Odile Mores jabetu zen Zuazoren aldarteaz, jardunaldiekiko zuen deskonbentzimendua antzeman zuen haren keinuetan. Istant ia hautemanezin batez eskua paratu zuen Zuazorenaren gainean, honek mahaia hatz-muturrez jotzen zerabilen esku gainean. Irribarrea ezpainetan, ondoko aulkian zeukan poltsa hartu eta bi liburu atera zituen. Mahaian paratu baino lehen, bere eskua lipar batez ukitu zuen eskuan zeudenak ezagutu zituen Zuazok: *Uzkitik isuritakoak* eta *Postariaren mendekua*.

Odile Moresek poema liburua zabaldu zuen. Nahi zuen orrialdea aurkitu zuenean, Zuazoren begietara bereak zuzendu eta errezitatzen hasi zen.

perineismoa
gailurretara iristeko asmoz
behetik bainoago
azpitik
abiatzen den jarduera
bustia
likitsa
lizuna
lohia

Amaitu zuenean, Zuazok alboratu egin zuen hobeto pentsatu behar zuela erantzutea gonbidapenari. Ezetza emango zion, luzamenduetan galdu gabe. Odile Mores begira zeukan.

– Zuazo –ekin zion doinu eztiz–, etorri zaitez jardunaldietara. Ondo pasatuko dugu.

– Bale.

Metrotik etxerako bidean gogoratu zuen Hollyk Pauli esan ziola, egun pasa irten zirenean New Yorkeko kaleetara, ez zuela sekula egunez paseatu kale haietatik, ibilia zela goizeko seietan Bosgarren Etorbidean, baina hori gauez ibiltzea zela. Urteak ziren bera ez zebilela gauez eta, gauzak nola diren, egun gutxi-

ren buruan birritan ibili zen ordu txikietan hiriko kaleetan. Honek guztiak leundu egin zion Odile Moresi erabakita zuenaren kontrako erantzuna eman izanak eragindako egonezina.

Gau hartan Odile Moresekin egin zuen amets. Eta bere makilarekin. Perineoan zerabilkion makila emakumeak, saiatzen zen Zuazo titiburuak miazkatzen, baina ezpainak lurralde desiratu haietan pausatu orduko, Lemebel izan zitekeenaren bularralde lau eta iletsuan zebilen. Makina bat aldiz esnatu zen gozotik mikatzerako bidaia haietan. Behin esna, edo erdi esna, ahalegintzen zen Odile Mores bakarrik izaten buruan, ametsera berriro itzultzen, ametsa bere nahietara ekartzen. Bazituen une gozoak, baina aurrera egin ahala, esaterako Odile Moresen baitan sartzekotan zebilela, zakila Gaztegi izan zitekeenaren uzkian zerabilela ohartzen zen, makila, Odile Moresena, berean sartu-irten zebilen bitartean. Enegarrenez esnatu zenean, artean eguna argitzen hasi berri, ametsetara ez itzultzea erabaki zuen, horixe baitzuen modu bakarra Odile Mores eta bere artean beste inor sar ez zedin. Orduan bai, bi eskuez, urteen poderioz eskuratutako abileziari esker, irudimena azken tantaraino xurgatuz, denbora plazeraren mende jarriz, hau

ere urte askotako eskarmentuak emandako dohaina, orduan bai, orduan Odile Moresen baitan bailebilen, gozamenaren tontorrera iritsi zen. Astiro.

# Egunak edanean harrapatu gintuen

Egunak edanean harrapatu gintuen, baina ez genuen atzera egin. Julianek, etxea hurbil zuelako-edo, Askaon baikeunden, bazihoala esan zigun. Manera onez iradoki genion ez zela aukera ona. Sasoi hartan lagunen batek etxeratzeko imintzioa egiten bazuen, taldeak kontrako indarra egingo zuen, gaua lantegi sakrifikatua dela eta ezin dela norbanakoaren apetei jarraituz taldea utzi eta erretiratu gogoratuko zitzaion. Halako zerbait aurpegiratuko genion orduan ere Juliani. Manera onez. Amultsuki. Ziurrenik bazekien ez zela etxera joango, amore emango zuela. Ziurrenik ez zuen konbentzimendu handia erakutsi. San Nikolaserantz joan ginen. Elizpean, hormaren kontra oinbeltz errenkada zetzan, zakur ganorabakoren bat, botila hutsak, xiringaren bat ere izango zen, ikusi ez nuen arren edo gogoratzen ez dudan arren. Xopén zihoan aurrean eta elizarantz abiatu zen. Gu atzetik, inolako harridurarik gabe, protestarik gabe, beste taberna ba-

tera joango bagina bezala. Ate ondoan zegoen ketchup pote bat hartu zuen. Horretaz gero jabetu nintzen, hartu zuen unean ni behintzat ez bainintzen konturatu. Sartu zen Xopén elizan eta sartu ginen beste laurok bere atzean. Ni neu ate ondoan geratu nintzen, bizkarra paretan bermatuta. Lagunak inguruan, pixkatxo bat aurrerago, aurreren Xopén. Apaizak bete-betean ziharduen sermoian, horretarako propio ikasita duten intonazioz eta bolumenaz honako hau azpimarratzen eta beste hura nabarmentzen. Hasiera batean, neronek behintzat eta uste dut besteak ere antzera samar ibiliko zirela, ez nuen antzeman ahoa betetzen zion gaia zein izan zitekeen. Langabezia aipatu zuenean hasi nintzen kokatzen. Birmoldaketa, sasoi hartan hitzetik hortzera zebilen hitza, ere ebaki zuen. Langabezia hitza bigarrenez entzun genionean, Xopének ordura arte eskuan zeukan ketchup potea, intsentsuzko aire beatifikoan zehar parabola perfektua marraztuz, apaizarengana abiatu zen, halako moldez, non, zehatz-mehatz, paparrean egin zuen kontaktua jaurtigaiak. Esan gabe doa apaizak eten egin zuela sermoia. Arerioaren arean bere burua lurrera botatzen duen aurrelaria bezala, aldare ondoan erori zen. Kolpeari indarra kentzeko inolako asmorik gabe, ez zen

hainbesterako. Menturaz, martiri sentitu zen apaiza une hartan. Eliztarren artean txilioren bat edo beste, eskuak burura, eskuak ahora. Oldarkorrenak altxatu egin ziren saboteatzailea atzeman nahian. Ni lehenengoa izan nintzen kalera irteten, atzean lagunak nituela, azkena Xopén, eskuak poltsikoetan, *Ez duk, ba, langabeziaz eta birmoldaketaz hasi putakume hori!* oihukatuz, entzun nahi zuenak, eta entzun nahi ez zuen gehiengo zabalak, entzuteko moduan. Xopének hilabeteak zeramatzan lanik gabe industri birmoldaketari esker. Kalea zapaldu orduko eliztar oldarkorrenak elizpean genituen madarikazioka.

Eguerdia zen, zentzurik zabalenean, Kattalinek San Nikolaseko pasadizoa kontatu zuenean. Larunbat eguerdia Martzanako kaian. Mahaiaren bueltan zeuden lagunetako batzuek ezagutzen zuten Kattalinen etorria. Baita gertaerekiko bere fideltasuna ere.

– Jokabide zuzena Xopén horrena –ekin zion Aretxabaletak.

– Desegokia, esango luke batek baino gehiagok –gehitu zuen Romanek.

– Baina zuk zer esango zenuke? –galdetu zion Josebak, mahaikideetan gazteenak.

– Ez dakit. Baina gauza bat esango dizut: nik ez nuke egingo.

– Ez duzu erantzun, Roman –sartu zen tartean Odile Mores.

– Ba, nik uste dut baietz, erantzun dudala. Ez nukeela egingo.

– Aditu dizugu –irribarrez baina zorrotz Odile Mores–. Zer esan nahi duzu? Egingo ez zenukeen guztia desegokia dela zuretzat? Egokitzat jotzen duzun edozer egiteko prest zaudela?

– Mahai honetan apaizari ketchup potea jaurtitzea egokia izan daiteke, nahiz eta litekeena den hori egokitzat jotzen dutenak, agian, ez dauden prest gaur arratsaldean San Nikolaseko elizan gauza bera egiteko –Roman ere zorrotz–. Eta mahai honetan desegokia, ekintza hori desegokitzat jotzea litzateke.

– Mahai hau unibertso txiki bat da eta testuinguru honetan egokia dena desegokia izan daiteke beste batean, gizartean esaterako –hasi zen Aretxabaleta, baina ñabardura bat sartzeko berehala moztu zion Kattalinek:

– Jendartean, Patxi, jendartean.

– Nahi duzun moduan... –egin zuen jarraitzeko ahalegina Aretxabaletak.

Baina oraingoan Josebak moztu zion:

– Soziedadean.

– Laostia! Jendartean, soziedadean, nahi duzuen moduan deitu artaldea. Esan nahi nuena, eta berriro baten batek hitza ez badit kentzen, esango dudana da *giza* talde bakoitzak –une hartan isilunetxo bat egin zuen Aretxabaletak, begiradaz ea norbait moztera ausartzen zen iradokiz– edo *jende* talde bakoitzak bere kodeak dituela, ideologikoak, etikoak... Hemen gaudenok, San Nikolasen biltzen direnak, euskal *soziedadeak* eta abar.

– Barka ezazue soziologiatik aldentzeagatik –ekin zion Josebak Aretxabaletaren hitzen osteko isilunea baliatuz–. Nor da Xopén hori?

– Nor zen, esan beharko genuke –zehaztu zuen Kattalinek–. Desegokitu xarmangarri bat. Aspaldi utzi gintuen, berak hala erabakita. Piano ikasketak hasi zituelako deitzen omen zioten Xopén.

Topa egin zuten Xopénen alde Josebak proposatuta, nahiz eta Kattalin izan ezagutu zuen bakarra. San Nikolaseko ekintza hura, urteetan gehienez ere Kattalin eta, aldez edo moldez, parte hartu zuten lagun haien memoriaren ertzen batean gordea, larunbat hartan Martzanan berpiztu zen eta ondorioak izango

zituen. Ketchup pote haren hegaldiak, (des)egokitasunaz eztabaida mamitsua ekarri zuen, horrexetan amai zitekeena, txakolin batzuk hartzen diren bitartean sortutako eztabaida batean. Baina dexente urrunago joan zen. Aretxabaletaren erruz.

Patxi Aretxabaleta, santutxuar peto-petoa, Zabalbide edo Iturribide jaitsi behar duenean Bilbora doala esaten duten horietakoa. Gaztetan korrikalari bikaina izandakoa, hala pistan nola krosean, beti distantzia luzeetan. Atletismoa utzi zuenetik sekula arineketan egin ez duena, Poliziaren aurreko korrikaldiak salbu.

Larunbat hartan bildu zirenen artean, antolatuena, gazte gaztetatik era askotako elkarteetan ibilia: auzokoan, gazte erakundean, bizitza efimeroa izan zuen alderdi abertzale komunista batean, irrati libreetan, infrarrealismoan lerrokatutako poesia korrontean, besteak beste.

Orain dela urte eta erdira arte saltzaile izan zuen Aretxabaletak ofizio nagusia. Izen ugariren pean, biajante, ordezkari, komertzial, beti zerbait saldu beharrean: elektragailu txikiak, gama zuria, marroia, entziklopediak, aseguruak, botikak. Dagoeneko berari ere kosta egiten zaio produktu eta marken zerrenda gogoratzea.

Azkeneko lana galdu zuenetik ez du besterik aurkitu. Adinak ere ez du laguntzen. Gastuak minimoetara murriztuta, langabeziaren soldata lehenengo eta oinarrizko errenta gero, bizitza ondo antolatzen dakien pertsona batek luzatu lezakeen bezala luzatuta bizi da. Izan ere, larunbat hartan etxetik auzoko ohiko tabernara bidean Kattalin eta Odile Moresekin topo egin zuelako zegoen lagun talde hartan. Odile Mores auzoko irrati librean ezagutu zuen, San Nikolaseko elizan ketchup poteak apaiza jo zuen sasoi haietan. Kattalin bistaz baino ez zuen ezagutzen, inoiz Odile Moresekin ikusi zuelako. Emakumeek egin zioten eurekin Bilbora jaisteko gonbita.

Joseba eta Roman orduantxe ezagutu zituen. Biak ziren, bakoitza bere aldetik, Odile Moresen lagunak eta Joseba, gainera, Kattalinen ikasle ohia. Joseba paisaiaren parte da, halako moldez non zaila berarekin topo ez egitea den. Roman belaunaldikidea eta Odile Moresekin ikasitakoa, inguru haietan topatzea zail samarra azken urteetan, baina larunbat hartan, kasualitatez, han zebilena. Kasualitatez esatea, hala ere, ez da zuzena. Mesedeetako zubian egin zuten topo, emakumeak eta Aretxabaleta ezkerreko ibarrerantz zihoazela eta Roman kontrako norabidean. Dena esatera,

bere ibilerak ere hala adierazten zuen ondo behatuz gero, Roman norabiderik gabe zebilen emakumeek aurkitu zutenean, ezen *aurkitu* Odile Moresek aurkitu zuen, begirada pausoa bezain galdua zuela zubian behera.

– Roman! –metro batera izan zutenean.

– O... Odile! –erantzun zuen Romanek estratosferatik jaitsi berri.

– Zer moduz? –jarraitu zuen Odile Moresek, orduraco jabetuta galderari zintzo erantzutekotan ezin izango zuela *ondo* bat jaso erantzuntzat.

– Ba, hementxe, buelta bat ematen.

Ezin esan gogo biziz onartu zuela Odile Moresek egin zion gonbita eurekin aperitifa hartzera joateko. Bistakoa zen ez zuela gogoa bizi ezertarako. Ulertzekoa da Romanen aldartea, izan ere bezpera-bezperan emazteak utzi egin baitzuen. Hausturaren biharamuna etxean eman zuen gaizki zer egin zuen bere buruari galdezka. Larunbatean ariketa antzu berean jarraitu zuen, baina aldaketa bi gehituz: batetik, bere buruari galdetzen ziona zela zer ez zuen ondo egin, eta erantzunak arrapaladan zetozkion burmuin zigortura; eta, bestetik, kalera irtetea erabaki zuela. Pertsonaren jokabideen arrazoiak, bereziki une latzetan egiten dire-

nak, subkontzientean eta, oro har, kontzientziaren geruza ezkutatuenetan, bilatzen dituztenek jakingo luke-te esaten zergatik joan zen Roman larunbat hartan aspaldi ibili gabeko kale haietara. Utz dezagun, bada, haientzat zeregin hori. Kontua da Mesedeetako zubian ez zela ohartu espaloi berean emakume bi eta gizonezko bat hurbiltzen ari zitzaizkiola, euretako bat ikaskide ez ezik adiskide ere izan zuena gaztetan. Ez dakigu zubian abiatu berri zuten solasak hirukote hari bere egoeraren berri ematera eramango zuen Roman. Honek gonbita onartu orduko, Mesedeetako eliza ohiaren aurrean, emakumeek ezagun batekin elkartu eta tartetxo bat eman zutelako harekin hitz egiten. Joseba Martzana 16ko terrazan jesarrita aurkitu zuten, egunkaria irakurtzen-edo, eguzkitako betaurrekoak jantzita, laranja koloreko armazoidunak. Kattalinen ikasle ohia zen, adiskide izatera iritsi gabe ere, nolabaiteko harremana zeukan ikasle ohi bakarra. Odile Moresek ere ezagun zuen, behin baino gehiagotan, beti Kattalin tarteko, elkarrekin hitz batzuk trukatutakoak ziren. Horrela osatu zen mahaia larunbat eguerdi hartan.

Lagun talde kasuala, beraz. Edonork daki, ordea, enkontru kasualak emankorrak izan daitezkeena. Xo-

péni buruzko argibideak eta bere aldeko topa gauzatuta, egokitasunaren inguruko kontuetara itzuli zen solasa, noizbait aldendu bazen. Esan nahi baita, San Nikolaseko gertaeretatik teoriara egin zuela salto (zer den egokia eta zer desegokia, non, noiz), berriro gertaera zehatzetara itzultzeko eta hauetatik ostera ere teoriara. Aurreko urtean txakolinak lortutako maila bikainak ere izango zuen zerikusirik solasaren harilkatzean. Dialektika hutsa.

– Kazetari irakiar batek Bushi zapata jaurtitzea egokitzat ematen da jende askoren artean, hemen gauden guztion artean ziurrenik –ekin zion une batean Josebak–. Barcinari tartaz aurpegia gozotzea ere, tira! Askoz korapilatsuago da, ordea, apaizari ketchup potea botatzea... –betaurrekoak erantzi zituen lehenengo aldiz solaskideei banan-banan begiratzeko, norbaitek jarrai zezan proposatuz bezala. Romanek, ordurako begitarte errukarria ezabatuta, hartu zion lekukoa:

– Gauza bat esango dizut: sozialki onartuagoak izan arren haien ekintzak, kazetari irakiarra kartzelara eraman zuten eta Barcinari tarta jaurti ziotenentzat urte batzuetarako kartzela zigorra eskatu. Nik dakida-

la estatuak ez zuen ezer egin San Nikolaseko apaizari ketchup potea bota zionaren aurka.

– Gustura lintxatuko zuten eliztar haietako batzuek, baina indar harremanak ez zituzten alde –argitu nahi izan zuen Kattalinek.

– Kontua da –Aretxabaleta ere bere ekarpena egin nahian– ekintza hura gaur performancetzat aurkeztuko litzatekeela artearen eremuan kokatu nahi izanez gero, talde batek har zezakeela bere gain eremu politikora eraman nahi izanez gero...

– Orduan –Josebak pentsakor– ekintza politikoa eta artistikoa izan zen.

– Motibazio politikoa zuen ekintza artistikoa –erantsi zuen Kattalinek.

– Egokitzat jotzen bada, nola zen?... Torpe horren... –hasi zen Roman.

– Xopén, Xopén –lagundu zion Odile Moresek.

– Barka, bokalak gogoratzeko eta kontsonanteak nahasteko joera dut –desenkusatu zen Roman–. Xopénen ekintza egokitzat jotzen bada, beste hainbeste egin behar da Mahomaren karikaturekin? Galdetu egiten dut. Ala ondorioen araberakoa da egokitasuna? Hau ere galdetu egiten dut.

Josebak berriro jantzi zituen laranja koloreko betaurrekoak. Odile Moresek zigarreta bat ahokoan sartzeari ekin zion. Kattalin beste txakolin bana eskatzera sartu zen tabernara, Roman atzean zuela *lagunduko dizut* esanez, errukarri aurpegia aspaldiko kontua bailitzan eta bere atzean Odile Moresen irribarre enigmatikoa zuela. Mostradorean daude Kattalin eta Roman tabernariak, bere mugitzeko erak iradokitzen duenarengatik esperientzia urrikoa, txakolina nola zerbitzatzen duen begira. Romanek emakumearen belarritakoetan jarri du arreta, liliak dirudite, more ahula, erdian harritxo zuria. Romanek ez du sekula arreta handirik jarri belarritakoetan, esate baterako ez zion inoiz belarritakorik oparitu emazteari. Behin edo behin atera zaio *zein belarritako politak dituzun*, baina sentitu gabe, alegia, belarritakoen edertasuna sentitu baino haiek zeramatzan emakumearekiko zerbait lortu nahian, dena delakoa zerbait hori. Belarritako haiek sortutako zirrarak zerbait esatera bultzatzen du, ez *zein belarritako politak dituzun*, gehiago kostatzen zaion zerbait baizik, *hain zara eder* moduko zer edo zer, errazagoa litzatekeen *oso eder zaude gaur* beharbada, edo *zer egiten duzu hain ondo egoteko?* Baina mutu dago eta txakolin kopak prest daude mahaira

eramateko. Roman saiatu da hiru hartzen, beste biak Kattalini utzita, baina maniobra baldar batzuek argi utzi dute haren eskuetan nekez iritsiko direla mahaira. Utzidazu niri adierazten zuen keinu batez Kattalinek hartu ditu hiru kopak eta mahaira itzuli dira. Josebak ziharduen berbetan, berriro betaurrekoak jantzita.

– Denok jokatzen dugula desegokiro batzuetan eta egoki besteetan.

– Non eta noiz eta nola. Horrek egingo ditu pertsona batzuk desegokitu –erantsi zuen Odile Moresek.

– Izan badira beti eta edonon egoki jokatzen dutenak –Aretxabaletak.

– Horiekin kontuz –lakoniko Josebak.

– Badira, baita ere, beti eta edonon desegokituen moduan jokatzen dutenak.

– Bai, Odile, jakina –tonu didaktikoan Aretxabaletak–. Horientzat psikiatria eta justizia.

Romanek irribarrez entzuten zuen, etorkorretik hurbilago zegoen irribarrea, baina harrokeriaranzko bidea har zezakeen une batetik bestera. Ez zeukan zerikusirik Mesedeetako zubian Odile Moresek, Kattalinek eta Aretxabaletak norabiderik gabe aurkitu zuten gizonarekin. Jendearekin egoteak mesede egin bide zion, solasak berak ere bai ziurrenik, batez ere, Xopé-

nen ekintzatik abiatuta eta kazetari irakiarrak Bushi zapata bota zionekotik igarota, nola isilarazi zituen denak Mahomaren karikaturena mahairatu zuenean. Nola likidatu zuen ezkertiar prebisible haien jarioa. Garaipen horrek eta Kattalinen belarritakoek erabat zokoratu zuten azken bi egunetan bere burmuina erabat hartzen zuen kontua, emazteak utzi izana eta horrek eragin zion autoerruki jarduna.

Kattalinen atzean txakolinen bila tabernara sartu zenerako ia baztertuta zeukan emazteak egin ziona, batik bat solaskideen argudio tentelei gailendu zitzaienetik. Hala ere, aitortu behar da Kattalinekin mostradorean egoteak eman ziola akabera emaztearengandik jasotako ofentsak eragiten zion burmuinaren karraskatzeari.

Ostegunean esan zion emazteak beraien artekoa amaituta zegoela, ez zuela inondik ere aurrera egiterik eta bazihoala. Gau osoa eman omen zuen, begiak bildu gabe, nola azaldu pentsatzen. Roman bizarra egiten ari zela hasi zitzaion hitz egiten atzetik.

– Roman gauza bat esan behar dizut.

– Zer dugu, ba?

Romanek bizarra egiten jarraitu zuen. Ez zuen burua ere jiratu. Ispiluan emaztea bilatzen saiatu zen. Ez zuen antzeman ezer berezirik hitz haiei Edurnek eman zien doinuan.

– Gau osoan ez dut begirik bildu.

Hau entzundakoan buelta eman zuen, hitzengatik doinuarengatik baino gehiago, ez baitu inoiz musikarako belarri onik izan.

– Esan behar dizudana nola azaldu pentsatzen egon naizelako ez dut begirik bildu.

Orduan hasi zen Roman emazteak zerabilen doinuari erreparatzen, haren aurpegierak ere lagunduko zion bota behar ziona zerbait larria zela antzematen.

– Gure artekoa amaituta dago, Roman. Ez dago aurrera egiterik. Gaur bertan joango naiz etxetik eta etorriko naiz datorren astean nire gauzen bila.

Isiltasuna. Luzea. Edurnek, kontuan izanda gau osoa eman zuela begirik bildu gabe nola esan pentsatzen, izango zuen zerbait gehitzeko, baina isiltasuna hobetsi zuen, ziurrenik pentsatzen igarotako gau hartan hori ere erabaki zuelako, alegia, lehenengo hitz haien ostean senarraren erreakzioaren zain geratzea. Romanek neke fisiko ikaragarria sentitu zuen, gau osoa lanean eman izan balu bezala. Bitxia da nola

pasa daitekeen gorputza, segundo batzuen buruan, fresko eta sasoiko egotetik birrinduta egotera.

– Amaituta? Nola amaituta? –galdetu zuen halako batean ahotsa korapiloz betetako hari mehea bailitzan.

– Inanizioz. Inanizioz amaituta. Hilabeteak daramatzat, urteak agian, aldez edo moldez esaten, Ramon. Ohikerian bizi gara. Nik ezin dut gehiago.

Hori bai, hori gogoratu zuen. Edurnek sarritan zerabilen *ohikeria* hitza, ondoriotzat batzuetan, kausatzat besteetan. Orduan konturatu zen emazteak esan eta berak aintzakotzat hartu ez edo, hartzekotan, berehala ahazten zituen arrangurak. Konstatazioak izan zitezkeen: *aspertu egiten naiz, aspertuta bizi naiz, bizitza aspergarria daramat*. Transzendentalago jarriz gero*, huts bat dut barnean, hutsala da nire bizitza*. Lehen pertsona singularra erabili ohi zuelako edo, Romanek berak horretan zerikusirik ez balu bezala jokatzen zuen. Lasai zen gehien erabiltzen zuen hitza. Esan gabe doa, horixe zela Edurne gehien amorratzen zuena. Batzuetan saiatzen zen ikusarazten bere bizitzak, emaztearenak alegia, gutxi zuela hutsaletik: profesionalki arrakastatsua, kontsultoria bateko bazkide eta buruetako bat zen, bere lagunak zituen, hilean

behin afaltzeko biltzen zen emakume kuadrilla. Horietako bat adiskide mina gainera. *Mundu guztiak ez du adiskide minik*, erantzun ohi zion, berak kasu. Harrigarria bada ere, Edurneri bizitza ez zuela hutsala frogatzeko halako zerrenda errezitatu ostean, ez zen jabetzen bikotea bera ez zuela osagai ez hutsalen zerrendan sartzen. Desioak, ez benetako guztiak noski eta ez oso modu zehatzean adierazia, izan zitezkeen Edurnek aipatzen zizkionak: *arrunkeriatik aldendu nahi dut, galdutako bizipoza itzuliko didan zerbait aurkitu nahi dut*. Horrelakoetan ere, emaztearen amorraziorako, lasai zen esaten zion lehena. Gero nonbaiterako proposamena egingo zion: antzerkira joatea, Parisera hurrengo zubian eta gisa horretakoak. Sexu jarduna bakantzen joan zen eta, bakantzen ez ezik, ariketa bera zeharo sinplifikatua zuten, hamsterren arteko estalketaren antza hartzeraino iritsia baitzen azken urteetan. Oraindik, noizean behin, Roman ausartzen zen galdetzen *nola?*, behin estalketa bukatuta. *Ondo* erantzungo zion Edurnek aldarte gaiztoarekin ez bazegoen eta Romanek, doinuaz jabetzeko bere ez gaitasuna tarteko, ez zuen deszifratuko erantzunaren benetako esanahia. *Tira* ere izan zitekeen erantzuna edo, zuzen-zuzenean, *egin ezazu lo*. Bi kasu hauetan

bere buruaz arduratuko zen Roman, emaztea, eta orokorrean emakumea, asebetetzeko gauza ez zela pentsatzeak barrenak karraskatuko zizkion. Edonola ere, hausnarketa ez zen bikotearen etorkizunaz kezkatzera iritsiko. Besteak beste, emazteak agindu bezala, loak hartuko zuelako.

Saiatu zen Roman apurtutakoa berregiten, berari zegozkion aldaketak egingo zituela agintzeraino. Ez zuen, ordea, denbora luzerik behar izan Edurneren erabakia irmoa zela konturatzeko. Behingoagatik argi eta garbi ulertu zion.

– Baina, nora joango zara?

– Mirenekin noa.

Edurneren lagun mina zen. Eta horrela amaitu zen banaketa egiaztatu zuen elkarrizketa. Roman ez zen ohartu ere egin Mirenekin joan eta Mirenenera joan ez direla, halabeharrez, gauza bera.

Desegokiaren eta desegokituen inguruko solasak, gertaera zehatzak eta adibideak alboratu gabe, esparru teorikoan jarraitu zuen. Desegokitasuna jarduera sozial gisa edo ekintza politikoan, probokazioa, aurrerakoia, atzerakoia, esnobismoa, punka, queerra, kon-

bentzioak, psikiatria, estatua. Iluntzen ari zuen. Ez dakit zenbatgarren txakolina.

– Eztabaida interesgarria. Beste batean jarraitu beharko genuke.

Hitz horiekin eman nahi izan zion bukaera Odile Moresek eztabaidari. Edo eztabaidaren lehenbiziko atalari, irekita utzi baitzuen bigarren baterako aukera.

– Nik beste formatu bat emango nioke –Aretxabaleta ere proposatzaile.

– Formatu? –Josebak doinu zirikatzailez.

– Bai. For-ma-tu –egin zuen aurrera Aretxabaletak bere antolatzaile senari jarraituz eta Josebari haserre antzean begiratuz–. Antolatu genezake nolabaiteko mahai-inguru, jardunaldi edo antzeko zerbait desegokitasunaren inguruan. Hemen eman duena ikusita, eremu zabalago batean emankorra eta kitzikagarria gerta daitekeela uste dut.

– Kongresu bat agian? –Roman ere adarjotzaile.

Aretxabaletak begiradaz birrindu zuen.

Hasierako jarrerak eszeptiko eta sarkastikoak izanagatik ere, hori izan zen DESegokitu jardunaldien erditzea. Kattalin izan zen lehena Aretxabaletaren ideia babesten. Larunbat hartan lehena eta bakarra, agerian bederen. Hurrengo urratsa ere berak eman zuen.

– Begira, nahi duenak horrelako topaketa edo...

– Kontzilio? –moztu zion baldar Josebak

– ...kontzilio edo konklabe bat antolatu, datorren larunbat eguerdian Purgatorio tabernan.

Aretxabaletak Romani begiratzen zion irribarre desegokiz.

# Postariaren mendekua

Martzanatik bakoitzak bere etxerako bidea hartu zuen. Josebak izan ezik.

Aretxabaleta hausnarrean zihoan, halako moldez non, Erribera gurutzatzean ez zen ohartu semaforoa gorri zegoela. Auto baten balaztadak atera zuen zakarki bere baitatik. Gidaria, ia gorputz erdi leihotik aterata, oihuka hasi zitzaion. Aretxabaleta aurrez aurre autoari begira geratu zen gidari suminduaren odola hoztu arte. Klaxonen hotsak in crescendoan, hiriaren polifonia desarmonikoa. Giroa erabat petraldu zenean, artean semaforoa gorri oinezkoentzat, aurrera egin zuen pauso motelean. Kalearen beste aldera iritsi orduko semaforoa gorri jarri zitzaien autoei. Klaxonen sinfoniak gailurra jo zuen.

Aspaldian ezeren antolakuntzan ibili gabe, indarberrituta zihoan Aretxabaleta Zabalbiden gora balizko topaketa edo jardunaldiak buruan. Zein izen jarri, nortzuk gonbidatu, non eta noiz egin, leloa, kartela, hedabideen aurrean aurkeztu. Hau guztia zebilkion buruan nahas-mahasean. Utzi berri zuen taldeak ez zion kon-

fiantza handirik ematen, bai, ordea, Kattalinengandik jaso zuen sostenguak. Odile Moresek ez zuen ezer garbirik adierazi jardunaldiak antolatzearen inguruan, hala ere bere aspaldiko lagunaren babesa ere jaso zezakeela uste zuen Aretxabaletak, ez baitziren alferrik elkarrekin ibili irrati libreetan, bakoitza bere auzoan. Oraindik, eta ikusiak ikusiagatik ere, sinetsi nahi zuen horrek arrastoa uzten duela. Batzuetan bederen.

Avernoko Ahotsak. Horrela deitzen zen Aretxabaletak egiten zuen irratsaioa Ezkila Irratian. *Poesia baino ez* esaten zen programaren sarreran. Ahots ederra zeukan orduan eta, garrantzitsuena, bazekien erabiltzen. Gaur egun kraskatuagoa da, ez baita makala eztarriek jasaten dutena, batzuek besteek baino gehiago, urteen joanarekin. Ahots ederra gisa hartako saio baterako. Ostegun gauetan emititzen zen, hamaiketatik hamabietara bitartean, guti goiti beheiti, *lubakipunk* magazinearen ostean. *Avernoko Ahotsak*. Poesia baino ez. Hitz horiekin hasten zen programa. Soilki. Hitz soilen ostean, Ruper Ordorika *Herdoilarena* kantatzen.

Poeta agrafonikoa. Horrela deitzen zion Mario Castetek. Maisuki errezitatzen zituelako poemak edo hitz laua irakurtzen. Ez zuelako idazten. Horrela deitzen

hasi zitzaion kolaboratzaile egin eta gero, Avernoko ahots bilakatu ostean. Saioak hasi eta lasterrera entzule fidel batzuk lortu zituen, telefonoz deitzen duten horietakoak. Lau ziren, beti berberak. Hauetariko emanena, bere ekarpenengatik, Mario Castet zen. Burutsuak ziren bere iruzkinak, hasiera batean saioan entzuten zituenari buruzkoak. Laster, ordea, jauzi bat eman zuen: berak han eta hemen bildutako poemak ekarri zituen telefonoaren beste aldetik. Orduan Aretxabaleta zen iruzkinak egiten zituena, burutsuak gehienetan. Bistakoa zen Mariori ez ziola gehiegi axola Avernora deitzen egiten zuen gastu telefonoarekin. Izan ziren saioren batzuk zeinetan Mariok zirudien gidaria eta Aretxabaletak kolaboratzailea. Horretaz jabetu zenean erabaki zuen Aretxabaletak hura estudiora eramatea.

Entzunaren entzunez, irudi bat osatzen dugu ahotsetik abiatuta, ez oso zehatza agian, baina gorpuzkera bat ematen zaio bederen, tankera bat. Izaera bat ere bai, hau ere ez oso zehatza beharbada, baina nortasun bat azken batean. Mario Castet ez zen ahotsak iradoki zezakeena, ez behintzat Aretxabaletarentzat. Ehun kilotik gorako gizasemea agertu zitzaion irratian praka bakeroz eta guayaberaz jantzita, urdintzen ha-

sitako ilea kiribil txiki eta berdintsuetan, lehorgailuari barreiatzailea jarrita baino osatu ezin diren kiribilak. Adostutako hitzordua baino ordubete geroago azaldu zen, programa hasita zegoela. Hortaz, aurkezpen agurrak airean zeudela egin zituzten.

– Gaur ere gurekin eta lehenbizikoz estudioan Mario Castet dugu. Hala uste dut behintzat –ekin zion Aretxabaletak, artean Mario bere bizkar-zorrotik liburu eta paper mordo bat ateratzen ari zela.

– Halaxe da. Patxi Aretxabaleta, ezta?

– Bai. Urte askotarako.

– Barka atzerapena.

– Izan ere, gure kolaboratzaile behinena ordubete berandu iritsi zaigu.

– Zer jantzi erabaki ezinean ibili naiz.

Lehenengo egun hartan Mario Castet poeta infrarrealistei buruz aritu zen. Mario Santiago Papasquiaroren poema bat irakurri zuen eta, hori abiapuntu, infrarrealisten gaineko hitzaldi xelebre bat eman zuen. Saioa amaitu orduko bi kontuz ohartu zen Aretxabaleta: estudioan sartu zenetik Mariok gidatu zuela saioa eta, ziurrenik horren ondorioz, saioak berak ohi zituen erritmoak, musika tartekatzeari dagozkionak esaterako, hankaz gora jarri zituela. Ñabardura bat ere gehi-

tu zion arrazoiketari, alegia, saioaren erritmoaren eraldatzea bera, Aretxabaleta, gidari berriaren mintzoak liluratu zuelako gertatu zela, ausaz. Harrezkero bi arazo horiek ekiditen saiatu zen. Arrakasta maila gorabeheratsua izan zuen zeregin horretan. Elkarrekin egindako lehenengo saio haren ostean trago batzuk hartzera joan ziren. *Uste dut hau adiskidetasun handi baten hasiera dela*, esan zion Mariok bakoitza bere etxerako bidea hartzera zihoala. Eta halaxe izan zen, harik eta, urte gutxiren buruan, Mario Castet ETBn hartu zuten arte. Mario laster hasi zen pantailan agertzen eta, pantailan hazi ahala, enkontruak bakantzen joan ziren, erabat desagertu arte.

Tandem bikaina osatu zuten elkarrekin jardun zuten bitartean. Irratigintzaren historiak jaso beharko lituzkeen, baina jasoko ez dituen, pasarte gogoangarriak utzi zituzten elkarlan hartan. Irratigintzaren historiak eta, beharbada, poesiarenak ere bai. Bat aipatzeagatik, Mario Santiago Papasquiarori egin zioten elkarrizketa. Kontua da Mario Castet Mexicon ibili zela hirurogeita hamarreko hamarkada amaieran. DFko leku zehatzezin batean, tabernazuloren batean ziurrenik, poesia errezitaldi bat entzun zuen. Eta liluratuta egon omen zen entzunaldi osoan, tekila botila bat au-

rrean. Papasquiaro izan omen zen ekitaldiko zeremonia-maisu. Edonork irakur zezakeen poltsikoan paper tolestuan edo zimurtuan gordeta ekarritako poema. Baita, Mario Castetek berak egin zuen bezala, mahai batean pilatuta zeuden orrietako bat hartu eta han idatzirik zetzan poema irakur zitekeen. Antro hartatik *Correspondencia infra* aldizkariaren bi alerekin eta bera ere infrarrealista eginda irten zen. Lehenengoz estudiora joan zen hartan, aldizkariok zeramatzan bizkar-zorroan. Mario Santiago Papasquiarori elkarrizketa laneko telefono batetik egin zion, Bizkaiko Foru Aldundian bedel lanak egiten baitzituen tarteka, norbaitek gaixotasun-baja hartzen zuenean-eta. Elkarrizketa sasoiko kasete haietako batean grabatu zuen eta gero *Avernoko Ahotsak*-en emititu zuten.

Castet eta Aretxabaletaren artean ahokadura poetikoa gauzatu zen. Ahokadura poetiko emankorra. Casteten bitartez ezagutu zituen Aretxabaletak gazteleraren eta frantsesaren lurraldeetako hainbat poeta, eta Aretxabaletaren bitartez Castetek ingelesaren lurraldekoak. Euskararen lurraldea biek zapaltzen zuten. Ez, hala ere, beti bide berberak. Esaterako, Castetek eraman zuen behinola estudiora Peter Zuazoren *Uzkitik isuritakoak*, liburua erosi zuten berrogei-

ta bat irakurle haietako bat baitzen. Aretxabaletak ez zekien haren berririk.

– Euskal infrarrealista bat. Aurkeztu zion liburua Castetek.

– Ez nekien honaino iritsi zenik mugimendua –aipatu zuen Aretxabaletak.

– Nik ere ez. Zuazok berak ere ez –argitu zion Castetek.

Handik lasterrera, urtebetera gutxi gorabehera, *Postariaren mendekua* argitaratu zuen *Ttu-Ttuá* aldizkariak. *Avernoko Ahotsak*-era gonbidatzea erabaki zuten. Aldizkariaren bitartez lortu zuten Peter Zuazoren telefonoa. Eginahalak eginagatik ere, ez zuten lortu saiora joan zedin konbentzitzea. Bestelako aukerak ere eskaini zizkioten, berak aukeratutako toki batean elkarrizketa bat grabatzea edo afari bat egitea kasu, baina dena alferrik. Ez iezadazue berriro deitu hiru aldiz jarraian errepikatu zienean, bertan behera utzi zuten ahalegina. Afera hartatik irabazi bat atera zuen bederen Aretxabaletak. *Uzkitik isuritakoak* liburuaren ale hura bere eskuetan geratu zela. Castet ez zen liburuak ahazten zituen horietakoa, are gutxiago bakan eta bitxiak. Dohaintzan eman zion Ezkila Irratia-

ri, jakinean, noski, Aretxabaletari oparitzeko modu bat baino ez zela keinu hori.

Etxera heltzerako erabakita zeukan Aretxabaletak Peter Zuazo jardunaldietara gonbidatzea, gainontzekoek egoki irizten bazioten beti ere. Apalategira jo zuen eta han zeuden. *Uzkitik isuritakoak* eta *Postariaren mendekua*, azken hau berak erosia. Biak hartu zituen eta sofara iritsitakoan oraindik erabaki gabe zeukan zein zabaldu lehenengo. Gehiago gogoratzen zuen poesia ipuinak baino, gogoratu baino gehiago hurbilago sentitzen zuen. Ipuin liburua zabaldu zuen, bestea ere altzoan zeukala. *Postariaren mendekua*.

> «Barrenetxea putasemerik handiena zen. Langile guztiok, menpean zituen langileok, berdin gorrotatzen gintuen. Berdin samar. Denok gorrotatu izan bagintu berdin-berdin agian ondorioak ez ziratekeen izan zirenak. Batzuk besteak baino gehiago gorrotatzen zituen, beraz. Ni batzuen artean nengoen. Gorrotatzeko irizpidea ez zen hierarkikoa. Izorratzen zuen bulegoan lan egiten zuena, izorratzen zuen kalea egiten zuena, izorratzen zuen egun batzuetarako etorritako behin-behinekoa edo garbitzailea.

«Ez ginen asko. Bulegoan hiru, biltegian zakuak husten eta betetzen eta sailkatzen beste hiru eta kalea egiten bost. Premien arabera, kalea egiten genuenok lagun genezakeen biltegian, biltegikoek kalean zein bulegoan, bulegokoek biltegian. Hamaika ginen. Barrenetxeak fineziaz lantzen zuen gaiztakeria, areago, bazekien gozoa izaten. Are gehiago, pertsona gozoa izaten zekien. Eztiak zituen mintzoa eta manerak oro har.

«Okotza hain irtena izan ez balu aurpegiz edertzat joko genuke. Okotzak desorekatzen zuen beste guztiaren harmonia: nik ezagutzen ez dudan izena izango duen kolore argiko begiena, belarriena, bekokiarena. Gizon lerdena zen, edonola ere.

«Hasiera batean edonori irudituko zaio gizon adeitsua, atsegina. Denborak aurrera egin ahala, antzemango dio bakoitzari bere puntu ahula. Puntu horretan eta bere inguruan sakatuko du. Orduan, une horretan, bere agindu gaizto bat edo iruzkin mingarri bat jasotzen duen horrek pentsatuko du nagusia ez dela beti hain maitagarria. Badakiela putaseme bat izaten, batzuetan. Momentuz hori pentsatuko du: putaseme, batzuetan dela. Azken batean nagusia da. Erasoak ugaritzen diren

heinean, Barrenetxearen manerak higuina ematen hasiko zaizkio. Honen guztiaren bilakaerak puntu jakin batera garamatza, alegia, nagusia ez zaiola putaseme bat batzuetan begitanduko, beti baizik. Areago, hasiera batean eztiak iruditu zitzaizkion manerak gero eta itsusiago egingo zaizkio, nazkagarri izatera iritsi arte. Nagusiaren gozotasuna gorrotatzen hasiko da erasoak jasaten dituen menekoa. Gerta daiteke gozotasuna bera gorrotatzera heltzea. Aukera hau saihestea lortu dut, momentuz. Uste dut».

Bere lan-curriculum luzean ezagutu zituen Aretxabaletak gisa hartako nagusiak, ugazabak zein arduradunak. Ez zuen, hala ere, mendekurik hartu. Egin zuen nagusien gehiegikerien aurka, egin zuen borroka sindikala, aitzitik, lerro haiek irakurrita, damu zen Zuazok ez bezala mendeku pertsonalik hartu ez izanaz. Thomsonen lanean zebilela zuzendaritzako kide batzuk bahitzeko puntuan izan ziren, baina, sindikatuak medio, atzera egin zuten azkenean. Zuazorena baino ekintza egokiagoa klase ikuspuntutik, pentsatu zuen. Egin izan balute. Ezin jakin Zuazorena bezalako ekin-

tza pertsonalizatuak eman ziezaiokeen asebetetze mailara iritsiko zen. Ez zen urruti ibiliko.

Irakurketara itzuli zen. Ez erabat. Hurrengo lerroak, zeinetan Barrenetxeak Zuazori eragindako umiliazio zenbait kontatzen diren, azaletik irakurri zituen. Burua nagusi ohiei egingo ziezazkiekeenak urkultzen ibili zitzaion, arreta aurrean zituen lerroetara itzuli zen arte.

> «Ez dut uste laidoen zerrendan aurrera egitea beharrezkoa denik aditzera emateko nola joan zen gorpuzten ene baitan Barrenetxearekiko gorrotoa. Ez nintzen bakarra. Aurpegietan nabaritzen nuen hitzetan baino gehiago. Hitzak urri. Ez zen harritzekoa, Hitlerren kartelaren aferaren ostean. Goiz batean aurkitu genuen atean kolaz itsatsita. Führerraren irudi ezagun bat, baina Adolfen aurpegiaren lekuan Barrenetxearena. Jopu maiteok, zuen onerako bada, edozer egiteko prest nago, zeuok akabatzea barne. Hori zen Adolf Barrenetxeak zioena argazki hartan. Inork ez zuen kendu, batek baino gehiagok egingo zukeena lekukorik izan ezean. Ez, halabeharrez, nagusiarekiko sinpatiagatik. Gehienok, ia denok, plazera sentitzen ge-

nuen kartela ikustean Barrenetxeak sentituko zuenaz pentsatzean. Denok ginen ondorioen beldur. Batzuengan plazera nagusituko zen, besteengan beldurra. Barrenetxea, egunero legez, azkena iritsi zen bulegora. Aurpegian zintzilik zekarren irribarre toleranteak nabari utzi zuen afixa ikusi berri zuela. Hiruretan gurekin hitz egin nahi zuela iragarri zigun. Goiza batarekin eta bestearekin solasaldi laburrak eginez eman zuen. Gainontzekoengandik urrutien zegoenarengana hurbildu eta zertxobait hitz egiten zuten. Barrenetxea baxu mintzo zen, inguruetan zebiltzanek entzun behar ez zuten zerbaiten gainean bailebilen. Honek solaskidearen moduak ere baldintzatzen zituen, halako moldez non elkarrizketa intimo bat zirudien. Niregana ere inguratu zen. Zer moduz? Ondo. Eta bizkarreko minak? Hainbestean. Zer zen, hernia? Bai, diskoko hernia. Pozten nau zu hemen izateak. Azkeneko esaldia pitin bat ozenago, eskua sorbaldan jarrita, ferekatik zapladatik baino hurbilago zegoen kontaktua.

«Hirurak dira. Langileok oro gaude nagusiaren zain. Isilean. Begiradak, ordea, ozen. Denengan egonezina, larridura. Gehienengan mesfidantza,

hainbatetan nagusiarekin izandako banakako elkarrizketen eraginagatik. Hormako erlojuan minutu bat pasatu denean hiruretatik, bere bulegotik irteten da Barrenetxea. Irribarretsu.

«Kartelarena ez da txarto egon. Gure artean adarjotzaile bat izateak mesede egin liezaioke lanari eta zerbitzuari. Nahiko nuke jakin nor izan den bostekoa eta zorionak emateko. Egia esan, ia ziur naiz nor izan den. Dena den, ziur egon bitartean, berandu baino lehen gertatuko dena, zorionak ematen dizkiot. Hitler bat egitea gehiegitxo ere iruditzen zait, baina bulegoburu batek, edozein giza taldeko buru batek, prest egon behar du halako eztenkadak jasotzeko. Nagusia pareka daiteke batekin edo beste batekin, baina ez dira gauza bera Hitler, Olarra edo Thatcher. Edozein modutan, zorionak.

«Biharamun goizean Adolf Barrenetxea Thatcher anderearekin larrutan ageri zen atean itsatsitako afixan. Zorionaaaak, oraingoan ia-ia, zioen, hizkiak urtzen ari direla dirudien letra moldez, Margaretek, partenerrak gerriko-kontsolagailuarekin sartzen zuen bitartean. Zorionak egileari, esan zuen, ez aurretik atzera begiratu gabe, Jose Lui-

sek, kalea egiten zuenetako bat, bulegoan sartu zenean. Bezperan bezala, Barrenetxea azkena izan zen eta, bezperan bezala, kartelaren puxka batzuk zekartzan eskuan, itsatsi zuena ezinezkoa baitzen osorik kentzea. Aurreko egunean bezalatsu ibili zen goizean, honekin eta harekin, urrutiratuenekin, solasaldi laburrak eginez. Aurretik hitzordurik jarri ez zigun arren, hiruretan, bezperan bezalaxe, antzeko manerez, baina beste tenore batean, hitz egin zigun.

«Zorionak berriro gure kartelgileari. Baita ere, bulegora iristean hura zoriondu duenari.

«Engoitik lanera lehenengoa iristen hasi zen. Ez zituen irribarrea eta manera eztiak galdu. Gu izorratzeko jarduna areagotu egin zuen. Nik ezin nuen bere presentzia jasan. Presentzia hori jasanezina egiten hasi zitzaidanean presentzia fisikoa baino ez zen jasanezin egiten zitzaidana, inguruan nuenetan beldurra eta akabatzeko gogoa pizten ziren nire baitan. Berandu baino lehen, presentzia fisikoa ez ezik, existentzia, Barrenetxearen existentzia, hasi zitzaidan pairaezina egiten, planeta berean bizitzea, nolabait esateko. Hori gertatu zen biltegiko apalategi bat hustu eta urrunen zegoen

hormaren kontra paratzeko agindu zidanean. Hustea zakuak eta sailkatutako gutunez beteriko zurezko kaxa luze bezain astunak lurrera jaistea zen. Izerditan blai eta gerriko minez nengoen amaitu nuenean. Hauspoa bere onera etorri zain nengoela, Martin iritsi zen kaleko banaketa egitetik. Laguntza eskatu nion unean sartu zen Barrenetxea biltegian. Martin, zatoz nirekin, lantxo bat daukat zuretzat. Honi lagundutakoan egingo dut, erantzun zion lankideak. Ez, zatoz oraintxe, hau moldatuko da-eta apal ziztrin horiekin. Obeditu egin genion. Ziztrina? Putaseme alaena. Burua makurtu berri egiten diren lanak nekezago egiten dira. Pinu zurez egindako apalategitzar hura mugitzen niharduela, dirudienez diskoak indarrez sakatu zion nerbioari. Seko geratu nintzen, ez atzera ez aurrera. Minik handiena gerrian, baina suge bat bezala egiten zuen gorantz garondoraino. Anbulantzian atera ninduten bulegotik.

«Etxean egin behar izan nuen egonaldian, lehenengo bi asteak ia egun osoa etzanda, konturatu nintzen Barrenetxearen presentzia ez ezik, existentzia bera egiten zitzaidala pairaezin. Arazoak konponbide bi zituen: biotatik batek existitzea-

ri uztea. Arrazoiak oro alde batera lerrokatu ziren: nagusia zen sobera zegoena. Ez nintzen berarengana joan eta akabatzeko gauza. Ez gogo faltagatik. Banekien, nahiz eta bat baino gehiago poztu, gizartearen izenean zigorra jasoko nuela estatuaren aldetik. Beste era batera esanda, zigor horretatik libro, nolabaiteko kortso baimena izanez gero, izan nintekeen Barrenetxea garbitzeko gai. Behin baino sarriago, irudimena aske, osatu nuen eszena. Batean eskopeta batekin, beste batean harritzar batekin buruan jota, aiztoz ere bai inoiz. Amesgaiztoetan, ostera, ekintza horren ondorioz gerta zekizkidakeenak gailentzen ziren. Horregatik ziren amesgaizto.

«Ez hiltzetik ezer egin gabe geratzera tarte handia dago. Plazer handiz lagunduko niokeen Barrenetxeari heriorekin bat egin zezan. Ez dut uste, hala ere, Barrenetxea heriotza gogoz zegokeenik eta, hala balitz, ez zidakeen niri deituko laguntza eske. Nik, ordea, parte hartze zuzena izan nahi nuen putaseme haren heriotzan. Ez nuenez horretarako ausardiarik, mina beste nolabait eragitea erabaki nuen, beti ere neure burua arriskuan jarri gabe, tamaina batetik gorako arriskuan bederen.

Irudimenak egoera perfektua iradokitzen zidan, zeinean, nire jazarpenaren ondorioz, Barrenetxeak bere buruaz beste egiten zuen trenbidean.

«Ez nekien gauza handirik nagusiaz. Bi alaba zituela, ezkonduta bizi zela, ez, ostera, non bizi zen. Ezta beste ezer ere. Informazioa eskuratu behar nuen haren bizimoduaz, ahal zenik eta gehien, gutxienez alde ilunen bat aurkitu arte. Zelatatu egin beharko nuen. Mozorrotu egin beharko nintzen. Beharbada, pentsatu nuen, honek ez dauka alde ilunik. Horrenbesterainoko kabroia ote? Telefono gidan aurkitu nuen haren bizilekua. Barrenetxea Atxotegi, A., Iturriaga 92. Bulegotik ordu laurden oinez. Eta kabroia egunero joaten zen bere autotzar galantean.

«Behar nituen arropa eta osagarriak eskuratuta, bi pertsonaia osatu nituen mozorrotuta ibiltzeko. Bata, naizena baino zaharragoa, Joanes izenekoa, bestea naizena baino gazteagoa, Jimmy. Biak herrenak».

Zuazok bi pertsonaia horietan antzaldatuta egin omen zituen zelatari lanak irakurtzen hasi orduko, berriro aldendu zitzaion Aretxabaletari arreta aurrean zi-

tuen lerroetatik. Eta, irakurtzeari utzi gabe, *Previsora Bilbaina* aseguru etxeko langile zela izan zuen nagusia zelatatzen irudikatu zuen bere burua. Izan zituen nagusien artean hura baitzen Barrenetxearen antz handiena zuena. Norbaiti molde pertsonalizatuan kitatzekotan zorrak, harixe kitatuko zizkion.

«Ez zen, ordea, aintzakotzat hartzeko ezer gertatu. Ezta ondorengo egunetan ere. Zehaztasun osoz landutako errutina bat egiaztatu zuten zelatariek. Ezer ezkutatzekorik bazeukan, ez Joanesek ez Jimmyk ez zioten antzeman. Larunbatetan egunkaria eta ogia erosi eta paseo bat egiten zuen auzoan, pare bat ordu iraun zezakeena eta, hutsik egin gabe, txakolin bat hartuz amaitzen zuena. Bakarrik. Ez zen inoiz inorekin geratzen hitz egiten. Bakarren bat agurtzen zuen. Ziurrenik ikusiaren ikusiaz hartutako ohituragatik, izan zitekeen arren bere atariko norbait edo alabaren baten ikaskideren gurasoren bat. Arratsaldean emaztearekin eta alabekin irteten zen. Zabalgunera joaten ziren paseoan. Sekula ere ez beste inorekin. Txokolatea txurroekin hartu eta, oinez berriro ere, etxera. Igandeetan, hutsik egin gabe,

emaztearen amaren etxera joaten zen laukotea bazkaltzera, Bakixako baserri batera. Paraje horretan ezinezkoa da, gutxieneko diskrezio batez, inor zelatatzea. Hala eta guztiz ere, ez nuen uste merezi zuen ezer aurki nezakeenik baserri haren inguruetan.

«Hogeita bost eguneko jazarpenak horixe eman zuen: orbanik gabeko errutina morbidoa. Egunak neramatzan jazarpena eten behar nuela pentsatzen. Hala ere, hurrengo eguna, hogeita seigarrena, larunbata zenez, laugarren larunbata, bada jarraitzea erabaki nuen. Egun bat gehiago gutxienez. Gero pentsatuko nuen zelatatzea etetea edo moteltzea».

# Postariaren oparia

Ederra litzateke Aretxabaleta ipuina irakurtzen ari zen une berean Begoña Urmaleta ere, esaterako Bakixan, gauza bera egiten aritzea. Magikoa eta misteriotsua litzateke batera irakurtze hori erabatekoa balitz. Lerroz lerro, hitzez hitz, simultaneoa izatea bataren eta bestearen irakurketa, alegia. Ez zen hala izan, nahiz eta Aretxabaletaren irakurketaren unean Begoña Urmaleta Bakixan zegoen. Ez dut esango *Postariaren mendekua* ahaztuta zeukala Begoña Urmaletak. Bai, ordea, memoriaren zokoren batean amaraunez josia, ipuin-liburu hura bezala. Bere senar ohiaren antzera.

Euskaraz irakurri zuen lehenengo literatur aldizkaria izan zen. Ez da ohikoa postontzian horrelako zerbait oparitzat jasotzea. Ez, bederen, Begoña Urmaletarentzat. Gutunazal batean zetorren, egilearen eskutitz batekin, zeinean, beste kontu batzuen artean, *Postariaren mendekua* irakurtzea eskatzen zion. Uste baino gutxiago kostata irakurri zuen, hau da, berak aurreikusten zituen hizkuntz zailtasunak uste baino ai-

seago gainditu zituela. Litekeena da, ordea, euskaraz irakurritako lehena eta azkena izatea. Hizkuntz zailtasunetik harago, euskal literaturarekiko lehenbiziko harreman horrek bere senarraren doilorkeriaz zihardue-lako. Bere senarraren emaztea ere aipatzen zuelako. Familiaren hondamendia ekarri ziolako. Pentsa daiteke, agian gehiegizkoa izan arren, euskaraz irakurri zuen lehenengo ipuin horrek euskal literaturarekin etsaitu zuela.

Gutunazal hura jaso eta zazpi hilabetera, hondamendiaren gailurrerian, beste bat jaso zuen. Orduko hartan eskutitzik gabe. Liburu bat baino ez zetorren barruan. *Postariaren mendekua* izeneko ipuin liburua.

Kontua da Aretxabaletak irakurri zuenean ez zuela Begoña Urmaletak irakurri. Handik hilabete batzuetara baizik. Irratian entzun zuen topaketen berri. Zehatz-mehatz, Peter Zuazo izena entzun zuenean jarri zion arreta irratiaren jarioari. Arropa lisatzea utzi eta berehala joan zen ordenagailura entzundako apurra osatzeko asmoz; izan ere, «Peter Zuazo», «topaketak», «abendua» hitzak baino ez zituen gorde. Batean eta bestean begiratuz, Peter Zuazok Desegokituen Elkarteak antolatutako topaketa batzuetan parte hartuko zuela jakin zuen. Bihotz taupadak gero eta bortitza-

go. Begiratu zuen ea Peter Zuazoren irudirik eskaintzen zion sareak. Bakar bat ere ez. Gogoan zuen ez zela ez aldizkari hartan ez liburuan agertzen. Gorroto zuen. Biziki. Horregatik berpiztu zitzaion lozorroan zegoen gogoa hura ikusteko. Gorroto zuen gizon hari aurpegia jartzeko. Aurpegia jartzeak asko lagun liezaioke gorrotatze ariketari. Hau guztia Bakixan gertatu zen, amaren baserrian. Igandeetan hara bazkaltzera joateko ohitura amarekin desagertu zen arren, Begoña Urmaleta hara joaten zen asteburu batzuetan. Alabak hazita zituen jada. Nagusia New Yorken bizi zen eta gaztea amaren bidea egiten ari zen momentuz, Odontologia ikasten. Igandera itxaron gabe, larunbatean bertan Bilbora itzultzea erabaki zuen. Ez dakigu postariagatik soilik izan zen, agian bai. Edonola ere, etxera heldu eta lehenengo egin zuena *Postariaren mendekua* bilatzea izan zen. Aldizkaria eta liburua elkarren ondoan zeuden. Liburua hartu zuen. Behin eskuetan, sofan jesarri zen. Ez ipuin madarikatu hura irakurtzeko asmoz. Asmo zehatzik gabe. Beharbada gorrotoan murgiltzeko gogoak bultzatuta. Pentsa dezagun ireki zuela liburua eta, ausaz, *Postariaren mendekua*-n etzandako hitz hauekin egin zuela topo.

«Larunbat hartan ohi bezala irten zen goizean. Joanes zeukan zelatari. Ohi bezala irten zela esatea ez da erabat zuzena. Ohikoa baino pauso azkarragoz abiatu zen eta ez ohikoa zuen norabidean. Joanesi kosta egin zitzaion ganorazko zelatari batek bezala atzetik segitzea. Jazarpenak erakutsitako errutinak nolabait irentsia zuen zelataria ere. Barrenetxeak Basarrateko taxi geltokira jo zuen eta ilarako lehenengoan sartu zen. Joanes, arnasestuka, bigarrenean. Segi aurreko horri. Taxi-gidariak ez zuen aparteko keinurik egin. Halako enkarguak jasotzea ohikoa balu bezala. Ibilbidea zertxobait luzatzen bada, kale artean autoa jarraitzea zail samarra gerta daiteke. Hala ere, gidaria oso adi zebilen tarteak bilatzerakoan, semaforoen kolore aldaketak zaintzen, bere helburua beste taxi batekin ez nahasten. Ohikoa balu bezala. Ordu laurden batean Mazarredoko atari baten aurrean geratu zen. Zuzen abiatu zen Barrenetxea harantz. Sartu baino lehen ezin izan zuen ekidin buruaren ezker eskuinerako mugimendu azkarra. Joanes zer egin jakin gabe geratu zen. Taxi-gidaria zain. Mesedez itxaroteko eskatu zion eta atarira

hurbildu zen. Ikusi beharrekoak ikusita, alegia ezer ere ez, pauso batzuk atzerantz egin zituen eta eraikinari behetik gora begiratu zion. Barrenetxea nora joan zenaren inguruko aztarnaren baten bila. Ezer ere ez. Taxirantz itzuli zen, astiro, hausnarrean.

«Zerbaitetan lagun zaitzaket?, galdetu zion gidariak. Joanesek jauzi egitea erabaki zuen. Eskertuko nizuke. Hor sartu den hori nire koinatua da. Uste dut maitale bat daukala. Ez dakit non demontre sartu den eta jakin nahi nuke. Taxi-gidaria begira zeukan. Beste jauzi bat. Zerbait bazeneki, nora sartu den... Ordaintzeko prest nago. Taxi-gidariak begira jarraitzen zuen. Ez zebilen, Joanesek uste bezala, entzuten ari zena egia ala gezurra zen erabakitzen. Zenbat ordaintzeko prest zegoen entzuteko zegoen zain. Besterik gabe.

«Zerbaitetan lagun zaitzaket baino ez zuen esan taxi-gidariak. Hori baino ez. Jakin beharraren jakin beharrak bultzatu zuen Joanes jokatu zuen bezala jokatzera. Gidariak Barrenetxea nora joan zen jakin behar zuela pentsatzera. Hogeita sei egunetan errutinatik kanpo egindako mugimendu bakarra zen. Han zerbait zegoen. Derrigorrez jakin

behar nuen zerbait, hantxe zegoelako Joanes eta Jimmyren ia hilabeteko zelatari lanaren fruitu bakarra ziurrenean. Atzeko poltsikotik ateratako diru-zorroa begiratu zuen Joanesek. Ehun euro eman diezazuket. Gidariak taxiko guanteratik txarteltxo bat atera eta eman egin zion, bisita txartel horietako bat. Señoritas de compañía. Alto standing. Hori eta telefono zenbaki bat jartzen zuen, urre-zahar gisako fondo batean, puntako sukaldari baten jatetxekoa izan zitekeena lasai asko. Ehun euroak eman zizkion. Baina xehetasunak falta zitzaizkion. Eman diezazuket beste ehun euro gizon honetaz dakizuna esatearen truke. Taxi-gidariak isilik jarraitzen zuen. Irribarre etorkor batez erantzun zion eskaintzari. Eskaintza igo beharko zuela ulertu zuen Joanesek. Jakin nahi duzuna esan diezazuket, gidariak. Kutxazain baten bila joan zen Joanes. Itzulitakoan, jaka poltsikoari kolpetxo batzuk emanez, hirurehun euro daude hemen, esan zion. Zureak dira jakin nahi dudan informazioa ematen badidazu. Taxi-gidaria eta Joanes, nola hitzetan hala keinuetan, zinematik ikasitako moldean ari ziren. Bizitzako beste hainbat es-

parrutan legez. Edo, gutxienez, zinemarik gabe bestelakoa litzateke negoziazioa. Hori ziur.

«Hara, gizon hori hilean behin, hileko lehenengo larunbatean, etortzen da hona. Beno, litekeena da beste pisuren batera joatea. Baina beti zerbitzu bera hartzera. Eman dizudan txartelean eskaintzen dena. Emakume gazteak. Dena oso fina, klasearekin. Neuk ere ekarri dut inoiz. Joanesek baietz egiten zuen buruarekin. Baina bere eskuak ez zuen jaka poltsikorako bidea egiteko asmorik erakusten. Laugarren solairua, ezkerra, gehitu zuen taxi-gidariak. Amaitu orduko hirurehun euroak zituen eskuan.

«Pare bat ordu eman zituen Barrenetxeak pisu hartan. Etxera betiko orduan, ogia eta egunkaria erosi ostean, iritsi zen. Hori uste dut behintzat, izan ere, Joanes atari aurrean geratu zen emakume gazteren bat noiz irtengo. Ordu erdi itxaron behar izan zuen. Zalantzarik gabe bera zen. Bera izan behar zuen. Gaztea. Ederra. Klaseduna.

«Orbanik gabeko gizonak bazeukan alde ezkutua. Nahiago nukeela kontuak hartuko zizkiona emaztea barik mafia odoltsuren bat edo justizia izatea? Baliteke. Edozein modutan ez zen ahun-

tzaren gauerdiko eztula. Emaztea jakinaren gainean nola jarri zen kontua.

«Eskuetan neukana lehergailu bat zen. Bere eztandaren kalteak ahalik eta handienak izatea nuen xede. Eztandak arrakala sortuko zuen. Liskarra. Baina ezin uka bikote asko gauza direla gatazka hauek kudeatzeko. Ez arrakala estaltzeko. Ez gatazkari behin-betiko irtenbidea emateko. Baina bai enpresa zatitu gabe irauteko. Aurrez ezin da jakin kalte handiagoa bikotea deuseztatzea den ala ez. Ez bada desegiten bermatuta dago bizitza petrala. Desegiten bada, hasiera batean behintzat, ordura arteko orekak egun batetik bestera apurtzen dira. Kasu honetan, enpresa desegin aurretiko egoera baino askoz hobeagoa eskura daitekeen arren gerora, hasiera batean hondoratzeko aukerak biderkatu egiten dira.

«Bat-batean panikoak hartu ninduen. Eta emazteak ere alde ezkutua balu, halako moldez non senarraren puta-jardunaren ondoan balantza orekatu eta biei mesede egiten nien.

«Emaztea espiatzea neukan. Artean bere izena ere ez nekien. Atariko buzoian begiratuta

jakin nuen, senarrarenaren azpian zegoen idatzita: Begoña Urmaleta Echevarría.

«Ez noa lerro hauen artean dabilen irakurle prestua aspertzera Begoña Urmaleta andereari egindako jarraipenaren xehetasunak emanez. Ez noa suspentsearen hariak tenkatuz irakurlearen burua edo beste ezein organo, denetarik baitago irakurle prestuen artean, puztera. Lehenengo hogeita bost egunetan senarra bezain orbangabe iruditu zitzaidan. Baita hogeita sei eta hogeita zazpigarrenean ere. Zortzi eta erdietan irteten zen egunero bi alabekin. Laurora eramango zituen autobusean uzten zituen eta bere lanera abiatzen zen jarraian. Ateri egonez gero oinez eta bestela R5 batean. Henao kaleko atari batean sartzen zen, zeinean, kanpo aldean, Odontologoak irakur zitekeen plaka batean. Beste bi izenen ondoan: Begoña Urmaleta Echevarría. Lanetik etxera. Arratsaldeetan alabei itxaroten zien autobus paradan. Astean pare bat aldiz musika eskolara zeramatzan. Nagusiak bonbardinoa jotzen zuen eta txikiak biolina. Ez zegoen besterik. Horixe zen dena.

«Idatzitakoa *Ttu-Ttuá*-ra bidaliko nuen, ezagutzen nuen-eta aldizkarian zebilenetako bat. Argita-

ra ematen bazuten ale bat igorriko nion Begoña Urmaletari. Jakin zezan. Etxetik kanpora zabalduta zegoela ere jakin zezan. Zabalkunde horren neurria gutxiena zen, behin bikotearen hesia gainditu-ta ez zegoelako jakiterik noraino irits zitekeen. Iritsi behar zenengana iristeko arriskua nabarmena zelako.

«Hurrengo zenbakian agertuko dela ziurtatu didate. Gutunazal batean sartuko dut eta azalean Begoña Urmaleta jarri. Eskutitz bat ere sartuko dut.

«*Urmaleta Anderea*

«*Azaldu behar dizudana esateko asko pentsatu dut eta oraindik ez dakit zuzen nabilen. Badakit mezuak beste, edo ia hainbeste, garrantzia daukala zergatik esaten den, zergatik modu honetan, zergatik orain. Nik bistaz baino ez zaitut ezagutzen; zuk, beharbada, ezta bistaz ere. Zure senarraren ezagutza badut, ordea. Gorroto dut, argi esanda. Bere sasoian egin zizkidanak eragindako gorrotoa da. Barkatuko didazu hemen ez aletzea berarengandik jasan behar izan nituenak. Ez nuke erreparorik izango gure artean gutxieneko elkar ezagutza bat balego. Dena den, eskutitz honekin*

*doan aldizkarian aurki dezakezu erakusgai bat* Postariaren mendekua *izeneko narrazioan. Badakit lantokian munstro bat den pertsona adeitsua izan daitekeela kalean, maitagarria etxean. Horregatik zure senarrak izan zezakeen beste alde ezkuturen baten bilaketari ekin nion. Baita aurkitu ere, narrazioan ikusi dezakezun legez. Zeure begiez ikusi nahi baduzu, hona hemen hileko lehenengo larunbatetan bisitatzen duen pisuaren helbidea».*

Begoña Urmaletak ez zituen orrialde hauek hitzez hitz irakurri. Hala ere, ahaztuta zirudiena, gogoan iltzatuta zuela frogatu zuen. Hitz bakoitza bere pisu guztiarekin. Irakurri zituenak eta ez zituenak irakurri ere gogoratu zituen. Eta hori, irakurtze kaotiko hura gauzatzen zuen bitartean, buruan hogeita bost urte lehenagoko egun haietako eszenak agertzen zitzaizkiola, hauek ere modu kaotikoan. Idazlearekiko gorrotoa berritu zuen, senar ohiarekiko sentitzen zuenari gailendu arte.

Agendan topaketen egunak apuntatu zituen. Hortxe zeukan putaseme hura ezagutzeko aukera eta ez zuen alferrik galduko.

Begoña Urmaletak eskuetan zeukan gutuna sobrean sartu eta bere kontsultako postontzian utzi bitartean zalantzak makina bat modutan agertu zitzaizkion Peter Zuazori. Funtsean duda-muda guztien azpian zegoena zen, ea gutun hartan etzandako hitzak gauza izango ziren Barrenetxearen bizitza hondatzeko edo hondatzen hasteko gutxienez.

Joanesek eta Jimmyk espioitza lanetan jarraitu zuten. Barrenetxearengan aldaketaren bat gertatu ote zen antzematea zuten xede. Eta, hala gertatuko balitz, ebaluatzea. Gutuna emazteari utzi eta aste betera hasi ziren zelatariak aldaketak sumatzen senarraren portaeran. Joanes izan zen lehena. Barrenetxearen mugimenduetan, hala pausoan (urduriagoa, abiadura aldaketekin), nola begiradetan. Alde guztietara begiratu behar hura. Naturaltasuna galdu zuen bere agerpenak: pausoa azkartzen zuen derrepentean, berehala moteltzeko; burua zakarki biratzen zuen edozein aldetarantz, atzean edo alboetan zerbait entzun izan balu bezala , norbait harrapatu nahian bailebilen. Joanes izan zen, baita ere, zerbait gertatzen ari zenaren froga egiaztatu zuena. Pauso eta buru mugimenduen desnaturalizazioa hasi eta egun batzuetara izan zen. Barrenetxea ohi baino ordu laurden lehenago

irten zen etxetik, zazpiak bost gutxiagotan. Alde guztietara begiratu zuen, ohitura hartu berriari jarraituz. Atari aurretik mugitzeke, tabako paketea atera zuen eta zigarro bat piztu. Tirakada gogor bat egin zion zigarroari eta presarik gabe, kea bota zuen. Arnasa hartu ezinean denbora gehiegi eman ondoren, hauspoa ondo betetzeko lehen aukera duenaren gisan. Estutasunetik atera berria denaren moldean. Lehenengoz ikusi zuen erretzen Zuazok.

Hurrengo egunetan tenore bertsuan jarraitu zuen, gorabehera batzuekin, baina lehengo normaltasunera itzuli gabe. Abiadura aldaketa zakarrak ibilian, alde guztietara begiratu beharra, zigarroa erretzea etxetik irten orduko. Zerbait gertatua zen Barrenetxea eta emaztearen artean, arrakalaren bat zabaldu zen. Begoña Urmaletak Peter Zuazoren gutuna jaso eta hamahirugarren egunean, larunbata, ama-alabak baino ez ziren joan arratsaldean paseoan, ziurrenik Zabalgunera, non, hainbatetan, txokolatea hartuko zuten. Jimmy etxe inguruan geratu zen, Barrenetxea irtengo zenaren esperantzarekin. Ez zen irten. Hobe, pentsatu zuen Zuazok. Irtengo balitz, bizitzari aurre egiteko moduan zegoela erakutsiko luke. Etxean geratu bada, sofan hondoratuta, burua makur, irudikatzen zuen

Zuazok, indar gabe dagoenaren seinale izan daiteke. Amorruak edo gorrotoak edo mendeku-goseak, esate baterako, eman ditzaketen indarrei, nor bere buruarekiko errukiak, tristurak edo dena delakoak gailentzen zaizkie. Beldurra beste kontu bat da. Indarra ematen duten eta kentzen duten osagaietan egon daiteke. Biharamunean ez zen joan Bakixara emaztea eta alabekin.

Helburua guztiz beteta ez bazegoen ere, helburu bat gutxienez, itxura guztien arabera, bai. Helburua Barrenetxea heriotzara eramatea zen. Betetako helburua sufrimendua sortzea. Agian sufrimendua areagotzea esan beharko litzateke, sufritu denok sufritzen baitugu gehiago edo gutxiago. Edo sufrimendua bilakatzea bere bizitzaren ardatz, eguneko ordu guztietan sentsazio hori izatea nagusia. Hori konplitua zela zirudien. Egia esatera, ordurako, Zuazo pentsatzen hasita zegoen, menturaz, etengabeko sufrimendu eramangaitzean biziaraztea mendeku hobea izan zitekeela heriorekin bat egitera eramatea baino. Izan ere, zerbaitek ematen badie amaia oinaze guztiei, hori heriotza da. Ildo horretatik erabaki zuen Barrenetxea pairamen jasanezinean murgilduta zegoela baieztatuz

gero, ongi burututzat eman zezakeela bere eginkizuna. Erreматea behar zuen lantegiak.

Barrenetxearekiko zaintza erlaxatu zuten pixka bat Joanesek eta Jimmyk. Pare bat egunetan, ausaz aukeratuak, zelatatzen zuten astegunetan. Larunbatetan eta igandeetan emazteak, alabekin, ohiko errutinari jarraitzen zion bitartean, bera etxean geratzen zen. Jaurtigaiak jomugan jo zuen bete-betean. Hala ere, Zuazok ez zekien kalteen tamaina. Horren peskizan jarraitzen zuten Joanesek eta Jimmyk.

Astearte bat. Lanetik itzultzean, kafetegitik pasatu gabe, autoa etxeko atari aurrean utzi zuen, eskubiko bi gurpilak espaloi gainean eta keinukariak martxan. Poltsaz eta kaxaz maletategia eta atzeko jesarlekuak beteta, abian jarri zen BMWa. Zaintza erlaxatzeak Jimmyk eta Joanesek autorik ez erabiltzea ere ekarri zuen. Azken batean puntu jakin batzuk kontrolatzea aski zen: etxea eta bulegoa nagusiki. Batetik besterako bideak egitean ez zen ezer gertatzen. Aipatu puntuetan ere ez gauza handirik. Keinu berriren bat, azken boladan lerdentasuna galtzen ari dela, konkortzen hasi ote den. Barrenetxearen zamaketa lanak astia eman zion Jimmyri jazarpena prestatzeko. Barrenetxea laugarrenez jaitsi orduko pisutsua zirudien kar-

toizko kaxa bat besoetan, taxi bat agertu zen, zorionez. Zorioneko taxiak, pentsatu zuen Jimmyk. Aparkatuta zeuden autoekiko paralelo geratu zen Jimmyren eskariari erantzunez.

Honek ez zuenez ezer esaten atzeko jesarlekuan eseri eta gero ere, gidariak atzera jiratu zuen burua, bekainak pittin bat jasota.

– Nora?

– Laster esango dizut.

Laburra bai, baina ez antzemanezina erantzuna entzunda taxi-gidaria begira geratu zitzaion tartea.

– Esango didazu nahi duzunean –eta kontagailua martxan jarri zuen. Laster amaitu zuen Barrenetxeak zama lana.

– Segi BMW horri.

Ispilutik begiratu zion gidariak, kezkatsu. Jimmyk agindua errepikatu zion: *Zuk segi BMW horri.* Taxi-gidariak tarteka atzerako ispilura begiratzen zuen, lennon betaurrekoen atzean begi sorgor batzuekin topo egin arte. Iparragirre kalean geratu zen Barrenetxea, berriro ere gurpil bi espaloian. Parean zeukan atarian txirrina jo zuen. Emakume bat jaitsi zen. Adeitsu mintzatu ziren, irribarrea ezpainetan. Ziurrenik, bien keinuei erreparatuta, emakumeak bere burua eskainiko

zion poltsak igotzen laguntzeko eta Barrenetxeak ezetz erantzun, eskertzen zuela, baina ez zela horren beharrik. Ordurako Jimmyk ikusia zuen atarian zegoen ostatu ikur urdina. Barrenetxea bazihoan etxetik. Helburuaren betetze mailak koxka bat egin zuen gora. Hala ere, une hartan aurreko batean sentitutako panikoa itzuli zitzaion Zuazori. Bikain, pentsatu zuen, putaseme hau bota dute etxetik. Baina, trantsiziorik gabe eta ikusita ostatu-buru izan behar zuen emakumearekin izandako enkontruaren manerak, ea tipo hau bere bizitza berreraikitzeko gauza den, galdetu zion bere buruari. Demasa izango litzateke halako lanak hartu eta gero Peter Zuazo bera izatea putaseme haren bizitza berreraikitzera bultzatuko zuena, menturaz galdutakoa baino hobea aurkitzera. Gauza batek pentsarazten zion ez zeukala zertan horrela izan, alegia, enkontru hura atarian amaitu zela, ez zirela zerbait hartzera joan, ez zirela biak ostatuan sartu. Lortu zuen gogoeta ilun haietatik aldentzea. Bistakoa zen Barrenetxea hondoratuta zegoela. Lasai egon zitekeen. Gozatzen. Gainera, zorionez ez zen halakorik gertatu. Joanesek eta Jimmyk hurrengo asteetan egindako jazarpenak horixe baieztatzen zuen. Ez ziren berriro elkartu. Barrenetxearen konkorrak ez

zuen hobera egin. Bere bisaiaren ilunak ere ez. Gerta zitekeen, denborak aurrera egin ahala, noizbait, burua altxatzen hastea. Han egongo zen Zuazo orpokada zehatz bat emateko altxatzen hasi orduko, lehen baino sakonago lurperatzeko buru hura. Putakume hura.

Zalantza bat zeukan: Barrenetxearengana joan eta, esate baterako, eskuan eman aldizkaria. Edozein modutan ere jakingo zuen haren guztiaren atzean Peter Zuazo zegoela. Plazera emango zion, ez zeukan zalantzarik, pentsatze hutsak ematen baitzion.

Alboratu egin zuen Barrenetxearengana joan eta *aizu putakume galant hori, neu izan naiz* esatea. Azken batean, hobe izango zen gertatutakoa emaztearen ahotik jakitea. Nahiz eta talka hura ezin ikusteak atsekabetu egiten zuen pittin bat Zuazo.

Erretiroa eman zien Joanesi eta Jimmyri. Behin-behinekoa izango da, sei hilabete barru berriro irten beharko zarete Barrenetxea zertan dabilen jakiteko, deskuiduan burua pittin bat baino ez bada ere jaso badu, ostikoka simaurpean sarrarazteko. Zuazo konturatzen zen berak sortutako bi pertsonaia haiekin hitz egitea patologia larriren baten sintoma izan zitekeela. Areago pertsonaiak euren artean solastatzea. Bigarren asterako irtetea eskatzen ari zitzaizkion biak.

Gustua hartu zioten, nonbait, Jimmyk eta Joanesek. Hilabete batzuen buruan Zuazok menean hartu zituen bere bi kumeak eta ez ziren gehiago gorpuztu.

Nekez eutsi zion Begoña Urmaletak eskutitza apurtzeko bulkadari. Berriro tolestu eta aldizkarian sartu zuen. Narrazioa amaitzen zen orrian bertan hasiera batean, baina zerbaitek esan zion beste edonon jartzeko, narrazio horretan ez beste edonon. Keinu superstizioso bat nonbait. Hartu zuen tokian paratu zuen berriro aldizkaria, azken mende laurdena egin zuen tokian. Ez oso agerian. Paper haiek ukitzearekin batera lasaiago sentitu zen, bihotz taupadek kadentzia mantsoagoa hartu zuten eta honek buruan era kaotikoan zebilzkion irudi eta ideiak gutxieneko oreka berreskuratu zuten.

Atzo izan balitz bezala. Horrela oroitzen zuen emakumeak postontzitik gutunazal hura jaso zuenekoa. Bere izen-abizenak baino ez zekartzan. Ez zigilu-markarik ez helbiderik. Igorleak zuzenean, edo agian hark bidalitako norbaitek, utzi zuen postontzian. Irribarre xumea ezpainetaratu zitzaion orduan, gutunazala postontzitik atera eta bere izen-abizenak irakurri zituenean, poztu egin zela gogoratzean. Bitxia da zelako kontuekin poztu gaitezkeen, pentsatu zuen. Nor-

bait gutaz gogoratu delako? Ez dauka zentzu handirik ze, izan, edozer izan daiteke, heriotza mehatxu bat barne. Beharbada zerbaiten itxaropena pizten duelako, gure desioren bat betetzekoa ziurrenik.

Etxera sartu eta gutun-azala ireki bitartean iraun zion pozak. Egia da ataritik pisurako tarte laburrean itxaropenak erraz puztu daitezkeela. Desioen tamainekiko zuzenki proportzionala da hazkundea. Hala gertatu zitzaion Begoña Urmaletari. Eskuz idatzitako orri bat ikusteak areagotu egin zion sentsazio hori. Baina irakurtzearekin batera amaitu ziren alegrantziak. Umeak telebistaren aurrean utzi eta sukaldera joan zen gutun-azala irekitzera. Zutik irakurri zuen eskutitza. Ipuinean agertzen dena zen. Hitzez hitz. Jesarri eta berriro irakurri zuen. Aldizkaria zabaldu eta presaka pasatzen zituen orriak aurrerantz eta atzerantz ipuinaren bila. Aurkitu zuenean logelara joan zen irakurtzera. Nekez iritsi zen, bihotzaren taupaden, arnasaren eta pausoaren artean ez baitzegoen elkar ulertze minimorik. Ohearen erpin batean jesarri eta *Postariaren mendekua* irakurri zuen.

Umeak oheratutakoan sofan jesarri ziren senaremazteak. Ohi bezala. Gizona telebistaren mandoaren

bila hasi orduko, Begoña Urmaletak aldizkaria eman zion, irakurri beharreko ipuinean zabalik.

– Zer da hau? –galdetu zion emazteari, mandoaren bilaketa utzi gabe.

– Literatur aldizkari bat dirudi.

– Literaturarekiko interesa piztu zaizu ala?

– Ez. Postontzian zegoen, ipuin hori irakurtzeko eskatuz zioen eskutitz batekin. Niri bidalia. Baina niri beste dagokizu zuri.

Senarrak izenburua irakurtzerakoan utzi zion mandoa bilatzeari. Lehenengo esaldia irakurritakoan hasi zitzaion bisaia zurbiltzen. Irakurketa amaitutakoan begiak paperean itsatsita geratu zitzaizkion. Zuazo kabroi halakoa! Akabatuko dut! Gisa honetakoak zebilzkion buruan, behin eta berriro errepikatuz, forja bateko matxinoaren kolpeak bailiran. Eta begiak paperean itsatsita segitzen zuen, estatua bat bezain geldi. Emaztea berari begira. Hain geldi ikusita, zerraldoa irudi, une batean errukitu ere egin zen senarraz. Une ñimiñoa, ze, konturatu orduko, errieta egin baitzion bere buruari. Nolako aurpegia tipoak, pentsatu zuen, horrela, ezer esan gabe geratzeko gauza da. Gauza zen. Edo ezgauza, nondik begiratzen den. Oraindik tarte bat gehiago egin zuen Begoña Urmaletak sofan

jesarrita, senarraren hitzen zain. Alferrik zela erabaki zuen arte. Orduan, altxatu eta logelarantz abiatu zen.

– Ez zaitez etorri –eta logelako atea itxi zuen.

Begoña Urmaletaren negar-zotinak baino ez zuen urratu gaueko isiltasuna. Bere buruari aitortzen ez zion arren, bere baitan bazekien ezezagun batekin bizi zela. Hura ez zen berak hamabost urte lehenago ezagutu zuena. Hori esaten zion bere buruari, kontsolamendu ariketa antzu batean. Kontsolamendu saiakera horrek ondorio larriagoetara zeraman: elkarrekin bizi zirela bilakatu zen munstro senarra. Sadikoa bere menpeko langileekin, batek daki zer goi-standingeko putekin. Lo gutxi eta gaizki eginda jaiki zen biharamunean. Senarra sukaldean aurkitu zuen gosaltzen. Isilik jardun zuen bakoitzak berean.

Barrenetxeak bazekien berari zegokiola azalpenen bat ematea Peter Zuazoren libeloaren harira. Emaztea sukaldera sartu zenean konturatu zen, ordea, ez zeukala ezer esateko, ez behintzat bikotearen biziraupenari mesede egin ziezaiokeen ganorazko ezer. Izan ere, gau malapartatu hartan bikotea baino gehiago, edo bikotea barik, Peter Zuazo erabili zuen bere burutazio eta hausnarketetan. Libelo haren erruduna izorratu behar zuen nola edo hala. Carl Lewis madarika-

tua. Salaketa bat jarri difamazioagatik. Legeak emango zion babesa, eman beharko zion, halako piztia antisozial bat egurtzeko. Benetako izenak erabilita, zabor hark gutxi zeukan ipuinetik. Hori literatura baldin bada, a zelako simaur pila. Hortik hasiko zitzaion mintzatzen emazteari, bere burua amarru zital baten biktimatzat hartuz. Jakina, hilean behineko larunbatetako txangoek azalpenen bat behar zuten. Dena ukatu eta kito. Berari kalte egite hutsagatik asmatutako gezur laidogarri bat baino ez zen. Aski zuen txangoak etetearekin. Azken batean, ez zen maitale bat zuela. Putenganako joan-etorriek ez zuten arrastorik uzten, ez, behintzat, emazteak antzemateko modukorik. Ez zuen inolako frogarik izango. Aldizkaria jaso bezain laster eman beharrean, larunbat haietako batean Mazarredo zumardiko atari hartan nola sartzen zen senarra bere begiekin ikustera itxaron izan balu behintzat. Hori ez zuenez egin, nahikoa zen hara ez itzultzearekin. Momentuz bederen. Dena zen mendeku goseak itsututako langile herratsu baten erasoa.

Dirudienez Barrenetxeari ez zitzaion burutik pasa ere egin bere emazteak ez zuela inongo frogaren zain egon beharrik. Ez zuela afera parametro horietan kokatzen. Momentu batean ere ez zuen zalantzarik izan

*Postariaren mendekua*-n kontatzen zenaz. Frogarik ez izateak epaitegi batean balio lezake batzuetan akusatua erruduntzat ez jotzeko. Baina hura ez zen epaitegi bat, hura bikotea zen eta, hedaduraz, familia. Isiltasun hartan, Begoña Urmaleta gero eta irmoago gizatxar harengandik bereizteko hartutako erabakian; Barrenetxea gero eta seguruago bere azalpenen apelaezintasunean. Hain seguru, ezen egun on esanez hasi zela. Egun on. Halako isilune baten ostean, egun on. Halako gau baten ostean. Une sublimea. Lekuz kanpo, modu leun batean esateagatik, egotearen erakustaldi gorena eskaini zion emazteari Barrenetxeak. Eta azalpenari ekin zion.

– Begira, Bego. Hori idatzi duena...

– Umeak esnatzera noa –eten zion emazteak, haien gelara abiaturik–. Zoaz hemendik lehenbailehen.

Barrenetxeak egin zuen jarraitzeko ahalegina, baina alferrikakoa izan zen. Entzudazu mesedez, esan orduko sukaldean ziren alabak. Gosaldu zuten familia eredugarrien moldean, laurak mahaian jesarrita. Ohi baino gehiago hitz egin zien aitak alabei, ohi baino gutxiago amak, deus ez senar-emazteek euren artean.

# Peter Zuazoren bila

Liburua itxi eta Avernoko sasoietara eramana sentitzen zen Aretxabaleta. Peter Zuazo irratira eramateko ahalegin antzuak akorduan. Mario Castetekin egindakoak. Ondo legoke Castet ere jardunaldietara gonbidatzea. Ez zen zaila izango aurkitzea. Litekeena da, pentsatu zuen Aretxabaletak, oraindik infrarrealismoan lerrokatuta ibiltzea. Irribarre etsia egin zuen burutazioaren inozotasunaz jabetuta.

Zailagoa izan zitekeen Peter Zuazo aurkitzea, ziurtzat jotzen zuen arren, inolako daturik gabe, Bilbon bizi zela. Orri batean hogeita zazpi Zuazo apuntatu zituen, beste hainbeste, helbidea irizpidetzat erabiliz, baztertu egin zituen. Lana bukatutakoan ohartu zen horretaz, hogeita zazpina zirela, zehatz, aukeratutakoak eta alboratuak. Animatu egin zuen datuak, zerbait iradokitzailea bailitzan.

Biharamunean beste aldarte batez begiratu zion bezperan egindako eragiketari. Berrogeita hamalau zati bi, hogeita zazpi. Ez zion sujerentziarik antzeman. Joan behar bazuen, joan egingo zen. Txurdinaga eta

Zorrotza bitartean barreiatuta zeuden hogeita zazpi atariak bisitatuko zituen, banan-banan, ea baten batean postontzi bat aurkitzen zuen Peter Zuazo izena zeukana. Baina lehenengo liburudendaren batera joatea hobe. Agian irakurtzen jarraitzen zuelako eta, hala balitz, beharbada liburuak erosiko zituelako. Liburudendak ez zirelako, ezta hurrik eman ere, bisitatu beharreko atariak beste. Aretxabaletak ez zuen libururik erosten, liburutegietan hartzen zituen maileguan. Hala ere sartzen zen liburudendetan, jeneroa begiratzera. Eroslea ez izatean, ordea, ez zeukan inolako harremanik liburu saltzaileekin. Ezta gehien bisitatzen zuen Verdes liburudendakoekin, katea handien atzaparretatik at geratzen zen liburudenda bakarrenetakoa. Horregatik zela uste zuen behintzat.

Arratsaldean joan zen Verdesera. Idazle bat baino gehiago zituen ikusita liburudenda hartan. Luzea eta estua zen. Sarrera ondoan, eskubian, mahai baten atzean emakumea zegoen eserita, gizona, bikotetzat zituen Aretxabaletak, liburuak apaletan paratzen ari zen bitartean.

– Arratsaldeon. Galdera bat egin nahi dizut: ezagutzen al duzu Peter Zuazo?

Istant batez berari begira egon ondoren erantzun zion emakumeak.

– Bai, ezagutzen dut.

– Esan nahi dudana da ea pertsonalki ezagutzen duzuen.

Begiradari lotutako istant isila aurrekoa baino luzexeagoa izan zen. Noizbehinka sartzen zen Aretxabaleta liburudenda hartan. Ezagut zezaketen bertokoek. Agian aurrean galdezka zeukana nor zen gogoratu nahian ibiliko zen emakumea, Zuazoren balizko intimitatea babesten baino areago.

– Ezagutu, ezagutzen dugu, bai.

Arras enigmatikoa iruditu zitzaion Aretxabaletari erantzuna, nola hitzengatik hala doinuarengatik. Edozein modutan, berari zegokion jarraitzea, peskizaren arrazoiren bat azalduz kasurako.

– Kontua da berarekin harremanetan jarri nahi dudala eta ez dakidala nola aurkitu. Ez daukat arrastorik ere. Pentsatu dut litekeena dela Zuazo zuen bezero izatea, agian lagun diezadakezuela.

Gizona inguratu zitzaien.

– Peter Zuazoz galdezka dabil –jakinarazi zion bikotekide edo lankide edo dena delakoak.

– Peter Zuazo –errepikatu zuen irribarre onbera ezpainetan gizonak.

Aretxabaletak zer esango esperoan geratu ziren biak. Argi zegoen zerbait zehatza atera nahi bazuen handik, berak izan beharko zuela zehatzago.

– Etortzen al da hona?

– Noizean behin –emakumeak.

– Oso noizean behin –gizonak.

– Baduzue bere helbidea edo telefonoa edo zer edo zer?

– Ez –biek batera.

Eskerrak eman zizkien eta irtetera zihoala gizonak esan zion:

– Aizu, uste dut Errekalden bizi dela.

Zerbait positiboa behintzat, pentsatu zuen Aretxabaletak, ordurako etsita baitzegoen denari ezetz erantzuten zion bikotearekin. Horrek animatu zuelako, batek daki zergatik, galdeketarekin jarraitu zuen Aretxabaletak.

– Badaukazue *Postariaren mendekua*?

– Ez. Baina, nahi izanez gero, etxean daukadana fotokopia zenezake. Bidebarrietako liburutegi aurrean egiten dituzte kopiak.

Liburuak maite zituen liburu saltzailea izaki, eskuzabala zirudien, ona iruditu zitzaion lana zabaltzeko prest agertzen zen, ze, pentsatu behar ona iruditu zitzaiola, bestela ez zukeen etxeko alea fotokopiak egiteko eskainiko. Edozein modutan, Bidebarrietako liburutegi aurreko fotokopia-denda aipatzeak iradokitzen zuen ez zuela nahi liburua bere eskuetatik gehiegi urrun zedin. Ulertzekoa, Aretxabaleta ezagutzen ez zuela kontuan hartu ezkero.

– Eskerrik asko, badaukat ale bat nik ere. Jakinmin hutsa baino ez zen.

Ia kalean zeukan oina lurrean jartzeko astirik eman gabe, *Postariaren mendekua*-z zer iritzi zeukan galdetu zion gizonak. Aretxabaleta ez zegoen luzamenduetarako.

– Ona. Atzo bertan irakurri nuen berriro.

– Oso ona –gizonak.

– Bada, niretzat eskasa –eman zuen bere iritzia, labur honek ere, solasetik at baina entzuteko moduan zegoen emakumeak.

Liburudendatik irten eta lasterrera ikusi zuen okindegiak gogora ekarri zion sasoi batean ohikoa zela alokatzeko etxe bila zebilenak halakoetara jotzea auzoan egon zitezkeen aukerez galdetzera. Ogia saltze-

tik harago, denda haien eginkizun soziala eremu ugariagotara iristen zen. Zuazok ogia erosiko zuen ziurrenik. Beti okindegi berean, ausaz. Galde zezakeen okindegietan. Hala ere, hori baino lehenago, hobe berriro telefono-gidara jotzea. Gutxi balira Errekalden agertzen diren zuazotarrak, dei zezakeen telefono publikoren batetik edo atariak bisitatu. Errekalde eta Casillaren artean bost Zuazo agertzen ziren gidan. Ez zen segurua, ostera, haien artean egotea Peter. Abizen bat edo bi jartzen dituzte gidan eta izenaren iniziala. Bazeuden J.P. bat eta P.J. bat. P. horrek ez zeukan zertan zerikusirik izan Zuazoren izenarekin, hau edozein zela. Bi horiei deituko zien. Huts eginez gero, beste hiru atarietara joango zen. Aukeretan hirugarrena, okindegiak.

Etxera igo aurretik telefono-kabina batera joan zen. Jende gehienak ez bezala, ezagutzen zuen inguruetakoen kokalekua. Deitu zuen bi zenbakietara. Han ez zela Peter Zuazorik erantzun zioten bietan. Kontrakoak bai harrituko zuen, besteak beste, ez zirudielako oso sinesgarri Peter izatea ponteko izena.

Hurrengo goizean bazekien ez zuela bakerik izango Zuazoren bila joan arte, aurkitu arte. Berarekin egin zuen ametsetan. Zer hitz egin zuten gogoan zeu-

kan, ez, ordea, haren fisionomia. Bazegoen amets hartako solasaldian hirugarren bat, emakumea, ez zuena ezagutzen, baina bere aurpegia aurrean balu bezala ikusten zuena. Zerbait esan zuenaren oroimen lausoa zeukan Aretxabaletak, baina ez zuen ezer gogoratzen. Zuazoren ahotsa eta emakumearen aurpegiera geratu zitzaizkion itsatsita amets hartatik. *Uzkitik isuritakoak* eta *Postariaren mendekua* plastikozko poltsa batean sartu eta Errekalderantz abiatu zen. Eguraldi paregabea, zerua erabat estalita eta euritarako zantzorik bat ere ez. Irten aurretik berriro begiratu zuen ea hiru atarien helbideak zituen paper puxka praken atzeko poltsikoan zegoen. Hiru atarietan ere ez zuen postontzietan Peterrik aurkitu idatzita. Nieves, Jose Mari eta Joanes.

Joanes. Arraioa!

Birritan pentsatu gabe eskaileran gora egin zuen. Goizeko bederatziak ez zen ordurik egokiena ezezagun baten etxeko atea jotzeko. Ez zuen horretaz pentsatu. Are desegokiago ez dakizunean zer esango diozun. Horretaz bai, pentsatu zuen. Ez zion bere benetako asmoa adieraziko, ez zion aipatuko gauzatzeko probabilitate handiak ez zituen topaketa batera gonbidatu nahi zuela. Probabilitateengatik ez ezik, susmoa

zuelako Zuazo ez zela agerpen publikoen aldeko. Hirugarren solairua. Ezkerreko atea. Pausoak entzun zituen barruan. Behatxulotik begira ari zitzaion. Ebaluatzen. Har zezala behar zuen denbora erabakitzeko atea ireki ala ireki gabe nor den eta zertara datorren galdetzeko ala, besterik gabe, bere zereginetara itzultzeko atejole ezordukoa bertan utzita. Atea ireki zuen. Ez zen seinale txarra.

– Ta?

– Egun on, Zuazo jauna. Barka atrebentzia, badakit hau ez dela jokamolde egokia, baina gauza bat eskatzera natorkizu.

Geldialditxo bat egin zuen Aretxabaletak bere jario inprobisatuan. Zuazok ez zuen deus esan. Zirkinik ere ez. Etxean ibiltzeko arropaz zegoen jantzita. Sudadera bat, supermerkatu baten publizitatea paparrean, eta praka nasai batzuk, pijamakoak izan gabe oherako erabiltzen dituztenak gizon batzuek. Betaurrekoak zituen, irakurtzekoak izango zirenak seguruenik, haien gainetik begiratzen baitzion bisitariari.

– Patxi Aretxabaleta naiz –ez zirudien izenak ezer esaten zionik Zuazori, zirkinik egin gabe jarraitzen baitzuen bisitari begietara so–. Behin hitz egin genuen, agian ez duzu gogoan izango. Telefonoz deitu nizun

Ezkila Irratitik, elkarrizketa bat egiteko. Ez genuen egin.

– Bai, gogoan dut.

Lehenengo zuloa eginda zegoen harresian. Aretxabaletak eskuan zeraman plastikozko poltsatik bi liburuak atera zituen.

– Zuk liburu hauek sinatzeko eskatzera nator.

Zuazok begiak zabaldu zituen, halako moldez non ez zegoen jakiterik betaurrekoetatik edo hauen gainetik begiratzen zuen. Harresian egindako zuloa agian ez zen nahikoa izango. Soinez erlaxatuago zirudien arren, begiradak ez zuen halakorik adierazten.

– Adarra jotzen ari zara.

Ez zen hori, inondik ere, Aretxabaletaren asmoa. Hala jakinarazi zion. Lehengo batean bere ipuin liburua hizpide izan zutela lagunartean. Etxera itzulitakoan irakurtzeari ekin ziola. Erosi zuenean baino atsegin handiagoz irakurri zuela. Avernoko ahotsak oroitu zituela. Egilea ezagutzeko erabaki irmoa hartu zuela. Kosta ahala kosta. Egilearen sinadura nahi zuela liburuetan.

– Ez dirudizu arriskutsua. Gezurtia bai, baina arriskutsua ez. Sartu, mesedez.

Irribarretsu sartu zen Aretxabaleta, ondo hezitakoen manerekin, harrokeriarik gabe, baina harresian egindako zulotik nasai pasatzea lortzearengatik garaile. Liburuak berriro sartu zituen plastikozko poltsan. Sukaldera eraman zuen Zuazok. Ea kaferik nahi zuen, egin berria zuela, gosaria amaitzen harrapatu baitzuen. Txukun zeuzkan inguruak, hori iruditu zitzaion Aretxabaletari. Goizeko lehen orduak izanagatik, aireztatuta zegoen etxea, bai behintzat atetik sukaldera egindako bidea. Sukaldean kafe egin berriaren usain leuna. Mahaiaren ondoko horman eskegita zegoen egutegi batek Aretxabaletaren arreta bereganatu zuen. Aspaldikoa zen, aspaldiko baten erreprodukzioa. 1928koa. Kolore biziak, gizontzar bat hiru hankadun aulki batean jesarrita, bizkarra atzeko mahaian bermatuta, garagardoarena baino izan ezin den pitxarra sabel gainean. Gorputzaren jarrerak kontrakoa iradoki arren, ez du mozkorraren bisaia. Gorputzez ez bezala, aurpegiz anfitrioiaren antza zuen, ez nolanahikoa. Horretaz ohartzean, automatikoki egin ohi den bezala, Zuazori begiratu zion eta berriro egutegiko gizonari.

– Hogeita zortzi urtero bat egiten dute egutegiek.

Hori entzundakoan ohartu zen Aretxabaleta egutegi hura ez zela soilik antigoaleko apaingarria. Urte hartarako ere balio zuela, asteko egun guztiak bat zetozelako. Eta orduantxe erabaki zuen egutegiko gizonaren eta Zuazoren arteko antzekotasunik ez aipatzea. Izan ere, ikusi zuen egutegitik Zuazoren aurpegira eta hortik egutegirako bere begiraden bidea jarraitu zuela, xehetasun osoz, Zuazok. Hitz gutxitan: aurpegien alderaketa egin zuenean Zuazori ikusi zion bisaiak gai hori ez ukitzea iradoki zion Aretxabaletari. Sujerentzia zuzena zirudien poeta ohiaren hitzei erreparatuz gero.

– Zeuk esango duzu zerk ekarri zaituen hona. Eta hona iristeko hartutako lanak hartzera.

– Ez duzu sinetsiko.

– Lehen esan didazuna esaten badidazu, ez, ez dizut sinetsiko. Edonola ere, agian xarmangarria irudituko zait gezurra, ezagutu ezin dudan egia baino ederragoa.

– Absurdoa dirudien arren, horixe da egia. Lehengo larunbatean hizpide izan zintugun, *Postariaren mendekua*, hain zuzen. Etxean zure liburuak berrirakurtzeari ekin nion. *Avernoko Ahotsak* gogoratu ni-

tuen, zurekin hitz egiteko ahalegin antzuak. Eta horrela erabaki nuen zuregana etortzea.

Zuazok irribarrea jarri zion aurpegiari. Zalantzarik gabe absurdoa zen Aretxabaletaren ahotik bigarrenez entzun behar izan zuen azalpena. Baina bisitariak pentsatu zuen aurrean zeukan gizonak, ausaz, pentsa zezakeela batzuetan azalpenik absurdoenak egia izan zitezkeela. Egia uste baino gehiagotan da absurdoa. Zuazori, agian, ez ziola axola entzundakoa egia zen ala ez ere pentsatu zuen Aretxabaletak, hala ondoriozta zitekeela gezurraren xarmaz esandakotik.

– Eta nolatan izan zenuten, bada, *Postariaren mendekua* hizpide? Ipuina bera ala bilduma?

– *Averno Ahotsak* programa atera zen solasean eta, batak betea dakarrenez... –hasi zen inprobisatzen Aretxabaleta.

– Zure programa hark, nik ere sarritan entzuten nuen, makina bat kontu ekar ditzakeela uste dut, ez, halabeharrez, *Postariaren mendekua*.

– Arrazoi duzu. Uste dut, norbaitek galdetuta beharbada, saioak utzi zidan arantza aipatu nuen, zurekin egin gabe geratu zen elkarrizketa.

– Uste duzu?

– Esateko modu bat. Bai, neronek aipatu nuen ipuina, arantza. Inork galdetu gabe –norberaren hitzak ezeztatuz egiten diren zuzenketek ematen duten doinu zintzoarekin erantzun zion Aretxabaletak.

– *Uste dut* gehiegitan erabiltzea sekula ez erabiltzea bezain faltsua dela uste dut nik.

– Hala uste dut nik ere.

Aretxabaletak ezagutzen zituen ipuin haren inguru-koak, neurri batean bederen. Bazekien gertatutakoetatik abiatutako ipuina baino gehiago gertatutakoa kontatzen zuena zela. Benetako izenak erabili zituela Zuazok desipuin hura idazterakoan. Hori guztia kalera irten zen *Ttu-Ttuá*-n argitaratu eta lasterrera. Kalera diogunean ez da esan nahi probintzia osoan hitzetik hortzera ibili zela txutxumutxua, baina bai halako aldizkariak irakurtzen ziren giroetan (beti ere txikiak) eta, horietatik urruti, Barrenetxea-Urmaleta familiarenean. Ezagutzen zuena ezagututa, ez zuen gehiago behar narrazio hura mendekua zela ondorioztatzeko. Gustura galdetuko ziokeen Zuazori gertaera haiei buruz, baina desegokia iruditu zitzaion eta ez zuen egin.

Anfitrioiak kikarak batu eta harraskan utzi zituen. Sukaldeko leihoa ireki zuen. Etxea egurastearen alde-

ko gizona begitandu zitzaion Aretxabaletari. Sukaldetik irteteko gonbita egin zion, besoa luzatuz, Zuazok. Bisitariak, plastikozko poltsa eskuetan, ezin izan zuen asmatu keinuaz etxetik alde egiteko agintzen zion ala ez. Zalantza hori adierazten zuen atea gurutzatzeko bere moldeak, astiro, batera eta bestera begiratuz, nondik jo ez bailekien. Zuazok bazuen jakinmina, ordea. Ez bisitari arrotz hark izan zitzakeen benetako asmoez. Bai, ostera, berari buruz lagunarteko solas hartan esan zenaz. Hala bada, sukaldetik irten orduko aurrea hartu zion eta salara sartu zen. Atzetik joan zitzaion Aretxabaleta, lehengo pauso zalantzatiez. Sala ez zen handia, pisua ere ez itxura guztien arabera. Txukuna iritzi zion bisitariak. Kalifikazioak ezartzeko norbere burua hartu ohi dugu erreferentziatzat, norbere buruaz dugun pertzepzioa, zehatz esateko. Bera bezala bakarrik bizi zen gizona, pentsatu zuen Aretxabaletak, hamar bat urte gehiago izango zituen, berea baino zertxobait txukunago iruditu zitzaion ordura arte ikusitakoa etxe hartan, ez asko edozein modutan. Ez zegoen balizko emakumeren baten arrastoa zirudikeen ezer. Berean bezala. Zutik zeuden salaren erdian. Kanpoko atea ere bertan zegoenez, Aretxabaletak lehengo zalantzekin jarraitzen zuen: ez zekien an-

fitrioia despeditzen edo salan jesartzeko gonbita egitear ari zitzaion. Telefonoak jo zuen. Zuazok inalanbrikoa hartu eta aldendu egin zen pittin bat. Aretxabaletak apalategirantz jo zuen telefonoz hitz egiten ari zenarengandik urrunduz. Haren intimitatearekiko begirunez. Hori esan badaiteke liburuak begiratzera doanaz. Liburuei ez zien jaramonik egin, nahiz eta edonork, bere jarrerari erreparatuz gero, izenburu guztiak errenkadan irakurtzen ari zela pentsatuko zukeen. Egiten ari zena urrun zegoen, baina, bere gorputzak adieraz zezakeenetik. Zuazok telefonoaren beste aldean zeukanarekin zuen elkarrizketa harrapatu nahian zebilen bisitaria. Emakume batekin ziharduen, haren ahotsa doi-doi entzun baitzuen. Edonola ere Aretxabaletak ez zuen ezer garbirik atera. Ez zuen ezer atera. Aspaldi antzeman zuen eta hazten ari zitzaion entzumen galerari egotzi zion.

Zuazok berari eta *Postariaren mendekua*-ri buruz esandakoak entzun nahiko lizkioke Aretxabaletari. Eta zer esan zen, bada, zure lagunartean niri buruz, ipuinei buruz? Zenbatek ezagutzen zuten? Ez zizkion galdera horiek egingo. Zutik jarraitzen zuten. Zuazok ere ez zeukan argi zer egin. Kanpoko atea erakutsi, jesartzera gonbidatu.

– Beraz, liburuak sinatzea nahi duzu.

– Egia esan behar badizut, zu aurkitzearekin eta ezagutzearekin nahikoa zela pentsatu dut, baina, behin hemen, bai, gustatuko litzaidake.

Liburuak poltsatik atera eta mahai gainean jarri zituen, ordenagailuaren ondoan. Zuazo eseri egin zen aulki ergonomikoan. Aurrean zituen bi liburuak, zerbaiten esperoan. Zerbaiten esperoan Aretxabaleta ere. Idatzi zuen zerbait *Uzkitik isuritakoak*-en lehenengo orrialdean. Begiratu zion bisitariari erretratugileak modeloari begiratzen dion gisan ikusitakoa mihisean islatzeko. Idatzi zuen *Postariaren mendekua*-n.

– Lehenengo aldia da liburu bat sinatzen dudana.

– Ohore bat da. Idazten jarraitzen al duzu?

– Ez dakit zer den harrigarriago –jarraitu zuen Zuazok galderari jaramonik egin gabe, eskuetan zuen ipuin liburuari begira–. Zure bisita ala gaur egun lagunarteko solasaldi batean kontu zahar hauek hizpide izatea. Inor honetaz gogoratzea.

– Konturik ustekabekoenak irten daitezke mahai bueltan.

Horraino, mahai bueltan ia edozer atera daitekeela, egia osoa. Hortik aurrera, dena gezurra. Martzanan inork ez zuen Peter Zuazo ez bere libururik aipatu,

Aretxabaletaren irrati esatari sasoia aipatu ez zen bezala.

– Esan dizudan legez, Ezkila Irratian egiten genuen saioaren haritik, lagunetako batek galdetu zidan zer arantza neraman soinetik atera gabe sasoi haietatik. Zuri egin ez genizun elkarrizketa, erantzun nuen, bat-batean, zalantzarik gabe. Hala atera zitzaidan, inolako hausnarketarik gabe. Han geunden bostotatik batek, neronez gain, ezagutzen zituen zure ipuinak.

Aretxabaletak, ez zuenez esertzeko gonbitik jaso, zutik segitzen zuen. Zuazo ere zutitu egin zen. Liburuak plastikozko poltsan sartu eta bisitariari luzatu zion.

– Gustura jarraituko nuke hizketan, baina zereginak ditut –finitu zuen Zuazok, zoaz etorri zaren lekutik esateko modu bat, baina, doinua lagun, beste zerbait zirudiena anfitrioiaren ahoan, benetan esan nahi zuena desitxuratu gabe.

– Plazera izan da. Eskerrik asko. Aizu –zerbait ahaztu duenaren plantak eginez Aretxabaletak–, utziko al didazu zure telefonoa? Nork daki, egunen batean agian...

– Har ezazu nire emaila. Dena den jakin ezazu ez naizela oso zale, gutxitan erantzuten dudala. Txartzat ez dezazun hartu diotsut.

Liburuak poltsan sartu zizkionez Zuazok, une hartan, biak zutik bisitaria noiz joango, poltsatik atera eta egileak idatzitakoa irakurtzeari ekitea ez zirudien egokiena. Atarian irakurri zuen Zuazok, sinadurarekin batera, liburuetan idatzitakoa.

*Gezurra xarmarekin ordezkatzen ahalegindu den Patxi Aretxabaletari, uzkitik*. Eta azpian sinadura: PZ.

*Zalantzarik gabe Joanesen bikia den Aretxabaletari, eskuineko lobulu parietaletik. PZ.*

# Esan dezagun

– Nondik atera da Roman hori?

– Antzinatik. Antzinarotik.

Martzanatik hurbil bizi ziren Odile Mores eta Kattalin. Lagunartea utzi orduko egin zion galdera Kattalinek. Lagun agurtu berriei buruz hitz egiteko unea zen. Hirugarren bati buruz iruzkinak egitea modukorik ez dago norbere berri emateko. Hori dakitenen artean daude bi emakumeak. Baina ez duzu horretaz pentsatzen, jakin arren.

– Ez neukan bere berririk.

– Zorionez ez dugu batak bestearen biografia xehetasun guztiekin ezagutzen –argitu nahi izan zion Odile Moresek lehenbizi eta, ez zuenez nahi Kattalin temati jar zedin, jarraitu egin zuen–: Batera hasi genuen karrera. Gero pista galdu nion.

*Gero* hori anbiguo samarra iruditu zitzaion Kattalini. Ez zuen, ordea, xehetasunik eskatu. Karrera Sarrikon hasi zuten, Zientzia Ekonomikoak. Odile Moresek urterik galdu gabe amaitu zuen. Roman lehenengo urtetik hasi zen estropezuka, pare bat urte errepikatu zi-

tuen, gutxienez. Familia onekoa izaki, hori ez zen eragozpen izan lan munduan beheko mailak zapaldu gabe sartzeko. Odile Moresek ez zuen gogoratzen Sarrikokotik alde egitean zein mailatan zebilen Roman. Ezta ikasketak burutu zituenik ere. Ordurako galdua baitzion arrastoa.

Lagunak izan zirela esatera zihoan, baina ez zuen egin. Taberna eta giro bertsuetan ibili ohi ziren, elkarrekin ere bai, beste lagun batzuekin beti, sekula ere ez buruz buru. Oheratu zen Odile Moresen adiskideren bat Romanen adiskideren batekin. Eurak ez. Izan zitzaketen antzeko gustuak, gustu batzuk beharbada, gazte sasoian bederen, baina, aldi berean bazen gehiago hurbiltzen uzten ez zien indar bat. Gehiago zeukana munduan egoteko moldetik mundua ikustekotik baino. Esan nahi baita, Odile Moresek bazuela munduan egoteko modu bat, zenbait arlotan estandarretik kanpokoa. Eta, horren kausa edo ondorio den eztabaidan sartu gabe, munduari begiratu egiten ziola, atsegin ez zituen alderdi ugari ikusten zizkiola. Honetan guztian izango zuen zerikusiren bat txikitatik aitarekin izandako harreman gatazkatsuak. Haren aginduetara ez egokitzeak liskar ugari eragin zituen bien artean eta tirabira iraunkor horrek trebakuntza

galanta eskaini zion Odile Moresi autoritatearekiko hausnarketa eta estrategiak lantzeko, ez beti zilegiak, ez objektiboak, ez zintzoak. Baina hori beste kontu bat da. Hemen argitu nahi dudana da umetatik izan zituela zailtzera eraman zituen bizipenak. Beste bat aipatzeagatik, beste bat baino ez, hamar urte zituela poliomielitisaren birusak harrapatu zuela gogora daiteke.

Roman ere munduan zegoen, noski. Ez zen, ordea, ezertan estandarretik kanpo ibiliko. Ertzetan ere ez. Hortaz, ez zion munduari begiratzen. Aurrean zeukana ikustera mugatzen zen. Gehiago begiratu gabe, esaterako lehen planoan dagoenaren atzera begiratu gabe. Bata indar zentrifugoaren eta bestea zentripetoaren eraginpean egotetik sortzen zen aldarapen-indarra zegoen bien artean.

Urte mordoa igarota, bizitza erdi, indar hori hor zegoela baieztatu zuen Odile Moresek. Poztu egin zen zubian ikusi zuenean, hori horrela da. Harritu ere bai, normala den bezala bizitza erdian ikusi ez duzun lagun batekin topo egiten baduzu. Pena ere nahastuko zen hainbatetan. Ez zen gutxiagorako Romanek Mesedeetako zubian zeukan eite penitenteari erreparatuz gero. Honek guztiak eragin zuen Odile Mores ez

jabetzea, hasiera batean, aldarapen-indarraren presentziaz. Hasiera labur batean. Gaztetan bezala, indar hori mugatua zen, nolabait esateko. Alegia, puntu batetik aurrera hurbiltzea eragotziagatik, urruntzeko ahalmena ez zen handiegia, distantzia bat sortzen zuen, zeinean gustura egotea posible zen, laguntzat funtzionatzea ahalbidetzen zuen. Odile Moresek ez zekien Romanek egiten zituen keinu batzuk ote ziren, baziren-eta atzerantz eragiten zioten bat edo bi. Ez zekien erabiltzen zituen hitzen batzuk izan zitezkeen, esaterako *gauza bat esango dizut* errepikatzea. Larunbat hartan lehenengoz entzun zionean oroitu zuen gaztetan makina bat aldiz entzundako lau hitz haiek sortzen zioten desasosegua. Bistakoa zen bizi osoa zeramala *gauza bat esango dizut* ezpainetan. Baina hori, berez, ez zen atzera eragiteko arrazoi nahikoa, jende askok baitzeraman esamolderen bat ezpainetan bizitza osoan, berak ere bai agian, nahiz eta une hartan ez zuen halakorik gogoan. Gogora etorri zitzaiona, ordea, unibertsitate garaiko ikaskide bat zen, beti *siento decirte que* hitz-betegarria zerabilena, hainbesteraino ezen Sientodecirte goitizena jarri baitzioten.

Ahotsa ere izan zitekeen Romanengandik urruntzen zuena. Grabeegia bere gusturako. Batzuetan fal-

settoa zirudien. Ez, Kattalinek ez zekien honen guztiaren berri. Hala egokituz gero, beste gairen batek ordezkatzen ez bazuen, kontatuko zion etxera heldutakoan, afaria prestatzen ari zirela agian. Edo afalostean.

– Zureganako interesa antzeman diot nik –ekin zion Odile Moresek pisuko atea irekitzen zuen bitartean.

– Bai, konturatu naiz.

– Zu eta beste guztiok. Beste guztiok diodanean ez naiz Patxiz eta Josebaz soilik ari.

– Hain zen nabarmena? –galdetu zion Kattalinek oinetakoak eranzten zituen bitartean.

– Batzuentzat besteentzat baino gehiago ziurrenik. Nik, esate baterako, mostradorean ikusi zaituztet, edariak eskatzera joan zaretenean.

– Adi egon zara orduan.

– Ez zegoen adi egon beharrik. Galdera bat egingo dizut –jarraitu zuen Odile Moresek egongelako mahai borobilean afaltzen hasi orduko–. Nik erabiltzen al dut, hitz egiterakoan, hizkuntza-tika edo horrelako zer edo zer, beti errepikatzen dudana?

– Romanen *gauza bat esango dizut*en antzera?

– Bai.

– Utzidazu pentsatzen...

Odile Moresek pentsatzen utzi zion, Kattalinek berak hizkuntza-tiken bat ote zuen bilatzeari ekin zion bitartean. Ez zuela erabaki zuen. Romanen inguruan ez zekiela ezer erabaki zuen bezalaxe. Ezezagun batekin egon zirela. Etxetik urrun sekula hitz bat gurutzatu ez duzun batekin topo egitean gerta daitekeen moduan hasi zirela solasean. Gogoratu zuen duela urte batzuk Parisen auzoko batekin egin zutela topo Kattalin eta biek. Goizero gurutzatzen ziren, Odile Mores ataritik kalera irten orduko lanera bidean. Ez zuten elkar agurtzen. Ez zekien ezer batak besteaz, ez behintzat Odile Moresek. Gizonak, gutxienez, Odile Mores zein ataritatik irteten zen bazekien. Parisen hitz egin zuten lehenengoz. Odile Mores eta Kattalin terraza batean zeuden gosaltzen gizona euren aurrean geratu zenean. Itxura batean oso pozik zegoen atzerrian auzokoak aurkitzeaz. Ez hainbeste emakumeak. Gonbidatu zuten zerbait hartzera eta eurekin jesartzera, baina emaztea hotelean zain zeukala esanez desenkusatu zen gizona. Urte mordo baten buruan gaztetako lagun batekin aurkitzea ez zen gauza bera. Hala ere, biak ziren ezezagunak erabat, egunero kalean ikusten zuen gizona eta bizitza erdian ikusi gabeko

gaztetako laguna. Ez zekien Romanek zer egiten zuen, non eta norekin bizi zen, norbaitekin bizi bazen, seme-alabarik izan zuen, zer zaletasun zuen, zaletasunik izatekotan, mendia ala hondartza, pisua ala txaleta...

– *Esan dezagun*, beharbada –Kattalinek pentsatu eta gero.

– Esan dezagun? –galdetu zion Odile Moresek bere galderari erantzuten ari zitzaiola konturatu gabe.

– Bai, hori da zure hizkuntza-tika.

Odile Moresek pentsatu zuen *esan dezagun* hori, bestelako keinu batzuk bezala, atseginak zein gorrotagarriak izan daitezkeela hurbilekoenentzat, areago, atsegin izatetik gorrotagarri izatera igaro daitezkeela oharkabean, sekula ere ez alderantziz. Indiferente ere izan zitekeen. Hau batez ere ez hain hurbilekoentzat. Hurbilekoak lokarri emozionalengatik direnez hurbileko, indiferentzia murriztu egiten baita. Hau guztia pentsatu zuen Odile Moresek tarte labur batean. Ez zuen, baina, ezer esan. Hala ere, hainbeste urtetan bata bestearen ondoan ahoskatutako hitz haiek banandu egin ziren, betiko. Harrezkero ez baitzaizkio behin ere atera. Lasterrera jabetu zen horretaz Kattalin. Romani buruz hitz egin zuten afaria amaitu bitar-

tean. Kattalinen saiakerak gai hartatik aldentzeko sobera neurtuak ziren, sasisaiakerak dei ditzakegu. Izan ere, Odile Moresek Romanekin lotzean agertzen zuen erresuminak plazera ematen zion. Aspaldiko kontua ez izanagatik ere, gero eta sarriagokoa zen batak besteari urratutako zaurietan meheki ozpina isurtzea.

– Desoreka garrantzitsuren bat du –ekin zion berriro Kattalinek–. Ezin ulertu bestela zubian aurkitu dugunean zuen begirada galdua, antzematen zitzaion desorientazioa. Benetan errukarria.

– Ezin ulertu nola eraldatu zaion aldartea une batetik bestera. Zerk eragingo ote zion? Ikusiko dugu larunbatean Purgatorioan agertzen den –itxi zuen gaia Odile Moresek.

– Topaketa horiek antolatzeko bileran? –galdetu zuen, trufa ukitu batekin Kattalinek.

– Niri bost axola topaketak –zorrotz antzean Odile Moresek–. Patxiren kontuak dira.

– Patxi antolatzaile peto-petoa da. Antolatzen gozatzen du. Zure hitzak dira. Behin baino gehiagotan entzun dizkizut horrelakoak.

Garai heroikoetako burkideak zarete, pentsatu zuen Kattalinek. Baina ez zuen halakorik aipatu, azkenengoz egin zuenean Odile Mores pipertu zitzaiolako.

Ez zekien garai heroikoak aipatzeagatik edo burkidetzat jo zituelako edo biengatik batera. Ez zekien, Odile Mores haserretu zitzaionean, berehalakoan barkamena eskatu eta giroa baretzen saiatu zelako. Biek hobetsi zutenez bakea, Kattalinek ezin izan zuen jakin burkidetzat jotzeak ez zuela bere laguna mintzen, edonork dakielako irrati libreetan bat egindakoei burkide deitzea gehiegikeria nabarmena dela. Bera, Odile Mores, inongo burkidetzat jotzea bezainbat. Orduko hartan burkide hitzak Kattalinen ahoan izan zezakeen zama sarkastikoa gutxiago gustatu zitzaion. Mingarriena, edonola ere, garai heroikoena zen. Berdin dio zertaz ari zen: Odile Moresen beraren biografiaz zein herriarenaz edo ez dakit zein mugimendurenaz. Horrek egin zion min. Kattalinek horretaz jabetzean, beharbada helburua beteta ikustean, balazta sakatu zuen.

Roman ekarri bazuen solasera, honi buruz hitz egitea Aretxabaletari buruz baino errazagoa iruditu zitzaiolako izan zen. Libreago zelako, biak zirelako libreago, Romanen gainean hau edo beste esateko. Solaskidea mintzeko arriskurik apenas zegoelako, alegia. Norbait larrutzeko, eta larruketa horretan oharkabean solaskidea larrutzeko arriskua minimoetara jais-

teko, larrutzaileek antzeko distantzia izan behar dute larrutuarekiko. Aretxabaleta hurbilagoa zitzaien biei, ezagutza maila ezberdinak izan arren, biek zutelako harremana berarekin, distantzia ezberdinetatik bazen ere. Roman, ordea, ezezagun bat zen. Odile Moresek aspaldi ezagutu zuen ezezagun bat. Bost axola zitzaion ergel hura Kattalini. Hala ere, hasierako aurreikuspenean huts egin zuela ikustearekin batera (ez zela errazagoa Aretxabaletari buruz hitz egitea baino), Odile Mores estu antzean jartzeak bultzatu zuen jarraitzera.

– Atzera eragiten nauen zerbait dauka –aipatu zuen Kattalinek.

– Agian emakume bila ekiteko moduarengatik? Emakume eske egite hutsarengatik menturaz?

– Ez, ez da hori, ez hori bakarrik.

Odile Moresek bazekien, Romanen gorteiatze moldea gorabehera, Kattalinek, sakonean, gustura hartu zuela gizonaren desio adierazpena, azken batean ez zen zakarra izan bere laburrean. Gogaikarri izateko arriskua izango zuen, baina efimeroa izaki, ez jasangaitza izatekoa. Arrazionalizatzerakoan bai, orduan Kattalinek Romanen gogaikarri izateko arriskua egiaztatutzat eman zezakeen. Baina horretarako arrazoia

jarri behar zuen lanean, bestela, estimulu (oraingoan dei diezaiogun horrela Romanen gorteiatze saioari) haren aurrean lehenbiziko erreakzioan, halabeharrez emozionala, ez zuen gogaikarri sentitzen Kattalinek. Bat zetozen emakumeak aurkitu zutenean zeukan itxura penagarritzat jotzerakoan. Egin zituzten hipotesiak desmasiazko abaildura hartaz. Lanik gabe geratu berri ezustean. Emazteak utzi berri du, ezustean. Emazteak amorantearekin harrapatu du, ezustean ziurrenik. Alderantzizkoa ere bazitekeen. Seme-alabaren bat galdu du orain dela gutxi. Lantokian, banketxe bat ausaz, lapurretan harrapatu dute. Ustekabeko gertaera latz bat izan behar zuen, edonola ere. Martzanarako bidea ere aldarte atsekabetuan egin zuen. Bat zetozen horretan ere.

– Tabernan eserita geundela, mahaiaren inguruan, orduan aldatu zaio begirada. Desorientaziotik normaltasunera igaro da –esan zuen Odile Moresek–. Aurkitu dugunean erakusten zuen nahasmendu itxura eragin zuen gertaera ez bezala, geroko gora etortze hura geure aurrean gertatu da. Horrenbestez aldaketaren jatorria begien aurrean eduki behar izan dugu.

Zubian bi emakumek eurekin joateko egin zioten gonbita izan zitekeen.

– Edo aspaldiko laguna aurkitu izana.

Horrek, aldaketa eragin zuen horrek, beraiek ere tartean harrapa zitzakeenez, zailagoa egiten zuen emakumeak ados jartzea bere bilaketan. Muturra okertuz eta burua ezker-eskuin eraginez eman zuen horretaz zuen iritzia Odile Moresek.

– Aspaldiko lagunaren lagunak irradiatzen zuen magnetismoak berpiztu duela uste dut nik, ordea.

Kattalinek ez zuen adostasunik erakutsi, ez muturra okertu ez buruari eragin. Erantzun gisa, lagunak aipatutako hipotesia indargabetzen ari denaren itxurak eginez, beste bat gehitu zuen, arras arrunta:

– Agian jendearekin egote hutsak ekarri du bere onera, bakardadeak gainditutako une berean ustekabean jendearekin egoteko gauza zela ikusteak.

– Patxirekin? Josebarekin? Bakardadeak gaindituta?

Galdera gehiago ere mahairatu zituen Odile Moresek sarkasmotik hurbil zerabilen doinuaz. Onar ezazu zerorrek erreskatatu duzula shock egoera hartatik, nahi gabe beharbada, baina zeuk libratu duzula desorientaziotik eta, onar ezazu bide batez, plazera sentitu duzula bere begirada amultsuak jasotzean, mostradorean hurbildu zaizunean. Ez zion horrelakorik esan

Odile Moresek, ez horrela behintzat. Galderak egiten jarraitu zuen, doi-doi ezpainetan ahoskatu gabe eusten zionaren esanahi berbera zuen galdera errenkada.

– Martzanako txakolinak? Desegokitasunaren gaineko hausnarketa sakonak? Zenbat dira une honetan bakardadeak gaindituta daudenak?

– Edozein modutan –ekin zion Kattalinek Romanez hitz egiteari amaiera eman nahian– ziur honezkero zubian bezala dagoela berriro.

– Litekeena da.

Motzean adierazi zuen Odile Moresek Romanez mintzatzearen amaiera hobesten zuela. Mahaia jasotzen hasi zen. Kattalinek lagundu egin zion mahaikoa ontzi-garbigailuan sartzen, sartu aurretik, Odile Moresek ez bezala, txorrotaren azpian ur-pasada bat eman ondoren. Baziren ohitura batzuk hartu zituenak batak bestearengandik eta besteak batarengandik. Kontu arrunta bikoteetan ez ezik, pisukideen artean ere. Ohea egiteko modua, esate baterako. Edo kafea prestatzekoa. Zazpi urte zeramaten elkarrekin bizitzen. Ohikoa lehenengo bikotea osatu eta gero elkarrekin bizitzen jartzea baldin bada, ezohiko bidea egin zuten emakume hauek. Adiskide gisa hartu zuten pisua alo-

kairuan eta, poliki-poliki, ia oharkabean, osatu zen bikotea.

– Proposamenen bat eramango al duzu Purgatoriora hurrengo larunbatean? –galdetu zuen Kattalinek, irribarre amultsua eginez.

– Ari naiz zer eraman pentsatzen, jantzita zer eraman, alegia. Proposamenetan, zureen alde egingo dut, preziosa –txeratsu Odile Mores ere.

– Ni ohera noa.

Nahiko lehor ebaki zituen Kattalinek hiru hitzok. Ez zitzaion Odile Moresi entzundakoa gustatu, preziosa hura bereziki, preziosa esateko modu hura. Odile Moresi Kattalinen galdera gustatu ez zitzaion moduan. Eta elkarrizketan atzera eginez gero, ikusiko dugu batarenak ez zituela atseginez entzun besteak, ezta bestearenak batak.

# Lagun eta etsaientzako bazka

Neskek ez zuten asmatu Romani buruz eginiko pronostikoa. Kattalinek *ziur honezkero zubian bezala dagoela berriro* iragarri zuenean ez zuen asmatu. Zaila da zubian baino hobeto ala okerrago zegoen jakitea, baina ziurra da beste egoera batean zegoela.

Martzanatik alde egindakoan, ezagutu berri haiengandik banatu zenean eta bakarkako bidea hartu, bidea hartu eta hamar minutura zehatz-mehatz, bi sentsazio izan zituen, biak batera, nahiz eta bata bestearen ondorio izan zitekeen. Txakolinaren lurrun masa mehetzen ari zitzaion burmuinean. Aldi berean, adorea deseginez zihoakion abiadura bizian. Sentsazio horietaz jabetzearekin batera konturatu zen etxerako bidea hartu zuela. Nabarmen egin zuen behera adoreak, geratzen zitzaion apurrak. Etxeaz pentsatze hutsa harlauza bat zen bizkar gainean, zangoak indar gabe sentiarazten zion zama. Birritan pentsatu gabe sartu zen une hartan berean ondoan zeukan super-

merkatuan. Zuzen esateko, buruak barik urdailak pentsatuta. Romanek ez zekien burmuinak ekoizten dituen moduko neuronak eta hormonak ekoizten dituela urdailak. Baleki ere ez zen horretaz pentsatzen hasiko, ez bederen buruaz pentsatzen. Erraiek gaina hartua zioten burmuinari. Haien aginduetara, edarien sailera jo zuen. Zabala zen aukera. Bere ezagutza, edari kontuetan, alderantziz proportzionala. Ardoen apaletatik hasi zen. Afariren batean egokitu zitzaion berari ardoa aukeratu behar izana. Bazekien zuzenean ardo jakin bat eskatzea zela egokiena, ezagutza eta ziurtasuna adierazten duelako. Ezagutza eta ziurtasuna erakutsi behar ziren zerbitzariari entzundako eskaintzatik aukeratzerakoan ere. Horretarako aski zen hiruzpalau izen jakitea. Bakoitzaren koloreaz, zaporeaz eta lurrinaz zerbait esateko gauza izatea ere ez dago soberan. Egokitu zitzaionetan, laneko bazkariren batean edo bikoteen arteko afariren batean, bere *savoir faire*-a erakutsi zuen. Emaztearekin jatetxeren batera joanez gero, aspaldi gertatzen ez zena, Edurnek aukeratzen zuen ardoa. Kontu hauek gogoan, ulertzekoa da ardoen saila utzi eta likoreenera joatea. Whiskiak eta ronak zituen aurrean eta hauek bazuten abantaila bat ardoekiko: ez zioten emazte ohia gogo-

ratzen. Kontatzeko behar den denbora baino gutxiago erabili zuen botila bat hartu eta kutxarantz abiatzeko.

Supermerkatutik etxerako bidea ez zuen hain abailduta egin. Bizkar gaineko zama pittin bat arindua sentitzen zuen, zangoetan indar apur bat. Ez zen zurrutaria. Edale moderatua zela esan beharko genuke. Agian aski litzateke moderatua zela esatea. Mozkortzeko delibero irmoa hartua zuen etxeko atarian sartu zenean. Igogailuaren zain zegoela botila ireki zuen plastikozko zorrotik atera gabe. Igogailuan eman zion lehenengo zurrutada. Oparoa. Seigarren solairuan geratu zenean, burmuinean zeukan alkohol lurrin masa atarian zeukana baino dexente dentsoagoa zen. Adorea, ordea, ez zen ageri. Pisuko atea barrutik itxi, begiratu bat egin ingurura eta bigarren zurrutada egin, dena izan zen bat.

Lehenbiziko helburua beteta: edanda zegoen. Adoreak zertxobait gora egin zuen. Ezagutu berriak gogoratu zituen, gizonak bereziki. Galtzaileak, pentsatu zuen. Antigoaleko ezkertiar setati bat, bere porrota gizarteari egotziz, jendartea, eraldatzeko itxurak egiten dituena eta, zer esan gazteari buruz, zakurflauta bat, horixe, zakurflauta bat. Jesarrita zegoen sofatik ingurua begiratu zuen, ehun eta laurogei graduko be-

girada panoramikoa. Hirurogei metro koadroko egongela. Garaile batena, pentsatu zuen. Aretxabaletak eta Josebak ez zuten bere arreta merezi. Odile Mores eta Kattalin beste upel batekoak ziren. Ez zekien ziur zeinetakoa, baina haiekiko ez zuen sentitzen gizon ezagutu berriekiko sentitzen zuen mespretxua. Odile Mores gaztetan ezagutu zuen eta, orduan ezagututako jende asko bezala, ez zuen urte mordo batean ikusi, ezta bere berririk izan ere. Mundu ezberdinetan bizi izan ziren seinale. Ezezagun zuen, baina lausoki partekatutako iragan bat zuten behintzat. Aitortu behar zuen, gainera, urteek ez ziotela kalte handirik egin. Ederrago ikusi zuen larunbat hartan, iragan urrun hartan baino ederrago. Gaztetan herrenak ez zion edertasuna gutxitzen eta orain edertasunaren osagai zen. Hori pentsatu zuen Romanek botilaren edukia erdian utzi zuen zurrutada ematerakoan. Erakarri, baina, Kattalinek egin zuen. Ahotsak limurtu zuela, pentsatu nahi zuen, gero begiradak. Hortik aurrera, ipurdia belaunak eskuak titiak ilea, dena zen ezin ederrago. Hori pentsatu nahi zuen eta horrela adierazi zion bere buruari. Bakoitzak nahi duena ahal duen bezala adierazten dio bere buruari. Nahiz eta, beharbada, adierazitakoa ez den esan nahi ziona.

Emakumeek salbatzen zuten ezusteko bilkura hura. Emakumeek eta alkoholak. Beste zurrutada bat. Emakumeak, gainera, ez ziren galtzaileak zakurflauta eta iraultzaile zaharkitua bezala. Garaileak ere ez. Emakumeak ziren. Bere buruari halakorik esaten ez zion arren, emakumeek Romanentzat ez ziharduten bizitzaren lehian. Urrunago joan beharrik gabe, bere emazte ohi berria HFD Bilbao Consultingeko kudeatzailea eta akzioen ehuneko hamalauaren jabe izanagatik ez zen garaile bat. Pisua erdibana erosi zuten. Kattalin jarri nahi zuen burmuinaren erdian, besteak uxatu. Ez zuen ulertzen nola agertzen zitzaizkion Martzanako guztiak berak Kattalin baino ez zuenean nahi buruan, harekin amets egiteko. Begiak itxi zituen. Kattalin zetorkion, astiro, belaunak eta izterren aurrerapen oparoa bistan uzten zituen gona beltzez eta blusa garden batekin jantzita. Gainean esertzen zitzaion. Begiak indar handiagoz itxi eta eskua hankartera eraman zuen. Igurtzi zuen, xuabe. Zakilak ez zuen erantzuten. Ez zegoen bere berririk. Kattalinekiko fantasia ondo eraiki arren, une hartan besteak uxatzea lortuagatik ere, odola noraezean zebilkion, joan behar zuen tokira joan gabe. Ahaleginak ahalegin, etsi egin behar izan zuen. Berriro agertu zitzaizkion galtzaileak. Beste

zurrutada bat. Botilaren hiru laurdenak transferituak zituen barrenera. Berehala lo geratzeko esperantza eta xedea zituen. Berehala lo. Mundutik aldendu, mundua berarengandik aldendu zen bezala.

Lo gutxi egin zuen. Gutxi eta txarto. Bere buruari lo egiteko agindua eman zionean, honi, erantzuntzat, dena biraka jartzea baino ez zitzaion otu. Oka egin zuen bortizki salan bertan. Etzan aurretik logelan zeukaten bainugelan sartu zen. Konbultsioak bakanduta eta intentsitatea jaitsita, konketan garbitu zuen aurpegia. Ispiluan begi gorriak malkotan eta aurpegi zurbila ikusi zituen. Aupa, garaile, esan zion. Ohean etzan zenean oso urrun zegoen loa hartzetik, baina logela behintzat ez zebilen bere inguruan jiraka. Eskua hankartera eraman zuen berriro, Kattalin gogoan. Burmuina eta zakilaren artean ez zen inolako komunikaziorik sumatzen. Hartu zuen loak azkenean. Hala ere, ez zuen ordubete baino loaldi luzeagoa egin.

Puxikak prostataren aurrean etsi arte jarraitu zuen ohean. Kaltetuta oso jaiki zen goizeko zortzietan. Hozkailuko atea ireki zuen eta berehala itxi. Galdetuz gero zer zegoen barruan ez zukeen alerik ere jakingo. Dutxara joatea erabaki zuen. Bidean, ordea, konketan pasaratxo bat egitea aski izango zela hobetsi zuen.

Ezinezkoa gogoratzea noiz irten zen azkenekoz dutxatik pasatu gabe. Laster damutu zen. Sartu zen hurbilen zeukan kafetegian eta mostradorearen beste aldeko paretan zegoen ispiluan bere burua ikustean damutu zen dutxatu ez izanaz. Kafesnea eta gurinezko opila ekarri zion kamareroak ezagutzen zuen, maiz izaten zuelako bezero; ez aparteko elkarrizketarik inoiz izan zutelako. Kortesiazko lau hitzetatik harago, deus ez. Zerbitzariak beti agurtzen zuen zer moduz batekin. Goiz hartan ez. Profesionala inondik ere.

Gorroto zuen emaztea, ohia. Utzi zuelako, horrela utzi zuelako. Zergatik joan ote da Mirenengana, galdetzen zion bere buruari. Mirenengatik utzi ote nau? Ez zekien. Ziur zegoen, hori bai, hala bazen, Edurnek adierazi ziola nolabait eta berak ez zuela mezua harrapatu. Unea iritsiko balitz, ziur Edurnek esango liokeela argi utzi ziola. Baina ez ziola ulertu, seguruenik, ez ziolako jaramon egin, uztera zihoala esaten ari zitzaion une hartan ere ez. Ez zegoela komunikaziorik. Gorroto zuen Miren ere. Bost axola zein motatako harremana izan ohiarekin. Litekeena zen, litekeenago pentsatu zuen, beste gizon batengatik utzi izana. Bai, maitaleren bat izango zuen eta bera jabetu gabe, bera bakarrik, horrelakoetan sarri gertatu ohi den moduan.

Horrela, gainera, banatu ostean egindako harremantzat erakutsi nahi izango zion puta halakoak. Ez zekien zer zen okerrago, ohiaren maitalea gizona ala emakumea izatea. Emakumearen hipotesia arraroa begitantzen zitzaion, baina bazekien gerta daitekeena, entzunak zituen horren adibideak. *Mirenekin noa*, erantzun zion Edurnek nora joango zen galdetu zionean. *Mirenekin* noa. Ez zuen esan Mirenen etxera edo Mirenengana. *Mirenekin*. Amarenera joango balitz amarenera esango ziokeen edo amaren etxera, ez amarekin. Bata edo bestea izan, gizon ala emakume, pertsona horrek zerbait erauzi zion eta erauzketak utzitako zulotik gorrotoa, nostalgia eta autoerrukia zerizkion, laba bailitzan. Emakume batengatik uztea lehiakidetzat ez zuen batengatik uztea zen, animalia-erreinuan maila bat beherago zegoen batengatik. Kolpe latza. Gizona lehiakidea zen, baina ez zuen horregatik ohoretsuago sentitzen porrota. Berea ez zen zakil bat ibiliko baitzen Edurneren zuloetan barna.

Dena dela, guztiz behera etorrita aitortu zion hori bere buruari, opila kafesnetan bustita eskuan zintzilik zeukala. Nahiago zuen lehengo egoera, Edurnerekin bizitzea. Beharbada ez zegoen maitalerik, dena bere burutazio hutsa zen, eldarnioa. Lasaitasun moduko

bat sentitu zuen lipar batez. Lehen baino beherago erortzeko jarraian, trantsiziorik gabe. Izan ere, pentsatu zuen opilaren zati bustia mahaira jaustean, bikotekidea bikotetik ihes egitera daraman indarra oso-osorik barrutik kanporakoa bada, kanpoan erakartzen duen inolako polorik ez badago, orduan, hori hekatonbea da. Askoz hobeto zegoen Edurnerekin. Bai, onartu behar da elkarbizitza arrunkeriara joana zela aspaldi. Baina bera horren aldeko zen. Eta dena, Edurnek alde egitea, abisu bat baino ez bazen? Emazteak igorritako mezua, berak ere bikotea salbatze aldera behin betikoz zerbait egin zezan bidalitakoa zen. Deitzea izango zen onena.

Abisua baino ez da izan, ultimatum bat erreakziona dezadan, deitu egingo diot. Hitz hauek errepikatuz egin zuen etxerako bidea. Salako telefonoa hartu eta sofan eseri zenean, bat-batean galdu zuen mantrak emandako indarra. Barka ezazu, Edurne, behar dena egiteko prest nago gureak aurrera egin dezan. Maite zaitut. Arrotz egiten zitzaizkion hitzak izan arren, horrelako zerbaitekin hastea pentsatu zuen. Telefonoan zenbakiak markatu ahala bihotz taupadak kontrolik gabe bizkortu zitzaizkion. Bederatzi izan beharrean dozena bat izan balira markatu beharrekoak, bihotza

ahotik aterako zitzaiokeen. Bederatzigarrena sakatu orduko, nor duzu maitale, putatzar horrek, Miren, nor, zoaz popatik hartzera, eta gisa honetakoak zituen mihian. Edurnek ez zuen telefonoa hartu. Ez zuelako nahi, ez zuelako entzun.

Ingurua begiratu zuen, ehun eta laurogei graduko begirada panoramikoa. Hirurogei metro karratuko egongela. Garaile batena, pentsatu zuen. Bart bezala. Bart ez bezala, ingurua ez zitzaion jiraka hasi. Geldi zegoen dena. Aurrean zeukan kristalezko mahai baxua. Larruzko besaulkia, zutikako lanpara. Dena geldi. Ohikoa baino geldiago. Harago intxaur-zurezko mahaia bere zortzi aulkiekin. Ez ziren sekula zortzi mahaikide jesarri han. Ez zuen, behintzat, gogoratzen. Pareta nagusian Lazkanoren lan bat. Edurnek aukeratutakoa. Objektu txikiagoei erreparatuta ere, dena emazteak, ohiak, aukeratua zela jabetu zen. Saiatu zen berak ekarritako zerbait aurkitzen, oroigarri txikiren bat, hautsontziren bat... Alferrik. Berak ez zuen inoiz iradoki koadroren bat ekartzea, pitxarren bat, ezta apalategian zeuden argazkietako markoren bat. Akaso libururen bat. Ez zeuden asko, edonola ere. Arte entziklopedia bat, Edurnerena noski, klasikoen bilduma bat, irailean salgai jartzen dituzten horieta-

koa. Romanek ez zuen irakurtzen. Ez zuen horren beharrik. Probintziako egunkaria irakurrita aski zuen aisetasunez ibiltzeko munduan zehar. Berriro markatu zuen Edurneren zenbakia telefonoan. Pentsatu gabe, aurrez erabaki gabe, atzamarrak bere kasa bailebiltzan. Saiatu zen esan behar ziona gogoratzen. Barka ezazu, Edurne, behar dena egiteko prest nago gureak aurrera egin dezan. Maite zaitut. Nor duzu maitale, putatzar horrek, Miren, nor, zoaz popatik hartzera. Ez zion hartu. Gaur ez dit hartuko, ondorioztatu zuen bere buruarekin errukior. Nola ez, pronostikoa bete egin zen. Hamasei dei galdu lekuko. Behin-betiko utzi izan balu ez zuen horrela jokatuko, deia hartu egingo zuen eta amaitu da esan, amaitu da betiko. Ez hartzeak beste zerbait adierazten zuen. Zalantza agian. Sufriarazi nahi zion pare bat egun, aste bete beharbada. Edo maitalearekin larrua jotzen ari zen. Jo eta jo. Hau guztia pasatzen zitzaion burutik, joan-etorri kaotiko batean.

Sofatik altxatu eta apalategian zeuden argazkiei begira jarri zen. Bakoitza bere markoan, denak diferente izanagatik, markoak alegia, onartu behar zen harmonia bat osatzen zutela. Guztietan bikotea agertzen zen, leku ezberdinetan, egindako bidaietakoak

ziren. Londres, Amsterdam, New York, Istanbul, Erroma, Rio, Berlin eta Praga. Zortzi. Ez ziren bikoteak bisitatutako leku guztiak, baina bai etxe hartan, egongelako apalategian lekua merezi zutenak. Parisko argazkirik ez egoteak harritu egin zuen, lehenbizikoz. Baita ordura arte horretaz ez jabetzeak. Lehen aldia zen argazkiei begira jarri zena. Bezperan galdetu izan baliote zein lekutan ateratakoak ziren apalategiko argazkiak ez zuen inolaz ere asmatuko, ez erdiak baino gehiago. Zerbait gertatuko zen Parisen, zerbait Edurne hango argazkirik ez jartzera bultzatu zuena. Ez zuen, edozein modutan, halakorik gogoratzen. Erroman bai. Erroman ez zutela behin ere larrutan egin oroitu zuen. Baina Erromako argazkia han zegoen. Pipertuta ibili ziren hiri sainduan, ez batak ez besteak ez zuela amorerik ematen. Kontu bat haserrearen txingarra bizirik edukitzeko gaitasuna galtzen hasten zenean, batak edo besteak beste bati heltzen zion. Loiuko aireportura iritsi orduko haserretu ziren. Romanek fakturazio ilaran jartzea nahi izan zuen heldutakoan, Edurnek kafetegira joatea eta ilara laburtutakoan abiatzea fakturatzera. Hortik aurrera, arrazoia hau edo beste izan, muturtuta. Arrazoiok aldatuz zihoazen, oihanean tximuak lianak aldatzen dituen bezala

bere desplazamenduetan. Hala eta guztiz ere, han zegoen Erromako argazkia. Hantxe bertan txikitzeko bulkada sentitu zuen, hartu ere egin zuen, baina, azken unean argi berdea piztu zitzaion barruan, momentuz dena amaituta ez zegoela jakinarazten ziona. Agian ez, bederen. Garbiena argazkia markotik atera eta txiki-txiki egitea zen. Ez zion lurrera botata txikitzeak eman ziezaiokeen plazera emango, baina efektua antzekoa da eta beste aukeraren bati atea irekitzen zion. Esate baterako, argazkia, nahi izanez gero bortizki, txikitu eta koadro hutsa paratu apalategian. Orduan Edurnek zer gertatu zen argazkiarekin galdetuko zion. Itzuliko balitz, bikotera itzuliko balitz, ziur galdetuko ziola. Banaketaz hitz egitera baino ez balitz itzuliko, zitekeena zen galdetzea, baina orobat, marko hutsaz erreparatuta edo ez, ez galdetzea ere. Potroetan jarri zaidalako kendu dut, erantzungo lioke. Eraman ditzakezu denak, bestela zakarrontzian amaituko dute, gehituko zuen banaketa behin-betikoa izanez gero. Eszena bere irudimenean gertatua izanagatik ere, irudimenean baino ez, lasaitasun puntu bat eskuratzerainoko gorrotoa isurtzea lortu zuen. Barealdi horrek eraman zuen bere buruari galdetzera ea ez zen hobe izango behin-betiko banatzea. Azken batean go-

rroto bazuen, eta ostegunetik gorroto zuen, zertarako elkarrekin bizi. Zer gal zezakeen eta zer irabaz. Galduko zuen sexua eskura izatea, etxean, bila irten beharrik gabe. Hau guztia, noski, ñabardura ugarirekin, baina sinplifikazioa onartuz gero, horrela zen, ez zuen gauero ohean emaztea izango. Askatasuna izango zuen. Askatasuna zertarako, galdetuko zion berehalakoan bere buruari, zer askatasun. Askatasun hitzak ez zion gauza handirik esaten Romani. Bazekien bere kargura zituen langileak baino askatasun gehiago zituela. Horrela behar zuen, absurdoa litzateke kontrakoa. Alde hori ikaragarria zen lanean eta dezentekoa lanetik kanpo.

Lagunei jakinarazi beharko zien edo, hobeto esanda, inguruari. Banatu egin gara. Utzi egin nau. Segun nori. Horrek min ematen zion, minsorra, sakona. Puta horrek utzi egin nau. Nortzuk dira, ordea, lagunak. Zer dira. Noizean behin elkartzen ziren bikoteak beharbada. Horiei lagunak deitzea gehiegi iruditu zitzaion. Izan ere, berak behintzat ez zuen horko inorekin harreman berezirik, buruz burukorik, nolabait esateko. Talde hori, bestalde, Edurnek eta bere adiskide Isabel eta Karmenek eratu zuten. Gerora Tere eta bere senarra gehitu zitzaizkien. Gizonak, Romanek zekiela

behintzat, ez ziren euren artean adiskidetasun lokarririk osatzera iritsi. Bikoteen bilkura zen, halako moldez non ezin zitekeen aurreikus inor bikotekiderik gabe agertzea afari batera. Roman eta Edurne ez ziren banatu ziren lehenak, Isabel izan baitzen banaketen aroa ireki zuena. Hala ere ez zen bikotekiderik gabe enkontru haietara azaldu, senarrarekin joan zen azkenaren eta bikotekide berriarekin joan zen lehenbizikoaren artean ez baitzen bilkurarik izan.

Lanean ez zeukan lagunik. Ulertzekoa enpresa talde bateko giza baliabideen arduraduna izanda. Askoz errazagoa zen, esperientziak erakusten zuen bezala, etsaiak egitea adiskideak baino. Lagunen artean berria zabaltzea mingarria bazen, ez zen gutxiagorako etsaien artean zabaltzea. Bazka gozoa izanik lagun zein etsaientzat eta lagunen artean zor dezakeen plazera horrelako berri batek etsaien artean sor lezakeenaren antzekoa izan, lagun batzuen artean bederen, etsaien artean jotzen du goia gozamenak eta hedatze-uhina biderkatu. Behin berria jakinda lankideen artean (kiderik ez zuen arren, mendekoak eta nagusia baizik), behin banaketarena zabalduta, bada, horri erreferentzia eginez epaituko zituzten bere ekintza guztiak. Muturtuta dabil, banatu berria delako. On-

berago agertu nahian dabil, banaketarenak ez diola minik egin erakutsi nahi duelako, gizon zaildua baita, gogorra. Gizona. Diferente hitz egiten dio idazkariari, ligatu nahian bailebilen, banatu berria denez... Urliari egin dion errieta banaketak eragindako amorruagatik egin dio.

Igande oso txarra izan zuen. Adoreak tristurari irabazitako uneak ezdeusak izan ziren. Une horietan Kattalinek hartzen zuen bere gogoa. Adorea baino zertxobait lehenago agertzen zitzaion batzuetan eta ondorenean besteetan. Beti elkarrekin adore une ezdeusa eta bezperan ezagututako emakumea, sekula ere ez bakoitza bere aldetik. Edurneren zenbakia, ordea, zazpi aldiz markatu zuen adoretsu zegoela eta bederatzitan behea jota. Azkeneko sei deiak behea jota. Kostatu zitzaion lokartzea. Denetik egin zuen oheratu eta gero: automobilei buruzko aldizkari bat gainetik begiratu, jaiki eta ura edan, jaiki eta sardina lata bat jan, berriro ura edatera altxatu eta ur botilarekin itzuli ohera, txiza egitera altxatu, emazteaz pentsatu, emazteaz ez pentsatu, eta bulegoko langile batekin fantaseatuz masturbatu.

Astelehenean Edurnerekiko gorrotoak eta bere buruarekiko errukiak bezperako intentsitatean zirauten

arren, ez ziharduten *full time* bere burmuina erasaten. Lanean jarduteko gauza izan zen. Pare bat aldiz sentitu zuen ustezko emazteari deitzeko bulkada. Eutsi zion, ordea. Hobe arratsalde-iluntzean deitzea, lana amaituta. Sakelakoan aurreko egunean hamasei dei egin zizkiola ikusteak lagundu egin zion gerorako uzten. Eguerdian, aitzitik, Edurnek berak deitu zion. Ustezko emaztearen izena pantailan ikustean bihotz taupadak bat-batean azkartu zitzaizkion.

– Bai? –nor zen ez baleki bezala.

– Kaixo Roman –hasi zen Edurne, doinuaz gain bere izena jartzean, elkarrizketa parametro baketsuetan jarri nahi zuela erakutsiz.

– Non zaude? Hitz egin beharko genuke gauzak konpontzeko... Zergatik? Zergatik joan zara?

– Hara, Roman, esan beharrekoa esan nizun. Horretaz berriro hasteak gauzak nahastea baino ez luke ekarriko. Hitzordu bat jartzeko deitzen dizut, ondo datorkizunean, kontu praktikoez hitz egiteko.

– Kontu praktikoez? Zer ostia da hori? Azalpen bat zor didazu. Hogeita bi urte eta gero zergatik erabaki duzun nire bizitza hondatzea gustatuko litzaidake jakitea.

– Kontu praktikoak banaketa nola gauzatu esan nahi du.

– Nik jakin nahi dudan kontua zera da: zergatik utzi nauzun.

– Esan nizun ostegunean. Gauza bera errepika dezaket, modu ezberdinetan gauza bera. Uste dut bide horretatik liskarrera goazela zuzen eta nik ez dut liskarrik nahi.

– Jakina: zuk ez duzu liskarrik nahi. Hogeita bi urte kolpe batez etetea da nahi duzuna, ezer gertatu ez balitz bezala.

– Ez da hori, Roman. Makina bat gauza gertatu da, onak ere bai, baina amaitu da, niretzat amaituta dago.

– Horrela, inolako ahaleginik egin gabe gurea aurrera eramateko.

– Nork dio ez dudala ahaleginik egin? Begira, Roman, banaketaz hitz egiteko geratu behar dugu, nahitaez.

– Ondasunen banaketaz esan nahi duzu. Banaketa hori baino gehiago dela uste dut.

– Bai, ondasunen banaketaz hitz egiteko geratu behar dugu. Bitartean gera zaitezke zeu etxean.

– Eskerrak ematea nahiko duzu.

– Ez.

– Baina zuk zer uste duzu, idiota naizela... Maitale bat daukazu, ezta? Gezurretan ibili zara eta zabiltza. Azalpenen bat zor didazula esan dizudanean horixe nioen: egia entzun nahi nuela, egia osoa.

Nahikoa tonu neutroan ebaki zituen hitzok Romanek, nahiz eta horretarako alimaleko ahalegina egin behar. Izan ere, nekez eusten zion burura zetorkion irain zerrenda botatzeko bulkadari. Aldi berean, erabaki ezinean zebilen egokiena era zibilizatuan mintzatzea ala, barrenak eskatzen zion bezala, zuzenean hitz laidogarrietara pasatzea ote zen. Dena galduta ez bazegoen, berak ez zekiena edo ez zuena jakin nahi, errentagarriagoa litzateke jokamolde zibilizatua. Edurneren erabakia irmoa bazen, ordea, zertarako zibilizatuaren itxurak, erraiek bere izaera basatiena ateratzeko agintzen ziotenean.

– Esan nizun Mirenekin nindoala.

– Mirenekin! Ostia puta! Bere etxean zaude? Beno, berdin zait, baita burdel batean bazaude ere. Mirenengatik utzi nauzu. Joder!

– Ez zaitut Mirenengatik utzi.

– Ez, zera! Mirenekin enroilatu ez bazina edo maitemindu edo burua bere aluan sartu edo... Miren ez bazenu, utziko ninduzun?

– Bai. Dena den, eta inolako azalpenik zor ez dizudan arren, gauza bat argitu behar dizut: nik ez *dut* Miren.

– Ez. Beste zerbait ez bazenu ez ninduzun utziko.

– Eta hala bada, zer?

– Uste nuena baino putagoa zara.

– Begira, Roman, gure ondasunak nola banatu adostu beharko dugu. Nik horretarako deitu dizut. Gorrotoak itsututa egin nahi badiozu aurre zeregin horri, zeuk ikusi. Baina geratu egin beharko dugu kontu hau adosteko. Zenbat eta lehenago biontzat hobe.

– Nik ez dut presarik.

– Nik ez dut pazientzia infiniturik.

– Mehatxatzen hastea baino ez zaizu falta.

– Honek ez dauka zentzunik. Lasaiago zaudenean, deitu zeuk. Astean zehar ez badidazu deitzen, neuk deituko dizut datorren astelehenean.

Zentzunik ez daukana horrela bukatzea da, emaztea beste emakume batekin edo batek daki norekin joanda, maitalea zuela aitortu gabe. Hau esango ziokeen Romanek ohiari honek eskegi izan ez balu. Baina eskegi egin zuen azken hitza ahoskatu orduko.

Astean zehar batez ere bi gaik okupatu zuten Romanen burua. Edurneri deitu ala ez eta Odile Moresen

lagun taldeak hurrengo larunbaterako jarritako hitzordua. Bazekien banaketa adostu beharko zuela ohiarekin, dibortzioa gauzatu. Bazekien adostu ezik, epaileren batek erabakiko zuela. Ildo horretan zihoan Edurne pazientzia infiniturik ez zuela jakinarazi zionean. Hobe zen bien artean adostea. Hala ere, ez zion deituko. Batez ere deiaren zain irudikatzen zuelako ohia. Astelehenean deituko zion, lanera iristearekin batera edo goizago agian, Edurneri aurrea hartzeko. Igande gauerdian deitzeko aukera ere erabili zuen. Hiru helburu beteko zituen horrela: putatzar hori aste osoan deiaren zain edukitzea, umorea ez ziola kendu erakustea eta desorduetan telefonoak jotzeak dakarren sustoa sentiaraztea. Zalantzarik gabe, aukerarik onena zen.

Larunbateko hitzorduaz konplikatuagoa egiten zitzaion erabakiren bat hartzea. Argi zegoen giro hura ez zela berea. Are gutxiago jite susmagarriko jardunaldi batzuk antolatzen ibiltzea antisistema saldo batekin. Aretxabaleta eta Josebaren moduko jendilajeak nazka ematen zion. Baina Kattalin zegoen tartean, baita Odile Mores. Hauekin bilduko litzateke. Beharbada aukeraren bat zeukan Kattalinekin. Ez zekien anarkoak edo komunistak edo antzeko zer edo zer ziren.

Edonola ere, ez ziren beste bi tipo haien ezpalekoak, hori agerikoa zen. Odile Mores Sarrikoko ikasle onenen artean zegoen bere garaian. Horrek ez zuen ezer esan nahi gerora hartutako bideez, baina izan zitekeen, Romanek hala nahi luke, edozein enpresatako kudeatzailea, esate baterako. Martzanan izandako berriketaldiari esker, bazekien Kattalin irakaslea zena. Bestelako xehetasunik gabe. Kattalinekin aukerarik ote zegoen esploratzeko une egokia izan zitekeen larunbatekoa Purgatorioan. Google Mapsen begiratu beharko zuen taberna non zegoen jakiteko. Ziur Martzanako giroa zegoela han ere. Ez zen berea.

# Purgatorioa

Anselmo Garciak ireki zuen Purgatorioa 1960ko urtarrilaren 31n. Athleticek bat eta hiru galdu zuen Real Madrilen aurka San Mamesen. Jendea erruz bildu zen taberna inauguratu berrira Telefunken irratian partida entzuteko. Irratiak bertan segitzen du. Biharamunean Polizia joan zitzaion agindu batekin. Baina agindua erakutsi baino lehen ea zergatik jarri zion izen hori tabernari galdetu zioten. Kanposantua daukadalako aurrean, erantzun zien. Erlijioarekiko errespetu falta zela jakinarazi zion BPSko inspektoreak. Anselmo Garciak ez zuen deus erantzun. Zertarako. Azal ziezaiokeen aurrean zuen sekreta bikoteari berak ez zuela inolako asmo txarrik erlijioarekiko, areago, bera katoliko zintzoa zela. Francorekin egin zuela gerra. Azken batean, nahi zuen bakarra, zerura joan baino lehen euren bekatu arinak purgatorioan garbitu behar dituztenek taberna bat izan zezatela zerbait hartzeko. Purgatoriora, ez da komeni ahaztea, zerura joango direnak baino ez dira sartzen. Hau guztia eta gehiago esan ziezaiekeen gizon haiei, baina isiltzea hobetsi zuen. Inspektoreak

erakutsitako Gobernu Zibilaren aginduak ateburuan pintura gorriz idatzitako izena ezabatzera eta beste inon ez jartzera behartzen zuen. Bi egun zituen. Astelehen goizean, taberna ireki baino lehen ezabatu zuen ateburukoa. Harrezkero jendeak beti deitu dio Purgatorioa, besteak beste Gobernu Zibilari esker, izan ere BPSren bisita laster zabaldu zen auzoan eta tabernaren izena ezagutzen ez zutenek ere, taberna existitzen zenik ez zekitenek ere, jakin zuten bazela Purgatorioa izeneko taberna bat auzoan, kanposantuaren aurrean.

Anselmo Garciak erretiroa hartu zuenetik bere semeak darama taberna. Hau ere Anselmo Garcia. Badira hamar urte aita hil zela. Galiziako jaioterrian lurperatu zuten, berak eskatu bezala. Hilarrian jartzeko epitafioa ere agindu zien emazteari eta seme bakarrari. *Anselmo García, o dono do Purgatorio*. Emaztea senarraren gorpuarekin joan zen Galiziara, eta bertan geratu bizitzen. Baina ez zuen senarraren agindua bete. Ni bizi naizen artean ez da halakorik jarriko aitaren hilobian, agindu zion semeari. Ama hil zenean, duela hiru urte, Anselmo Garcia semeak epitafioa jarri zuen.

Gaur egun Purgatorioa auzoko tabernarik, nola esan, kosmopolitena da, auzotik kanpoko jende ba-

tentzat erreferentea. Horretan zerikusi handia izan du Anselmok, profesionala baino gehiago artista, fintasun bera erakusten duena edariak prestatzen, musika jartzen edo dekoratzen. Han dago inauguratu zen egunean Athleticen partida eman zuen irratia. Han dago, leku printzipal batean eta antigoaleko marko batean sartuta, bere aitari gobernu zibilak emandako agindua tabernaren izena ezabatzeko. Ezkerreko aldea, mostradorea eta mahaiak daudena, hasieran bezala dago. L formako planta bat osatuz etxearen beste alderaino doan laukizuzena semeak atondua da. Hondoan, paretaren kontra piano bat dago eta bere gainean koadro bat: *Les Tres Riches Heures du duc de Berry* izeneko XV. mendeko liburuak dituen ilustrazioetako baten erreprodukzioa. Ez da purgatorioari erreferentzia egiten dion apaingarri bakarra. Eskubiko horman, bakoitza bere markoan txukun, purgatorioa izenburu duten hainbat film eta antzezlanen afixak.

Larunbatetan goizeko zortzietan irekitzen zen Purgatorioa, astegunetan baino ordubete beranduago. Aretxabaleta izan zen hitzordura ailegatu zen lehena. Pianoaren inguruko besaulki batean zegoen jesarrita egunkaria irakurtzen. Mahai gainean kafea eta pare bat liburu zituen. Eguerdia era malguan ulertu behar

da. Aretxabaleta ordu bata jota iritsi zen Purgatoriora eta lehenengoa izan zen. Odile Mores eta Kattalin ia ordu bietan sartu ziren tabernara.

– Denbora asko daramazu itxaroten? –galdetu zion Kattalinek.

– Duela gutxi etorri naiz. Egunkaria baino ez dut irakurri. Zer hartu nahi duzue?

– Zaude hor –agindu zion Odile Moresek makila puntarekin besaulkia seinalatuz–. Txakolin batzuk aterako ditut.

– Vermut bat niretzat, mesedez –eskatu zuen hurbildu ahala tabernan sartu berria zen Josebak eta libre zegoen besaulkia barik, sofa aukeratu zuen gazteak jesartzeko.

Emakumeek txakolin kopa bana ekarri zuten mahaira. Kattalin sofan eseri zen bere ikasle ohiaren ondoan eta Odile Moresek makila besaulkiaren atzean dagoen kristalez babestutako armairuaren kontra bermatu zuen besaulkian jesarri aurretik.

– Desegokitasunaren alde –altxatu zuen kopa Kattalinek.

– *Topa dagigun eta bakean, bizi gaitezen betiko* –kantatu zuen Odile Moresek, keinu bihurri bat eginez.

– Beno, denok gaude –esan zuen Josebak galdera ala baieztapena zen antzeman ezin zitekeen doinu batez.

– Denok? –erantzun zuen Aretxabaletak baieztapena zirudien galdera eginez.

– Romani itxaron beharko diogu konklabea hasteko –baieztatu zuen Odile Moresek.

– Hura gabe kosta egiten bazait guk laurok komunean izan dezakeguna aurkitzea, harekin ezinezkoa da –iragarri zuen Josebak.

– Beti dago zerbait –tonu misteriotsuan Kattalin.

Jakinminez begiratu zion Josebak. Jakinminez eta komunean izan zezaketen zera ezkutu horren bila hasi balitz bezala, halako moldez non, bere irakasle ohiari begiratzeko moduagatik, bazirudien bilaketa hori Kattalinen baitan sartuz egin nahi zuela. Segundo batzuen buruan, ezer aurkitu ez duenaren keinua eginez, eten egin zuen Kattalinen begietara zuzendutako soa. Inork ez zekien Roman etorriko zen ala ez. Ezin zen jakin, inork ez baitzuen ezagutzen horrenbesteraino. Arrazoia zeukan Josebak esan zuenean Roman gabe zaila bazen zerbait komunean aurkitzea Purgatorioan bildutakoen artean, ezinezkoa zela bera tartean sartuta.

– Badakit zer dugun komunean guk laurok eta berandu baino lehen etorriko denak.

Denak zituen begira. Adierazpen garrantzitsu bat entzuteko prest dagoen auditorioa. Harridura gailentzen zen Odile Moresen aurpegian, kontzentrazio ia solido bat Aretxabaletarenean eta Josebarenean, nola esan, eszeptizismo alai bat. Egin zuen iragarpenak, bazekiela zer duten komunean, bezainbat erakarri zuen mahaikideen arreta Roman etorriko zela ziurtzat ematea, beste guztiek kontrakoa uste zutenean.

– Ez dugula seme-alabarik.

Odile Moresek irribarrea gehitu zion harridurari, Aretxabaletak kontzentrazioa erlaxatu zuen eta adostasuna adierazi buruarekin. Gutxien Josebaren begitartea aldatu zen: areagotu egin zitzaizkion eszeptizismoa eta alaitasuna.

– Guk laurok, agian. Baina, ziur al zaude berandu baino lehen etorriko omen denak ez daukala seme-alabarik?

– Susmoa baino ez da –aitortu zuen Kattalinek.

– Gainera –gehitu nahi izan zuen gazteak– komunean duguna ez dugun zerbait izatea ez zait iruditzen arrazoitzeko modurik zuzenena. Domina olinpikorik ez

edukitzea ere komunean dugun zerbait da, esate baterako.

– Ez da gauza bera –sartu zen Aretxabaleta–. Olinpiar dominak edukitzea ez da arrunta, seme-alabak edukitzea bai. Seme-alabena espeziearekin lotuta dago, espezieak bere kideei eskatzen diena da.

– Kaixo lagunok. Zer moduz?

Inor ez zen ohartu, hitzak entzun arte, Roman bertan zela. Denak geratu ziren isilik etorri berriari begira. Isiltasuna, Kattalinek komunean zer zuten bazekiela iragarri zienean bezalakoa. Roman zutik eta irribarretsu, praka beix batzuetan sartuta, alkandora zuria, kafe koloreko zapatak eta lepo inguruan jertse arrosa. Distiratsu zegoen, halako moldez non eserita zeudenak sorginduta ziruditen. Josebak hautsi zuen unearen xarma.

– Batzokian amaitu egin da txakolina ala?

– Ni ere asko pozten nau zu ikusteak –erantzun zion Romanek.

– Barka gizona –egin zuen atzerantz Josebak–. Ikusten zaitut hain...

– Hain desegoki, agian? Erronda bat aterako dut.

– Neuk lagunduko dizut –eskaini zuen bere burua Odile Moresek, Kattalini begiratu ostean.

Mostradorean esan zion pozten zela etorri zelako. Baita oso dotore zegoela ere. Konplimenduzko hitzak itzuli zizkion Romanek, aulkiren bat aurkitu beharko zuela pentsatzen zuen bitartean, sofa eta besaulkiak hartuta baitzeuden. Berandu heltzeak protagonismoa ematen duen bezala, aldi berean, horrelako deserosotasun txikiak ere baditu. Kopak eskuan mahairantz zihoala inguruak behatu zituen aulkiren baten bila. Baina mahaira heldutakoan, Joseba jaiki egin zen sofatik eta bere lekua eskaini zion. Romanek eskertu zion keinua, agerian zegoela ondo hezitako gaztea zela. Kattalinen ondoan eseri zen. Joseba Odile Moresen besaulkiaren beso oparoan.

– Aizu, Roman –ekin zion Kattalinek–, zu etorri aurretik guk komunean eduki genezakeenaz mintzatu gara eta...

– Zuk ba al duzu seme-alabarik? –sartu zen Joseba ustekabean.

Erantzun baino lehen denei begiratu zien banan-banan. Ezin zuen asmatu zertara zetorren galdera hura. Bistakoa zen berari buruz jardun zutela bera iritsi aurretik. Hori bilatu zuen berandu bertaratuz. Behin falta denaren gainean hitz egiten hasiz gero, eta berari buruz deus jakin gabe, normala iruditu zi-

tzaion balizko seme-alaben inguruan hipotesiak egitea.

– Ez. Eta zuk?

– Nik ere ez.

Kattalinek, lehengo hariari helduz, kontatu zion berak aurkitu zuela zer zuten bostok komunean, horretaz ari zirela etorri zenean. Eta asmatu egin zuela Romanek seme-alabarik ez zuela iragarri zuenean.

– Beharbada horren inguruan egin beharko genuke topaketa: seme-alabarik gabeko seme-alabak –iradoki zuen Josebak.

– Ni ez naiz seme aspalditik –zehaztu nahi izan zuen Aretxabaletak, susmatuz egunean zehar nekez entzungo zuela halako inuzentekeriarik.

Zelako ergelkeria, pentsatu zuen Romanek. Odile Moresek ere antzeko zerbait pentsatu zuen, ez soilik Aretxabaletak esandakoaz, are gehiago Josebaren iradokizunaz. Kattalini liburu baten izenburua ekarri zion gogora bere ikasle ohiaren iradokizunak eta poztu egin zen agian hark ere hori izango zuelako buruan. Seme-alaben hariari tira egin izan baliote, beharbada aurki zezaketen denak batzen zituen beste zerbait, Aretxabaletak *ni ez naiz seme aspalditik* esaldiari

eman nahi izan zion adieran aurki zezaketen. Hain zuzen ere, han ez baitzegoen ez semerik ez alabarik.

Kattalinek hogeita bost urte zituenean gurasoak Oizko hegazkin istripuan hil zitzaizkion. Hiru gutxiago zituen bere ahizpak. Zorionez Kattalin lanean zebilen ordurako, Txurdinagako institutuan historia irakasten. Ahizpa Karmele, ez Kattalin bezain fina ikasketetan, Kimika amaitu ezinean harrapatu zuen istripuak. Unibertsitatea bertan behera utzi eta Ibizara joan zen eskumuturrekoak modu konpultsiboan egiten zituen gitarrajole batekin. Aretxabaleta ere hogeita hamar urte egin baino lehen geratu zen zurtz. Minbiziak eraman zituen biak. Seme bakarra izanik etxea jaso zuen ondorengotzan eta ez zuen ibili behar izan nola zatitu eztabaidatzen Kattalin eta bere ahizpa bezala. Hauek, azkenean, saldu egin zuten eta dirua banatu. Horrela, Karmelek, eskumuturrekogile konpultsiboaz gain, milaka ogerleko batzuk eraman zituen Ibizara. Kattalinek pisu txiki bat erosi zuen Zabalan. Alzheimerra arduratu zen Odile Moresen eta Romanen amak eramaten. Hauen senarrak, ohiturari jarraituz, lehenago joanak ziren, bata bihotzekoak jota eta bestea Mallonako eskaileretan irrist eginda. Gutxienez, Alzheimerrek harrapatu aurretik, alarguntzaz gozatzeko aukera eskai-

ni zieten haien emazteei. Aipatutako defuntuen seme-alabak dagoeneko berrogeita hamarrak igarota dauden arren, euren gurasoak paraje hauetan ohikoa dena baino lehenago hil ziren. Josebaren kasua antzekoa da, baina baditu ñabardura berezi batzuk, alegia, aitarik ez du ezagutu, ama haurdun utzi orduko desagertu baitzen. Ez dakigu bizirik dagoen ala ez. Edonola ere, besteak bezain zurtzat jo daiteke. Amak psikiatrak agindutako pilula batzuk arbitrarioki eta masiboki nahastuta egin zuen bere buruaz beste orain dela lau urte.

Baina ez zuten seme-alaben haritik tira egin. Aretxabaletarengatik. Hau izan zen solasa hitzordua jartzera eraman zituen gaira bideratu zuena. Ez ziren, orduko hartan behintzat, seme-alabarik gabeko seme-alabak baino seme-alabarik gabeko zurtzak zirela jabetu. Han bildutako bosten gurasoak ez ziren bizitza itxaropen estatistiketara egokitu. Bazuten hori ere komunean. Aretxabaleta izan zen, bada, astebete lehenago desegokitasunaz edo horrelako zerbaiten inguruan hizpide izan zituzten jardunaldien antolaketa mahairatu zuena. Modu aski desordenatuan eta edari gehiago eskatzeko egindako etenen artean, bakoitzak, nola edo hala, bere iritzia eman zuen.

Ezinbestean, iritzia zutenak hasi ziren, Purgatoriora iritzi batekin joan zirenak. Aretxabaletarentzat gaia, zentzu zabalenean hartuta, desegokitasuna zen, sistemarentzat desegokiak ziren jarrerak eta ideiak aztertzea. Zer sistema, guk hemen osatzen duguna ere bai? Horixe galdetzekotan egon zen Roman, baina gerorako uztea erabaki zuen, hobe izango zela alproja hari entzutea. Entzutea baino gehiago, hitz egiten uztea. Aurreikus zezakeenez zer esango zuen, entzuteak ez zuen lehentasunik. Aretxabaletak, jardunaldien gaiaz aparte, dena zeukan buruan: hizlariak, leku posibleak, iraupena, agit prop pack osoa azken finean. Bazekien, ordea, ez dela batere egokia norberak dena, hasieratik amaierara, goitik behera, eginda proposatzea. Horregatik, gaiaz labur hitz egin ostean isildu egin zen. Josebak jarraitu zuen, ados zegoela gaitzat sistemarentzat desegokiak ziren jarrerak eta ideiak hartzea, nahiz eta, gehitu zuen, ziur zegoela Aretxabaletak eta berak ez zutela gauza bera ulertzen ez sistemaz ez desegokitasunaz. Bistakoa da Josebak joera argia duela Aretxabaletarekiko distantziak markatzeko, beste enbor bateko ezpala dela frogatzeko. Hizlari-entzule hierarkiatik aldendutako jardunaldiak proposatzen zituen. Baita ere, hitzaz gain, beste adie-

razpide batzuk erabiltzea, musika, arte plastikoak, dantza agian. Edonola ere ezin zena falta, Josebaren aburuz, ekintzaren bat zen. Jardunaldiak ekintza direla esan zuen Odile Moresek, egiten den zerbait. Hitzetatik haragoko ekintza, hitzik gabea beharbada edo hitzik gabea hobe, zehaztu zuen gazteak, edozein modutan ere, hitzari mugimendua eta talka gailentzen zaizkion ekintza. Inork ez zuen jarraitu ildo horretatik ekarpenak egiten. Roman haluzinatzen ari zen, pentsatuz Marx anaien elkarrizketa kaotikoena errazago ulertzen zuela entzundakoa baino. Baita ere, zakurflauta, itxuran bat ez etorri arren iraultzaile desfasatuarekin, ados zetorrela harekin.

Mahai bueltan zeuden gehienek nahi zuten baino polemika gutxiagorekin adostu zituzten topaketaren formatuari zegozkion hainbat kontu. Izenak aipatzen hasi ziren arte, gonbidatu zitezkeen pertsonen izenak. Ez ziren bakar batean ere ados jarri. Eta hori Romanek isilik segitzen zuela. Ezagunak, erdi-ezagunak edo ezezagunak izan, proposatzen zuenak baino ezagutzen ez zuena, batek ere ez zuen kontsentsurik lortu. Argudio ideologikoak, logistikoak, estetikoak, era guztietakoak arrazoitzen zituen ezetz borobila ematen zuenak. Romanek, jakina, beste bi gizonezkoek aipa-

tutako guztiak errefusatzen zituen. Ezagutzen zituenak, ezagutzen zituelako. Gainontzekoak, postulatzaileen defentsan aditutakoarengatik. Bere baitan errefusatzen zituen, izan ere, momentuz, isilik jarraitzen zuen. Irribarre gama zabal batez adierazten zuen bere iritzia ikusi nahi zuenarentzat. Postulatzaileak Aretxabaleta, Kattalin eta Joseba izan ziren. Gaztea izan zen lehena. Aurretik, hizlariez gain, arte plastikoak, musika eta agian dantza ere iradoki zituenez eta pentsaturik mahaikide zituenak ez zirela gauza izango musikari desegokiren bat ekartzeko, *Gonbitoa* hardcore taldea proposatu zuenean denak jarri zitzaizkion kontra. Eskura zituen arma guztiekin egin zuen borroka Josebak, aurrean jarri zizkioten argudioak banan-banan eraitsiz, bere ustez. Hala ere bazekien, denak aurka izanda ez zuela merezi besteen akidura osoa lortu arte tematzea norberarena aurrera ateratzeko. Arrazoia izan arren, errepikatzen zion bere buruari, arrazoia izan arren. Odile Moresek eraiki zion eztabaida duintasunez uzteko zubia. Denak isildu ziren proposamen bi zituela iragarri zienean. Entzuleen arreta erabat bereganatuta zeukala, hasieratik zeukana, bermatzeko segundo luze batzuk eman zizkion isiltasun gozagarri hari.

– Ez dut izenik ekarriko. Ez, behintzat, hizlari edo artisten izenik. Lekua artistak bezain garrantzitsua da, hauek baino pisu handiagoa izan lezake edozein ekintzari tonua ematerakoan. Nik Muelle 4 proposatzen dut, bigarren solairua zehazki.

Irribarrez begiratu zien lagunei. Izenari erreparatuta leku hori ez dela ohiko kultur-etxe bat inferi daiteke. Horraino iristen zen Roman, lehenengoz entzun baitzuen izen hori. Aretxabaletak bazekien non zegoen, baina ez zen sekula sartu, ezta kaian bertan duen terrazan jesarri. Joseba bai, noiz edo noiz egona zen Muelle 4n, baina ez bigaren solairuan. Emakumeek baino ez zuten ezagutzen, beraz, bigarren solairua. Inor ez zenez proposamenaren kontra jarri hasiera-hasieratik, adostasunera heltzeko bidea ez zen nekosoa izan. Aski izan zuen Odile Moresek solairuaren hiru sofa antigoaleko, mostradore txikia, bi ispilu handi ajatuak, marmol borobildun burdinazko mahaiak, gutxi, eta itsasadarrera zuen bista paregabea deskribatzea gehienen adostasuna eta Romanek eta Aretxabaletak une hartan osatu zuten gutxiengoaren isiltasuna lortzeko. Bigarren proposamena ere onartu zioten, kostata, orduan ere bi lagunek osatutako gutxiengoaren isiltasunarekin, Josebarena eta Romanena.

Hantxe bertan, Purgatorioan, elkarte bat osatzea, desegokiak, desegokituak, horrelako zerbait. Aretxabaleta ados. Kattalin, eszeptiko.

# Ziztada bat

Izenen inguruan sortutako desadostasun erabatekoaz ari nintzen ordea.

Josebak, denen gaitzespena jaso zuen *Gonbitoa*-renaz aparte, egin zituen beste proposamen batzuk, Aretxabaletak eta Kattalinek egindakoekin tartekatuz. Aretxabaletak Peter Zuazoz hitz egin zien. Baita bere bi poema irakurri ere, gehiago ez ziotelako utzi. Kattalin eta Joseba, kontra. Odile Mores alde eta Roman isilik. Kattalinek, besteak beste, bere gustuko idazle bat proposatu zuen. Denak kontra. Denak Roman izan ezik, isilik jarraitzen zuen-eta. Beharbada proposamen hau izan zen kalapita handiena eragin zuena. Azpimarratzekoa da postulatu ziren izenetatik guztiek ezagutzen zuten bakarra zela. Odile Moresek bazekien Kattalinen gustukoa zela, berak ere atsegin zuen. Hala ere, harrituta geratu zen bere lagunaren ezpainetatik izen hori erori zenean. Ezin zitekeen besterik espero, azken batean egokien zerrenda batean goiko postuetan baitago. Aretxabaletak ez luke inoiz atsegin zuela aitortuko, baina onartuko luke, eta onartzen du, idaz-

le ona dela, maisuki marrazten duela gizon eta emakumeen arteko korapilo askaezina letrak etzaten dituenean paperean. Josebak ez luke onartuko idazle ona denik ere. Zintzoki, ez baitu sekula irakurri. Romanek ere ez du irakurri, baina atsegin du. Probintziako egunkarian elkarrizketa mamitsuak egiten dizkiote bere liburuen gaztelerazko itzulpenak argitaratzen direnean. Romanek ez du elkarrizketa bakar bat ere irakurri. Gehienez ere egunkariak nabarmendutako hitzen batzuk, beti ere literaturatik at, egoera politikoaz eta horrela. Ez da, ordea, idazle politikotzat hartzen, bere liburuak ez dira inongo ideologiaren zerbitzuan kokatzen. Gatazka armatuaren pasarteak, sarritan Dignidad y Justiciakoen tintaz idatziak, beti agertzen dira ikuspuntu literariotik justifikatuak, literaturaren gailurretara iristeko baliabideak baino ez dira. Ez da idazle mediatikoen kastakoa, baina estimu handian dute hedabideek. Ezkerrekoei alderdi literarioa baino ez zaie interesatzen, agian euskararen inguruko hausnarketaren bat. Eskubikoei idazlearen gogoeta politikoak, eremu horretan polito ematen baitie egurra abertzaleei, status quoa elegantzia handiz defendatuz, areago, zalantzan jartzen diharduenaren fineziaz defendatuz. Makina bat bider egon zen Roman ezta-

baidan sartzekotan. Pentsatzekoa den modura, Aretxabaletaren eta Josebaren proposamenak entzun bezain laster, postulatutakoa ezagutu zein ez (gehienetan ez), postulatzaileen lehenengo arrazoia entzun orduko ateratzen zitzaion eztena mihi puntan. Baina isilik eutsi zion. Hedabideek maite zuten idazle ez mediatikoaren saltsan murgilduta zebiltzala erabaki zuen Romanek bere isiltasuna etetea. Idazlea proposatu zuena Kattalin izateak izango zuen zerikusirik, baita ere idazlearekiko sentitzen zuen hurbiltasunak, hala esan badaiteke. Dena den, Roman aipatua izan zelako sartu zen. Joseba ari zen proposamenaren kontrako argudioak bata bestearen atzean aletzen. Amaitu zitzaizkionean, esan zuen, Romani begiratzen ziola, idazlea ikusten zuen bakoitzean, telebistan zein prentsan, yatetik jaitsi berria zela iruditzen zitzaiola, Roman bezala. Hitz horiekin burutu zuen bere diatriba.

– Konplimendutzat hartuko dut –Romanek gaztearri irribarre maltzurrez begiratuz–. Eta gauza bat esango dizut: yatetik jaitsi berri bat oso ondo legoke zuen jardunaldi horietan.

– Zuen? Zu non zaude, barruan ala kanpoan? –galdetu zion amorru puntu batekin gazteak.

– Ba, begira. Batzuetan barruan eta beste batzuetan kanpoan. Eta inoiz, aldi berean barruan eta kanpoan.

– Bai, denon antzera –ekin zion doinu bakegilez Aretxabaletak–. Baina, parte hartuko duzu honetan?

Jakinmina zegoen Romanen inguruan. Azken batean ez zekiten ezer berari buruz, giro hartara oso egokitua ez zela zen susmo orokorra eta, hala ere, Purgatoriora joan zen, batzokitik edo yate batetik irten berriaren itxurarekin. Kattalinek zerikusiren bat izan zezakeela gehienek uste zuten. Josebak izan ezik, ez baitzuen ikusi aurreko larunbatean mostradorean zelan hurbildu zitzaion bere irakasle ohiari. Ikusi izan balu ere ez dago inolako bermerik ezertaz jabetuko zenik. Romanek ez zeukan erabakita *hartan* parte hartu ala ez. Hamar egun lehenago esan izan baliote Purgatorioan egongo zela halako jendearekin halako bilkura batean, ezinezkotzat joko zukeen. Hura ez zen bere giroa. Existitzen zirenik ez zekien lekuetan ez ezik –Martzana 16 eta Purgatorioa–, existitzen zenik ez zekien jendearekin zegoen. Martzanan asko hitz egin zuen, putzu ilun eta sakon baten hondotik hasieran, in crescendo, oso goitik gero. Purgatorioan, ostera, isiltasuna aukeratu zuen, besteak beste, ez zuela-

ko argi zer demontre egiten zuen han. Baina isiltasuna beharrezkoa den arren besteengan arreta jartzeko, ez du esan nahi arreta horri eutsiko zaionik isilik egoteagatik. Purgatorioan, bere isiltasun hartan gordeta, Aretxabaleta eta Joseba behin eta berriro iraintzen zituen bitartean, emazte ohia agertzen zitzaion batean bai eta bestean ez. Martzanan alderantzizko proportzionaltasunez agertu ziren bere mintzoa eta Edurne. Zenbat eta hitz gehiago egin, gorago bera, beherago ohia. Purgatorioan ohia burmuinaren erdi-erdian eroso jartzen zitzaionetan gorrotoa sentitzen zuen bor-bor bere baitan, zeinaren zati bat, mespretxu bilakatuta, ezkertiar zaharkituarengana eta zakurflautarengana zuzentzen zen. Bere arreta Kattalinengan jartzen zuenean baino ez zuen lortzen Edurne ezabatzea. Alkandora berenjena, zetazkoa izan zitekeena, titien hastapena erakusten. Han inork ez zion aurpegiratuko yate batetik datorrenaren itxura duela. Ezpainak antzeko tonuan margotuta. Begiak beltz, alai eta bihurri artean. Emakume haren barruraino sartzeko ate guztiak itxita ikusiko balitu ez litzateke han egongo, era lausoan aitortzen ziona bere buruari. Ez zuen Odile Mores bere hankartearen helburu. Desioa ez zen indiskriminatua. Zerbait zeukan Kattalinek. Besteak beste, eza-

gutu berria zuen, ez zeukan, Odile Moresekin bezala, partekatutako ezer. Odile Mores emakume ederra zen, baina Kattalinek igortzen zituen uhinek piztu zuten Romanen sentsorea. Makina bat ikerketa daude eginda eta beste hainbeste abian erakarpenaren norabideen inguruan, bakarren batzuk balekoak pertsonen arteko bulkadak eta grinak hobeto ezagutzeko. Hala ere, kasu zehatz baten aurrean gaudenean, demagun Romanek sentitzen zuen erakarpena Kattalinekiko, ulertzerako orduan ezer gutxi laguntzen dute ondorio argiren bat ateratzeko.

– Honek ez nau konbentzitzen –esan zuen halako batean Romanek–. Nik ez dakit zer antolatu nahian zabiltzaten. Okerrena da, ordea, zuek ere ez dakizuela.

– Oker zaude, Roman. Guk badakigu zertan ari garen. Gutxi baino ez bada ere, eremu pribatua gainditu dituz jendartearekiko desegokia denaz eztabaidatu plazan, plaza txikia, baina plaza. Eltxo txiki batek erri-nozeroaren larruan eman lezakeen bezalako ziztada bat eman soziedadearen larruan. Libertitzeko ere egiten dugu.

Solemnitaterik gabe ebaki zituen hitzok Odile Moresek. Ukitu didaktikorik gabe. Lehenengo bi esaldiak irmo eta xuabe, hortik aurrerakoa ia-ia autoparodia-

tuz, proklama bat herriari iragartzen ari balitzaio bezala. Aretxabaletak baietz zioen buruarekin, parodiarik gabeko solemnitatez. Gaztea txaloka hasi zen, tabernan zeuden gainerako bezeroen arreta erakarriz une labur batez.

– Aspertuta zaudetelako, beraz. Entretenitzeko –ondorioztatu zuen Romanek.

– Entzunda daukat medikuen jardunaldiak botika saltzaileek antolatzen dituztela askotan. Lehengo batean jardunaldi batzuk egin zituzten Euskaldunan *Ilargia eta ilea* izenburupean. Zerrenda amaigabea da –argudiatu zuen Aretxabaletak.

– Nik jai bat bezala ulertzen ditut jardunaldiak, jai desegoki bat –esan zuen Odile Moresek, bere baitarako ari bailitzan–. Horregatik proposatu dut Muelle 4.

– Benetan desegokia izateko –ekin zion Josebak serio– jaia baino zerbait gehiago behar luke. Ziztada bat eman nahi bazaio soziedadeari, jai batean amaituko den hitzaldi sorta bat baino gehiago egin beharko da.

– Esate baterako? –galdetu zuen Kattalinek, gainontzeko guztiengan Josebaren hitzek sortutako ezinegonaren bozeramaile.

– Ez dakit. Hitzaren gainetiko zerbait. Hitzik gabe, hobe.

– Ekintza bat –lagundu zion Odile Moresek, denek sumatzen zuten eta ikaratzen zituen hari izena jarriz–. Ekintza desegoki bat.

– Ekintza artistiko-politiko bat –ikusirik norbaitek bere hariari eusten ziola gora etorrita Joseba.

Joseba, eta agian ez Joseba bakarrik, astakeriaren bat egiteko gauza zela hasi zen pentsatzen Roman. Ez zen bakarra hori pentsatzen. Isilune bat egin zen. Ekintza artistiko-politikoa zein izan zitekeen hausnartzen zihardutela zirudien. Inorentzat deseroso egiten hasi baino lehen, isiltasuna haustea erabaki zuen Romanek.

– Ketchup potea bota diezaiokezue San Nikolaseko apaizari. Edo su eman elizari, behin hasita.

– Zure proposamenak, adiskidea, gauza bat du kontuan hartzeko modukoa: helburua –esan zion Josebak–. Ekintzak berak, ostera, lehen egindakoak dira eta horrek haien interpretazioa mugatzen du. Zuk egindako proposamenen intentsitatea galdu gabe, zerbait berria izan beharko lukeela uste dut.

– Aizu, nik proposatu, ez dut ezer proposatu.

– Nik baietz uste dut –sartu zen Odile Mores irri malizioso batez lagunduta–. Eta hala jasoko da aktan.

– Ados nago Josebarekin –sartu zen Aretxabaleta– ekintza horiek, lehenago ere egindakoak direnez, mugatuta daudela dioenean.

– Elizei su eman al zaie inoiz Euskal Herrian? –galdetu zuen Romanek, hanka sartzen ari zela konturatu baino istant antzemanezin bat lehenago.

– Nik dakidala, ez –lagundu zion Kattalinek.

– Hemen ez, baina espainiar estatuan bai eta horrek mugatuko egingo luke interpretazioa –argitu zuen Aretxabaletak.

– Hemen ere izango zen horretarako prest zegoenik, baina Gibraltar Vatikanistako agintariek gudariak jarri zituzten elizak zaintzen. Pentsatu nahi dut –jarraitu zuen Josebak– jomugan bat gatozela.

– Ni ez –argitu nahi izan zuen Romanek.

– Zeuk jarri duzu jomuga. Ez ahaztu aktan jasota geratu dela –erantzun zion txantxa doinuz Kattalinek.

– Gainera, eliza da bortxa iraultzailea jaso ez duen boterearen erakunde bakarra –sakatu zuen gazteak.

– Hori –argitu zion Aretxabaletak– bortxa iraultzailea ekintza armatuetara mugatzen badugu. Guztiz

okerra litzatekeena. Laurogeiko hamarkadan izan ziren elizaren kontrako ekintzak, Gasteizen bereziki.

– Halaxe da –sartu zen Odile Mores, Aretxabaleta Ateos Reunidos Geyper eta Nazio Askapenerako Apostaten Frontearen ibiliak kontatzen hasiko zen beldur.

Han ez zen inor aktarik jasotzen ari, baina Romanek ez zituen txantxatzat hartu bera saltsa hartan nahasteko ahalegin nabarmenak. Hala ere ez zen tematu bere burua zentzugabekeria hartatik aldentzen, jabetuta baitzegoen zenbat eta gehiago ekin, orduan eta okerrago izango zela. Dena esatera, ez zen orain-dik zehaztu gabeko ekintza artistiko-politiko hark larritzen zuen bakarra. Joseba izan ezik, beste guztiak zeuden, neurri batean edo bestean, arduratuta. Roman izan ezik, denek zeukaten balizko ekintza argi eta garbi errefusatzeko eragozpenen bat. Azken batean ezin zuten erlijioaren kontrako ekintza artistiko-politiko baten zilegitasuna eztabaidatu. Ez behintzat zehaztu arte. Baina inork ez zuen zehaztu nahi. Josebak izan ezik, noski. Begoñako Ama Birjina bahitzea baztertu egin zuten arrazoi praktikoengatik. Ez zuelako zentzu handirik Desegokituen Elkarteak topaketa batzuk antolatu, era publikoan, eta aldi berean, topaketen parte gisa, halako bahiketa bat egitea. Bilboko

eliza guztiak pintadaz jostea ez zen intentsitatearen aldetik behar beste desegokia ikusi. Hori esan zuen, behintzat, Josebak eta gainontzekoek isilik entzun zuten. Pintadetan inoiz ibili baziren, Roman ez besteak, aspaldiko kontuak ziren horiek. Ez zeukaten gorputza halakoetarako. Baina isilik geratu ziren, ez ziotelako zilegitasun faltarik ikusten, egitekotan Josebak egingo zuela pentsatzen zutelako, izango zuelako Josebak ekintzaileak non errekrutatu. Entzun ziren beste aukera batzuk ere (esate baterako mendi tontorretako gurutzeak lurrarekin berdintzea), baina ekintza artistiko-politikoaren kontua nebulosa batean geratu zen. Esan nahi baita, Romanenaz aparte, kontrako jarrera argirik agertu ez izanagatik, aldekoak ere ez zirela entzun. Ez bederen behar besteko irmotasunez, izan ere egia da, edan ahala, baten bat kartsu agertu zela une batean edo bestean. Pintadena, adibidez, Aretxabaletak aipatu zuen, inolako gogorik izan ez arren espraiekin ibiltzeko. Ez gogorik, ez asmorik. Romanek Kattalini begiratzen zion, hura ikusteak soilik ekidin zuen gizona ihesean irtetea handik. Horrenbestez ekintzarena airean zegoen. Ez zen zeharo baztertu, ez zen esplizituki onartu, ez zen zehaztu. Denek

zekitena zen Josebaren eskuetan zegoela. Beste inork ez zuen pausorik emango.

Odile Moresen bi proposamenak onartuta (elkartea osatzea eta topaketa Muelle4n egitea), jardunaldien zutoinak jarrita zeuden. Izenen afera konpontzeko Josebaren proposamena eman zuten ontzat, proposamenaren beraren balioagatik baino gehiago bateratzaile rola gazteak egin izanak sortutako harridurarengatik ziurrenik. Bakoitzak bi izen jarriko zituen eta gainontzekoek onartu egin behar zuten. Gonbidatuen artean diziplina ezberdinak jorratu behar zituzten. Ordura arte hartutako txakolinek erraztu egin zuten batetortzea. Purgatorioko paperezko ezpain-zapietan idatzi zituen bakoitzak bereak. Tolestu eta mahaiaren erdian utzi zituzten. Odile Moresek bereganatu zuen zeremoniaren gidaritza. Hartu zuen lehenengoa bi aldiz tolestuta zegoen. Astiro zabaldu zuen, ukitu zitekeen jakinmina elikatuz. Peter Zuazo eta Pancho Rodriguez irakurri zuen. Denek begiratu zioten Aretxabaletari. Sophie Clement eta Pedro Lemebel irakurri zuen bigarrenean, hau ere birritan tolestuta. Elkarri begira geratu ziren. Sophie Clement, kazetari frantziarra Odile Moresek eta Kattalinek baino ez zuten ezagutzen. Pedro Lemebel emakume biek eta Aretxabaletak. El-

karri begiratu hartan, Romanek eta Josebak baino ez zieten beste guztiei begiratu. Hirugarrenean, hiru bider destolestu behar izan zuena, Albert Pla eta Vladimir Axular irakurri zituen Odile Moresek gaztearengana zuzenduz soa. Eta berari azaldu zion Pla poeta eta kantore kataluniarra dela eta Axular euskal letretako queer nagusia. Laugarren papera, hau ere hiru bider tolestutakoa, zabaldu zuen Odile Moresek, aurrekoak baino astiroago. Ezin izan zuen harridura ezkutatu bertan idatzitakoa ikusi zuenean. Arnasa hartu zuen irakurri baino lehen. Munilla eta Aretxabaleta. Munilla? Galdetu zuten aho batez Kattalinek, Aretxabaletak eta Josebak. Donostiako gotzain faxista hori? Ziurtatu nahi izan zuen Aretxabaletak. Josebari eta Kattalini, ziurtatzeko premiarik gabe antza eta biei batera, hautagaitzaren aurkako irainak eta argudioak atera zitzaizkien bata bestearen atzean, halako moldez non ez zen beti erraza batzuk eta besteak bereiztea. Aretxabaleta eta Odile Mores ez ziren korura batu. Probokaziotzat hartu zutelako edo ez zeukatelako gotzainaren kontra aletutako argudioei ezer gehitzeko, laidoei agian bai. Edo, Aretxabaletaren kasuan, berarekin batera proposatutako izenaren aurka egiteak elegantzia eskasia erakutsiko zuelako edo, lite-

keena hau ere, ez zutelako hautagaitza desegokitzat hartu edo, Munillak ez lukeela gonbita onartzetik abiatuta, jostaketa gisa hartu zutelako. Ziurrenik beraien argudioak eta isekak agortzetik urrun izanagatik ere, halako batean isildu egin ziren Joseba eta Kattalin.

– Nik sarrera ordainduko nuke Munilla eta Aretxabaleta mahai berean ikusteagatik –hasi zuen Romanek bere proposamenaren defentsa–. Eztabaida, ez didazue ukatuko, bermatuta legoke. Besteen artean, eta aitortzen dut ez ditudala ezagutzen, beharbada ez litzateke berme hori izango.

– Munillaren boutadea alde batera utzita, barruan zaudela ulertu behar dugu, Roman? –galdetu zion Odile Moresek.

– Lehen esan dudan bezala, eta zuen baimenarekin, barruan eta kanpoan.

– Barruan ala kanpoan –eten zion Josebak–. Bietan batera ezinezkoa eta onartezina da.

– Esan nahi dudana da laguntzeko prest nagoela, baina anonimatuan –zehaztu zuen Romanek gazteari muturra txikitzeko gogoari eutsiz.

– Bai, zu hobe anonimatuan, ez dugu-eta nahi eskumika zaitzaten. Ezin dugu ahaztu ekintza artistiko-politikoaren helburua zeuk jarri duzula –erantsi zuen

Josebak, ezkerrarekin emandako crochet eder batez burges nazkante hari hortzeria birrintzen ziola imaginatuz.

Bazirudien topaketa mamitzen ari zela. Mahai gainean ezpain-zapi bat baino ez zen geratzen, Odile Moresena. Honek terrazara irtetea proposatu zuen azkena irakurri baino lehen. Josebari ez zitzaion proposamena gustatu, Odile Mores protagonismo bila zebilela iruditu zitzaiolako. Nola ulertu bestela bilkura lekuz aldatzea azkeneko papera irakurri gabe, bere papera ireki gabe terrazara eramatea. Beste bakarren batek ere pentsatuko zuen hori beharbada, baina, Joseba bezala, gainontzeko erretzaileak berehala altxatu ziren kalera irteteko. Kattalin eta Roman besteen atzetik irten ziren. Zoriak zerikusi gutxi eduki zuen hala egokitzean. Kanpora bidean, elkarren ondoan zihoazenez, Romanek Kattalinen besoaren epela sentitu zuen berean. Lehenengo ukalondoak ukitu zuten elkar, berehala aldentzeko. Bigarrenez bat egin zutenean, aldendu beharrean kontaktua sorbaldaraino iritsi zen. Bi eta hiru segundo arteko kontua. Denbora tarte luzeegia borondateak ez zuela parte hartu pentsatzeko, gutxienez baten borondateak eta bestearen

onarpen pasiboak. Tarte laburregia ondorio zehatzagorik ateratzeko.

Terrazan jesarrita, Odile Moresek zerbitzariak eraman berri zien izotz ontzitik txakolin botila hartu eta ireki egin zuen, azkeneko papera, berea, zabaldu baino lehen. Magoa bailitzan, ezpain-zapia destolestu eta bi aldeak erakutsi zizkien lagunei. DES. Horixe jartzen zuen erakutsitako bigarren aldean. Eszeptiko samar begiratu zioten.

– Desegokituen Elkarte..., ez dakit zer –deszifratu zuen.

Ez zuen laudoriorik jaso, gaitzespenik ere ez. Iluntzen hasia zela ohartuta, jatekorik ba al zuen galdetu zioten Anselmori. Zumaiako olagarroa jan zuten, hala aurkeztu zien behintzat Purgatorioko nagusiak platerean ekarritakoa. Alkohola zertxobait neutralizatzeko ondo etorri zitzaien bost gorputz haiei. Olagarroaren ostean beste fase batera igaro zen bilkura. Peter Zuazoren *Postariaren mendekua* liburutik paper bat atera zuen Aretxabaletak. Hartutako akordioak idatzi zituen bertan, bakoitzaren laburpena egin eta bilkuraren onespena jaso ostean. Paper hura neuk daukat. Bolaluma urdinez idatzita dago, kaligrafia aski desegokiz. Goian eta lauki batean sartuta Odile Moresek esanda-

koa: *eremu pribatua gaindituz jendartearekiko desegokia denaz eztabaidatu plazan, plaza txikia, baina plaza. Eltxo txiki batek errinozeroaren larruan eman lezakeen bezalako ziztada bat eman soziedadearen larruan*. Laukia ukitzen zuen gezi baten gainean, letra larriz, *agiria-oinarria* jartzen zuen. Beste lauki batean, baina dena bete gabe, beste batzuentzat lekua gorde nahian-edo, eta antzezlan bat bailitzan, jokalariak irakur zitekeen letra xehez. Jarraian, bildutakoek proposatutako izenen zerrenda, berea izan ezik. Denak larriz. Aretxabaletak, bat etorri arren hizlari ona izango zela uste zutenekin, mahaikidea Munilla edo beste edonor izan, ez zuen, lotsarengatik, bere izena jarri. Romanek protesta egin zuen, berak proposatutako izena jartzearen alde argudiatuz. Gainontzekoek ere arrazoi ezberdinak eman zituzten Aretxabaletaren egokitasunaren alde. Intentsitate baxuko erresistentzia erakutsi ondoren, bere izena idatzi zuen Munillarenaren azpian. Beherago, orria ia osorik hartzen zuen lauki zuzen baten barruan, *DES Desegokituen Elkartea* jarri zuen. Elkartearen izena erabakitzeak bere denbora hartu zuen. S hizkiak eman zien lana, esez hasten zen hitz egokiaren bilaketak hain zuzen. Sadomasokista, saduzearra, setatia, seborreikoa, segala-

ria, sektarioa, septikoa, sofista, subjektiboa, sublimea, suizida. Azkenean *DES Desegokituen Elkartea* jarri zioten izena, s letraren inguruan, aurreikus zitekeen modura, ez baitzegoen adostasunik.

– Akta horretan ekintza artistiko-politikoaren xedea idatzi behar litzateke eta proposatu duenaren izena –iradoki zuen Josebak.

– Ezta pentsatu ere! –orri hartan bere izena agertzeak gauza onik ekarriko ez zion ziurtasunez Romanek.

– Ez dakigu zein izan daitekeen ekintza hori, ezta egingo den ere. Ez dago idatzi beharrik –esan zuen Aretxabaletak, Joseba eta bere lagunek egin zezaketena eta indarrean dagoen legeriaren arteko tarteari tamaina hartu nahian.

Denak etorri ziren Aretxabaletarekin bat. Denak Joseba izan ezik, noski. Baina ez zen tematu gaztea. Edozein modutan, Aretxabaletak, noiz ez dakidan arren, idatzi egin zuen paperean: ekintza artistiko-politikoa (oraingoz zehaztu gabe)

helburua: erlijioa, eliza.

proposatzailea: roman.

Odile Mores aukeratu zuten lehendakari. Ez eztabaidarik gabe. Kattalinek iradoki zuen lehendakari bat hautatu behar zela. Berehala adierazi zuen Josebak bere desadostasuna, hierarkiak eragiten dituen kalteen zerrenda oparoa osatuz. Bere irakasle izandakoak baietz egin zion buruarekin aletutako argudio bakoitzari. Baina, amaitu zuenean, arrazoi gehiago ere bazituela argi utzi eta gero amaitu zuenean, Kattalinek bi argudio eman zizkion lehendakaria hautatzeko. Prosaikoa bat, iragarri zion, eta lirikoa bestea.

– Gonbidatuengana gutunez zuzendu beharko dugu eta, ziurrenik ez dutenez gure elkartearen arrastorik izango, gonbidapena pertsona batek elkartearen izenean sinatua izateak konfiantza eman liezaioke hartzaileari.

– Pertsona egokiak sinatuta –gehitu zuen Josebak.

– Eta arrazoi lirikoa? –galdetu zuen Aretxabaletak, gazteak ireki nahi zuen bidearen arriskuez jabetuta.

– Lehendakaritza efimeroa. Topaketa burutu arte baino ez du iraungo.

Joseba bakarrik geratu zen asanblearismoaren defentsan, horrela aurkeztu nahi izan baitzuen bere posizioa.

– Agian arrisku hori, presidentzialismoan erortzea demokraziaren kaltetan, ekidin daiteke zeu bazina lehendakari –iradoki zion Romanek.

– Beste norbait proposatuko zenuela uste nuen –erantzun zion Josebak–. Egia esan, ziur nengoen beste elkartekide bat proposatuko zenuela.

– Nik badut hautagai bat –pragmatiko Odile Moresek zigarro bat ahokoan sartzen zuen bitartean.

Mahaikideen arreta bereganatu zuen. Beste arrazoi batzuen artean, beharbada, eta beharbada diot, bildutakoen artean integratzaileena izan zitekeelako. Batzuetan. Zigarroa ahokoan sartu eta pizteko hartu zuen denboran, entzuleen buruetan hainbat aurpegi igaro ziren Odile Moresen hautagaia asmatu nahian.Tarte labur hartan, hamabost segundoraino luzatuagatik zeremonia Odile Moresek, tartea laburra izan baitzen, lau buru haietan gehien agertu zena Kattalin izan zen (bere buruan ere agertu zen, autoagertu). Orpoz orpo, Aretxabaleta eta, azkenik, Roman.

– Ba, neure burua aurkeztea pentsatu dut, agintaldi oso laburra izango duenez, zama hartzeko gai ikusten dudalako.

Gutxi falta izan zuen lehendakari aho batez izendatua izateko, Joseba abstenitu egin baitzen. Elkar-

teak bazituen, bada, izena, lehendakaria, oinarri ideologikoa (*Postariaren mendekua*-tik ateratako paper batean idatzia eta neronek daukadana) eta zeregin bat. Horrela jarri zen abian Desegokituen Elkartea, karranka egiten zuen motore baten indarraz, norabidea argi, Odile Moresen makila polikromatua lema.

# Erraiak likuatuz

Zenbat aldiz joko ote zuten Peter Zuazoren atea azken urteetan? Zenbatetan bizitza osoan? Aretxabaleta ikusi zuenean, sinadura eske joan zitzaion hartan, ur-kontagailuaren ikuskatzailea edo gutun ziurtatu bat zekarkion postaria begitandu zitzaion hasiera batean Peter Zuazori. Aurpegi hark aski ongi emango luke gisa hartako enplegatu baten uniformean. Gizon arrunt bat, pentsatu zuen Peter Zuazok, bera bezain arrunta, zertxobait gehiago agian. Zortzi urte gazteagoa izanagatik, bere adinekoa iruditu zitzaion. Egia da Aretxabaletak pixka bat ajatua dirudiela duen adinerako, baina Peter Zuazoren pertzepzioan bisitariaren ile erdi urdindua eta sabelaren prominentzia lotsatia bezainbat norbere burua gazteago eta hurkoarena zaharrago ikusteko dugun joerak eragin zuela. Pixka bat fantasma begitandu zitzaion.

Kontu hauek zebilzkion buruan ordenagailuaren aurrean jesarri zenean. Bazekien zer idatzi Odile Moresi. Ez, ordea, emaila nola hasi. Hor baieztatu zuen Aretxabaleta dena delako hari buruz ezer galdetzeak

baino Odile Moresi idazteko aitzakia izateak kitzikatzen zuela. Desegokituen Elkarteko lehendakaria jar zezakeen, idazteko motibazio bakarra bisitan joan zitzaion gizonaz galdera batzuk egitea balitz. Lehendakari anderea. Odile estimatua. Kaixo Odile. Azkenerako utzi zuen mezuaren hasieran zer jarri.

Kaixo, Odile, lehendakari estimatua.

Duela hiru hilabete inguru gizon bat etorri zitzaidan etxera. Patxi izenekoa, abizena ez dut gogoan, Aretxaga, Aretxabala edo horrelako zerbait. Ezkila Irratian poesia programa bat egiten zuen laurogeiko hamarkadan. Zuzentzen duzun elkarteko kide den galdetzera natorkizu.

Laster arte,

Peter Zuazo

Bidali ostean tartetxo bat geratu zen pantailari so, erantzunaren zain bailegoen. Sartu zituen bilatzailean *ezkila patxi* hitzak. Han ibili zen batera eta bestera, baina ez zuen ezer garbirik aurkitu. Hurrengo bi egunetan ez zuen erantzunik jaso. Haserretu egin zen Odile Moresekin. Mundu guztiak ez duela posta egunero begiratzen esaten zion tarteka bere buruari. Edo

bere buruak. Hala ere ez zuen lortzen haserrea ezabatzea. Hiru egunera jaso zuen erantzuna.

Kaixo, Peter.

Lehenik eta behin, barka lehenago ez erantzuteagatik. Ezustean harrapatu ninduen zure galderak. Gainera, gure elkartean, lerro nagusiak argi izanagatik ere, ez zegoen hain argi kideen anonimotasun/publikotasun kontua. Honetaz hartutako erabaki bakarra jardunaldietarako gonbita neronek sinatuko nuela izan zen. Horregatik Patxirekin hitz egitea erabaki nuen zuri erantzun aurretik. Dagoeneko jabetu zara zure galderaren erantzuna baiezkoa dela: Patxi Aretxabaleta Desegokituen Elkarteko kide da. Ezkila Irratian ezagutu genuen elkar, ni neu ere han ibili bainintzen. Hurrengo ikusten dugunean mintzatuko gara gehiago honetaz, nahi baduzu. Eta elkar ikusteaz ari garela, bada, egia esan zuri idaztekotan nengoen, hitzordu bat jartzeko jardunaldien martxaz hitz egiteko. Jar ezazu zeuk ondo datorkizun egun batean.

Laster arte,

Odile Mores

Sentsazio ezberdinak, kontrajarriak batzuk, eragin zizkion Odile Moresen mezuak. Poztu egin zen Aretxabaleta delakoa Desegokituen Elkartekoa zela jakiteak edo, zehatzago, bere susmoa baieztatzeak poztu zuen. Ez zion pozik eman Odile Mores eta Aretxabaleta gaztetatiko lagunak izatea. Horren berri izateak Aretxabaletarekiko sentimendu izendagaitz bat piztu zuen bere baitan, zerbait ezkorra. Errazena jelosiatzat jotzea litzateke, bekaizkeria agian. Baina, berak baino lehenago ezagutzeari, areago, aspaldiko lagunak izateari, Aretxabaleta helburu ezkutuekin bere etxean agertzea gehitu behar zitzaion. Bere galderari erantzun baino lehen, Aretxabaletari berari kontsultatu behar izana ere ez zuen gustuko izan. Berari idaztekotan zela esateak ere ez zion sentsazio onik eragin Peter Zuazori. Soberan zekien, aitortu ez zizkion helburuekin Aretxabaleta bere etxean agertu izana izan zitekeela, arrazoiaren ikuspuntutik, arbuia zezakeen kontu bakarra. Berak baino lehenagotik harremana izatea Odile Moresekin erantzunezinezko datu bat baino ez zen, Odile Mores ezagutzen zuten ia pertsona ororentzat balio zuen datua. Alabaina, sentimendu izendagaitz eta ezkor antzeko hartan pisu handiagoa zuen Aretxabaletaren bisitaren asmo ezkutuak baino.

Peter Zuazok asteak zeramatzan jardunaldietan zertaz mintzatu pentsatzen. Idatzi ere egin zuen zerbait, oharren bat edo beste baino ez izan arren. Hasiera batetik baztertu zuen bere bi liburuekin zerikusirik izan zezakeen edozer. Alboratu zuen, baita ere, gainontzeko parte hartzaileez gehiago jakitea edo entzuleriaren osaketaz eta profilaz hipotesiak egitea. Behin baino gehiagotan pentsatu zuen jardunaldi haietara eraman zuena Desegokituen Elkarteko lehendakariarekin larrutan egiteko asmoa izan zela kontatzea. Hiru urte zeraman egin gabe. Ordaindu gabe askoz gehiago. Ez zitzaiokeen zailegi izango ardatz horren inguruan egokitasunaz hausnarketa batzuk txertatzea. Beste edozein ardatzen inguruan biraka ibilita ere ez. Hala ere, zalantza egiten zuen bere buruak horretarako izan zezakeen ausardiaz. *OMrekin larrutan egiteko*, idatzi zuen oharrak paratu zituen orri batean. Papera prakaren atzeko poltsikoan zeraman, edozein unetan bere kontakizunaren mamia bururatuz gero eskura izateko. Horrek ematen du neurria jardunaldien kontua zenbateraino zuen gogoan. *Mendekua*, *Hamlet, Montekristoko Kondea, Mathias Reimz* ere idatzi zuen. Gai emankorra beti. *Postariaren mendekua*-rekin erraz lotzekoa, alabaina. Errazegi. Mende laurdena

igaro zen arren bere ipuin liburua argitaratu zenetik eta, izan zuen oihartzuna apala izanagatik ere, beti egon zitekeen jardunaldi horietan harekin lotuko zuen norbait. Beti dago norbait.

Mende laurden horretan izango zen kontatzeko gairik. Zer egin duzu hogeita bost urte hauetan?, galdetu zion bere buruari. Ez zen ohikoa. Ez zuen bere bizitzaren errepasorik egiteko ohiturarik. Are gutxiago baloraziorik. Ziurrenik bazekielako ez zela balantze onik aterako. Mahaian eserita zegoen, asteetan prakaren atzeko poltsikoan zeraman paper puska aurrean zuela. Hala ere, orri bat hartu zuen idazmahaiko tiraderatik eta 25 idatzi zuen goian, erdialdean. Anakoreta idatzi zuen azpian. Ez da pentsatu behar, ordea, bere buruaz hitz egiteko asmoa zuenik. Letren munduan boladan dagoen kontu hau ez zuen atsegin. Ez kontaketaren benetakotasuna axola zitzaiolako, ezta sinesgarritasuna. Gehiago zen tamalgarria iruditzen zitzaiola norbaitek une batean bere buruaz hitz egitea baino gai interesgarriagorik ez zegoela erabakitzea. Zuazo ibili, helburu baten bila zebilen: topaketa horietan zeren kontra egin.

Edonola ere, bereari begira jarraitu zuen arkatza eskuan. Praka-poltsikotik ateratako hitzak garbira pa-

satu zituen. Gaztegi idatzi zuen. Libertitzenetik Eusko Jaurlaritzara. Handiustea, harrokeria, kodizia. Zerrenda horretatik ezer gutxi atera zezakeela ohartu zen. Asko dira, gehiegi, Gaztegiren bidea egin dutenak, ezkerretik eskubira, Avernotik Zerura. Ez dago horretaz gauza handirik esateko, ez behintzat ezer berririk. Ekarri zituen gogora ezagututako pertsonak (esan gabe doa labur joan zela zeregina) eta posta bulegoko nagusia eta editorea ziren, nahi den ordenan, erdeinagarrienak. Begiak itxi eta urrunago joan zen, haurtzaroraino. Han ez zituen aita eta Don Jose apaiza baino aurkitu. Aitaren aurka egin zezakeen, aitatasunaren aurka, apaizen aurka, eliza-ama sainduaren aurka, dena bil zezakeen luzeen dirauten autoritateen aurka. Aita eta Don Jose ere jarri zituen orrian. Miren eta Esther idatzi zuen gero. Berak ere ez zekien zergatik idatzi zituen izenok paperaren beheko aldean, goikoengandik aldentzeko beharbada, ez zitezen haiekin zikindu. Birritan maitemindu zen Zuazo. Lehenbizikoz hamazazpi urte zituela Mirenekin. Esther istripuaren ostean agertu zen, errehabilitazio saioetan. Mirenek urtebeteren buruan eten zuen harremana. Ez naiz bat ere dibertitzen zurekin, esan zion. Esther berak utzi zuen, Zuazok. Lau urte zeramatela, oharkabean

hasieran, Estherrek engainatu egiten zuen pertzepzioa jabetu zen Zuazorengan. Pertzepzio hori eta Zuazoren arteko lehian lehenengoa gailendu zen. Pare bat urte horrela ibili ondoren, Zuazok erabaki zuen banatzea min eramangarriagoa izango zela elkarrekin jarraitzea baino. Estherrek, jakina, ez zion inoiz adarrik jarri.

Engoitik ez zuen sexu harremanik izan ordaindu gabe. Eta, deigarria bada ere, Barrenetxeak erabilitako zerbitzua erabili zuen. Ez hori bakarrik. Emakume haiekin hilero etzateko ohitura hartu zuen. Ez zuen nahi, ordea, Barrenetxearen zakila ibilitako zuloetan erabiltzea berea. Joan zitekeen putaseme haren argazkiarekin eta gizon harekin egondako emakumerik ez zuela nahi esan. Berehala konturatu zen estrategia horrek ez ziola inolako bermerik eskaintzen. Ikusia zuenez Barrenetxeak emakume gazteak zituela gogoko, hogeita bostetik gorakorik ez, bada berak zerbitzuak eskaintzen zion 35-45 segmentuan aukeratu zituen. Denborarekin lehentasunak zehazten joan zen. Veronica eta Violeta deitzen ziren lehentasunak. Eta haien izenak idatzi zituen Mirenen eta Estherren izenen ondoan. Nola edo hala desegoki izan behar omen zuen hitzaldirako ondo letorke prostituzioa. Areago

jende aurrerakoi anitz ere kontra dagoela kontuan hartuta. Baita ere feminista edo soziologo edo gizartezerbitzuetako batek barik, urteetan aurrera doan bezero baten kontakizuna litzatekeelako. Aldi berean egur zitzakeen atzerakoiak eta aurrerakoiak, abolizionista horiek guztiak.

Kontua da Odile Moresen mezua irakurri ondoren, aipatu sentsazioak tarteko, jardunaldi haietara joateko gogoa moteldu egin zitzaiola nabarmen. Berriro paratu zuen begirada orriaren gainean. Arrotza egin zitzaion. *OMrekin larrutan egiteko*. Beldurra ere irakurri zuen hitzen anabasa hartan. Ahaztuta zeukan beldurra idatzi zuela. Horretarako zen ohar orri hura, ahanzturak gogoratzeko. Agian atzera egitea izan zitekeen egokiena, Odile Moresi esatea ez zeukala inolako jardunaldietarako aldarterik. Are gehiago, egokiena litzateke argi eta garbi esatea berarekin larrutan egitea baino ez zuela xede baietza eman zionean. Asmo horrek bere horretan jarraitzen zuela, ez ordea jardunaldietan parte hartzearena. Aukerarik egokiena iruditu zitzaion, zalantzarik gabe. Beteko ez zuena izanagatik ere, aukerarik onena.

Mila buelta eman ondoren, jardunaldiak eta Odile Mores bereizi beharko zituela erabaki zuen, bestelako

motibazio bat behar zuen. Ganorazko zerbait idaztean dago gakoa, pentsatu zuen, kontatzea mereziko lukeen zer edo zer. Berak hori sinestean zetzan giltza, idatzitakoa ganorazkoa zela eta kontatzea merezi zuela, alegia. Harrigarria bada ere, hau eskuragarriagoa iruditzen zitzaion OMrekin larrutan egiteko asmoa gaitzat hartutako hitzaldia ematea baino. Edo zuzenean, aurrez aurre, Odile Moresi berari esatea baino. Horrela, idaztea erabaki zuen eta Odile Moresekin ez geratzea. Erraiak likuatuz osatutako tintaz idaztea, inoiz, aspaldi, idatzi zuen bezala. Praka-poltsikotik ateratako paper zatian idatzitakoak kopiatu zituen orrian. Idazten hasi orduko baztertzea erabakita izan arren, mendekuaren inguruko hitzak alde batean. *OMrekin larrutan egiteko* lau emakumeen izenen ondoan idatzi zuen. Odile Moresi mezu bat igortzea deliberatu zuen, bazebilela berea prestatzen esateko. Besterik gabe. Jakinaraz ziezaiola non eta noiz egin behar zuen hitzaldia jarriko zion mezuan. Eta kito.

Desegokituen Elkarteko lehendakariari.

Lerro hauen bitartez jakinarazi nahi dizut banabilela jardunaldietara eramatekoa prestatzen. Laster izango duzu aurrerapen bat. Jakinaraziko

didazu non eta noiz hitz egin behar dudan. Baldintza bat eta eskari bat ere egin nahi dizkizut. Ni aurkezteko, dela hitzaldian bertan, dela paperean edo bestelako euskarriren batean, izenaren ondoan anakoreta baino ez aipatzea. Inolaz ere ez idazle, ez bainaiz idazle, ezta aipamen txikienik ere antzina batean argitaratu nuenaren inguruan. Anakoreta, soilik. Hori baldintza. Hona hemen eskaria: mahaian bakarrik egotea.

Besterik gabe, hurrena arte.

Peter Zuazo.

Berrirakurri zuen idatzitakoa hainbat bider. Ondo iruditu zitzaion. Edonola ere, zuhurtziaz jokatzea erabaki zuen: biharamunean berriro irakurri eta, balekoa begitanduz gero, orduan bidaliko zion. Biharamun goizean, jaiki eta berehala piztu zuen ordenagailua. Ez zegoen mezurik. Ez zegoen Odile Moresen mezurik. Egia esan, ez zeukan inolako arrazoirik lehendakariaren mezurik itxaroteko. Areago, Peter Zuazori berari zegokion idaztea, norbaiti egokitzekotan. Komunerantz abiatu zen dena emanda, puxika behar baino lehenago husten has ez ziezaion. Bezperan idatzitakoa

bidaliko zion Odile Moresi eta gosaldu bezain laster hasiko zen idazten jardunaldi haietarako.

Harridura eragin zion mezuak Odile Moresi. Muzin egiten zion berak proposatutako enkontruari, argi eta garbi. Non eta noiz hitz egin behar zuen baino ez omen zuen jakin nahi. Beste ezertarako ez zuzentzeko berarengana adierazten zion. Mezuaren hasierako agurra ere tenore berekoa zen, lehorra. Kattalini erakutsi zizkion hiru mezuak.

– Kaiku halakoa!

– Bai –Odile Moresek–. Edo agian ez.

– Eta harroa –gehitu zuen Kattalinek–. Izenaren ondoan, anakoreta. Mahaian bakarrik... Baina zer uste du horrek?

Peter Zuazoren mezua, mezuen bilakaera, ikusita, zentzuzkoa zirudien Kattalinen iruzkinak. Odile Moresi, ordea, ez zitzaion halakorik atera mezua irakurtzean. Gero, bere lagunaren erreakzioa entzutean, ados-edo agertu arren. Erabateko ziurtasunik gabe. Izan zitekeen harrokeria, baina ez halabeharrez. Izan zitekeen beste zerbait. Peter Zuazorekin egon zenean ez zitzaion harrokeriara emana iruditu. Hala ere, ezin ukatu harrokeria ere bazela haren mezuan. Azken batean harrokeria gutxitan agertuko da bakarrik, egoera

puruan; gehienetan beste emozio batzuekin nahastuta baitabil. Apalkeriarekin sarritan, apaltasunez jantzita. Edonola ere Peter Zuazoren mezuarekin penatuta zegoen Odile Mores. Tankera ona hartu zion ezagutu zuenean. Bere poesiari baino askoz hobea. Gehiena ez zuen ulertzen eta ulertzen zuena ulertzen ez zuena baino gutxiago gustatu zitzaion. Gogoan zuen berarekin egon zenean nola ireki zuen *Uzkitik isuritakoak*, aurrean zuenari aditzera eman nahian edozein orrialde egokituta ere merezi zuen poemaren bat agertuko zela. Zoriak begien aurrean jarri ziona, *Perineismoa*, ez zuen atsegin. Hala ere debozioz irakurri zuen, Peter Zuazo jardunaldietara eramatea baitzuen helburu. Egia esan behar bada, bat bera ere ez zuen atsegin. Ez da indiferente uzten zutela poema haiek, ez. Gehienek nazka ematen zioten. Edo antzeko zerbait. Zikin izateko ahalegin hura, genitalen presentzia temati hura. Gaztetan ibilia zen poeta batekin edo, zehatzago, poemak idazten zituen ikaskide batekin. Are okerrago, berari ere idazten zizkion. Mutil zoragarria. Poesian egiten zituen sartu-irtenak ez ziren oztopo izan Odile Mores seko maitemintzeko. Honekin argi utzi nahi dudana da aspaldikoa zuela pertsona baten txikizio literarioak eta izaera bereizteko dohaina. Ez zuela

inori buruz epai orokorrik egiten jokabide zehatz batean oinarrituta.

Peter Zuazoren lanei dagokienez, beste bat zen ipuin liburuaz zuen iritzia. Egilearekin adiskidetzeko eta poema haiek barkatzeko heinekoa bederen. Sei ipuin ziren. Azkenak ematen zion izenburua liburuari. Ipuinen ordenari erreparatuta, egileak edo editoreak in crescendo bat gauzatu nahi izan zuela zirudien. Odile Moresentzat *Postariaren mendekua* balekoa izanagatik ere, bazen hoberik orri haietan, bai behintzat bat: *Irakurle mozkortia*. Gizon bat (ez da zehazten adina, ez itxura, ez ofizioa, ez lekua; ez da ezer zehazten) mozkortuta heltzen da etxera. Alkoholaz gain, litekeena da beste zerbait ere hartu izana. Ez da zehazten. Kontua da ez dela logura eta *Haur besoetakoa* irakurtzen hasten da. Hasi eta amaitu. Irakurketa ezberdina izan da. Emozioak eta pentsamenduak, ezberdinak. Jakina, burua beste parametro batzuetan dabilkio, ezohikoetan. Emozio eta pentsamendu horiek aletzen saiatzen da. Ezin esan lortzen duenik, ez modu argi batean behintzat. Aldaerak egiten dizkio narrazioari. Aldatzen ditu pertsonaien izenak, adinak, sexua. Hurrengo egunetan sarri pentsatzen du irakurraldi mozkortiaz. Liburu bat hordi irakurri duen lehen aldia

da. Berriro irakurtzen du, ezer edan gabe. Beste liburu bat irakurtzea bezalakoa da. Lehenengoz duela urte asko irakurri zuen eta ezin du irakurketa hura oraingoarekin alderatu. Ahaztuta dauka orduan sentitutakoa. Ez guztiz orduan pentsatutakoa edo, oroimenaren logikan, orduan pentsatutakoaz ondorengo urteetan pentsatutakoa. Gainera, bai nobela eta bai egilea maiz agertu dira urteotan, eurei buruzko gogoeta ugari eta kontrajarriak egin izan dira. Esperientzia errepikatzea deliberatzen du, beste liburu batekin, noski. Etxean bertan mozkortuko da eta aurrez pentsatutako liburu bat irakurriko du. Edo agian ez, agian hobe litzateke liburua ere behin mozkortuta aukeratzea. Aukeratu beharreko liburua, irakurri zuenetik berriro irakurri arte, *agertu* ez zaion egile batena izatea komeni zaiola uste du, egile horri buruz iritzirik ez edukitzea, ez bederen iritzi sendorik. Atera ditu batzuk apaletatik, lau hain justu. Gaizki. Hobe bakarra uztea irakurtzeko erabiltzen duen besaulkiaren ondoko mahaitxoan. Bestela, aukeratu ezinean igaro lezake mozkorraldia. *Confabulario* utzi du mahaitxoan, Juan Jose Arreola mexikarrarena, 1952an argitaratua. Berak 1963ko edizio bat dauka. Egileak kontakizunen ordena aldatzen omen zuen argitalpen bakoitzean,

baita berriak gehitu ere. Rona edaten hasi da. Bigarren basokada amaituta liburua hartu du eta edalontzia bete. Narrazio bakarra irakurri du, *El guardagujas*, hainbat bider irakurri ere. Bidaiari bat arnasestuka heltzen da edonondik urrun dagoen herri bateko tren geltokira.

– Barka ezazu, irten al da trena?

– Zuk denbora gutxi daramazu herrialde honetan?

– Berehala abiatu behar dut. Bihar T-n egon behar dut.

– Bistan da ez dakizula ezer. Oraintxe bertan egin behar duzuna da ostatu hartzen ahalegindu bidaiarientzako fondan –eta kartzela itxurako eraikin hauskara bat seinalatu zion.

– Baina nik ez dut ostatu hartu nahi, trenez abiatu baizik.

– Aloka ezazu gela bat berehala, baldin badago. Lortzen baduzu har ezazu hilabeterako. Merkeago ateratzeaz gain, arreta hobea jasoko duzu.

Honela hasten da bidaiariaren eta orratz-zain erretiratuaren arteko elkarrizketa. Hortik aurrerakoa, ezin da laburtu. Kontrakoa: saiatuz gero, beti luzeago ateratzen da. Nasaitzeko berezko joera duen narrazio horietako bat da, uzkurtzen ez dena, ezin dena.

Besaulkian hartu du loak. Ametsetan ere liburua irakurri nahian ibili da, baina ezinean, beste hizkuntza batean baitzegoen, zein izan zitekeen antzik ere hartzen ez zion mintzaira arrotzean. Hurrengo egunetako batean berriro irakurtzen du, alkoholaren laguntzarik gabe. Horrela jarraitzen du, liburu ezberdinak, genero ezberdinak, edari ezberdinak. Gehiago jakin nahi duenak, *Irakurle mozkortia* irakurtzea dauka.

Aurreko lerro horiek idatzi eta egun gutxira irratian entzundakoa datorkit burura. Anberesko liburutegi batean gehien eskatutako hamar liburuak aztertu ondoren denek kokaina arrastoak dituztela adierazi dute. Albistean izenburu bat baino ez dute aipatu: *Greyren 50 itzal*, zeinak, kokainaz gain, herpes arrastoak omen zituen. Lotsagarria iruditzen zait beste bederatziak zeintzuk diren ez esatea, ez baitut uste Greyrena soilik aipatzearen arrazoia herpesarengatik izatea. Omisioa barkaezina da edonondik begiratuta. Edozein modutan, ikerketa ildo berriak aurreikus daitezke, alegia, eta hemen egiten dute bat Anberesko kontuak eta irakurle mozkortiarenak, zein berezitasun izan lezakeen drogaren batek lagunduta irakurtzeak. Zein den aldea, baldin balego, pertsona berak *ezer* hartu gabe edo *hartuta* irakurtzearen artean. Eta ez

da zaila, hortik abiatuta, beste ikerketa azpi-lerro batzuk jorratzea. Peter Zuazoren narrazio hura aitzindaria izan zen. Literaturari zein medikuntzari egin zion ekarpenagatik: narkoirakurlea.

– Idatzi egingo diot –esan zuen Odile Moresek.

– Horri? –eszeptikoa izan nahi zuen doinuz Kattalinek–. Ez dakit zer ikusi diozun. Pena ematen dizu? Ala beste zer edo zer da? Nik berak eskatutako informazioa dugunean idatziko nioke. Lekua eta ordua esateko baino ez.

– Ez dakit, ba.

– Zeuk ikusi.

Ez zen errukia Odile Moresek sentitzen zuena Peter Zuazorekiko. Misantropo batekin topo egin izanaren pertzepzioa zeukan. Jasotako mezuak distantzia jartzeko ahalegin nabaria erakusten zuen, baita jendetasun eskasa. Horrek guztiak, izan zuten enkontru hartan erakutsitako manerekin ez zetorrenez bat, jakinmina piztu edo areagotu zuen Odile Moresengan. Distantzia jartzeko ahaleginak ken ziezaiokeen Zuazoren misterio aireari erakarpena. Edo alderantziz. Eta horixe gertatu zen. Eremu ezagunez gogait eginda ibiliko zen Odile Mores. Lurralde ezezagunaren premiatik, lurralde horien bila hasteko zorian egongo zen,

menturaz. Idatzi egingo zion, jakin gabe horrek harremana hobetu edo kaltetuko zuen eta, aldi berean, Kattalinek gaitzetsi egingo zuela jakinik.

Kaixo, Peter.

Jardunaldietarako zerbait prestatzen dihardu-zula jakiteak poztu egin nau. Elkarteak zure eskaera eta baldintza onartuko dituela uste dut. Ni, behintzat, ados nago. Bestalde, gustatuko litzaidake, aurrekoan esan nizun bezala, zurekin geratzea. Ez dizut zure hitzaldiaz galdetuko, ezta zure agerraldia hitzaldia edo beste zerbait izango den ere ez. Baina jardunaldiez hitz egin nahi nuke zurekin. Gonbitaren osteko mezuan azaldu nizun legez, afalosteetan Purgatorioan izaten naiz kafe bat hartzen. Baina gera gaitezke zeuk nahiago duzun tokian.

Laster arte,

Odile Mores

Ez zion Kattalini esango. Are gehiago, berandu baino lehen Kattalinek galdetu egingo zion eta berak ukatu. Azken aldian beste hainbat kontutan bezala. Guztiak arinak, munta txikikoak. Halakoak baziren,

ordea, zertarako ezkutatu? Ezkutatzeak ematen zien tamaina. Izan zen sasoi bat zeinean ez zen halakorik gertatzen, ez zen ezkutatzeko ezer. Ezer ez zen ezkutatzeko. Txarto sentitzen zen Odile Mores gogoeta hauetan murgilduta. Oso txarto. Bazekien horrela hastean galbidera doala harremana. Bazekien berandu baino lehen helduko zela garai bat zeinean eramangarriago egingo zitzaion harremanik eza gisa hartako gezurrez egindako zorua zapaltzea baino. Idatzi al diozu anakoreta harroputz horri? Beno, beharbada ez zuen anakoreta edo harroputz ebakiko, gogaikarri edo handiuste esango zuen, ausaz. Ez, erantzungo zion, bat nator zurekin. Biharamunean izan zen elkarrizketa eta ez zen asko aldendu Odile Moresen aurreikuspenetik. Idatzi, bezpera gauean egin zion. Aspaldi utzia zuten batera oheratzeko ohitura. Joango gara ohera erabiltzetik ni ohera noa erabiltzerako tartea aise gaindituta zuten. Aurrekoak ez bezala, ez zuen elkartea osatzean sortu zuten posta kontutik bidali mezua, beretik baizik. Kattalinen eta gainontzeko elkartekideen begiradatik babesteaz gain, keinu bat zen hartzailearentzat.

Eta hala ulertu zuen Peter Zuazok goizean mezua irakurri zuenean, Kattalinek Odile Moresi galdetu eta

honek ukatu zuen une bertsuan. Berriro ezetz esatea, *jakinaraziko didazu non eta noiz hitz egin behar dudan*, gehiegizkoa litzateke. Baita bera bezalako misantropo batentzat ere. Ez zion bere buruari arazoa ezkutatu: gustuko zuen emakumea eta horrek bere baitan sor zitzakeen sentimenduen beldur zen, minari beldur. Erakarpen horri aurre egiteko eta, ahal izanez gero, ezabatzeko, Odile Moresen alderdi erdeinagarriak bilatzeari ekingo ziola deliberatu zuen, beti baitago arbuioa eragiten duen zerbait. Keinuren bat, harmonia apurtzen duen hitzen bat, usainen bat, ñabardura desatseginen bat gorputzean (azalaren tolestura nardagarri bat, enor bat belarrian, ile gehiegi edo gutxiegi, lekuaren arabera). Beti dago zerbait. Baina horretaz jabetzeko denbora behar izaten da, maitasuna, edonolakoa dela ere, tartean badabil. Denbora tarte hori ahal denik eta gehien laburtzeko zentzumen guztiak jarri behar dira, denak emanda, xehetasun nardagarri horren bila.

Hala ere ez zen beldur hori soilik. Nagia ematen zion edozein harremanek eta Odile Moresekikoa, ñabardurak ñabardura, ez zen salbuespena. Eroso bizi zen Peter Zuazo bere isolamenduan. Zerbait ikasi bazuen bere bizitzan horixe zen, jendearen premiarik ez

izaten. Hori pentsatu nahi zuen gizonak. Istripuaren ostean, behin lankideengandik urrunduz, ez zeukan inor inguruan, bazterrean zegoen. Bazterrean ezagutu zuen Esther eta ez zen asko aldendu bazterretik Estherrekiko harremanak iraun zuen bitartean. Neskalagun haren bitartez ezagututako jende apurrarekin ez zuen harremanik sendotu.

Azken urteetan izandako elkarrizketa luzeak urri dira eta, aspaldi iraungitako Libertitzeneko afari haietatik at, guztiak, bi, Desegokituen Elkartearen gonbita jaso ostekoak: Markitosenean Lizaso eta bere lagunekin bat eta Odile Moresekin Purgatorioan izandakoa bestea. Premiazko solasak baino ez zituen azkeneko bi hamarkadetan. Okindegian, arrandegian, dendetan alegia, medikuarenean. Ezer gutxi gehiago. Bitxia bazen ere, jardunaldi haietan hitzaldi bat emateak nagi txikiagoa eragiten zion Odile Moresekin egoteak baino. Bitxia ezen, gogoa, nolabait esateagatik, handiagoa zuen Odile Moresengana joateko jardunaldietara baino. Gogoa barik, grina esan beharko genuke. Gogo aldabera haren azpian Odile Moresenganako grina zegoen, batere aldabera ez zena, sendo sustraitutako grina.

Uztailaren hondar egunak ziren. Bero handia Mahatserriraino joateko. Erdiguneko kafetegi batean jarri zion hitzordua Peter Zuazok. Bere eskaria eta baldintza ontzat jotzea ere eskertu zion mezuan. Odile Moresena jaso eta aste betera erantzun zion. Ez zezala inork pentsa ezertarako presaka zebilela. Egun batzuk lehenago Indautxun eta Abandon ibili zen, biziki gorroto zuen parajean eta gorrotagarriena iruditu zitzaion kafetegia aukeratu zuen hitzordua jartzeko. Azken batean Odile Mores, ekonomialaria izaki, inguruetako bulego garrantzitsuren batean ibil zitekeen lanean eta, beharbada, egunez kafetegi hartako traje eta soineko garesti artean bere benetako ekosisteman ikus zezakeen. Leku hartako manera burges haietan aurki ziezaiokeen xehetasun nardagarri bat baino gehiago, akaso. Hiruretan elkartzea proposatu zion, lanetik aisiatik baino hurbilago dagoen ordu bat.

Kafetegian sartu zenean, barrualdeko mahai batean ikusi zuen Odile Mores, zeina aulkitik altxatu egin baitzen Peter Zuazo ikustean. Eskua jasota keinuka ari zitzaion, hemen nagoka. Irribarre oparoa. Masailetan musu bana emanez hartu zuen emakumeak. Mahai gainean zeukan makila polikromatua leku diskretuago baten paratu zuen jesartzen ziren bitartean.

– Pozten nau zu berriro ikusteak, Peter.

– Kaixo, lehendakari.

– Zer moduz?

– Hainbestean.

Denborarik galdu gabe ekin zion Peter Zuazok aurrean zeukan emakumea esploratzeari atzera eragingo zion zerbaiten bila. Kafe hutsa erantzun zion doidoi entzun zuen galderari. Odile Mores mostradorera joan zen kafeak eskatzera, makila polikromatua ahaztu gabe. Joan-etorria burutu orduko ohartu zen Peter Zuazo bilatzen ari zena ez zuela Odile Moresen ibileran aurkituko.

– Beno, agindu bezala, jardunaldiena zertan den kontatuko dizut.

– Eskertuko nizuke.

– Abenduan egingo dira, Muelle 4n. Ezagutzen al duzu tokia?

– Ez, ez dut ezagutzen. Abenduan orduan?

– Bai. Santo Tomas bezpera aurrean bukatuko dira. Hiru egun izango dira.

Peter Zuazo isilik geratu zen, zain, jardunaldien nondik norakoak entzuteko prest. Ez zitzaion burutik pasa Odile Mores lekuari buruz hitz egiten hasiko zitzaionik, esan nahi baita, mamia, ustez mamia bede-

ren, aletzen hasi baino lehen. Orain parte-hartzaileez eta gaiez mintzatuko zait, pentsatuko zuen Peter Zuazok. Hori pentsatuenik ere ez zegoen, jakintzat eman baitzitekeen. Bada, ez. Muelle 4 lekuaz hasi zitzaion jardunaldien nondik norakoa azaltzen. Goiko solairuan egingo omen ziren jardunaldiak. Egongela handi bat zirudiela, L formakoa, mostradore txiki bat zegoela eta antzinako jesarleku, sofa eta chaise longueren bat, ispilu handi ajatuak, argi-armiarma eder bi. Balkoiak itsasadarrera eta, aurrez aurre, Erriberako merkatua. Odile Moresek deskribapenean jartzen zuen gogoa alderantziz proportzionala zen Peter Zuazok entzutean sentitzen zuenarekiko. Jardunaldien kontakizuna hortik hasteagatik bezainbat, entzundakotik egin zuen irudikapenagatik. Halako batean sartu zen mamian.

– Zure hitzaldia, hitzaldia bada behintzat, zure parte hartzea azkena izango da, abenduaren 19an, iluntzeko zazpietan. Bakarrik izango zara mahaian. Beraz, badakizu non eta noiz. Nahi baduzu gehiago kontatuko dizut.

– Izan ere gehiago kontatuz hasi zara. Beraz –eta irribarrea itzuli zion Peter Zuazok–, jarrai dezakezu.

– Jardunaldiak astelehenean hasiko dira, abenduak 17, Sophie Clementen eta Pancho Rodriguezen hitzaldi banarekin. Sophie Clement *Les Inrockuptibles* aldizkariko kazetaria da. Bestearen berri nik baino gehiago jakingo duzu ziurrenik. Jarraian Albert Plaren kantaldia izango da. Biharamunean, Vladimir Axularrek eta Aretxabaletak hitz egingo dute eta, ostean, oraindik zehaztu gabeko musika emanaldi bat izango da. Azkeneko egunean, zu zeu; eta gauean jai bat izango da. Pedro Lemebel ere gonbidatu dugu, baina oraindik ez du baietza eman. Ezetzik ere ez.

Doinu monokordean eman zion programaren berri, errezitatzen bailebilen, gaizki errezitatzen. Peter Zuazok nahikoa zekiela erabaki zuen, nahiz eta Vladimir Axularren arrasto txikienik ere ez izan. Gustura entzun zuen Pedro Lemebelen izena. Ez zuen uste jardunaldietan izango zenik, baina, gutxienez, hasiera-hasieratik ezetz borobila eman ez izana, zerbait zen jardunaldi horien alde. Besoa emango zukeen Pancho Rodriguezek nola eman zuen baietza jakiteagatik, baina eutsi zion, ez zuen ezer galdetuko. Peter Zuazok nahastu egiten zuen jardunaldiekiko indiferentzia Odile Moresekikoarekin. Haiekiko jakinmin eza aurrean zeukan emakumearekiko indiferentziatzat har

zitekeelakoan. Esan gabe doa oker zebilela. Gainera oso litekeena da ordurako Odile Mores bere solaskidearen ahaleginek indiferente agertzeko benetan ezkutatzen zutenaz jabetuta egotea. Horregatik edo dena delakoagatik, Odile Moresek Zuazorekiko zuen jakinmina beste zerbaitetan ari zen bilakatzen. Jakinmin hutsari beste osagairen bat hasi zitzaion batzen. Jakinmina, nolabait esateko, eremu intelektualetik beste batera ari zen hedatzen. Pertsonaren jakinmina ez dutenean ikusmenak eta entzumenak asetzen gertatzen da hori. Objektua jaki bat, makina bat, pertsona bat, edozer izanda ere. Hurbilagotik ezagutzeko premia.

– Topaketak topaketa, Peter, gauza bat aitortu behar dizut: jakinmina sortzen duzun pertsona iruditzen zatzaizkit.

– A bai? –desarmatu samar Zuazo, ez baitzuen halakorik espero.

– Bai –doinu eztiz Odile Moresek.

Eskua gizonarenaren gainean jartzeko bulkada izan zuen, baina, Topaketan parte hartzera konbentzitu zueneko unea gogoan, ez zuen egin. Ahotsak egin beharko zuen ukimenaren lana, ahotsak eta begiradak.

– Ez nuen uste.

– Ba oker zeunden. Nolakoa da anakoretaren bizitza?

– Aspergarria.

– Hori uste nuen. Eta idazlearena?

– Hori ez dakit. Tarte labur batez baino ez nintzen izan idazle, aspaldi.

– Bada, tarte horri esker ezagutu dugu elkar.

– A bai?

– Bai. Zure liburuak jarri ziren Desegokituen Elkarteko bilera batean. Eta batak bestea dakarrenez, ba hemen gaude.

Bere irribarrerik ederrena jarri zuen azken esaldia ebakitzeko. Zuazo ordurako erabat desarmatuta zuen Odile Moresek. Aspaldi ahaztuta zeukan emakume harengan ñabardura nardagarriren bat bilatzeko lana. Aspaldi ahaztuta gorroto zuen giro bateko kafetegia batean zeudela. Are ahaztuago Purgatorioan lehenengoz Odile Moresekin egon zenean bere buruari jarri zizkion autokontrol ariketak. Peter Zuazo, hasierako lakonismoa gora behera, gustura zegoen, lasai, inolako oholesirik eraiki gabe bere inguruan. Natural begiratzen zion begietara, ezpainetara, bularraldera, eskuetara. Jakinmina sortzen duen pertsona dela aitortu

zionean, Zuazoren egoak hamarkadetan usaindu ere egin gabeko gailurra zapaldu zuen.

– Aizu, Peter, esan behar dizut zure liburuak Aretxabaletak ekarri zituenean ezagutu nituela. Eta niri gehien gustatu zitzaidan ipuina *Irakurle mozkortia* izan zela.

Irribarre abegikor batez entzun zion Zuazok. *Postariaren mendekua*-z, ipuinaren autobiografikotasunaz alegia, galdetuko ziola uste zuenean, hara non, *Irakurle mozkortia* aipatzen zion.

– Gaur egun urruti sentitzen naiz liburu haietatik. Ez dakit nola azaldu...

– Gaur ez zenukeela halakorik idatziko?

– Hori ere bai, baina ez hori bakarrik. Ez dut atsegin ipuin horiek gogoratzea. Norbaiti soldaduskaz edo seme-alabez hitz egiten entzutean sentitzen dudana sentitzen dut. Zerbait desatsegina.

Odile Moresek ez zion galdetu ea *Postariaren mendekua* benetan zen autobiografikoa, bere osotasunean alegia. Zuazok pentsatu zuen ordurako Odile Moresek jakinaren gainean egon behar zuela. Bere sasoian, lehenengo *Ttu-Ttuá*-rekin eta gero liburuarekin batera zabaldu zen zurrumurrua, ipuina mendekua zela, pertsonaiak pertsonak zirela, bakoitza bere ize-

narekin, hori guztia ezagutu behar zuela. Ez zekiena zen *Postariaren mendekua* bezain autobiografikoa zela *Irakurle mozkortia*.

– Eta nolatan jarri didazu hitzordua kafetegi honetan? Inguru hauetan ibiltzen al zara? –aldatu zuen gaia Odile Moresek.

– Esango banizu ez zenidake sinetsiko.

– Egizu proba.

Hitzak aldakak bezain limurtzaile kulunkatzen zituela pentsatu zuen Zuazok. Zintzotasun oldarraldi baten menpe zegoen. Ezin ulertu bestela Odile Moresek eskatzen ziona egiteko zuen aldartea: zergatik jarri zion hitzordua kafetegi hartan kontatzeko gogoa. Nolabait leundua bazen ere.

– Beste giro batean ikusi nahi zintudan.

– Zurean?

– Nik uste nuen beharbada hemendik ere ibiliko zinela.

– Ba, ez. Baina zergatik beste giro batean?

– Beste modu batera ikusi nahi zintudalako.

– Ea eszena aldatuta ezberdin ikusten ninduzun.

– Horrelako zerbait.

– Zergatik ikusi nahi ninduzun beste modu batera?

– Zehatzago esateko, ea beste modu batera ikus zintzakedan ikusi nahi nuen.

– Eta lortu duzu?

– Ez.

– Galderak erantzun dizkidazu, Peter, baina ez didazu ezer argitu.

– Ez zen nire asmoa. Nik, ordea, alderantzizkoa esango nuke: galderak ez dizkizut erantzun, baina ezer baino gehiago argitu dizut.

– Berriro hasi beharko dugu, Peter.

– Has gaitezen, bada. Baina hobe beste leku batean –proposatu zion Zuazok abiada hartuta–. Zarata gutxiago dagoen leku batera joan gaitezke.

Zuazok ez zekien ezer Odile Moresen bizitzaz. Une hartan, esate baterako, ez zekien bakarrik bizi zen edo beste norbaitekin, bikotekiderik zuen ala ez. Une hartan garrantzia zuten gauza horiek. Odile Moresek, ordea, bazuen Zuazoren bizitzaren berri. Bakarrik bizi zela, anakoreten moldean-edo, ia ziur ez zuela bikotekiderik. Une hartan garrantzia zuten gauza horiek. Eta Peter Zuazori hartutako abiadurak ez zion eragozten han zurera edo nirera delako kontu horrek ez zuela zentzu handirik. Berari zegokion gonbidatzea. Odile Moresen irribarreak atea zabalik, edo erdi zabalik, ze-

goela adierazten zion. Zatoz nirekin etxera, Peter, entzuteagatik besoa emango zuen Zuazok. Nire etxera joan gaitezke esatera zihoan, Odile Mores hitz egiten hasi zitzaionean.

– Joango nintzateke –irribarreari eutsiz, baina etsipen printza bat gehituz, ahoskatu zituen bi hitzok eta isilunetxo bat tartekatuz, jarraitu zuen–, baina orain ezinezkoa zait.

Odile Mores isildu egin zen. Lehen unean begirada jaitsi zuen eta Zuazoren eskuetara begira geratu zen. *Orain* hitza anbiguo samar begitandu zitzaion Zuazori. Berdin egin ziezaiokeen erreferentzia momentuari, egunari edo epe labur edo ertain bati. Beste besoa emango zukeen hitz horren esanahi zehatza jakiteko, baina ez zuen aditzera eman nahi zenbaterainoko gogoa zuen Odile Moresekin zarata gutxiago dagoen leku batera joateko.

Elkarrekin irten ziren kafetegitik, Peter Zuazo aurrean zela, ez baitzuen Odile Moresen aldaka kulunkatzea ikusi nahi. Peter Zuazo auzora eramango zuen autobusa geratzen zen markesinan agurtu zuten elkar. Bi musu masailetan, emakumearen ekimenez. Odile Mores urruntzen ikusi zuen Peter Zuazok. Haren

aldaken kulunka nahikoa dastatu eta gero zuzendu zuen begirada beste aldera.

# Ekintza artistiko-politikoa

Udako oporraldiaren ostean izan zuen Desegokituen Elkarteak bere bizitzako aro aktiboena. Ia astero, aste batzuetan behin baino gehiagotan, biltzen ziren jardunaldien prestaketarako. Bileretan huts egiten zuen kideren batek edo gehiagok. Aretxabaleta eta Odile Mores izan ziren sekula ez huts egin zutenak, biek hartu baitzuten antolaketa lanaren zama handiena. Hala ere, bileraren batera edo bestera huts egin arren, Joseba izan zen kale agitazioa gauzatu zuena, inork ezagutzen ez zituen laguntzaile batzuekin. Lagun horiek bileraren batera gonbidatzea iradoki zion Odile Moresek. Ezetz erantzun zuen Josebak.

– Segurtasunagatik? –galdetu zion txantxetan Romanek.

– Zuek ikusiz gero Desegokituen Elkartea laguntzaile barik geratuko litzatekeelako –erantzun zuen Josebak serioski.

– Topaketetan bertan izango dugu aukera ezagutzeko –Aretxabaletak.

– Ez dut uste bakar bat ere etorriko denik.

Ez zen beste inoren saiakerarik izan elkartearen laguntzaile ikusezin haiek gonbidatzeko.

Romanena zen egoera lausoena kidetasunarekiko. Esan nahi baita, elkartearen bizitzan parte hartu arren, inork ez zekiela, ezta berak ere, kide zen edo norainoko zen kide edo entzule egoten zen bileretan, ikusle agian. Romanen elkartearekiko anbiguotasuna nabarmentzeko aukera txikiena probesten zuen Josebak, beti balaz. Bere burua errespetatzen duen desegokituen elkarte batek eduki behar luke elkartearekiko desegokia den kideren bat, erantzun ohi zion Romanek. Udazkenerako onartua zuen emazteak alde egin ziola ondotik, ihesean alde egin ere, beharbada emakume batekin batzeko. Mesedeetako zubian Odile Mores, Kattalin eta Aretxabaletarekin bat egin zuenean baino dexente onartuago.

Jardunaldien hasiera baino hilabete lehenago jarri zituzten afixak hiriko kale eta taberna batzuetan. Josebak eta kausarako irabazi omen zituen lagunek gauzatu zuten elkartearen jendaurreko lehenengo agerraldi hura. Abendu hasieran, Durangoko Azoka amaitu biharamunean, prentsaurreko bat eman zuten jardunaldiak aurkezteko. Roman ez gainontzeko laurak izan ziren Muelle 4n. Hedabideak ez ziren sobera animatu.

Aretxabaletak nahikotzat eman zuen iragarpenek izandako oihartzuna, Kattalinek eta Odile Moresek urritzat, eta Josebak ahoz ahokoaren garrantzia azpimarratu zuen eta hori sustatzeko kale agitazioaren eraginkortasunaz aritu zen. Romanen balorazioen berririk ez daukagu, nahiz eta pentsa daitekeen hutsaren hurrengoa iritzi ziola, benetako, beretzat benetako, ziren hedabideetan inolako oihartzunik ez baitzuten izan.

Peter Zuazok *Berria*-n irakurri zuen. Kultur orrialdeetako ertz batean zetorren albistea: DESegoki TO-Paketa egingo dute Bilbon, zioen izenburuak. Zortzi lerrotan ematen zuen programaren berri. Bere izena han ikusteak sentsazio arraro bat ekarri zion, osagai nagusia bertigoa zuena. Ordurako idatzita zeukan hitzaldia. Aurrerapena askoz lehenago bidalita elkartearri. Egia da hainbat aldiz eman zuela amaitutzat, baina laster aurkitzen zuen zer gehitu edo zer kendu. Jardunaldietan bere hitzaldira baino ez joatea ere erabakita zuen. Hitzaldia idaztea burutu baino askoz lehenago hartutako deliberoa izanagatik, hau ere behin eta berriro berrikusten zuen. Peter Zuazo ez zen literalki joango, horrela esaten zion bere buruari: literalki. Hala ere, postariak kalera atera bazituen Jimmy eta Joanes,

berak ere atera zezakeen beste *norbait*. Abuztuko egun bero batean bururatu zitzaion aukera hori, etxeko zoko ilunena ere mendean hartutako beroak berak burmuina bigunduta ausaz. Kontua da udako beroa moteldu ahala aukera horri bueltak ematen jarraitu eta halaxe harrapatu zuela aurreneko hotzak, urriko egun batean: ispiluaren aurrean itxura nola aldatu aztertzen. Postariak gazteagoa, Jimmy, eta zaharragoa, Joanes, asmatu zituen. Adin itxura aldatzea arrakastaren hiru laurdena da. Gaitz ikusten zuen, ostera, Peter Zuazok. Bere makilak, ibilerak, eragotzi egiten zion egungo itxuratik urrutiratzeko beste gaztetzea. Errazago zuen zahartzea. Honek beste arazo bat ekar ziezaiokeen, alegia, baleko urrutiratze mailara iritsiz gero, zaharregi geratzea eta, horrenbestez, jardunaldietan nabarmentzea. Salbuespenak salbuespen, ez nabarmentzea oso lagungarria da anonimotasun operatiboen arrakastarako. Bizarra eta ilea mozteari utzi zion. Miopiarako betaurrekoen ordez ukipen-lenteak erosi eta erabiltzen ohitu-edo egin zenean, zailena eginda zegoela pentsatu zuen. Erositako arropa berriak, bere estilotik at, indartu egin zuen ustea. Ez zen hala, ordea. Makila, ibilera, hori zen benetako handi-

capa. Aurkitu zion, baina, soluzioa. Soluzio posiblea, izan ere kalean kontrastatu beharko zuen bere balioa.

Azaroaren erdi alderako prest zegoen landa-lanerako. Zalantza guztiak uxatu ez bazizkion ere, nahiko gustura ikusi zuen ispiluan zegoena. Ile erdi urdindua, gehiegikeriarik gabe baina luze samar, atzerantz etzana gominaren laguntzarekin. Hau ere gehiegikeriarik gabe. Bizarra txukun, traje gris argia, alkandora beltza gorbatarik gabe eta gainean kotoizko beroki beltza forru granatearekin. Eskubiko eskuan makulu ortopedikoa eta ezkerreko besoa lepotik zintzilik zeraman euskarri batean bermatuta. Horrela istripua izanaren itxura egin zezakeen, handicap nagusia gainditzeko.

Mundutik aparte bizi den gizona izaki, Peter Zuazok ez zuen jende asko ezagutzen eta ezagutzen zituen horiekin denbora tarte oso laburrak egiten zituen. Egunkaria erostera joan zen lehenbizi, egunerokо kioskora. Ahotsari zortzidun bat jaitsi zion tonua. Egun on soil batekin agurtu zuen. Egunkari saltzaileak hirian ezezagun bati begiratzen zaion moduan begiratu zion: jaramonik egin gabe. Hala hartu zion bost euroko billetea eta atzerakoak itzuli. Hogei metro eskasera zeukan harategira sartu zen, haragi erosketak

egiten zituenera, kale baten bila zebilela aitzakiatzat hartuta.

– Egun on. Badakizu non den Emma Bovary kalea?

– Bada, ez –erantzun zion, pentsatzeko tartetxo bat hartu ostean, harakinak.

– Hemen inguruan egon behar luke, esan didatenez.

– Sentitzen dut, baina kale horren arrastorik ere ez daukat.

Lehenengo eguneko froga gainditutzat aitortu zion Peter Zuazok bere pertsonaiari. Biharamunean eskailerako bizilagunekin kontrastatzea erabaki zuen. Sei solairuko etxea zaharra zen, hamabi etxebizitza guztira, goiko biak ganbara izandakoak. Beharbada merezi du aipatzea 1936ko uztailean amaitu zutela eraikitzea, gerra hasi baino egun batzuk lehenago. Peter Zuazo hirugarrenean bizi zen. Aurrez aurre Sofia Astarloa zuen bizilagun. Laurogei urte izanagatik, Zuazok baino askoz airosago igotzen zituen eskailerak, baita erosketak egitetik bueltan eskuan poltsa zeramala. Urteetan elkarren ondoan bizi arren ez zuten kortesiazko hitzetatik haragoko elkarrizketarik izan, eskailerak jaisterakoan edo buzoiak irekitzen elkartzerakoan. Esan gabe doa lehenengo hitza eta azkena

emakumeak jartzen zituela. Erosketen poltsa lurrean utzi eta ataria zabaltzen harrapatu zuen Juanpe Solagaistuak Sofia Astarloa.

– Barkatu, hemen bizi al da Zuazo jauna?

– Nork galdetzen du? –harritu zuen inpostorea emakumeak, baita poztu ere.

Goitik behera begiratu zion, noraino izan zitekeen fidatzekoa neurtuz. Edo, agian, zenbateraino zuen ezaguna.

– Barkatu, andrea. Zuazo jaunaren lagun bat naiz eta berarekin egon nahi nuke.

– Laguna? –benetan atera zitzaion galdera, oso-osoan; zeuk jakingo duzu edo zeuk badiozu... esango balu bezala–. Ez dakit aurkituko duzun, egunak dira ez dudala ikusten, asteak beharbada.

– Lagundu nahi nizuke poltsarekin, baina –makulua eta bermatuta zeraman besoa erakutsiz– ikusten duzu.

– Lasai, gazte. Egunero egiten dudan ariketa da hau. Igo zaitezke nirekin.

Hirugarrenera iritsi zirenean Peter Zuazoren atea seinalatu zion Sofia Astarloak. Berriro ere lehen egindako keinua ekarriz aurpegira, zeuk jakingo duzu-edo.

Gogoratu zion egunak zeramatzala ikusi gabe, asteak akaso.

– Baina ustel usainik ateratzen ez den bitartean, lasai –irribarre batekin Sofia Astarloak.

Burua jiratu eta bere atea ireki zuen emakumeak. Peter Zuazori ez zion sekula gisa hartako irribarrerik eskaini. Txirrina jo zuen. Inork ez zuen atea ireki. Arratsaldero irteten zen Sofia Astarloa lagunekin karta jokoan egitera eta une hori baliatzen zuen Zuazo mozorrotuak etxean sartzeko, Sofia Astarloa baitzen, behatxuloa medio, Peter Zuazoren etxean haren laguna zela zioenaren sartu-irtenak kontrola zitzakeen bakarra. Gainontzeko bizilagunak, bikote gazte bat izan ezik, denak bera baino zaharragoak, atarian edo eskaileran aurki zitzakeen, inolaz ere ez etxebizitzan sartzen edo bertatik irteten.

Jardunaldien albistea *Berria*-n agertu eta egun gutxira deitu zion Lizasok. Pozten zela berriro mundu-ratu zelako. Gizarteak zer esana zuen ahotsa berreskuratu zuelako. Han izango zela bera. Entzuteko gogo itzela zeukala. Behin koipea ematea amaituta, mamiari heldu zion. Ea nortzuk ziren Desegokituen Elkartekoak. Ea zer esan zioten. Galdera horrekin Lizasok jakin nahi zuena zen zergatik deitu zioten Peter Zua-

zori eta ez, esate baterako, berari. Ea zein zen jardunaldietako gaia, prentsaurrekoan aditzera eman zutena irakurrita ez zuela-eta ezer ulertu. Peter Zuazoren erantzunak anbiguo samarrak ziren arren, Lizasok ez zuen etsitzeko antzik. Ea idazten ari zen. Ea zerbait argitaratzekotan zen. Peter Zuazo ahalegindu zen, lehorra izan gabe, gutxi esaten. Nahita ere, zekiena jakinda, ezin zion askoz gehiago argitu. Gehien kostatu zitzaiona berarekin geratzeko gonbita saihestea izan zen.

– Han ikusiko dugu elkar, Lizaso, eta geratuko gara beste baterako. Orain ezin dut.

Ez dugu pentsatu behar Peter Zuazo nekerik gabe irteten zela mundura. Misantropoa zen, ez agorafobikoa, klaustrofiloa ere bai, ausaz. Ez zion beldurrik kalera irteteari, jende artean ibiltzeari. Jendearekin egon behar izatea zen arazoa, batzuek interakzioa deitzen duten hori. Horretan hasteak nagia eragiten zion, nagi ikaragarria. Hasi orduko nola aldendu baino ez zuen buruan izaten. Kafkaren Peter Gorria bezala sentitzen zen sarritan. Honen hitzak bere egiten zituen: *batzuetan jendeak higuindu egiten nau, halako moldez, non nekez eusten diodan oka egiteko gogoari. Ez du gizabanako zehatzekin zerikusirik; jende guztiaren kontra-*

*ko zerbait da*. Peter Gorria, azken batean, bost urteren buruan tximino izatetik pertsona izatera igaro zen. Zuazoren zalantza zen ea bera ez ote zebilen alderantzizko bidea egiten. Jardunaldien karietara, Odile Moresekin lehenengoz geratu zen hartatik jardunaldien aurreko egunen bitartean, azkeneko hogeita bost urteetan baino hartu-eman gehiago izan zuen jendearekin. Tarte horretan frogatu zuen zenbait trebetasun sozial ez zituela galdu. Eta nagia eta nekea eragiten zizkiola beti jendeak. Salbuespena Odile Mores izan zen.

Apiriletik Odile Mores buruan masturbatzen zen. Hori ez zuen ezabatu harekiko defentsak armatzerakoan. Hiru urte zeramatzan larrutan egin gabe. Eskua dut emazte, eutsiko zait zintzo, esaten zion bere buruari. Ez zuen sobera sinesten. Idazmahaiko hirugarren tiraderatik agenda txiki bat atera zuen, telefonoak gordetzeko erabiltzen zen horietakoa. Hiru urtean ireki gabea. X hizkian hiru izen zeuden, hainbat urtetan sexu-zerbitzua saldu zioten emakumeenak. Batek daki non eta zertan dabiltzan hauek, pentsatu zuen. Ez zuen bakar baten irudia zehaztasunez gordetzen. Gainera, izenak ere nahastu egiten zituen. Nola zuen izena beltzaranak, Violeta ala Veronica? Berdin zion.

Hitzaldia eman bezperan emakume batekin oheratuko zen.

Violetaren zenbakia markatu zuen. Ez zela existitzen erantzun zion beste aldetik emakume ahots batek, zenbaki hori ez zegokiola inongo telefonori alegia. Beste hainbeste Marleneren telefonora deitutakoan. Veronicarena markatuta, ahots marrantatu batek igeltsero batekin ari zela jakinarazi zion.

– Barka, elektrikariari deitzen ari nintzela uste nuen –desenkusatu zen Peter Zuazo eskegi aurretik.

Elektrikari baten izena Veronica izateak zer pentsa emango zion igeltseroari ziurrenik.

Sophie Clement abenduaren 14an Hendaiara heltzekoa zen TGVn. Odile Moresek ez zeukan erabakita Kattalini adiskidearen bila lagunduko zion. Kattalinentzat, nahiz eta ez zuen halakorik erakutsi, kitzikagarria zen oso aspaldiko lagunarekin elkartzea. Horren jakitun zen Odile Mores eta horrexegatik ez zekien joan behar zuen ala ez.

– Beno, etorriko zara nirekin Hendaiara? –galdetu zion Kattalinek asteazkenean. Sophie Clement ostiralean zetorren Paristik.

– Zuk nahi baduzu...

– Bai.

Nahi dut, baina ez da ezer gertatzen ez bazatoz. Horrelako zerbait egon zitekeela Kattalinen baiezkoan pentsatu zuen Odile Moresek. Edozer eginda ere damutzeko arriskua nabaria zen. Ostiralean Hendaiako geltokian zeuden biak zortzietan iritsiko zen trenaren zain. Emakume paristar bati eska dakiokeen moldean jaitsi zen trenetik Sophie Clement. Besarkada bero batean bildu zen Kattalinekin. Ez dakigu zenbateraino luzatuko ziren txerak Odile Moresekiko aurkezpenak egin beharra izan ez balitz. Pisuan bazuten beste gela bat altzari soil batzuekin. Sasoiz kanpoko arropa gordetzen zuten armairua, metro eta hogeiko antzinako ohe bat eta gau-mahai bat. Han kokatu zen Sophie Clement. Etxean egin zituzten jan-edan bakanetatik kanpo, Odile Moresek bakarrik utzi zituen ahal izan zuen guztian. Esan nahi baita, aldez edo moldez saihestu egin zituela hirian zehar egin zituzten txangoak, larunbat arratsaldekoa izan ezik. Gehiegi zirudikeen behin ere ez irtetea etxean gonbidatu zutenarekin.

Kattalinek, batxilergoa amaitutakoan frantsesa ikastea xede, Bordele ondoko herri baten igaro zuen

uda. Bere aitak nolabaiteko harremana zuen hango familia batekin eta haienean eman zituen 1977ko uztaila eta abuztua. Hurrengo urtean, gaztelania ikasteko, Sophie Clement etorri zen Bilbora uda pasatzera. Horrela abiatu zen bi emakumeen arteko harremana. Lanean hasi aurretik oporralditxo batzuk batak bestearenean, ez lehenengo haiek bezain luzeak. Behin emantzipatuta, tarte handiagoz baina elkartu izan ziren hainbatetan. Eten luzeena azken urteotakoa izan zen. Batetik Sophie Clement Parisera joan zelako eta, bestetik, denboran bat etorri arren kausen artean jartzea neurriz kanpokoa izan badaiteke ere, Kattalin eta Odile Mores elkarrekin bizitzen jarri zirelako. Etenik izan ez zuena euren arteko korrespondentzia izan zen, nerabezaroko udazken hartan gorputz eta arima hasitakoa.

Emakume atsegina iruditu zitzaion Odile Moresi. Janzkeran antzeko gustua zutela ohartu zen beraiekin eman zituen egunetan. Maneretan fina. Ahotsa aurpegiak iradokitzen zuena baino grabeagoa. Begirada pittin bat estrabikoa. Soinekoak estu, kanonak eskatzen duena baino haragi oparoagoek edertasuna azpimarratzen ziotela. Hori guztia eta gehiago ikusten zuen Odile Moresek Sophie Clementengan. Baina bazen

emozionalki urruntzen zuen zerbait. Bazeukan, jakina, aski adimen sentipenaren jatorria kokatzeko. Kattalin eta bien artean paratu zela, haien arteko harremana zaharragoa zela, areago, hain atzera jo behar zen haien harremanaren jatorrira iristeko, ezen elkarrekin eginak zirela pentsa zitekeen. Hortaz, urrundu ez da hitz zuzena. Emozionalki urrundu baino gehiago, kontua zen hurbilegi jarri zitzaiola Sophie Clement. Eguzkia estaltzen zion. Hitz horiekin pentsatu zuen: eguzkia estaltzen dit. Berehala errieta egin zion bere buruari. Bazitekeen bien artean jartzean hotz sentitzea, baina gehiegizkoa zen eguzkiaren irudia. Bera ez zebilen inolako eguzkiren inguruan jiraka. Alderaketa astronomikoren bat egitekotan Kattalin eta Odile Mores bi izar ziren. Bakoitzaren argia, beroa eta grabitazio indarra aldakorrak. Urruntze-hurbiltze dinamika aldagarria. Ez zeuden momenturik onenean. Larunbaterako, Peter Zuazo Odile Moresekin nola, hala zebilen Odile Mores Sophie Clementekin: xehetasun nardagarriren baten bila. Keinuren bat, harmonia apurtzen duen hitzen bat, usainen bat. Peter Zuazok ez bezala, Odile Moresek alboratu egin zuen gorputzean ñabardura desatseginen bat bilatzea (azalaren tolestura nardagarri bat, enor bat belarrian, ile gehiegi edo gu-

txiegi, lekuaren arabera). Izan ere, estrategia bertsua erabili arren, ez zetozen bat helburuetan.

Abenduaren hamazazpigarrena egun hotza izan zen. Jendea, joan ziren gehienak, nahiko garaiz iritsi ziren Muelle 4ra. Une berean hasi zen meza San Nikolaseko elizan. Horren zain zeuden Joseba eta bere *troupe*-a. Aldez aurretik zehaztasun prusiarrez landutako estrategiari jarraituz, han-hemen sakabanatuta zeuden zazpietako kanpai hotsen zain. Zenbat ziren ez da sekula jakin. Mezetara deitzen zuten kanpai hotsak amaitu orduko barruan ziren operazioan parte hartu zutenetatik bost, pentsatzekoa da-eta izango zirela beste batzuk zaintza lanak egiten. Atzeko aldean jesarri ziren, batean eta bestean sakabanatuta orduan ere. Espero baino jende gehiago aurkitu zuten elizan. Beren informazio zerbitzuek aurreikusitakoa baino dezente gehiago. Zerbaitek ihes egin digu, pentsatu zuen Josebak aurreko asteetan egindako landa-lana birpasatzean. Informazio bilketan ihes egin ziena ez zen abenduaren hamazazpia, besteak beste, Lazaro Deunaren eguna zela. Hori bazekiten. Ez, ordea, Lazaro Deunaren Kofradia izeneko zerbait zegoela Bilbon.

Nekez jakin zezaketen halakorik. Normala den moduan, Lazaro Deunaren egunean meza izaten zuten kofradiakoek. Normala baita ere San Nikolasen egitea, saindu berpiztuaren irudia baitago bertan. Kontua da ehun kristautik gora izango zirela meza jarraitzen. Adinean oso aurrera egindakoak ziren ia denak eta, adinpiramideari dagokion bezala, bi herenak emakumeak. Kamarada Horiaren ondoan jesarrita zegoen Joseba. Joseba bera Kamarada Beltza zen. Koloreen izenak hartu zituzten ekintzarako. *Reservoir dogs* filmean bezala. Hori bai, jaun barik kamarada deitzen zioten elkarri: Kamarada Horia, Kamarada Beltza, Kamarada Arrosa, Kamarada Gorria eta Kamarada Fuksia.

Kamarada Horia, aktorea izaki, koreografiaz arduratu zen. Meza hasi eta bost minutura Joseba aldarerantz abiatu zen. Gainontzeko kamaradak, berokiak eta jakak erantzita, buzo urdinak soinean geratu ziren. Denek, Josebak barne, pantera beltzen garaikoak ziruditen betaurreko beltz handiak zeramatzaten. Kamarada Fuksia ondoan zeukan kirol-poltsa handia irekitzen hasi zen, Joseba, apaizak aldare nagusitik bere jarioa eten gabe baina zeharo harrituta begiratzen zion bitartean, aldare ondoko mikrofonora iritsi zenean. Utzi zuen eskuan zeraman irrati-kasete mardu-

la aldare gainean eta, patxada handiz, erantzi zuen berokia. Gainontzeko kamaradak bezala, buzo urdina soinean geratu zen. Ordurako mutu zen apaiza. Zehatz esateko, *vintage* batetik ateratako irrati-kasete hura aldarean ikusi zuenean mututu zen. Eliztarrak urduritzen hasi ziren. Josebak, patxada galdu gabe, xingola beltzez burua inguratu eta atzean lotzeari ekin zion. Keinu soil hau izan zen, ziurrenik, eliztarrak gehien ikaratu zituena. Gehienak paralizatuta utzi zituen, erreakzio gaitasuna erabat ezabatuta. Play sakatu zuen irrati-kasetean. *Salve Regina*-ren lehen notak entzun ziren. La Pollaren bertsioan. Kamarada Morea aurrean zela, formazioan egin zuten aurrera lau ekintzaileek elizaren erditik, Kamarada Fuksiaren poltsan eramandako fusil itxurako arma luzeak bizkarrean. Formazioan, baina doinuarekin bat zetorren dantza soil bat dantzatuz. Aldare aurrera iritsi zenean, bertikaletik horizontalera igaro zen formazioa airoski.

– Kamaradak! Teeente! –oihu egin zuen mikrofonotik Kamarada Beltzak–. Apuuuunta! Tiro!

Jaurtigai batek paparrean eman zion apaizari. Gorritu zitzaion meza-jantzi zuria. Beste jaurtigaiak aldare atzeko erretaula barroko-rococoan galdu ziren. Lehenengo garrasiak entzun ziren elizan. Paralisia bat-

batean desagertu eta mugitzen hasi ziren. Ordenarik gabeko mugimenduak, tentsioari irtenbidea emateko-ak. Dardarak, aitarenak, pauso bi hara eta bat hona. Bakarren batek apaizarengana hurbiltzeko imintzioa egin zuen. Bazen sakelako telefonoa atera zuenik ere. Pentsatzekoa da hauetariko norbaitek 112ra deituko zuela. Kamarada Beltzak irrati-kasetearen bolumena goraino igo zuen. Formazioak, berriro bertikala osatu-ta, ate nagusirantz egin zuen. Irten baino lehen, buru-ko xingolak kendu eta jakak jantzi zituzten. Behin ka-lean, metrorako bidea hartu zuten denek, bakoitzak bere aldetik. Josebak azken begirada egin zion elizako ateari. Ez zen eliztar bat ere irten.

Zazpietan mahai borobil txiki baten inguruan jesa-rri ziren Odile Mores eta Sophie Clement. Antigoaleko ispilu handi bat zuten atzean, halako moldez non hiz-lariei begira jarri ziren ia guztien isla hartzen baitzuen. Publikoak osatzen zuen multzoan ez zegoen ilararik, lerrorik ikustea ere zaila zen. Edonola ere hizlariei be-gira zeuden. Jendeak aulkiak okupatu zituen, batzuek, hobeto ikusteko edo entzuteko, egoki iruditu zitzaien lekura eramanez. Mostradorean gizon bat baino ez

zen geratu. Ardo kopa eskuan, mostradoretik jarraitu zituen jardunaldi guztiak, hiru egunetan. Odile Mores hitz egiten hastera zihoala sartu zen Zuazo, inork ez ezagutzeko molde hartan. Atzean eseri zen, ispiluak hartzen zuen eremutik kanpo. Ondoan, hobeto esanda hurbilen, emakume bat zeukan, premiarik gabe, ez baitzuen inolako trabarik egiten, behean utzia zeukan poltsa altzora eraman zuena. Beste testuinguru batean, esate baterako Zuazo nabarmen herren ez balebil, lapurtuko zion susmoak eragindako mugimendutzat hartuko zena. Hogeita hamaika lagun zeuden publikoan, Aretxabaletak egindako zenbaketaren arabera. Denak han-hemen jesarrita, lehen aipatutako mostradoreko gizon-esfingea izan ezik. Aurrean Aretxabaleta, Kattalin eta Roman zeuden, hizlariengandik hiru metrora-edo. Lizaso, Agustin Abaroa eta Aitor Kondia multzoaren erdi inguruan kokatu ziren. Jardunaldietan Aretxabaletak egindako landa-lanak jasotzen zuen lehenengo egunean hogeita hamar urtetik beherako bi pertsona (biak neskak eta bat koaderno batean idatzi eta idatzi), hogeita hamar eta berrogei arteko bost eta gainontzekoak berrogeitik gorakoak zirela. Hurrengo egunetan adin piramidea ez zen asko aldatu.

– Duela hilabete batzuk taberna batean bost lagun elkartu ginen –hitz hauekin eman zion hasiera topaketari Odile Moresek–. Kasualitateak elkartu gintuen. Ez genuen aurretiaz bostok elkar ezagutzen. Tabernetan gertatzen diren enkontru horiek, badakizue. Kontua da, lagunetako batek kontatutako aspaldiko gertaera batek egokitasunaz eta desegokitasunaz eztabaidatzera eraman gintuela. Eztabaida harekin jarraitzeko gaude hemen. Ez gara, elkartekoez ari naiz, denok ezertan ados jarri.

Xopénen San Nikolaseko ekintza kontatuz jarraitu zuen. Eta bikain egin zuen gainera. Dena esatera, amaierako zatia ez zioten bertaratutako guztiek oso ondo entzun, hain zen handia kanpotik zetorren sirena hotsa. Unetxo batez, ertzain eta anbulantziak Erriberatik igarotzean, Odile Moresek eten egin zuen bere kontaketa. Sirena hotsa urruntzen hasi zenean ekin zion berriro. Romanek baino ez zuen jarraitu 112aren sinfonia. Bera izan ezik, jendea hizlariari adi zegoen berriro. Publikoaren irriak hauspoa eman zion pare bat aldiz. Elkartekoak harrituta zeuden, Kattalin gehien, inork ez baitzekien Odile Moresen kontalari dohainak orduan erakutsi zueneraino iristen zirenik. Irratian zebilenean, esate baterako, ez zen sekula mikro aurrean

aritu, hizlari senik ez omen zeukalako. Hori esaten zuen berak. Peter Zuazok bere inkognito lana ahaztu zuen ia-ia, halako moldez non, kontakizunak aurrera egin ahala, erekzio airos bat izan zuen. Mostradorean ukalondoa bermatuta zeukan Esfingearen (ikusiko den legez, merezi du letra larriz jartzea) mugimendu ez-deus batek, ukalondoa mostradoretik kendu eta ardo zurrutada bat hartu zuen, Peter Zuazoren arreta era-karri zuen, gizona txikiagoa izan balitz gertatuko ez zena hainbatetan. Horrek aldendu zuen Peter Zuazo hizlariaren xarmatik.

Lehenengo eguneko onena Odile Moresen hitzal-dia izan zen. Sophie Clementena, nahiz eta gertaera edo istorio bitxiren bat tartekatu, literaturara edo zi-nera joan-etorriren bat eginagatik ere, didaktikoa izan zen. Horixe adierazi zuen Josebak, zeina doi-doi iritsi zen frantziarraren hitzaldia entzuteko. Metro geltokian osteratxo bat eginda, berehala irten zen Muelle 4ra abiatzeko. 112 erreskate komitiba Erriberatik pasa-tzean, bera itsasadarraren beste aldean zegoen jada. Eta, esan bezala, Sophie Clementen hitzaldia entzun ahal izan zuen aretoaren atzeko aldetik. Horixe adie-razi zuen, amaitu ostean, Josebak, Kattalinek eta Are-txabaletak biziki defendatu zuten bitartean. Pancho

Rodriguezek poema batzuk errezitatu zituen bideo-konferentzia bitartez. Jarraian, bertaratuetako batzuek galderak egin zizkieten Odile Moresi eta Sophie Clementi. Bakarren batek iritzia ere eman zuen desegokitasunaren inguruan. Peter Zuazo inoren arretarik bereganatu gabe handik nola irten pentsatzen ari zen lehenengo galdera entzun orduko. Altxatu zenean aterako bidea hartzeko, mostradorean segitzen zuen Esfingeak baino ez zuen burua jiratu. Gainontzekoek Sophie Clementen jarioan zeukaten jarrita arreta osoa. Ondoan izan zuen emakumeak berriro utzi zuen poltsa lurrean.

Etxera heldutakoan bi gauza egin zituen Peter Zuazok. Lehenengoa mozorroa kendu, guztiz ezinezkoa zuen arren. Bigarrena, aurreko egun batean sarean aurkitutako puta bati deitu txanda hartzeko biharamun gaueko hamarretarako. Ilea garbitu zuen. Ez zen bere ohiko ilajea, hura baino dexente luzeagoa baizik, baina, nahiz eta oraindik bizardun izan, bi eskuez sudurretik beherakoa estalita, ispiluaren beste aldean zegoena Peter Zuazo zen. Asko lasaitu zuen honek.

Gehienek, Desegokituen Elkartekoez ari naiz, biharamun goizean izan zuten San Nikolaseko ekintzaren berri. Denek egin zituzten egin beharreko loturak eta, behin hori egin eta gero, batzuk beste batzuk baino gehiago, denak jarri ziren urduri. Probintziako egunkariak lehen orrialdera eraman zuen («Intoleranteek bortizki egin diote eraso Elizari») eta hori nahikoa da gertakaria eguneko agendan sartzeko. Ikus-entzunezkoetan bolo-bolo ibili zen egunean zehar. Kalte materialez gain, kalte pertsonalak ere aipatzen ziren. Apaizak paintballkada bat jaso zuen bularrean eta Basurtuko ospitalera eraman behar izan zuten. Ez zen bakarra izan. Takikardiak eta arnasa hartzeko eragozpenak medio hiru eliztar ere eraman zituzten erietxe berera. Beste hainbat bertan artatu zituzten inguratu ziren anbulantzietan. Gaitzespena izan zen hitz erabiliena. Bilboko gotzainak, alkateak, Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak, Lazaro Deunaren Kofradiak, Bizkai Buru Batzarrak, Alderdi Popularrak eta sozialistak. Zerrenda luzea. Sare sozialetan aipatu zerrendako gaitzespenak tonu gordinagoa hartzen zuen. Baina, horrez gain, ekintza ospatzen zuten mezuak zebiltzan hara eta hona. Horrelakoetan gertatzen den moduan, irudi arras sarkastikoak eta blasfemoak tartean.

Gaitzespen eta gorespen zurrunbiloa biziki areagotu zen biharamunean. Izan ere, kamaradek beste ekintza bat egin zuten. Ez, lehenengoa bezala, topaketen bigarren jardunaldiaren hasiera orduan, goizean baizik. Bederatzietako meza amaitu ostean sartu ziren kamaradak Begoñako basilikan. Eliztar bakan batzuk geratzen ziren bertan, mezari labur edo urri iritzita nonbait. Bezperan bezala jantzita sartu ziren, aurpegia zertxobait mozorrotuago: bizar bat edo beste, pelukaren bat, xehetasun txikiak baina garrantzitsuak. Izan ere, irudizko konstantziarik ez egotea zen San Nikolaseko ekintzaren alde harrigarriena. Hala nabarmendu zuen probintziako egunkariak ere. Gezurra dirudi XXI. mendearen bigarren hamarkadan. Eliztar bakar bat ere ez zen ausartu (kasu batzuetan akordatu) sakelakoa atera eta gaizkileen irudirik hartzera. Kamarada Beltzak, bezperan erabilitako irratikasetea eskuan, ate nagusitik aldarera igotzeko mailetara dauden hogeita hemeretzi pausoak egin zituen. Irrati-kasetea lehenbiziko mailan paratu eta play sakatu zuen. Kalejira baten doinua entzun zen, txistulari banda batek airoski emana. Besoak gurutzatuta eta zangoak zabalik tente jarri zen Kamarada Beltza erdiko pasabideari begira. Biribilketa bat dantzatuz ziho-

azkion gainontzeko kamaradak pasabide nagusitik, bizkarrean kirten luzedun mailuak zituztela. Haietako bi, Fuksia eta Gorria kamaradak uste dut, Begoñako Amaren irudia zegoen lekuraino igo ziren. Ez kosta barik. Behin goian, lehenengo mailukadak moztu zion burua, zeina, lurra hartzerakoan, mila puskatan zabaldu zen aldarearen oinetan. Beste lauzpabost kolpek izena ere birrindu zioten Bizkaiko zaindariari. Kalejira doinuak bazterrak alaitzen jarraitzen zuen. Eta sartu ziren moldean irten ziren kamaradak, doinu hura dantzatuz mailuak bizkarrean hartuta.

Bigarren eguneko jardunaldia Aretxabaletak hasi zuen, Vladimir Axularri utziz ohorezko txanda. Peter Zuazo, bezperan bezala, ekitaldia hasi berritan iritsi eta jesarleku berberean eseri zen. Bezperako emakumearen ondoan, zeinak, Zuazok bere lekua hartu baino lehenagotik zeukan poltsa altzoan. Esfingea mostradorean zegoen ardo kopa eskuan. Lehen hitzak San Nikolaseko eta Begoñako ekintzaileentzat izan zituen.

– Hemen desegokitasunaz esan dena eta esango dena baino askoz argiago mintzatu dira azken ordue-

tan kamarada koloretsu horiek. Gu ustezko adituak, haiek, zalantzarik gabe, arituak.

Aurrean zeukan garagardoz betetako edalontzia altxatu zuen. Atzean zutik zegoen Josebari begira. Esfingeak ere bere ardo kopa altxatu zuen, eskuetan edariren bat zeukaten gehienek egin zuten moduan. Hamabost orduko aldearekin San Nikolasen eta Begoñan gertatutakoak hitzetik hortzera zebiltzan ordurako. Hedabideen jardunak ere izango zuen horretan zerikusirik. Kamaradak nagusitu zen ekintzaileak izendatzeko erabili ziren izen eta adjektibo andanaren artean. Atzerakoienek, beti gaitzespen gogorrena adierazi ondoren, zigorrik gogorrena eskatzen ziharduten. Probintziako egunkariak, hainbat legelari ospetsuren iritziak jaso ondoren, kamaradek talde terrorista bat osatzen zutela ondorioztatzen zuen bi orrialdetako erreportaje juridikoa atera zuen. Pertsona eta ondasunen aurkako atentatuak, bahiketa, erailketa saiakera, arma bilketa eta garraioa. Gaizkileak atxilotu eta justiziaren aurrean jarriko zituela agindu zuen Segurtasun sailburuak. Halaber, antzekorik gerta ez zedin hartuak zituztela neurriak. Bilboko Gotzaindegiak, berehala, berari dagozkion hainbat neurri hartuko zituela iragarri zuen, gisa honetako terroristen helburu izan

zitezkeen elizetan segurtasun kamerak eta desfibrilagailuak paratzea, besteak beste. Iraina kitatzeko meza berezi bat egingo zutela ere eman zuen jakitera. Abenduaren hogeian izango zen Begoñan.

Sophie Clementena baino hobea izan zen Aretxabaletaren hitzaldia. Une batzuetan didaktikoa izanagatik ere, naturalagoa zirudien, nolabait esateko. Ausaz, Frantziatik trenez etorritako emakumea baino gutxiago saiatu zelako naturala izaten. Hura baino hobea bai, baina horixe: hura baino hobea. Sophie Clementek sasoi eta lekuen araberako jende-talde ezberdinetan (geruza, eremu, klase, genero eta antzeko kontzeptuak egoki zehaztuz) zer zen egoki eta zer desegoki argitu ondoren, desegokitasun aurrerakoiaren gorazarre sotila egin zuen, askatasunean aurrera egiteko jarrera desegokien aldeko aldarria. Aretxabaletak ere aipatu zituen klasea eta generoa. Horrez gain, mahaian egoteko modua, futuristen eta infrarrealisten sabotaje batzuk, familia, justizia, museoak, erlijioak eta abar. Aretxabaletak amaitu zuenean, Peter Zuazo zalantzan zegoen idazle gazteari entzuten geratu ala alde egin. Han geratu zen.

Vladimir Axular hizlarien mahaian jesarri zen Odile Moresekin. Honek aurkezpen lanak bete zituen. Ez

zuen titulurik edo kide zen elkarterik aipatu. Bere literatur lana baino ez, ia dena poesia. Gonbita jaso orduko baietza eman zuela esanez hasi zen idazle gaztea. Nahiz eta ez zuen bat ere ulertu jardunaldien gaia. Are gutxiago zergatia. Bere gaztekeriari egotzi zion gonbita onartzean erakutsitako inozotasuna. Izan ere, aitortu zuen egunak aurrera joan ahala eta artean antzik hartu gabe jardunaldien nondik norakoari, Apokalipsiaren Behorren edo futuristen jokabide desegokiak gogoratu zituela eta, horren harira, zalantza egin zuela ez ote zen hobe izango gonbita onartu ez eta ekintza desegoki bat egin jardunaldietan. Zalantza horrekin segitzen zuela mahai hartan eserita. Zalantza xehatzen hasi orduko, eskua altxatu zuen mostradorean zegoen Esfingeak. Ikusita mahaikoek ez ziotela jaramonik egiten, batera eta bestera astindu zuen eskua. Mahaikoek ikusi zutenean, txanda eman ziezaioten itxaron gabe, hitza hartu zuen.

– Zalantzaz ari zarela eta futurismoa aipatu duzula, nik ere badut zalantza bat. Alegia, zure izen hori, Vladimir, Maiakovskiren edo Leninen omenez daramazu? Eskerrik asko.

– ...edo Nabokov edo Putin... –ahots batek atzetik.

– Lehenengo eta behin –ekin zion hizlariak– argitu behar dut ponteko izena dela. Esateko modu bat da, ni ez baininduten bataioaren sakramentuaz zikindu. Gurasoak komunistak dira. Pentsatu beharko da jaio nintzenean oso gora etorri zirela eta ez zutela nire bizitzan, haurtzaroan batik bat, izenak ekar ziezazkidakeen arazoetan erreparatu. Laburbilduz, gurasoek Leninen omenez jarri zidaten. Nik, komenientzien arabera, hau edo beste aipatzen dut. Azkenekoz galdetu zidatenean aitak Vladimir Maslatxenko atezainaren ohoretan jarri zidala erantzun nuen.

– Eta komenientzia horiek eraman zaituzte inoiz Nabokoven omenez jarri zizutela esatera? –galdetu zuen mostradoretik Esfingeak.

– Ez –erantzun zion lehor Vladimir Axularrek.

– Ligatzeko ere ez? –tematu zen Esfingea.

– Ez.

– Nik erabiliko nuke. Azken galdera bat, ondo irizten badiozu.

– Bota –onartu zion idazle gazteak.

– Begiratu batean, 70eko hamarkadan jaio zinela dirudi, hamarkadaren bukaera aldera. Gaur baino desegokiago izango zen orduan Vladimir izena zenbait eremutan. Izenetik beretik hasita, desegokitua zarela

esango zenuke? Eskerrik asko –azken hitza ebakitzearekin batera ardo kopa altxatu zuen hizlariengana zuzenduz topa egiteko moldean. Gustura zirudien Esfingeak.

– Batzuetan.

Vladimir Axularrek ez zuen guztiz hasierako tonua berreskuratu. Hala ere airos atera zen atakatik, batez ere amaieran Xopénen omenez errezitatu zuen poemari esker.

Romani, Begoñako ekintzaren berri izandakoan, nabarmen hazi zitzaion bezperako ekintzak eragindako ezinegona. Topaketaren bigarren saiora joan ala ez joan zalantzan zebilen. Ez zuen joan nahi, jakina. Ziur zen ordurako ertzainek arrastoren bat aurkitu eta norabide egokian zeramatela ikerketa. Ez zuten denbora asko beharko eraso haiek eta Desegokituen Elkartea lotzeko. Muelle 4ra joango ziren seguruenik. Zakurflauta madarikatua! Eta ni hauen artean endredatuta, kauendios! Gainera neuk jarri omen dut helburua. Eta hau guztia zertarako? Kattalinekin larrua jotzeko!? Paranoiaren gurpilean jira eta bira, Ertzaintzaren razzia irudikatzen zuen, Segurtasun sailburua hedabideen

aurrean bere izena ahoskatzen ekintza haien eragile intelektualtzat. Ez zen ezinegona nabaritu zuen bakarra. Neurri batean edo bestean Desegokituen Elkarteko kide guztiek sentitu zuten. Balorazioak balorazio, denak bat zetozen kontu honetan: inork ez zuen nahi kamaraden beste ekintza bat. Beraiek baino ez zekiten ekintza haien sortzailea, kamaraden sortzailea, elkarteko kide bat zela. Hala ere, eta ikusita nola jarri zen giro mediatikoa, edozein momentutan lot zezakeen baten batek Desegokituen Elkartea kamaradekin. Horrela poliziak edukiko zuen non jo.

# Ez dakit zergatik onartu nuen

Ziur zakurflautak eta bere lagunek beste eraso bat egingo zutela topaketaren hirugarren egunean. Hori zeukan buruan Romanek asteazken goizean. Beste biak baino bortitzagoa ziurrenik. Muelle 4ra joanez gero, sarekada batean eror zitekeen. Joan ezik, ostera, kamaradek ordu berean ausaz egingo zuten astakeriaren batean parte hartzeaz akusatuko zuten. Ziur bezperan poliziaren bat izan zela Muelle 4n eta Aretxabaletaren brindisak kamaraden habia han zegoela ziurtatu ziola. Nahikoa froga zen hori elkartekideak, gutxienez, atxilotzeko. Behin horra iritsita, laster jarriko zuten zakurflauta kantuan eta gainontzeko kamaradak harrapatuko zituzten.

Aretxabaleta kezkatuta zegoen, baina ez izuak jota Roman bezala. Arriskua ikusten zuen. Nahikoa zen hedabide batzuek Desegokituen Elkartea eta kamaraden arteko lotura egitea zipaioak elkartearen gainera jauzi egiteko. Momentuz ez zen halakorik ger-

tatu. *Stablishment*-ak buruak eskatzen zituen eta buruak izango zituen. Zenbat eta handiagoa presioa, Poliziak itsu-itsuan kolpatzeko aukerak biderkatu egiten ziren. Bere eskuetan zegoena egin zuen Aretxabaletak. Batetik, astearteko saioa amaitzean, Josebari zorionak eman eta helburu guztiak beteta ikusten zituela adierazi zion. Ez zela beste ekintzaren premiarik. Josebaren erantzunak, irribarre bat, ez zuen lasaitu. Bestetik, asteartean ez zuen jardunaldiaren kronikarik inora bidali. Izan ere, astelehenean lehenengo jardunaldiaren kronika bidali zuen hedabide batzuetara. Hedabide horiek buruak eskatzen ez zituztenak izatea aldeko datu bat zen. Topaketaren oihartzun eskasa, beste bat.

Ildo beretik zebiltzan Odile Moresen eta Kattalinen burutazioak. Edonola ere, ez batak ez besteak ez zieten liskarrean sartzeko aukerei muzin egin. Josebarekin hitz egin beharko dugu, esango zuen Kattalinek. Edo Odile Moresek. Zertarako? Erantzungo zion besteak lehor samar. Gehiegizkoa ere izan da, esango zuen batak. Gehiegizkoa?, erantzungo zion besteak. Eta gehiegi *ere* izan ote zen eztabaidatuko dute. Gehiegi zer den ere bai. Batak, bere argudioak ilustratzeko asmoz, adibideren bat jarriko du, zeinean bes-

tearen hurbilekoren baten, edo zuzenean bestearen, jokabide bat gogoratuko duen. Haserretu egin ziren. Haserre sorra. Hala joan ziren azkeneko jardunaldira.

Peter Zuazori, elkartekoek zuten informazioa ez izan arren, pasatu zitzaion burutik kamaradak eta desegokitasuna lotzen zituen ideia. Hala ere, etorri bezala joan zitzaion. Beste kontu garrantzitsuago batzuek hartzen zioten gogoa.

Teresa zuen izena putak. Berak jarri zion hitzorduaren lekua, Zabalguneko kafetegi batean. Pisu batera joango ziren gero, ez zuen alferrik goi mailako zerbitzua kontratatu. Behin mozorroa kenduta dutxa luze bat hartu zuen. Bizarra egin zuenez, ilea baino ez zitzaion geratzen topaketan infiltratzeko erabili zuen mozorrotik. Desodorantea egin zuen besapeetan eta kolonia tanta batzuk barreiatu zituen ohe gainean janzteko prest zituen arropetan. Praka beix ilunak, alkandora urdina eta jaka urdin iluna. Gainetik beroki grisa jantziko zuen.

Peter Zuazo urduri zegoen. Viagraren aukera ibili zitzaion buruan, baina alboratu egin zuen. Ez zen benda zauria egin aurretik jartzearen aldeko. Profesional batekin etzango zen. Jakingo zuen hark zer egin

garajean hainbeste denbora gordeta egondako gailuarekin. Gordeta, baina motorra sarritan piztuta.

Ez gara hemen hasiko Teresak eta Peter Zuazok osatutako gimnastika xehatzen. Ez gara kontu kuantitatiboetan sartuko: zenbat denboran jardun zuten, horretatik zenbat ekinean eta zenbat errekuperazioan, zenbat bider altxatu zitzaion, zenbat denboran bigundu zitzaion trinkotze bakoitza eta zenbat isuri zuen batak edo besteak. Salerosketa tratua izaki, oheratzeko limurtze ariketaren beharrik ez izanagatik ere, atarikoak bete zituztela esango dugu. Gozotasuna izan zela baieztatuko dugu, bai behintzat bezeroaren bizipenetan. Benetako profesionala. Ez dugu lehenbiziko sarketan Teresak zer lentzeria zeraman soinean eta zein zuen ordurako erantzita zehaztuko, ezta zein izan zen sarbidea ere. Esango duguna da Peter Zuazo hustu ahala bete zela, ase eta bare burutu zuela. Bertan lo seko geratu zela, goizera arte baitzeukan zerbitzua ordainduta. Ohean bakarrik esnatu zela. Zakila xut. Burmuinak bi kontu hauen berri jakin zuen une berean sartu zela Teresa gelan, bere burmuinak Peter Zuazorenarekin batera jaso bailuen informazioa. Hala gertatuko da goi mailako profesionalen artean, pentsatu zuen Peter Zuazok. Presarik gabe hustu eta bi-

gundu zion. Dutxa hartu ostean jantzi eta jakaren barruko poltsikora eraman zuen eskua. Han zegoen ileapaindegirako eta taxirako gordetako dirua. Etxetik irtetean dirua baino ez zuen hartu. Praka poltsikoan Teresari ordaintzekoa eta jakakoan bestea. Pisutik irteterakoan Teresak txarteltxo bat eman zion bere telefono zenbakiarekin, bitartekorik gabeko zerbitzua.

Txartela eskuan egin zuen taxi bidaia ileapaindegiraino. Teresa Torre, konpainia zerbitzuak. Taxitik irten eta lehenengo zakarrontzian bota zuen, bazekien-eta gordez gero hurrengoan telefono hartara deituko zuela.

Peter Zuazo, guztiz Peter Zuazo, irten zen ileapaindegitik. Beste taxi bat hartu eta etxera. Besaulkian jesarri zen. Denbora zeukan iluntzeko hitzaldiari errepasoa emateko Muelle 4ra joan baino lehenago. Urrun sentitzen zuen jardunaldia. Ordu batzuk baino igaro ez ziren arren bezperako jardunalditik, urrun. Urrun desegokituak. Urrun Odile Mores. Lo geratu zen.

Doi-doi izan zuen astia behar bezala prestatzeko. Ia ahaztu ere egin zuen hitzaldiaren orriak jakako poltsikoan sartzea. Zazpiak jotzen ziharduten San Antongo kanpaiek Peter Zuazo Martzanako kaira iritsi zenean. Muelle 4ko atera hurbildu ahala Lizaso, Kondia

eta Abaroa ikusi zituen nasako barandan Erriberako merkatuari begira zigarro erretzen. Ez zen beste inor ageri inguruetan. Zirenak goian egongo ziren. Baldin baziren. Aukeran ez zekien zer zuen nahiago: entzule asko ala gutxi. Jakin gabe zenbat eta nortzuk ziren, elkartekoak han izango zirela pentsatu zuen. Edonola ere, denak bertan izatea baino ziurragotzat jo zuen Esfingea mostradorean bermatuta egotea ordurako. Baita poltsa altzoan hartzen zuen emakumea, agian. Ongi-etorri beroa egin zioten Lizasok eta haren lagunek.

– Hara, gure hizlaria! –egin zion diosala Lizasok lepotik helduta.

– Eman egurra –eskatu zion Agustin Abaroak eskailerak igotzen zituzten bitartean.

– Odola, mesedez –gehitu zuen Kondiak.

Sala aurreko egunetan bezalatsu zegoen. Atean Aretxabaleta eta Odile Mores zituen zain. Lasaitu egin ziren hizlaria ikustean. Denborarik galdu gabe mahaia seinalatu zion keinu batez Aretxabaletak.

– Nahi duzunean, Peter –esan zion Odile Moresek txeratsu.

Esfingearen ondotik pasatu zen. Honek bere buruaren gainetik beste nonbaitera begiratu zuen. Zaz-

piak eta hamabi minutu ziren hizlariaren aulkian jesarri zenean. Aurreko egunetan ondoan izan zuen emakumea, poltsa altzoan zeukan hura, lehenengo lerroan zegoela konturatu zen Peter Zuazo. Beste guztia aurreko egunen antzera ikusi zuen hizlariaren mahaitik. Buruan izan zuen jesarri zen unera arte, baina azken momentuan ahaztu egin zitzaion berandutzeagatik barka eskatzea. Orriak jaka poltsikotik ateratzen ari zela ekin zion mintzatzeari. Azken batean, buruz zekien orri haietan zegoena.

– Ez dakit zergatik onartu nuen jardunaldi hauetan parte hartzea. Are gutxiago zergatik egin zidaten gonbita. Ziurrenik zerrendan aurretik zeudenek ezetza eman zutelako. Ez dakit zergatik etorri zareten zuek, entzuleok. Zerk bultzatu zaituzten hona etortzera. Hori jakiteak beharbada ni neu hemen egotearen arrazoiak ezagutzen lagunduko lidake. Galdetu egin behar nizueke. Agian geroxeago egingo dut, baina, momentuz, ez dut haria galdu nahi.

«Hona etortzeko gonbita jaso nuenean zer sentitu nuen azalduko dizuet. Lehenengo eta behin, poza. Eta honek harritu egin ninduen, izan ere gutxitan sentitzen dudan zerbait baita. Ez dut jendea maite. Mundutik aparte bizi naiz. Hala ere poza sentitu nuen gonbi-

ta jasotzean. Beharbada emailez jaso izanak, eta ez pertsona baten ahotik, ahalbidetu zuen oka egiteko gogoa ez sentitzea eta, honek, aspaldi sentitu gabeko zerbait azaleratzea, alegia, gonbidatua izateak pertsonengan sortu ohi duen poza. Bizi garen artean, mundutik aparte izanagatik, egoak elikatua behar du izan, gutxi eta gutxitan bada ere.

«Erdeinua sentitu nuen gero. Desegokituen Elkartearen kontrako mespretxua. Aurki daiteke harrokeria handiagorik euren buruei izen ustez transgresorea jarri eta horretaz, izen horren gainean, jardunaldi batzuk antolatzea baino? Bai, aurki daitekeela diote zuen aurpegi batzuek, ikusten dudanarengatik. Bada, pentsa ezazue: antolatuko al luke pertsona batek bere buruari buruzko jardunaldi bat? Ez, jakina, nartzisismoaren gailurra bailitzateke. Momentuz behintzat ez dut halakorik ezagutu. Izan, izango da. Hala ere nik ez dut alboratzen berandu baino lehen gertatzea. Ez dut esaten Estatu Batuetan edo Alemanian, ez baititut ezagutzen, hementxe, Euskal Herrian baizik. Gainera, ez da gauza bera pertsona batek edo elkarte batek egitea, hauen artean ohikoa da-eta. Poesia elkarte batek, esaterako Poeta Galduek, poesiari buruzko jardunaldiak, Kardiologia Elkarteak bihotzaren gainean

edo elkarte komunista batek komunismoaren inguruan. Hori guztia onargarria da. Baina, zer da desegokia? Inork ezagutzen al du Desegokituen Elkartea?

«Atzo entzun zen hemen Vladimir Axularrek, gonbitari baietza eman ostean, izan zuen zalantza xaloa: ez ote zen hobe izango gonbitari ezetza eman eta ekintza desegoki bat egin jardunaldietan. Kamaradek jakingo dute zalantza hori nola ebatzi. Bestalde, bat nator berarekin jardunaldien gaia ez ulertzearen aitortzarekin».

Jendea bere aulkietan mugitzen ari zen etengabe, jarrera egokia aurkitu ezinik. Vladimir Axular, esate baterako, xaloa hitza entzutean mugitu zen. Aurreko egunetan poltsa altzoan babesten zuen emakumeak ez zuen jarrera erosoa aurkitzen, halako moldez non inguruan zeuzkanak urduri jartzea lortu zuen, hizlariaren jarioak jar zitzakeena baino askoz gehiago. Jarrera erosoa aurkitu zuen bakarra, mostradorean noski, Esfingea zen. Mugitu ez zen bakarra. Besoa altxatu zuen arte. Besoa altxatu eta inork txanda eman baino lehen hitz egiten hasi zena. Hizlariak arnasa hartzeko egindako geldialditxo batez baliatu zen, etena, ezen azken finean eten egin zuen, zertxobait lausotuz.

– Pare bat zalantza baino ez, ondo baderitzozu. Niri ez zait argi geratu zergatik onartu zenuen gonbita, are gutxiago zeure burua anakoretatzat jotzen duzunean. Ezta ere zergatik den xaloa Vladimir Axularren zalantza eta zuk izandakoa ez. Eskerrik asko.

– Ez dakidala zergatik onartu nuen gonbita hasi naiz esaten. Zu zergatik zatozen jakiteak lagunduko lidake beharbada arrazoia ezagutzen. Hori ere esan dut. Zuk zergatik daramatzazun hiru egunak mostradorean jarrera aldatu gabe jakiteak lagunduko lizukeen bezala jakiten, beharbada, zergatik jarri dudan izenaren ondoan anakoreta.

– Barka, Zuazo jauna –doinu neutroz ari zen Esfingea–, baina zerk bultzatu zintuen zehazki arrazoia ikusten ez zenion topaketa batean parte hartzera? Ulertzen dut edozein gonbiti baietza ematerako unean ez jakitea zergatik ematen den. Hala ere, denbora bat igarota, zirkunstantziak perspektiba batez ikus litezkeenez, iruditzen zait zehaztu daitekeela benetako arrazoia. Eta berriro diot: zeure zu hori anakoreta izanik, handia da zeure zuloa utzi eta jendaurrera ekarri zaituen arrazoiarekiko jakinmina. Eskerrik asko.

– Ez horregatik... –Peter Zuazok etenalditxo bat egin zuen–. Nola deitu behar zaitut?

– Ez didazu inola deitu behar. Konturatuko zinenez, zu mahaian zaude eta zilegi da entzuleek zure izena jakitea. Ni publikoan nago.

– Arrazoi duzu.

– Postas dei nazakezu. Hala deitzen didate –moztu zion, oraingoan aizkorakadaren zehaztasunez, Esfingeak.

Segundo apur batzuetan trumilka zebilzkion buruan Esfingearen hitzek eragindako ideiak. Hitzek, doinuak, egoteko manera hura, harro samarra. Postas deitzen omen zutela. *Postariaren mendekua*-ri erreferentzia egin ziezaiokeen, baita kartutxoen jaurtigaiei. Gainontzean, Esfingea Elkartekoek jarritako asaldatzaile bat izan zitekeen, freelance bat edo elkartekide bat edo bere kasa dabilen frankotiratzaile bat.

– Halaxe deituko dizut orduan. Zuk ere ez diozu galderari erantzun, zergatik daramatzazun hiru egun mostradorean esfinge bat bezala. Pentsatzen dut gerorako utzi duzula. Gerorako utz dezakezun bezala orain egingo dizudan galdera: ez zara, kasualitatez, Desegokituen Elkarteko kidea izango? Edo, kidea ez izan arren, ez zintuen bada hor elkarte horrek jarriko jardunaldi hauek animatzeko?

– Ez galdera biei –lasai antzean Esfingeak–. Ez dut elkarteko kide bakar bat ere ezagutzen. Eta elkartearri berari dagokionez, zuk nik baino lehenago jakin duzu bere berri.

– Edonola ere –erantzun zion Zuazok– antzera samar gaude. Nik elkarteko kide bat baino ez dut ezagutzen. Hori bai, lehendakaria. Eta hona iritsi nahi nuen. Esango dizuet, zuri barne, zein izan zen baietza emateko benetako arrazoia. Izan ere, orri hauetan dago idatzita. Eta horrek lasaitzen nau, ezen, bestela, Postas jaunaren galderari erantzuna lirudike. Neurri batean ekidinezina irudipen hori. Hala ere, mahai honetan geratuko dira orri hauek eta orri hauetan hitz hauek: gonbita emailez jasotakoan eszeptiko nintzen parte hartzeari dagokionez, baina halako izen pretentziosoa zeraman elkarteaz jakinmina piztu zitzaidan. Bi email bidali nituen. Bat gonbita egiten zidan presidentari hitzordu bat eskatuz eta bestea hemen publikoan dagoen lagun bati ea desegokitu hauei buruz zerbait zekien galdetuz. Nire lagunaren eta hark peskizan jarri zituenaren –hauek ere hemen daude– ahaleginek ez zuten fruiturik eman. Presidentarekin maiatzean egon nintzen Purgatorio tabernan. Erabakita neukan ezetza ematea. Ondo neurtu ezin ditudan era-

ginen mende, baietza eman nion. Zalantza izpirik erakutsi gabe. Aitor dut: zeharo limurtuta. Hortaz, Odile Moresekin larrutan egin nahi nuelako nago orain hemen.

Odile Mores izan zen aulkian mugitu ez zen bakarra. Marmarrak eta jendearen mugimenduek saloia bete zuen harrabotsa osatu zuten. Esfingeak, lehen aldiz jardunaldietan, irribarre egin zuen. Adi zegokeen edonor konturatuko zen Postas ez zela irribarre egitera ohituta dagoen gizona. Aurpegia harmonia galdu izan balu bezala geratu zitzaion irribarre harekin. Abaroa eta Kondia, buruak elkarrengana hurbilduz, alaiki mintzo ziren. Lizasok, bekokia zimur, zorrotz begiratzen zion Peter Zuazori, ezkutuan zegoen zerbaiten bila bailebilen. Ez zegoen bere bi lagunen solasari adi. Lehen lerroan jesarrita zegoen emakumeak, aurreko bi egunetan, poltsa altzoan, atzean jesarri zen hark, betertzez begiratzen zien ezkerrean hurrenez hurren zituen Kattalin, Odile Mores, Mario Castet eta ikusi ezin zuen Aretxabaletari. Aurkezle ibili zen Odile Mores baino ez zuen ezagutzen. Aski zuen horrekin. Peter Zuazo, Esfingearen eztenkadak orbainduta, lasai zegoen. Hitzaldiaren hasieran bainoago. Bide onetik zihoala sentitu zuen.

– Ez dut ukatuko bakoitza zergatik etorri den hona argitzea interesgarria denik. Bai mahai honetan jesarri direnak zein hor entzuten zaudetenok. Areago, jardunaldien izenburua baino argigarriago, hau argitzea, desegokia zer den, ezinezkoa delako batik bat. Desegokia zer den argitzeko asmoz jardun omen zuen atzo Aretxabaletak hemen. Aretxabaleta Desegokituen Elkarteko kidea da. Beraz, badaki. Ikasgai magistrala eman zuen. Ez, ostera, herenegun Sophie Clementek bestekoa. Moldeaz ari naiz, magistral izate horretaz, ikasi beharra dutenei zuzendua. Magistrala bezain gogaikarria izan baitzen Clement anderearena. Aspergarria.

Murmurioa. Harrabotsa berriro. Kattalini begiratu zion Odile Moresek. Beste batzuek ere bai. Romanek esate baterako. Erdi aldean zegoen jesarrita eta atze aldea baino ezin zion ikusi. Odile Moresen lekuan egon izan balitz, gorri zegoela ikusiko zukeen, arnasa azkartuta bere baitan norbait azeleratzen balebil bezala. Odile Moresek beste ezagutu izan balu, hitz egiteko zorian zegoela konturatuko zen. Roman ados zegoen Peter Zuazok esandakoarekin. Sophie Clementi entzuten aspertu egin zen, halako moldez non entzuteari utzi baitzion. Irakasle itxurako emakume harekin fan-

tasia irudiak osatzeari ekiteko utzi ere. Hala ere Kattalinen egonezinak erasaten zion barrena. Gustura irekiko ziokeen burua anakoreta hari aulkiarekin. Aretxabaleta jesarlekuan uzkurtuta zegoen. Odile Mores ez zebilen oker Peter Zuazok *aspergarria* ebaki orduko Kattalini begiratu eta hitz egitear zela sumatu zuenean.

– Desegoki jokatzea erabaki duzula ematen du. Makina bat modu izango dira hori gauzatzeko. Zuk baldarrena aukeratu duzu, zu zauden aulkian egon direnak iraintzea. Zoaz pikutara!

Kattalin aulkitik altxa eta kanporantz abiatu zen. Ez zion inori begiratu. Harrabotsa. Beste pare bat emakumek eta mutil gazte batek ere kanporako bidea hartu zuten. Odile Moresek ez zekien zer egin. Umekeria iruditzen zitzaion lagunaren atzetik abiatzea, soberan zegoen menpekotasun ariketa. Beharbada ustezko leialtasun baten pultsioa izango zen. Hitzak dotoretzen hasita, elkartasuna. Baina, elkartasuna, norekiko? Sophie Clementen hitzaldia gogaikarritzat jotzerakoan lehertu zen bere laguna. Ez zuen harekiko elkartasunik sentitzen. Sophie Clement egurtzeak Kattalinengan eragiten zuen minak sentimendu kontrajarriak sortzen zizkion: jelosia eta gozamena aldi berean. Eta

ezin ahaztu Kattalinekin haserre bertaratu zela. Hori gutxi balitz, bera lehendakaria zen. Edozer gertatuta ere ezin zuen itsasontzia utzi.

– Xaloa, gogaikarria, aspergarria kalifikatzaileak erabili ditut. Hitzaldiez ari nintzen. Ez nabil desenkusatzen. Neronek sentitutakoa deskribatzen baizik. Litekeena da aipatutakoa nik baino ez sentitu izana. Ez dut uste. Eta berriro diot bat natorrela Vladimir Axularrekin bi kontutan: ez dut jardunaldi hauen gaia ezta zergatia ulertzen. Alde egin dutenek nahi izango luketen moldean, alegia, beste hizlariekin ados. Baina, zer egin desados ez ezik, erabat kontra zauden baieztapenekin? Bada, orduan, edonork ulertuko du erabili ditudan kalifikatzaileak oso neurtuak direla. Aretxabaletak –eta hau esatean berari begiratu zion, Aretxabaletari– badaki jardunaldi hauen zergatia zein den, badaki zein den gaia. Elkartekoa da. Pentsatzekoa da entzuleek, hemendik irten zirenean, bazekitela zenbateraino ziren desegokituak. Batek baino gehiagok, ez zela behar beste desegokitua ondorioztatuta, nabarmenkeriaren bat egingo zuen gaur hona itzuli baino lehen. Jende ugari ikusten dut hitz egiteko gogoz, baina azken hesia igaro ezinda, baita bakarren bat hizlari honi botilak eta bestelako jaurtigai hiltzaileren bat bo-

tatzeko gogoari eutsi ezinik, sasoi bateko kontzertu punkietan bezala. Has daitezela lehenengoak, hastekotan. Bestela jarraitu egingo dut...

– Ez –moztu zion Aretxabaletak–. Neu hasiko naiz. Jaurtigailu hiltzaileen multzokoa izatea nahi nuke, baina ez dudanez ezer egokirik aurkitzen, hitz egingo dut. Zilegi deritzot erabili dituzun kalifikatzaileak erabiltzeari. Hona hemen horren froga: zure hitzaldiak telezabor generoan erabili ohi den estrategia komunikatiboa gogorarazi dit...

– Ba oraindik ez dut amaitu –doinu eztiz Peter Zuazok.

– ...edukiaz bainoago atentzioa emateaz arduratuta dabilenarena, pertsonengan zauriak egin eta bertan gatza isuriz disfrutatzen duenarena inongo ahalegin intelektuala baztertuz. Funsgabeko probokazioa, bi hitzetan esateko. Desegokitasunaz elkarteak esateko daukana aurreneko egunean eman zuen aditzera gure lehendakariak: *Eremu pribatua gainditzuz jendartearekiko desegokia denaz eztabaidatu plazan. Eltxo txiki batek errinozeroaren larruan bezala ziztada bat eman soziedadearen larruan*. Jendartearekiko desegokia da, beraz, jardunaldien gaia, zuk ondo dakizun bezala. Eskerrik asko.

Aretxabaletak amaitu zuenean hiruzpalau lagunek txaloka eman zioten beren oniritzia.

Peter Zuazo gero eta gusturago zegoen. Han gertatzen ari zenak baieztatu egiten zion misantropiaren aukera. Hori esaten zion bere buruari behintzat. Hauekin baino hobe bakarrik. Beharbada, hau ez zion bere buruari aitortzen, horrexetarako idatzi zuen hitzaldia, azken hogeita hamar urteetan zeraman bizimodua balioesteko. Zer egokiago horretarako inguruko pertsonekiko zubi guztiak leherraraztea baino. Azken finean misantropoak ere beldurra dio porrotari. Aurreko egunetako batean hitzaldiaren garapen ideala imajinatu zuen: berak hitz egin ahala jendeak alde egiten zuen poliki-poliki, aretoa hustu bera bakarrik gelditu arte. Bere erraietako ertzen batetik sortutako aldaera ere bazeukan egoera ideal hark. Denek alde egiten zuten Odile Moresek izan ezik. Jakina, larrutan amaituko zuten gaua. Buruak, ostera, bereak eta bi egin zituen aldaera hori ezabatzeko. Joan zitezela denak. Ez zedila inor geratu. Nahiz eta Kattalinek eta jarraitu zioten bi haiek joaterakoan gauzagarria iruditu zitzaion imajinatutako egoera ezin hobe hura, ingurura begiratuta, Esfingearen eta Aretxabaletaren parte hartzea ikusita, ezinezkotzat jo zuen. Probabilitate gehiago zituen pu-

blikotik jaurtitako botila edo edalontzi batek betondoan jotzeak aretoa jendez husteak baino.

– Hel diezaiogun bada hain argi dagoen gaiari –jarraitu zuen Peter Zuazok mahai gainean zituen orriei begiratu ostean–. Egin dezagun desegokitasunaren topografia. Hemisferioetan iparra eta hegoa nola, egokitasuna eta desegokitasuna hala. Batean uda bestean negua. Baina ez dut metaforan aurrera egingo. Nahikoa izan dugu azken egunetan –esaldi hori Aretxabaletari begira osatu zuen–. Gogoan dut bai, jendartearekiko desegokia aipatu zidala Desegokituen Elkarteko presidentak, gaia azaltzen ahalegindu zenean. Jendartearen geruzak zenbaezinak direnez eta batean egokia dena hurrengoan desegokia denez, nola mugatu gaia? Hau, une honetan hemen gaudenok, jendartea da eta aldi berean jendartearen geruza mehe bat. Bakoitza bere etxera joango garenean, han beste inor badago, beste geruza batean sartuko gara, beste soziedade batean. Geruza guztietan botere harremanak antzeman daitezke. Geruza bat osatzeko baldintza, gutxienez bi pertsonak eremu bera laburregia ez den denbora tarte batean partekatzea dela. Hortaz, etxera joango garenean batzuk ez gara inongo geruzan sartuko, soziedade orotatik kanpo izango

gara. Orduantxe baino ez da desagertuko egoki-desegoki dikotomia, ez baita beste inor egongo norberak egin edo pentsa lezakeena desegokitzat jotzeko. *Besteak* behar dira desegokia existitzeko. Eremu horretan botereak desegokitzat eta egokitzat duena bereganatuko du besteen gehiengoak. Zein eremu da pribatua eta zein publikoa? Hau bereizten saiatzea, desegokia zer den definitzen ahalegintzea bezain antzua da. Beraz, kontu zehatzetara joatea baino ez zaigu geratzen. Horregatik, amaitutzat emanda nire hitzaldiaren parte magistrala, galdera batzuk egin nahi nituzke, atrebentzia ez bada.

Geldialditxo bat egin zuen Lizasoren aurrean zeuden bi lagun altxatu zirela ikustean. Atzean zeuden beste bi ere joan ziren. Peter Zuazok iheslari haiei kanpoko atea zeharkatzeko behar zuten denbora eman zien. Beharbada ez zuten hizlariaren galderarik jaso nahi. Denbora tarte hori batzuentzat besteentzat baino luzeago suertatu zen. Aski zen jendea nola mugitzen zen ikustea. Batzuk albokoarekin hitz egiten, beste batzuk, norekin hitz egin ez zutenak, aulkian jarrera erosoa aurkitzeko zailtasunekin, bakanen batzuk batari eta besteari begira.

Mugitzen ez zen bakarra Esfingea zen. Peter Zuazok erabakita zeukan Esfingea izan zitekeela hitzaldiaren norabidea alde batera edo bestera eramateko pizgarria. Bera izan zezakeen aliatu edo etsai. Esfingeak jar zezakeen jendea hizlariaren alde edo aurka. Helburua ez zen jendea bere alde jartzea. Aldi berean, ez zuen botilakada bat hartu nahi, ezta gutxiagorik ere. Aretoa hustea izango litzateke Peter Zuazoren gogoa asebeteko zukeena. Poliki-poliki hustu; ez denak batera zutitu, honek matxinada kutsua hartuko luke-eta. Denek alde egitea, Odile Moresek izan ezik. Horixe nahiko zukeen sakonean.

– Postas jauna, zuregana zuzentzen naiz hemengo desegokituena izan zaitezkeelakoan. Baita ere sarritan entzuleak gehiago duelako esateko hizlariak baino. Zer da desegokitua? Zergatik etorri zara jardunaldi hauetara hiru egunetan?

– Laudoriotzat hartuko dut hasieran esan duzuna, Zuazo jauna. Nire uste apalean nekez topatuko dugu hemen desegokituren bat. Halakoak ikusi nahi baditugu espetxera edo ospitale psikiatriko batera jo beharko dugu. Nahi beste ñabardura jarri, baina leku horietan aurkituko ditugu. Hortik kanpo, zalantza. Zure bigarren galderari ez noa erantzutera, ez behintzat bere

osotasunean. Gaur hona ekarri nauen arrazoietako bat aipatuko dizut. *Uzkitik isuritakoak* eta *Postariaren mendekua* idatzi zuena ezagutu nahi nuela. Areago, lehen esan dizudan moduan, zure izenaren ondoan *anakoreta* ikusi nuelako, ez baitut sekula, dakidala behintzat, anakoretarik ezagutu. Jakinmin zoologikoa dei diezaiokezu.

– Postas jaunak –ekin zion Peter Zuazok Esfingeak amaitu orduko– desegokituak non aurkitu zehaztera-koan, bere lekuan kokatu du desegokitasuna. Hortik kanpo deus ez. Beraz, jardunaldi hauen gaia absurdoa da. Zoriontasunaren inguruan egiten diren kongre-suak bezala, adibide bat jartzeagatik. Adibide ugarie-na nire ikerketen arabera. Izan ere, badut gai absur-doen inguruan egindako jardunaldi, sinposio eta kon-gresuen zerrenda bat. Neurri batean topaketa honi izena jarri ziotenak barkatzera eraman gaitzakeena. Duela urtebete inguru Zoriontasunari buruzko Nazio-arteko II Kongresua bildu zen Madrilen. Eduardo Pun-set eta Luis Rojas Marcos hizlarien artean. Antolatzai-lea, Zoriontasunaren Coca-Cola Institutua. Ez dago esan beharrik batzuek eta besteek zoriontsu izateko estrategiak eskaini zizkietela bertaratuei. Hemen ere izan dugu desegokia izateko bidea erakutsi duenik. Hi-

labete batzuk baino ez dira Bilbon bertan *Norbere burua maitatu* izeneko jardunaldiak egin direla. Beharbada izango duzue horren berri ze, euskal pentsalari ospetsuenetako batek jardun zuenez, euskal hedabideen jarraipen diskreto bat izan zuen. Eta pentsatu behar da hedabide horien kontsumitzaile zaretela hemen zaudeten gehienak. Euskal pentsalariak bere aforismoen erakustaldia egin zuen, hitzaldiaren berri eman zuten euskal hedabide horiek jasotakoaren arabera. Nor zegoen atzean? Coca-Cola ez, jakina. Euskal hiztunen merkatua txikiegia baitzaio. Batek baino gehiagok pentsa lezakeenaren kontra, Bizkaiko Txakolingileen Elkartea ere ez zegoen kontua finantzatzen. Baina, erakusleiho batean nola, hizlarien mahaian jesarri ziren guztiek zeukaten gauza bat komunean. Autolaguntzatik hasi eta enpresetako giroa hobetzeko zerbitzuetaraino eskaintzen zituzten gabinete, consulting, bulego edo dena delako kideak ziren. Desegokitasunaren aurkako agenteak, ekintzaileak, hitz sinpatikoagoa erabili nahi izanez gero.

– Nik *Postariaren mendekua*-ra itzuli nahi nuke, Zuazo jauna –ekin zion bat-batean lehen bi egunetan atzean eta azken hartan lehen lerroan jesarri zen emakumeak.

Ez zuen, Esfingeak bezala, eskua altxatu hitz egiten hasi aurretik. Ez zen zutitu. Ez zuen zirkinik ere egin. Ahotsa eztia ez zen arren, ezin doinuarengatik gauza bera esan. Ez da erraza ahots, gutxi bada ere, karrankatua eta tonu eztia eskutik ibiltzea. Batzuentzat isiltasuna luzatzen hasia zen. Esfingeak zurrut egin zuen kopak zeukan ardoa amaitu arte. Pozik zirudien. Beste kopa bat ardo eskatu zuen. Peter Zuazo emakumeari begira zegoen, mutu. Hasiera batean emakumearen baitako asmoak deszifratu nahi balitu bezala. Gero, begiak hari zuzenduta egon arren, ez zuen emakume hura ikusten. Ez zeukan ezer zehatzik buruan, ez behintzat hitzetara ekar daitezkeen pentsamendu artikulatuak. *Postariaren mendekua*-ko irudi batzuk zetozkion, lauso eta arras desordenaturik. Testukoak zein testuingurukoak. Esfingearen irribarreak ere bere lekua zuen irudi kaotiko haien artean. Baita Odile Moresekin nahi baino gehiagotan izandako fantasiak. Peter Zuazoren absentzia supituaz jabetuta edo, Esfingeak lagundu egin nahi izan zion hitzaldira itzultzen.

– Oso interesgarria iruditzen zait hor aurreko emakumeak proposatutakoa. *Postariaren mendekua.*

– Zergatik iruditzen zaizu, bada, interesgarria aspaldiko liburu hura? –galdetu zion Peter Zuazok Esfingeari, honi zuzenduta emakumearen asmoa (zein zitekeen jakin gabe, biziki deseroso sentiarazten zuena) saihestuko zuelakoan.

– Ni ez naiz liburuaz ari... – esaten hasi zen emakumea.

– Ezta ni ere –sartu zen Esfingea.

– ...ipuinaz ari naiz –amaitu zuen emakumeak.

– Baita ni ere –amaitu zuen Esfingeak.

– Zer dela-eta?

Berriro ere Esfingeari zuzendu zitzaion Peter Zuazo, emakumearen gainetik mostradorerantz begiratuz.

– Galdera horri, lehenengo, aurrean duzunak erantzun behar liokeela uste dut, berak egin dizu-eta nik baino lehenago.

– Arrazoi duzu –onartu zuen Peter Zuazok, zorroztasunari urduritasunak gaina hartzen ziola–. Zergatik *Postariaren mendekua*?

– Zergatik ez? –hasi zen emakumea.

Baina berehala sartu zen, berriro ere, Esfingea, laguntzeko asmoz agian:

– Jardunaldien gaia absurdoa dela argi geratu ostean, ondo legoke hizlaria bere obraz aritzea, zehatzago publikotik eskatzen zaion obraz.

Emakumea Esfingeari begira jarri zen honek hitz egiten zuen bitartean. Begiradan, beste kontu antzemanezin batzuez gain, ez laguntzeko gehiago esaten ziola zirudien.

Hau interesgarri jarriko da, esan zien Lizasok Kondia eta Abaroari ahapeka. Roman ere iritzi berekoa zen: hau interesgarri jarriko da, pentsatu zuen, ez zekien arren zehatz zer jarriko zen interesgarri. Zekiena zen, une hartantxe konturatu zelako, Kattalinek alde egin arte bere ondoan jesarrita egon zen emakumea egiten zitzaiola interesgarri. Esfingearen azkeneko jardunean burua jiratu zuenetik, zehatz esateko. Jakinmin hori nabarmenago egin zitzaion, Joseba (batek daki nondik nora zebilena) Kattalinek utzitako lekuan jesarri zenean, Odile Mores eta emakumearen artean. Jardunaldietako lehenengo bi egunek eragin zioten asperraldiarengatik batetik eta kamaraden ekintzak bere baitan ernaldutako beldurrarengatik bestetik, zalantzan ibili zen azken ordura arte hirugarren hartara joan ala ez joan. Kattalinenganako interesa erabat galdu zuela gehiegi esatea litzateke. Hala ere, jardu-

naldiak baino lehenagotik alboratuak zituen Kattalinenganako hurbiltze ariketak. Zerbaitek atzera eragiten zion. Norbaitek, hobeto esanda. Odile Mores. Egia da, begiratu batean, Odile Mores Kattalin baino hobeto ahokatzen zela Roman ibiltzen zen lekuetako emakume ereduarekin, Zabalguneko kafetegi batean aurki dezakezun emakume burges batekin. Janzkerarengatik, manerengatik... Orrazkerarengatik ez, ordea. Emakume haien adats luzeetatik urrun zegoen Odile Moresen ile motza. Dena den, gisa hartako giro batean kokatuta ere, Odile Moresek bazuen, ile motzaz harago, berezi egingo zuen zerbait, burges disidente agerrarazten zuen zerbait. Hala ere, Martzanako enkontru hartan Kattalinengana zuzendu zitzaion gogoa. Kontu hauetan ez dago araurik. Peter Zuazo interpelatu zuen emakumea bai, hura biziki egokituko litzateke Zabalguneko kafetegi batean, oso-osorik, orrazkera barne. Muelle 4n, ostera, desegokituago zirudien. Bakarrik joan izanak areagotu egiten zuen sentsazio hura, baita Romanen jakinmina. Horrenbestez, hura amaitutakoan zerbait hartzera gonbidatzea erabaki zuen. Edo amaitu baino lehen, aurrerago Kattalinek bezala, alde egiten badu bere atzean joango naiz, de-

liberatu zuen bere baitan. Hartan horretan, ez zen konturatu Peter Zuazo hitz egiten ari zela.

– Ez dakit zer interes izan lezakeen orain eta hemen duela hogeita bost urte argitaratu zen ipuin batek. Gertatuko zen mundu zabalean kontu interesgarriagorik harrezkero.

– Zalantzarik gabe. Baina zu zaitugu hizlarien mahaian. Beraz, zilegi da zure jardunaz hitz egitea. Ez dut zalantzarik zure jardunean badirela kontu interesgarriagoak ipuin hori baino, baina hemen *Postariaren mendekua* azaldu denez, hitz egin ezazu horretaz. Esate baterako... –Aretxabaleta galdera egitera zihoanean Esfingeak moztu zion edo, nondik begiratzen den, jarraitu egin zuen.

– Autofikzioa da? Autoimitazioa? Autobiografia?

– Ez naiz autozalea –esan zuen Peter Zuazok, gaia norantz eramatea komeni zitzaion erabaki nahian, baina jakitun ez zuela horretarako astirik–. Egia esan, lanak ditut hura gogora ekartzen...

– Lagunduko dizugu! –oihu egin zion lehen lerroko emakumeak, denak ustekabean harrapatuz.

– Laguntza behar dudanean zeuri eskatuko dizut –erantzun zion irribarrez Peter Zuazok–. Mendekua, hori da gai nagusia. Mendekuaren inguruan egiten

dute bira beste gaiek: zapalkuntza, gorrotoa, manipulazioa, bakardadea. Hauetako edozein egon zitekeen erdigunean, ipuinean mendekuak duen lekuan, baina nik mendekua hautatu nuen. Mendekua beti da justiziaren osagai. Batzuetan bakarra. Justizia mendekuaren alaba baita.

– Oso ondo, Zuazo! –Esfingeak berriro zeukan kopa beteta–. Goazen mamira. Zu al zara ipuineko postaria? Izan ere, eta begirune osoz, niri behintzat bost axola justiziaren zuhaitz genealogikoa.

– Ipuina ipuina da. Denek dute errealitatea eta fikzioa, salbuespenik gabe. Ez dago neurgailu homologatu bat bakoitzaren ekarpena neurtzeko, irakurle bakoitzak berea erabili ohi du. Ni postaria nintzen, eta *Postariaren mendekua* idatzi nuenean ikusitakotik abiatu nintzen. Baina paperean idatzitakoa ez da sekula errealitatea, sinesgarria bai, izan daiteke; hala ere fikzioa da.

– Utz dezagun errealitatea eta fikzioaren arteko eztabaida eternala eternitatean lekua egin nahian dabiltzanentzat –esan zuen Esfingeak–. Kontua da ea ipuinean kontatzen diren gertaerak hala gertatu ziren, ea nagusia hain putasemea zen eta ea postariak hor kontatzen den legez hartu zuen mendekua.

Peter Zuazok aurrean jesarrita zituenei begiratu zien, ia banan-banan. Gaztegi albokoarekin hitz egiten ikusi zuen. Izan ere, Romanek galdetu zion ea ditxosozko ipuina ezagutzen zuen. Bera izan zela editorea erantzun zion ezezagun hari. Aski zuen baietz esatea, baina bere itxura eta egoteko moldea hurbila sentitu zuen, han zegoen faunaren artean hurbilena, batek daki zer arrazoik antro hartara eramana. Hotz sentitu zuen Odile Moresen begirada, hieratiko Aretxabaleta. Lizasok, Kondiak eta Abaroak ziruditen ondoen pasatzen ari zirenak.

– Barrenetxea putasemerik handiena zen. Nire mendekua ipuina izan zen. Mendeku ezdeusa inondik ere.

– Esan dizut lagunduko dizudala –eta publikoari begira jarri zen lehen lerroko emakumea, zutitu gabe, gorputza atzerantz jiratuz–. Peter Zuazoren mendekuaz badut berak ahaztu duen zerbait esateko –epaitegietako film amerikarretan entzuten diren diskurtso elokuenteak gogorarazten zidan doinua hartu zuen–. Mendekua ez zuen ipuina idaztearekin amaitu, ezta argitaratzearekin. Etxeko buzoian utzi zion Barrenetxearen emazteari. Ipuineko postariak zuen helburu bertsuarekin. Begoña Urmaletaren papera eman zidan

Peter Zuazok bere obran. Neu naiz Begoña Urmaleta hori.

Marmarra zabaldu zen salan. Gero eta ozenago. Barre algararen bat ere entzun zen harrabots hartan. Inor ez zeukala begira konturatu zen Peter Zuazo. Begirada batera eta bestera ibili ondoren, Barrenetxearen emaztearengana zuzentzen zuen behin eta berriro. Begoña Urmaleta. Odile Moresekin eta Josebarekin hitz egiten ari zen, haserre antzean. Zutik zeuden. Gehienak zeuden zutik. Batzuek mostradorerako bidea hartu zuten, hango anabasak egarritu balitu bezala. Edo ospatzea merezi zuelako. Esaterako, Lizasok, Kondiak eta Abaroak. Idazleak keinu bat egin zion mostradorea seinalatuz, informatiboa zein gonbita izan zitekeena. Han, Esfingea kopa betetzeko eskatzen ari zitzaion zerbitzariari. Gaztegi eta Roman ere zutik zeuden, ekitaldi bat amaitu berritan (amaitu al zen, ordea?) jendea egon ohi den moduan. Gaztegik ez zuen Begoña Urmaletaren berririk, ezta Peter Zuazok liburua eta gutun bat buzoian utzi zizkionik Barrenetxearen emazteari. Ez zion, ordea, horrelakorik aipatu ezagutu berria zuen tipo hari. Autofikzioa eta autoimitazioa bezalako substantiboak, liburua argitaratu zenean, ez zirela literaturan erabiltzen ziotson. Gai-

nontzeko arteetan bezala, gisa hartako izendapenak zerbait berria agertu den ideia sendotzeko hasten direla erabiltzen. Nolanahi ere, Roman Begoña Urmaletari adiago zegoen Gaztegiri baino. Ekitaldiak burutu itxura zuenez, harengana hurbiltzeko modua zeukan buruan. Odile Moresekin eta Josebarekin segitzen zuen solasean. Ez zuen nabarmenkeriarik egingo elkartekide haiengana zuzenduz gero. Barka, lagun batzuk agurtu behar ditut, esan zion Gaztegiri eta lehen lerrorantz abiatu zen.

Peter Zuazo ere une hartantxe konturatu zen ez zuela mahaian ezer egiten. Areago, patetikoa litzateke han jarraitzea publikoaren bizkarrei so.

Peter Zuazo baino pixka bat lehenago iritsi zen Roman helmugara. Doi-doi Odile Moresek aurkezpenak egin zitzan.

– Begoña, hau Roman da, elkartekide bat.

Romanek irribarre amultsua zeraman eta pitin bat areagotu zuen emakumearen izena entzutean. Honek, Romanen irudikoz, begitartea lasaitu zuen istant batez haren izena entzutean, baina lehengora itzuli zitzaion elkartekide entzutean. Trantsizio horretan zapuztu zen aurkezpena behar bezala egiteko aukera. Ez zen kortesiazko musurik izan. Abiapuntu hotza.

Hori pentsatu zuen, bederen, Romanek. Ez dago jakiterik. Une hartan, lehenengoz, gorrotatu egin zuen Odile Mores. Elkartekidearena apropos esan zuela begitandu zitzaion, Begoña Urmaleta Romanengandik urruntzeko asmoz. Agian, pentsatu zuen Romanek, nabarmen erakutsi dut nire xedea honako bidean, Odile Mores ohartu egin da eta eskura zeukan oztopo handiena jarri dit aurrean. Hori ere ez zegoen jakiterik, baina izan zitekeen hala. Ez zuen gehiagorako astirik izan Romanek, Peter Zuazo inguratu baitzitzaien.

Odile Moresek apurtu zuen kolpetik solido bilakatu zen isiltasuna.

– Peter... hemen Roman eta Joseba, elkartekoak.

– Urte askotarako.

Errazena eginda zegoen. Begoña Urmaletari eta Peter Zuazori begiratu zien, hurrenez hurren. Isiltasuna berriro solido.

– Ez dakit zuek aurkezpenik behar duzuen.

– Ez, eskerrik asko –erantzun zion Begoña Urmaletak, mespretxuz begiratu bat egin ondoren Peter Zuazok luzatu zion bostekoari–. Tipo honek aspalditik ezagutzen nau. Duela hogeita bost urte zelatan ibili zitzaidan. Nik gaur ezagutu dut.

– Eta, zer moduz Barrenetxea? –galdetu zion Peter Zuazok.

Begoña Urmaletak, bizitza osoan egindako ariketa bailitzan, grazia eta aisetasun handiz poltsarekin eman zion ahoan. Bigarren kolpean eskubiko masaila eta begia harrapatu zizkion, halako indarrez, non poltsa lurrera erori zitzaion eta barruan zeramatzan gauzak barreiatu ziren inguruan zeudenen oinetan.

– Hau nire partez da, ez Barrenetxearen partez. Badaezpada diotsut.

Makurtu zen emakumea poltsa hartzeko, baina ordurako Romanek ziharduen poltsatik irtendakoak batzen. Telefonoa, ezpainak eta begiak margotzekoak, linterna txiki bat, tablet baten tamainako diru-zorro bat, giltzak (asko). Poltsatik irten bakoak izango ziren beste hainbeste, baita pisuari dagokionez ere. Hori pentsatu zuen Romanek poltsa eskuetan hartu zuenean Begoña Urmaletari emateko, zeinak eskerrak adieraz zitzakeen keinu batekin hartu baitzion. Aterako bidea hartu zuen. Roman haren atzetik abiatu zen, lilura aurpegian.

Peter Zuazo lurrean zetzan, aho ingurua odolduta.

Josebak pozik zirudien batera eta bestera begira, hilgarria izan zitekeen arma besoan zuela kanporantz

zihoan emakumeari, Odile Moresi, eroritako idazle ohiari.

Odile Mores makurtu egin zen eta jaikitzen lagundu zion Peter Zuazori. Zorabio puntu bat zeukan eta bere makila ez zenez zutik irauteko berme, Odile Moresen besoa hartu zuen euskarri. Eskuineko ebakortza kili-kolo zeukan Peter Zuazok.

– Uste dut ez didala erantzun –esan zuen bere onerantz zetorrela.

– Ez –baieztatu zion Odile Moresek paperezko zapi bat ematen zion bitartean aho ingurua garbi zezan.

– Lastima. Barrenetxea zertan den jakin nahi nuke.

– Garrantzia al du horrek?

– Ez, zarata gutxiago dagoen leku batera joaten bagara.

– Orduan ez du garrantzirik.

– Plazera izan da zuek ezagutzea –finitu zuen Peter Zuazok Odile Moresen besoa hartuta, ez bermatuta, kanporako bidea hartzen zuen bitartean.

Gaztegi agurtzera zetorkion, baina ez zion begiratu ere egin.

– Jardunaldiak salbatu dituzu –esan zion Esfingeak aldamenetik pasatzean.

Elkarri bostekoa eman eta Peter Zuazok kanporantz segitu zuen, arreta osoa, betertzez, aurrean zihoan Odile Moresen aldaken kulunkan jarrita.

# Epilogoa

Laster konturatu zen Roman. Kattalinen atzetiko ibilaldiak eta Begoña Urmaletarenganako ahalegin antzua gora behera, haiekin edo beste edozein emakumerekin oheratzeak mesede egingo ziola ahaztu gabe, benetan behar zuena emazte bat zela. Bestela herren ibiliko zen, emazteak utzitako bat gehiago izango zen, eremu batzuetan emazterik gabe bakarrik agertzearen arriskua, beste emazte bat ehizatzeko gauza ez dena, hartutako kolpearen ostean oraindik burua tentetu ez duen gizajoa. Horiek guztiak eta gehiago, ebidentziak ingurukoentzat. Ingurutik baino, bere baitatik sortutako arrazoiak ere bazituen berriro ezkontzeko beharra elikatzen zutenak. Ez zuen bakarrik bizi nahi. Ez zen sekula bakarrik bizi izan. Nahikoa arrazoi da hori bat baino gehiago kitzikatzeko, alegia, behin bizitza berriari ekitera derrigortuta eta norbere burua bakarrik ikusita, arrisku baino gehiago aukera moduan hartzea abagunea. Ez zen Romanen kasua.

Askoz hobe emakume batekin. Batzuetan nekagarri suerta daiteke, suertatzen da, baina, oro har, askoz

hobe emakume batekin. Sexua epe luzerako bermatuta. Izango zen, honetan ere, perspektiba horrek alaituko ez zuen bat baino gehiago. Ez zen Romanen kasua. Inguruan begiratu zuen. Ez zuen denbora askorik behar zeregin horretan. Ez zuen bere emazte izatea merezi zezakeen inor ikusi. Inguruotatik kanpo bilatu beharko zuen. Badira lekuak. Azken Aukera eta antzeko izenez deitzen dituzte batzuek. Joan zen Garcia Riverora, baita Bilbo inguruetako helduentzako beste ehiza eremu batzuetara ere. Zoriak pisu handiegia zuela iritzi zion. Leku horietan. Ez soilik kontakturen baten hastapenean, areago kontaktatuaren profilean.

Zerbait praktikoagoa behar zuen. Harreman agentzia batean eman zuen izena. *Para solteros exigentes* da haien leloa. Telebistan ikaragarrizko publizitate kanpainak egiten dituenetako bat. Fakturazio ona, pentsatu zuen Romanek. Arrakasta maila altua, ondorioztatu zuen. Eta halaxe ezagutu zuen, duela hilabete batzuk, laster bere emaztea izango zena. Lehenengo astea amaitu baino lehen bazekien asmatu zuela. Bere ondoan oso ondo emateaz gain, antzeko gustuak zituzten, etxearen ardura hartuko zuen eta, esan gabe doa, neskame bat kontratatuko dute ordu batzuetarako, garbiketa-eta egiteko. Luciak, honela deitzen baita

aurki Romanen emazte izango dena, ezetz esango dio, orain ez duela lanik eta berak egin dezakeela dena. Romanek ez du gehiegi tematu behar izango bere iritzia nagusitzeko. Besteak beste, dagoeneko baduelako astean hiru egunetan etxea egitera joaten zaion neskamea eta bikoteak Romanen etxean jarriko duelako habia. Zer esanik ez, Romanek nahiago du Luciak ez dezala lanik egin etxetik kanpo. Diru arazorik ez du. Horrela etxeko ardurak hartu besterik ez du izango eta, gainera, menpekoago geratuko da. Azken hau ez dio bere buruari hitz hauekin aitortzen, baina ezta oso ezberdinekin ere.

Luciak ez dauka seme-alabarik. Romanek bila zebilen bikotekideari jarritako baldintzetako bat izan zen. Dibortziatua zen Lucia. Honetaz Romanek ez zuen inolako iragazkirik jarri. Eta jarri zituen batzuk, nola fisikoari hala izaerari lotutakoak. Lehenengoak berehala egikaritzen dira; besteak, ostera, denborak argituko ditu. Denborak, ausaz, gauza bat esango du une batean eta kontrakoa bestean. Senarra eta lana batera galdu zituen Luciak. Normala, kontuan izanda odontologoa zuela senarra eta haren laguntzaile egiten zuela lan. Xehetasun hau, senarraren laguntzaile lan egin zuela alegia, atsegin izan zuen Romanek

lehen unetik. Senarrak utzi zuela jakiteak ere lasaitasuna eman zion. Beste batekin joateko utzi ere. Hobe. Pare-parean zeuden horretan. Pare-parean egotea egoki iruditzen zitzaion kontu bakanetakoa. Oraindik ez daki Luciaren senar ohiak Henao kalean duela kontsulta, Begoña Urmaletarekin eta beste odontologo batekin partekatua. Laster jakingo du.

Emazte ohiarekin dibortzioaren izapideak hilabetean konpondu zituen. Lucia ezagutu baino lehenago. Oraindik burua altxatu ezinik zebilela. Harekin izandako enkontru bakanetan zauriek zabalik eta zornea dariela zirauten. Esan zion ondo zebilela, ez zuela atzera begiratzen, «zu iragana zara» ere bota zion behin. Beste kontu bat da zer adierazten zuen bere aurpegiak. Gorputz osoak. Batzuetan ohiari deitu eta ezkontzera doala esateko bulkada sentitzen du. Konturatzen da patetikoa litzatekeela. Jakingo du noizbait. Horrek ohiari min emango diola amesten du. Baduen arren susmoa bost axola zaiola, are gehiago, lasaitua hartuko duela. Pare-parean egoteak eman lezakeen bakearengatik. Edurnek oraindik ez daki bere senar ohia ezkontzekotan dela. Eta jakingo duenean ziurrenik Romanen susmoa beteko da. Jakiten ez diren kontuen artean, badago zerbait Romanek oraindik ezagu-

tzen ez duena. Emazteak alde egin zionean Mirenekin joan zela pentsatu zuen, emazteak hala adierazi ziolako. Edurnek ere ez zuen ezer egin gauzak argitzeko. Izan ere, gizon batekin joan zen. Gizon batekin zebilen eta harengatik utzi zuen senarra. Baina joan, Mirenen etxera joan zen, beretzako bat aurkitu arte. Maitaleak berarekin bizitzera joatea eskatu zion, baina Edurnek utzi berria zuenaren antzekoa izan zitekeen saltsa batean sartzea alboratu egin zuen banatzea erabaki orduko. Ahal zuenean alokatuko zuen pisu bat, bitartean Mirenekin. Hau guztia ez daki, momentuz, Romanek. Eta jakiten duenean lehenengo pentsatuko duena da, Edurnek eragindako mina handiagotzea zuela helburu argitu ez zionean *Mirenen etxera* zihoala, ez *Mirenekin.* Beharbada ez da oker ibiliko.

Topaketa, Desegokituen Elkartea, zakurflauta eta Aretxabaleta, kamaradak, amesgaizto urrun bat dira gaur egun Romanentzat. Edurnek (beste amesgaizto bat, baina zoritxarrez ez hain urruna) eragindakoa. Badira, hala ere, une batzuk, zeinetan amesgaiztoa errealitate bilakatzen den. Hilean behin gertatzen da, batez beste. Euskal Herrian aski ezaguna den eszenografia militarrari jarraituz, polizia saldoa datorkio gainera basapiztien moldean. Lau kankailuk daramate

ostiaka. Ikusi ahal izan duenarengatik, etxea txikitu diote. Auto baten atzeko aldean botatzen dute luze. Ostia errepasoak ez du etenik. Kamaraden burutzat jotzen dute. Atzean jesartzen diren hiru poliziek bere gainean jartzen dituzte oinak janzten dizkien botatzar haiek. Hor esnatzen da, beti. Izerditan blai eta arnasestuka. Benetan esnatu bitarteko une horretan, hain zuzen, bilakatzen da errealitate amesgaiztoa.

Kamaradek ez dute beste ekintzarik egin. Zelula lotan dago. Hala ere hazia erein zuten edo ereinda zegoena ureztatu. Esan nahi baita, izan zirela hurrengo hilabeteetan gisa hartako ekintzak, xumeagoak gehienak. Hainbat mendi tontorretan gurutzeak birrindu zituzten, elizaren batek edo bestek ere jaso zuen erasoren bat. Begoñan abenduaren hogeian egin zuten irain-orde mezan milaka batzuk fededun bildu ziren. Haien artean Eusko Jaurlaritza, lehendakaria buru, sozialistak deritzotenak, popularrak. Gauzak horrela, Ertzaintzaren eskuhartzea denbora kontua zen.

Ertzaintza, ordea, erabat galduta zebilen. Informazio agenteek gau eta egun ziharduten susmagarri bila. Ez zuten susmagarririk falta, informazio masa itzela zeukaten, jakina baita herri honetan susmagarri zerrenda luzea dela. Baina unibertso zabal hori muga-

tzeko erabili ohi zituzten bideetatik ez ziren inora iristen. Ikerketa zuzentzen zuen komisarioa desesperaturik zegoen. Goitik zetorkion presioa, etengabea izateaz gain, gero eta astunagoa zen. Bazekien denbora ahitzen ari zitzaiola, berandu baino lehen izenen batzuk eman beharko zituela. Behin, informazio zerbitzuetako bere menpeko batek, argienetakotzat zeukatena denek, hipotesi bat garatu zuen: «Jende antolatua da, eliza gorrotatzen duten ezkertiarrak, muturrekoak, ez derrigorrez ezker abertzalekoak, inolaz ere ez ezker abertzaleko tipologia arruntenen multzoren batekoak, ukitu akratadunak, baina eszenografia, batez ere San Nikolasekoa, militarregia anarkisten gusturako, laurogeiko hamarkadako musika, RRV motakoa, badago nolabaiteko lotura sasoi harekin, zeinetan prozesio ateoak eta erlijioaren kontrako beste eraso batzuk ohikoak ziren, gaztetxeetan ibiliak edo dabiltzanak». Molde pausatuan garatu zuen, hemen argudio bat, han metafora bat edo adibide bat. Komisarioak bereak eta bi egin zituen hantxe bertan ostiaka ez hasteko orojakile harekin. Horren ordez, barrenak sosegatuz, berak osatu zuen menpekoaren arrazonamendua. «Beraz, laurogeiko hamarkadako punkien moduan jantzitako berrogeita bost eta berrogeita

hamabost urte bitarteko gizonezkoa. Mekauendios, bihar bertan izen batzuk nahi ditut eta pare bat gaztetxe edo antzeko miatzeko agindu eskaera».

Aginduak nola eman. Hor dago gakoa. Biharamun goizean komisarioak sei susmagarriren izenak zituen. «Egiaztatuko zenuten erasoen unean ez zeudela beste nonbait, ezta?». Baietz erantzun zioten menpekoek. Ez zen fidatzen. Lehen ere egin zituztelako antzeko hanka-sartzeak. Alegia, gertatu dela susmagarriari sekulakoak egotzi eta gero, dozenatik gora lekukok ziurtatzea eurekin zegoela gertaeren unean lekutik urruti. «Eta pentsatu nahi dut miatuko ditugun gaztetxe edo dena delako horietan aurkituko dugula frogarik». Baietz erantzun zioten bere agindupeko agenteek. Baietza aurreko erantzunekoa baino dezente irmoagoa izan zen. Ñabardura horrek areagotu baino ez zuen egin komisarioaren mesfidantza. Baina zeukatenarekin egin behar zuen aurrera. Ezin zuen operazioa atzeratu. Sei gazte atxilotu zituzten. Bilboko gaztetxe bat eta Barakaldoko etxe okupatu bat miatu. Kamaradek erabilitako arropak aurkitu omen zituzten gaztetxean, baita zenbait liburu eta aldizkari antiklerikal. Hori jakinarazi zuten behintzat, ohikoa duten polizianarratiba xarmangarrian. Epaileari bidali beharreko

txostenean, miaketen emaitzez gain, akusatuen ibilerak, atxikimendu ideologikoak eta ekintzak nola gauzatu zituzten kontatzen zen. Komisarioak estoikoen egonarriz entzun zien bere agenteei ikerketaren berri ematen. Miaketetan hartutako dokumentazio idatzia ikusi zuenean, 1992an Zazpi Kaleetako gaztetxea itxi zutenean aurkitutako giza-eskeletoaz gogoratu zen. Hura behintzat han zegoen, ez zuten ertzainek eurek jarri. Operazio hartan parte hartu zuen komisarioak ertzain xehea zela, hasi berria ia-ia. Kamaraden arropak ikustearekin batera burutazio bat izan zuen: ziur ez datozela bat atxilotuen neurriekin. «Mekauendios». Denak begira zituen. «Pentsatu nahi dut arropa eta paper horiek atxilotuen hatz-markez beteta egongo direla». Denek aldendu zuten begirada.

Operazio hura desastre hutsa zela baieztatzeko premiarik izan ez arren, atxilotuak ikustera joan zen. Kristalaz beste aldetik behatu zituen. Haietako bakar bat ere ez zen kamarada. Eskerrak presio mediatikoak buruak eskatzen jarraitzen zuen. Betiko antisistema saldoak egingo zuen protestaren bat, baina epaileak, komisarioa bera bezala goitik zetorkion presioaren aitzakian, barrura sartuko zituen haietako batzuk. Denak bidali zituen barrura, polizia-txostena ontzat

emanez bere osotasunean. Gotzainek, erregimeneko alderdiek, tertulietako kideek... denek txalotu zuten erabakia.

Josebak harrituta jarraitu zuen atxiloketen ingurukoa. Hala ere, harridurak ez zion adimena lausotu, kontrakoa baizik. Kamaradak bildu zituen. Santurtziko antzokian jarri zien hitzordua, izan ere Kamarada Horiak antzerki emanaldia zuen han, atxiloketen aurka eta adierazpen askatasunaren alde Bilbon deitutako manifestazioaren ordu berean. Susmaturik baten batek manifestaziora joatea hobetsi zezakeela, hil ala biziko kontu bat aztertzeko zela adierazi zien. Ez zuen inork hutsik egin. Aho batez onartu zuten Kamarada Beltzaren proposamena. «Zipaioen jokabideak argi erakusten du ez dakitela haizeak nondik jotzen duen ere. Eta hori, beste inork baino lehenago, poliziek eta epaileek eurek dakite. Horrenbestez, atxilotuen askatasuna eskatzeko egingo diren mobilizazioei adi egongo dira. Bertaratzen diren guztien zerrenda egingo dute, bakar bat utzi gabe. Horregatik, kamaradak ez dira inongo bilkuratan agertuko. «Zelula lotan jarri», borobildu zuen Kamarada Fuksiak.

Josebak, kamaraden loa zaintzeaz gain, betikoan jarraitzen du. Ezagunentzat edo ezagunen ezagunen-

tzat lantxoak eginez bizirauten. Batean elektrikari, hurrengoan igeltsero edo iturgin. Ateratzen zaizkion aukerei muzin egin gabe, polibalente. Hilabeteak igaroko dira berriro Desegokituen Elkarteko kideren batekin topo egin arte. Bere irakasle ohiak deituko dio, erosi berri duen apartamentu batean konponketak egiteko. Beterano haiekin izandako esperientzia ona irudituko zaio beharbada, baina, batez ere, nahikoa. Bai zati baterako behintzat.

Kattalin eta Odile Moresena luzapenean zegoen. Biak zeuden horretaz jabetuta. Arazoa da ez zegoela, kirol partiduetan bezala, amaiera emango zion txisturik. Ez da halakorik izaten. Bietako batek utzi behar izaten du zelaia. Amaiera beti da asinkronikoa. Egokiena biek batera «amaitu da, goazen bakoitza geure aldetik» esatea litzateke. Zoritxarrez ezinezkoa da. Era batera edo bestera biek zuten dilema berbera: besteari aurrea hartu eta «tira, amaitu da, ederra izan da, egin dezala bakoitzak bere bidea» esan ala besteak ekimena hartu arte itxaron. Zaila da biktima eta biktimarioaren rolak saihestea. Oso zaila zauriturik gabe amaitzea. Sinkroniara hurbil liteke batak aurrea hartzea erabakiko balu eta besteak abandonatuaren

rola hobetsi. Zauriak ez dira ekidingo, baina bai haien larritasuna murriztu.

Luzapenean izateak ez zuen esan nahi egoera jasanezina zenik. Askotan gertatu ohi da luzapena aurreko denbora guztia baino luzeagoa izatea. Bizi daiteke horrela. Narriadura jasangarri batean. Kanpotik eragiten duen erakarpen-indar bat agertzean, ostera, zailagoa egingo da elkarbizitza. Lehenengo indar horren hartzaile denarentzat eta gero bestearentzat. Narriadura bizkortu egingo da. Hau gertatu zitzaion Odile Moresi. Esan izan baliote urtebete lehenago Peter Zuazo batek erakarriko zuela Kattalin uzterainoko indarrez, barrez lehertuko zen ziurrenik. Horixe gertatu zen, ordea. Email hura, ezkutuan bidalitako hura, zama astunegia osatzeraino iritsiko zen gezur multzoaren lehenengo alea izan zen. Zarata gutxiago zegoen leku batera joateko gonbita onartzea, azkena.

Duela gutxi *Postariaren mendekua* berriro argitaratuko dela entzun dut. Lizasoren lana, pentsatu nuen. Berehala argitu zidaten ezetz, ez zegoela Lizasoren eskua atzean. Areago, inozotzat uzten ninduela hori pentsatze hutsak. Eskua Martin Ziordia delako batena omen da. Edizio gaurkotua. Barrenetxearen zoria jasoko duena aldez edo moldez. Dirudienez Barrene-

txea Leongo herri batera joan zen emaztearekin banatu ostean. Banatu ostean hasitako ibilbide alkoholikoa, behin-behinekoz, amaitutzat emandakoan. Berak eskatu zuen lekualdatzea. Berdin zitzaion nora. La Pola de Gordón herriko postaburua izan zen, ustez istripu batek eraman zuen arte duela hamabost urte. Bere gorpua herritik kilometro gutxira dagoen Barrios de Luna urtegian agertutakoan abiatutako epailearen ikerketak istriputzat jo zuen bederen. Horrela artxibatu zen.

Esfingea, dei diezaiogun Martin Ziordia, izan omen da Barrenetxearen arrastoa miatu duena. Lortutako informazioa, tartean alkoholismoa tratatu zion psikiatra, La Pola de Gordóneko posta bulegoko langile baten lekukotza edo heriotza-ziurtagiria, Peter Zuazoren esku jarri zituen. Hori egitean Peter Zuazo kitzikatzea bazuen helburu, erdietsi zuen. Posta bulegoko gertakarietatik hogeita zortzi urte igaro badira ere (eta hiru gutxiago *Postariaren mendekua* argitaratu zenetik), Zuazok nahiago luke Barrenetxearen heriotza eragin zuena istripua barik hilketa izatea. La Pola de Gordóneko posta langileren batek burututakoa, esate baterako. Bata zein bestea izan, bere mende-

kuak zeharka eragindakoa dela pentsatzeak kontsolatzen du.

Gaur gaurkoz, Peter Zuazok berak baino ez daki zertan geratuko den narrazio berritua. Leundu nahi izango du agian. Edo garraztu. Hori gutxiena da. Zer gehitzen dion da kontua. Berriro Begoña Urmaletaren buzoian utziko ote duen. Utzi zein ez utzi, Barrenetxearen emazte ohiarekiko mendekua izango ote den. Romanek izango ote duen paperik kontakizunean. Odile Moresek, menturaz. Bai, Odile Moresek, baietz egingo nuke.

Behin baino gehiagotan pasatu zait burutik orri hauek Desegokituen Elkarte efimeroan kide izan nituenei erakustea. Horretarako biltzeko dei bat egitea. Baztertu egin dut. Edozertarako deitzea legoke lekuz kanpo. Gainera, zertarako erakutsi kide ohiei? Ezertarako ere ez. Peter Zuazok *Postariaren mendekua*-rekin egin zuen bezala, buzoian utz diezazkieket. Baita Begoña Urmaletari ere eta Gaztegiri eta Edurneri eta Luciari eta Lizasori eta Martin Ziordiari.